


---

---

## Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi  
Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charritton*  
Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lbande*  
Yolanda eta beste euskarazko idazlanak.  
2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi  
Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*  
Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*  
Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*  
Biziaren Hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia*  
Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*  
Zuberoako literaturaz. 2009



*Euskaltzainak* izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia  
Real academia de la lengua vasca  
Académie de la langue basque

Laguntzailea:



**JEAN-LOUIS  
DAVANT**

**ZUBEROAKO LITERATURAZ**

**9**

**JEAN-LOUIS DAVANT**

**ZUBEROAKO  
LITERATURAZ  
ANTOLOGIA LABURRA**



---

---

**EUSKALTZAINAK BILDUMA  
EUSKALTZAINDIA**



JEAN LOUIS DAVANT

Jean Louis Davant Iratzabal 1935eko uztailearen 5ean jaio zen, Zuberoako Urrustoi-Larrabile herrian. Laborantza ikasketak burutu zituen Frantziako Angers hirian: hemeretzi urte zituela sartu zen eta hogeita birekin irten, ingeniari tituluarekin (Ingenieur Agriculteur de l'Ecole Supérieure d'Agriculture d'Angers).

1960an, Hazparneko Laborantza Ikastetxean hasi zen lanean. Bertan ihardun zuen jubilatuta arte. Enbata mugimendu abertzalearen bultzatzaileetarikoa izan zen Davant.

1965eko irailaren 24an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta hamar urte beranduago, hots, 1975eko otsailaren 28an, euskaltzain oso. 1957az geroztik egunkari eta aldizkari askotan argitaratu ditu bere artikuluak, euskaraz zein frantsesez. Horietan jorratu dituen gaiak honako hauexek dira: laborantza, ekonomia, egoera soziala, politika, historia, kultura.

1980an literaturan hasia dugu Davant, bereziki olerkian. Pastoral-antzerki ere ugari idatzi du.

Agerturiko liburuak:

-euskaraz eleberri bat, hiru saio, sei olerki liburu, zazpi «trajería» (pastoral), hamar bat liburuxka, eta Idazlan hautatuak;

-frantsesez, *Histoire du peuple basque*, eta *Le « problème basque » en 20 questions*.





JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL  
ZUBEROAKO LITERATURAZ  
ANTOLOGIA LABURRA

Davant, Jean Louis (1935)

Zuberoako literaturaz. Antologia laburra / Jean-Louis Davant Iratzabal . -- Bilbo :  
Euskaltzaindia, 2008. -- (Euskaltzainak ; 9)  
256 orr.; 24x17 cm. -- (Euskaltzainak; 5)  
ISBN: 978-84-95438-49-2

I. Euskaltzaindia. II. Euskaltzainak (Euskaltzaindia)

© Jean-Louis Davant Iratzabal

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berai transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.  
Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.  
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-49-2  
Lege-gordailua: BI-997-09

JEAN LOUIS DAVANT IRATÇABAL

ZUBEROAKO  
LITERATURAZ  
ANTOLOGIA LABURRA

EUSKALTZAINDIA

BILBO  
2008



# AURKIBIDEA

Bibliografia ..... XI

Irakurleari ..... XV

## XV. MENDEA:

Ahozko literatura zaharra ..... 1

## XVI. MENDEA:

Leizarragaren laguntzaile zuberotarrak ..... 7

Beltran Zalgiz, atsotitz biltzailea eta poeta (?-1627) ..... 8

Joanes Ezponda, frantsesezko poeta (Jean de Sponde) ..... 8

## XVII. MENDEA:

Gabriel Etxart legegizona ..... 11

Oihenart atsotitz biltzailea, poeta, historialaria (1592-1667) 12

Tartas apeza (Sorhoetako) ..... 15

Jakes Belakoa (Jacques de Béla) (1586-1667) ..... 17

Belapeyre mauletar apeza (?-1698) ..... 18

Jakes Maitiako apeza (Jacques de Maytie) ..... 20

## XVIII. MENDEA:

Martin Maister apeza ..... 23

Jusef Egiategi filosofoa ..... 26

Beñat Mardo bertsolaria ..... 30

«Amodiozko baratzetan» ..... 36

Pastorala edo trajeria ..... 38

Belako zalduna, historiazalea (1709-1796) ..... 42

## XIX. MENDEA:

Abbadia aita-semeak ..... 43

Agosti Xaho (Augustin Chaho) ..... 45

Jean-Baptiste Arxu (Archu) (1811-1881) ..... 49



Etxahun-Barkoxe Pierre Topet-Etxahun (1786-1862) . . . .	53
Emmanuel Inchauspe apezka (1815-1902) . . . . .	58
J. D. J. Sallaberry legegizona eta kantore zahar biltzailea (1837-1903) . . . . .	62
Jean Iribarne apezka (1814-1890) . . . . .	63
J. B. Althabe apezka (1843-1911) . . . . .	63
Félix Larrieu bedezia (1863-1941) . . . . .	65
Aña Urruty anderea . . . . .	66
Pastoral idazleak: Aguer, de Maytie, de Menditte . . . . .	67

## XX. MENDEA:

Jean-Baptiste Constantin (1847-1922) . . . . .	75
Albert Constantin (1873-1957) . . . . .	77
Kadet Oxibar (1880-1968) . . . . .	86
<i>Gure Herria</i> aldizkarikoak . . . . .	87
Jean Pierre Oxibar . . . . .	89
Jaureguiberrytarrak . . . . .	91
Madalena edo Madeleine de Jaureguiberry (1884-1977) ..	92
Clement de Jaureguiberry (1895-1965) . . . . .	94
Borthiry Sala, Jean-Baptiste (1889-1974) . . . . .	96
Fabien Hastoy (1879-1950) . . . . .	97
Pierre Lhande (1877-1957) . . . . .	98
Jon Mirande (1925-1972) . . . . .	102
Ligetx (1901-1940) . . . . .	104
Etxahun-Iruri, Pierre Bordazarre (1908-1979) . . . . .	106
Alexis Etchecopar «Attuli» (1924-2005) . . . . .	107
Guillaume Eppherre (1911-1974) . . . . .	110
Grégoire «Ddidue» Eppherre, anai gazteagoa (1929-1974)	128
Mixel Eppherre, anaia gazteena (1932-1999) . . . . .	132
Johañe Eppherre (1931-2004) . . . . .	133
Thomas Uthurry (1920-1997) . . . . .	135
Junes Casenave-Harigile (1924) . . . . .	138

Txomin Peillen (1932) .....	142
Jean-Louis Davant (1935) .....	147
Oraiko pastoral idazleak .....	151
Allande (Arnaud) Aguegaray (1943) .....	152
Jean-Michel Bedaxagar (1953) .....	156
Pierre-Paul Berzaitz (1952) .....	159
Roger Idiart (1931) .....	160
Patrick Queheille (1965) .....	163
Niko Etxart (1953) .....	165
Dominika Recalt (1959) .....	167
Jean-Pierre Behocaray (1940) .....	170
Jean Bordaxar (1958) .....	173
Maite Berrogain (1952), eskontzaz Ithurbide .....	175
Zuberoako antzerki berri kantatua .....	177
Zuberoako antzerki dionisiarra .....	177

#### PROSALARI BERRIAK:

Allande Socarros (1957) .....	185
Jean-Baptiste Coyos (1952) .....	189
Jacques Sarraillet (1959) .....	192
Jüje Etchebarne (1936) .....	193
Kantore hontzaleak .....	195
Burutzeko .....	200

#### HIZTEGI LABURRA .....

#### ERANSKINA

Txomin Peillen: <i>Egiategiren filosofo buskaldunaren ekheia</i> (bigarren liburukia) .....	215
------------------------------------------------------------------------------------------------	-----



## BIBLIOGRAFIA

## A / Lan orokorrak

- AGUERGARAY, Arnaud (Allande): *Cent ans de pastorales en Soule et dans les Prénées, 1901-2000*, Jakintza Elkartea, Ziburu, 2008.
- ALTONAGA, Kepa: Ekaia 18, 2003, 121-137, Albert Constantin: *Zubainen eritarzunaz eta baien arraberrikatziaz*.
- ALTONAGA, Kepa: Mendebalde Kultura Alkartearen aldizkaria, 11, *Mendebaldeak badu ekialdea*, 159-193: *Atharratzeko biltzarrek eta Atharratzeko taldea 14ko gerla atarian*.
- ALTONAGA, Kepa: Ekaia 20, 87-116: Jean Baptiste Althabe jaun erretorearen *Hounkailu berrien enthelegia Ciberouko laborarier*.
- ARXU (ofizialki ARCHU), Jean-Baptiste: *Jean-Baptiste ARXU idazlearen mendeurrena*, EUSKERA XXVI (2. aldia), 1981 (2), gehi (Separata). Hor gainera laburki aipu dira Jüsef Egiategi eta harez geroztiko zuberotar idazleak, oraikokak barne.
- DAVANT, Jean-Louis: *Pastoralaren aldaketaz*, in Antonio Labaien mendeurrena, V. Herri literatura Jardunaldiak: Herri antzerkiak, Tolosa, 1998-XI-13/14, Euskera, 1999, 1 (44. Liburukia), gehi (Separata).
- DAVANT, Jean-Louis: *Zuberoako idazle zenduak*, 2001, Elkarlanean: XX. mendeko idazle zenduez da. *Gure Herria* aldizkaria, Baiona, 1921-39 eta 1950-76.
- JAURGAIN, Jean de: *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule*, in La tradition au Pays Basque (p. 361-409), 1899 – Elkar argitaletxeak berriz agertua 1982an.
- OIHARTZABAL (ofizialki OYHARÇABAL), Beñat: *Zuberoako Herri Teatroa*, in Antropologiaren euskal bilduma (AEB), Haranburu-Editorea, S.A., Donostia, 1985.
- OIHARTZABAL (ofizialki OYHARÇABAL), Beñat: *La pastorale souletine. Edition critique de Charlemagne, Anejos del Seminario de Filología Vasca « Julio de Urquijo »*, XVI Corpus Pastoralium Vasconiacarum, I – Donostia, 1991.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste: *Précis d'histoire de la littérature basque, 1545-1950, Cinq siècles de littérature en euskara*, éditions Izpegi, Baigorri, 1996.
- PEILLEN, Txomin: *Euskal antzerki zaharrenak*, in Euskera XXVI, Bilbao, 1981.
- PEILLEN, Txomin: *Komiko baliapideak Zuberoako berri literaturan*, in Antzerti, Donostia, 1985.
- PEILLEN, Txomin: *Zuberoako itzal-argiak (Eiiskarazko jakilegoak), lehen aldia: XV, XVI, XVII. mente zaharrak*, 1988, Elkar.
- PEILLEN, Txomin: *Bizitzaren komediak Zuberoan*, Euskera 44. Liburukia, 1999 (1), Bilbo, eta Separata.
- SALLABERRY, J. D. J.: *Chants populaires du Pays Basque*, Baiona, 1870 – eta Lacour-Editeur, Nîmes, 1992.
- SÜ AZIA Elkartea, 10 Jean-Baptiste Heugas karrika (Ondarrearen etxean), 64130 Maule-Lextarre. Tel./Fax: (0)5.59.28.05.67. - [www.suazia.com](http://www.suazia.com) – [suazia\(a\)free.fr](mailto:suazia(a)free.fr)
- URKIZU, Patri: *Euskal antzertia*, Antzerti, Donostia, 1985.
- URKIZU, Patri: *Zuberoako irri teatroa*, Astolasterrak, Donostia, GK, 1988.
- URKIZU, Patri: *Zuberoako irri teatroa*, Izpegi argitaletxea, Baigorri, 1988.
- VILLASANTE, Fr. Luis: *Historia de la literatura vasca*, Editorial Arantzazu, 2.a edición revisada y completada, 1979.

## B / Idazleka

ABBADIA: Antoine d'Abbadie

- 1976, Jean-Louis Davant: *Euskaltzaindian sartzeko bitzaldia*, ondoko urtean argitaratua in Euskera XXII (2. Aldia), 1977. Gehi Separata .
- « *Abadia Ürrüstoi* » pastorala: J.L. Davanten idazlana, Durangoko sari berezia, 1986 ; laburpena Xiberoko ikastolek antzeztua 1990ean.
- Congrès International, 1997. Eusko Ikaskuntza, Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia, XIV. Biltzarra.

ALTHABE, Jean-Baptiste: Kepa Altonaga (goian ikus).

ARXU (Archu), Jean Baptiste

- *Bi mihiren gramatika*, J.B. Archu, Baiona, 1851. Hordago, Donostia, 1979.
- *Jean-Baptiste Arxu idazlearen mendeurrena*: Euskera XXVI (2. Aldia), 1981 (2). Separata.
- *Jean Baptiste Archu, La Fontaineren alegia berbeziak*, Klasikoak sailean, 33.

BELAPEYRE, Athanase

- *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*, 1696. Edizio kritikoa J.L. Davantek paratua, Euskaltzaindia, 1983. «Euskararen Lekukoak» bilduman 7.a.

Bereterretxen Kantorea

- « *Bereterretx* » pastorala : Pier-Paul Berçaitzen testua, Ligin antzeztua 2005ean.

CASENAVE HARIGILE, Junes

- *Idazlan bautatuak noizko?*

CONSTANTIN, Albert: Kepa Altonaga (goian ikus).

CONSTANTIN, Jean-Baptiste

- *Jean Baptiste Constantin. Haritçabaletaren bizia. Don Juan eta bere adiskidiak. Eranskina. Patri Urkizuren edizio kritikoa*, 1997, Klasikoak sailean, 79.

DAVANT, Jean-Louis

- *Idazlan bautatuak*, Elkarlanean, 2004.

EGUIATEGUY, Jusef

- *Jusef Egiategi. Leben liburria edo Filosofo Huskaldunaren ekheia* (1785). Txomin Peillenek prestatua, Euskaltzaindia, 1983. «Euskararen Lekukoak» bilduman 6.a.

ETXAHUN-BARKOXE, Pierre Topet-Etxahun. Jean Haritschelharren bi liburu:

- *Le poète souletin Pierre Topet-Etxahun 1786-1862*, *Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXème siècle*, 1969, Baionako Euskal Museoa.
- *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun (texte – traduction – variantes – notes)*, Euskera XIV-XV, 1969-1970.
- Eta gainera «*Etxahun koblakari*» pastorala, Etxahun-Irurik idatzia, Barkoxen lau urtez antzeztua (1953, 1962, 1974 eta 1986), eta beste batez Parisko Euskal Etxean (1967).

ETXAHUN-IRURI, BORDAÇARRE, Pierre:

- *Etxahun-Iruri khantan*, Jakes Larrondo, IPA, Paue, 1977.
- «*Etxahun-Iruri*» pastorala, Roger Idiart, 2001.
- *Pierre Bordazarre Etxahun-Iruri (1908-1979)*, J.L. Davantek, Bidegileak 35, 2004, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren ardurapean.

EZPONDA, Joanes (Jean de Sponde)

Jean-Baptiste Orpustan : *Ezponda (1557-1595) euskal neurbitzetan*, Izpegi (argitaletxean), 1995.

INCHAUSPE (Kalonjea), Emmanuel

- *Manuel Inchauspere menduerrrena*, Atharratze, 2003-IX-25, Euskera 2003 (2), 48. Liburukia (2. Aldia), Separata.
- *Dialogues basques: guipuscoans, biscaiens, labourdins, souletins; (...)*. 1857, Londres – eta Iturriaga, Hordago, Donostia, 1978.

JAUREGUIBERRYTARRAK

- *Basabürria*, Jean de Jaureguierry bedezia, Jakes Sarrailet-ek (frantzesetik) ütülirik, Maiatz, 1996.
- *Madalena Jaureguierry*, Pierre-Paul Berçaitz, Bidegileak 19, 2000.
- «*Madalena de Jaureguierry*» pastorala, P.-P. Berçaitzek idatzia, Eskiulan emana 2000an.
- Eusko Ikaskuntza: *Madeleine de Jaureguierry*, *Omenaldia, Lankidetzan bilduma*, 21. zenbakia, 2001. «Maulen 2000ko uztailearen 22an ospatutako jardunaldiaren hitzaldiak biltzen dira».
- *Zuberoko idazle zenduak*, J.L. Davant, Elkarlanean, 2001 (117-153 or.).

LHANDE, Pierre

- *Dictionnaire basque-français*, Gabriel Beauchesne éditeur, Paris, 1926.
- *Historia de la literatura vasca*, Fr. Luis Villasante, 308-310 or., Editorial Aranzazu, 1979.
- *Gure Herria*, 1976ko 5.a (*Biziaz* J.L. Davantek, *Obraz* P. Lafittek).
- *Euskera* 1994 (2), 477-480.or., bien laburpena J.L. Davantek.
- «*Yolanda*» eleberria, Donostian agertua 1921ean, gipuzkeraz.
- *Pierre Lhande - Yolanda eta beste euskarazko idazlanak - Aintzin solasa, obarrak eta solas-ondoa* – Jon Casenave – *Euskaltzainak bilduma – Euskaltzaindia*, Bilbo, 2007.
- *Aita Lhande, antzerkia*, J.L. Davant, *Euskera* 2008, n° 3.

MARDO, Beñat

«*Herriko semeak*» pastorala, Patrick Queheillek idatzia, Barkoxen antzeztua 1998an. Protagonistak, aldizka: Mardo, Topet-Etxahun eta Uthurburu.

MIRANDE, Jon (Jean)

- Jon Mirande-ren idazlan hautatuak*, Txomin Peillenek bildua, Gero, 1976.
- Gauaz parke batean, ipuin izugarriak*, Txomin Peillen, Gero, 1976; eta Patri Urkizu, Elkar, 1984.
- Haur besotakoa* (nobela), Gabriel Aresti, Lur, 1971 ; eta Hordago, 1983.
- Jon Miranderen gutunak* (1948-1972), Patri Urkizu, Susa.
- Igela* aldizkaria, Hordago, 1979.
- Jon Mirande (1925-1972)*, Bidegileak, 2001. Egilea : Lurdes Otaegi.
- Haren poemez edizio ezberdinak, baina lehena *Orboituz*, Kriselu, 1976, Andolin Eguzkitzak paratua.

OIHENART, Arnaud

- «*Arnaud d'Oihenart, Proverbes et poésies basques (1657-1664)*». Jean-Baptiste Orpustan, Baigorriko Izpegi argitaletxean, 1992. Gure hiru hizkuntza nagusietan, prestatzailearen oharrekin.
- Oihenarten Hiztegia*, J.B. Orpustan, Izpegi, 1993.
- Iker 8, *Oihenarten laugarren menduerrrena*. Euskaltzaindiaren XII. Biltzarreko agiriari eta txostenak. 1994.
- Iker 15, *Arnaud Oihenart. Euskal atsoitzak eta neurtitzak*. Patxi Altunak eta Antonio Mujikak prestatutako liburua. 2003.
- «*Arnaud d'Oihenart*» pastorala, Allande Aguergaray muskildiarrek idatzia, Muskildin antzeztua 1985ean.

OXIBAR, Kadet

*Lehenago Gameraen*, Sü Azia elkarteak berriz argitaratua 1979an eta 2002an.

PEILLEN, Txomin (Dominique)

*Idazlan hautatuak noizko?*

SOCARROS, Allande

*Idazlan hautatuak noizko?*

TARTAS, Juan de

*Ontsa biltzeko bidea*, 1666. Edizio berria Andolin Eguzkitzak prestatua, Jakin, Arantzazu, 1975.

*Arima penitentaren occupatione devotac*, 1672. 1996an berriz argitaratua Mensajero argitaletxean, Bilbon. Edizio kritikoa, Patxi Altunak paratua.

XAHO, Agosti (Augustin Chaho)

Patri Urkizuren hiru lan:

*Agosti Chaboren bizitza eta idazlanak (1811-1958)*, Mikel Zarate Saria 1991. Euskaltzaindia-BBK, 1992.

*Agosti Chabo, Azti-begia eta beste izkribu zenbait*, Klasikoak 64, 1992.

*Agosti Chaboren kantutegia*, Susa, 2006.

Xabier Kaltzakortak kantutegiaren edizio kritiko bat prestatzen du.

Eta bestalde «*Agosti Xabo*» pastorala, J.M. Bedaxagarrek idatzia, Urdiñarben antzeztua 1988an.

## IRAKURLEARI

Euskalkien artean lau dira literaturan aski nasai erabili direnak eta ondorioz euskalki literario bezala ikusi ditugunak: lapurtera, zuberera, gipuzkera, bizkaiera, hastapenen ordenan sailkatuz. Behe nafarreraz berriki arte ez da hainbat idatzi, lapurtera baitzen Elizako hizkuntza, latinarekin batera, Zuberoako mugaraino.

Zuberoako literaturaz jadanik hor daude batetik Txomin Peillenen *Zuberoako itzal argiak* liburua, XV, XVI eta XVII. mendeak aipu dituena, bestetik XX. mendekoez nire *Zuberoako idazle zenduak*. Bien artean hutsune bat badago, XVIII eta XIX. mendeak izkutuan uzten dituena, eta gainera nirean ez dago gaurko idazle bizien aipamenik. Beraz bi leize horiek bete zitzakeen obra orokor bat falta zitzaigun, agerturiko bi liburuen ekarpena bilduz ber denboran.

Holako idazlan baten hazia eman dit 2007ko maiatzaren 26an Bilbon egin nuen hitzaldi batek. Mendebalde Kultura Alkarteak bere XI. Jardunaldiak Zuberoaren ohoretan antolatu zituen 25ean eta 26an, ostirale-larunbatez, hizlari andana bilduz: gehienak zuberotarrak ginen, bizkaitar hirukote indartsu bat lagun: Kepa Altonaga, Jabier Kalzakorta, Joan Mari Torrealdai. Zuberoako literaturaz elestatzea hautatu nuen. Gure mintzaldien testuak Alkarteko 11. zenbakian agertu dira.



Horra hor ene gaiaren lehenbiziko hezurdura: idazle ezagunen biografia eta bibliografia laburrak eta zitazio motzak. Liburu honetan, bizitzen eta idazlanen aipamenak labur uzten ditut, aldiz aipaturiko autoreen idazkiei askoz ere leku gehiago ematen, obra horietako zati argigarrien agertzea baita hain zuzen antologia honen helburua.

Gainera idazleen zerrenda luzatu dut, batetik XI. Jardunaldi horietan Kepa Altonagak egin zituen ekarpenak baliatuz, bereziki «Atharratzeko taldeaz», bestetik Eppherretarrei merezitako eremu bat eskainiz, eta gaurko idazleen testuak ere franko nasai argitaratuz, nireak barne.

Irakurleari zubererazko testu sorta bat ahal bezain mardula zuzenean aurkeztea da liburu honen zergatia, jomuga, interesa. Gainerako guziaz gehiegizko literatura pertsonala litzateke nire parteti: lekuz kanpoko.

Beste aukerarik badut horretarako. Beraz adiskidea, ez dut luzatuko: Zuberoko bortutik jaisten diren ur-xirripa horietarik hurrupa ezazu gustura, gardenak direlako esperantzan.

Haatik bitartean azalpenak zor dizkizut ahoskeraren eta grafiaren arteko harremanez, loturez eta diferentziez. Euskara Batuko grafia hedatu zaigu zubereraz ere, bereziki gazterian, baita mota guzietako teknikolari eta irakasleen artean, Euskaltzaindiak 1978an Bergarako Biltzarrean erabaki zuenaren arabera. Egia erran, 1964tik bide horretan sartua nintzen, Baionako Biltzarraren ondotik, *ia* eta *ua* basa diftongoak *ea* eta *oa* idatziz, alboko euskalkietan bezala. Baina *ü* letraren kasua bazter utzi nuen, ez zitzaidan burutik pasa ere, zinez Amikuzeko eta Zuberoko euskalkien berezitasuna baitzitzaidan. Gero 1980ko hamarkada bukatzera zoala, beste zuberotar euskaltzale zenbait ohar-tu ziren grafia batura pasa behar zela, eta ber urratsean *ü* hori ere normalizatu ziguten : beraz artzainak artaldeko ahari eta marroei jarraiki behar, horiek ez baitziren ohartuak, eta oraino ere hain guti, artzain bat bazutela... Dena dela jo aitzina, hori baita beharrena!

Grafia berri hau logikoa da eta oso erraza, simplea. Haatik puntu batzuetan ahoskeratik baztertzen da. Beraz giltz hauek beharrezkoak dira zuzen ahoskatzeko:

1. - *a* letraren aurretik:
  - *e* letra *i* ahoskatzen da: aterbea, etxea = aterbia, etxia.
  - *o* - *u* - -: osoa, otsoek = osua, otsuek.
  - *ü* - *i* - -: bürüa, züan = büría, zian.
2. - *a* eta *e* letren ondotik:
  - *ü* letra *i* ahoskatzen da: gaüa, iraün, iraültza, leün = gaia, irain (irañ), irailtza, lein (leñ).
3. - Bokalen arteko *r* ezitia ez dugu ahoskatzen, salbuespenez kanpo. Kasu batzuetan beste kontsonante batez ordezkutzen dugu:

- *d*: ahaire, apairu, aire = ahaide, apaidu, aide.
- *b*: arin, berezi: ahin, behezi.
- *l*: bortara, mendira: bortala, mendi(a)la.

4. - *b* letra ez da idazten kontsonanteen ondotik. Haatik Euskaltzaindiak salbuespen bat onartu du bi homonimoren bereizteko: *alba*, versus *ala*. Horrek ate bat ireki behar liguke zuberotarroi beste homonimo bakar batzuekin halaber egiteko. Adibidez hor genituzke *belar* (kopeta) eta *belbar* (belardiko, pentzeko, soroko, zelaiko bedar-belarra). Salbuespen bakar horiek ongi zehaztu behar genituzke zuberotar adituen artean, Euskaltzaindiarekin elkarlanean.

5. - Hasierako *b* idazten eta ahoskatzen da: hobe, hona (ona), hüna (muina), herexa (hatza)... Hortarik asko dugu zubereraz. Baina hitz batzuetan, besteek badutelarik, guk ez dugu: *aize*, *aragi*, *azi* (iz.), *ezür*, *osto*. . . Batzuetan diferentziak baditugu zuberotarron artean ere: Basabürüan *baxeri* dena, *axeri* bilakatzen zaigu Arbailan eta Pettarrean. . .

Grafiatik at, zuberotarron idazkera orokorraz ene ikuspegia irakurleari eman nahi diot. Horretarako hona *Autour du clocher / Zeinützülian* hilabetekarian (2007ko azaroan), *Euskal Herriko Kazeta / Le Journal du Pays Basque* egunkarian (2007-XII-04an) eta *Herria* astekarian (2008-IV-10ean) agerrarazi nuen artikulua.

### **Zuberera klasikoaz**

*Xiberotarrak zinez etxeki gira eüskararen kalitateari. Haatik bi mail badira bizkuntzan, beztimentüan bezala: batetik astegünena, abo-mibizkoa; bestetik igantena, izkiribüzkoa. Idaztean behar den denbora hartzen da hitzen hauitatzeko, algarri ontsa üztartzeko, lekü hoberenetan ezarteko.*

*Abo-mibiz liferentzia txipi elibat badiütügü Xiberoan ere, kartiel batetik besteala, zombait aldiz berri batetik besteala, kasik etxe batetik besteala. Haatik izkiribüz, ez güümüke bolako arterik behar. Gure aitzinekoek zentzü hon hori üken züen: idazle xabarrek xiberotar klasiko bat eman deigüe, balako «züberera batü» bat.*

*Elizari zor deiogü haboroenik: lehenagoko apezek hortü züen. **Belapeyre** lehena izan zen: 1696an agertü züan libürüaz, «züberera batüaren» aita dügü. Bere obran Basabürüa, Arbaila eta Pettarra bildü zütüan: biruen artean, Xiberoko eüskara **bat** moldatü züan erdiko bidetik, xokokeria bereziak bazter ütetz.*

*Ütürri hortarik, xiberotar klasikoaren hur bizia gure gana heltü zen. Ene adinekoek hürrüpatü dügü, etxean bezala elizan: kateximan, kantiketetan, eüskararen aldetiko peredikü ederrretan (meza haatik latiz beitzen).*

*Geroztik maleruski eüskararen ühaitza büriüz piko erori da. Batetik eüskara gütitü da Xi-beroko elizetan; bestetik eüskaltzaleak ez dabilta bainbat ofizioetara. Eta hortik kanpo ere, zübererak lekü güti dü bizi püblikoan.*

*Eüskararen kalitatean beherapen bat ageri da, süstut «züberera batütik» hürrüntze bat, izkiribüz ere. Üdüri zait xokokerietarat lerratzen basi girela, gazte denboran entzün eta iraku-*

*rri nütüan forma klasikoetarik baztertzen. Gaineala «euskara batutik» jesaiten direnak ere ez dira beti xüxen hartzen. Adibidez «beit da» forma Euskaltzaindiak bazter ützi dü builta hon-tan, «beita» (baita) forma etxekiz. Xiberotarrek ez dügü bainbat irakurtzen eüskaraz, eta ho-rrek ogen handia egiten deigü.*

Orain, irakurle adiskidea, pilota zuk eskura daukazu: jokatzea zuri doaki-zu eta dagokizu, ezer galtzeko arriskurik gabe. Beharrena ez ote da ongi jo-lastea eta jokatzea, partida bikaina eginez eta ikusiz, hots bietan, bi aldiz, bi bider gozatuz? Dena zure gain dago, epailearena barne, baina zu inork ez zaitu «jüdikatiüren». Ni aldiz bai, zuk lehenik.

## XV. MENDEA

### Ahozko literatura zaharra

Axularren ganiko beste sei lurralde historikoek bezalaxe, Zuberoak ahozko literatura zinez aberatsa du aspalditik. Idatziaren aitzineko lekuko ditu bereziki kantu batzuk, dela epikoak, dela maitasunezkoak. Hemengo lehena eta sonatuena, Bereterretxen Kantore tragikoa dugu. Iparraldean euskaldun askok uste du euskal kantu zaharrena dela. Guk ordea badakigu ez dela egia, zaharragorik andana baitago hegoaldean, hala nola Alos Torrea eta Beotibarkoa. Dena dela, aipamen berezia merezi eta hartze du Bereterretxen horrek.

#### Kantu epikoa

*Bereterretxen Kantorea* zubereraz ezagutzen dugun zaharrena eta sonatuena da. Mendez mende ahoz korritu zen XIX.eraingo, eta hor bildu zuen J.D.J. Sallaberry mauletar notarioak: bere «*Chants populaires du Pays Basque*» liburuan agertu zuen 1870 urtean, eta hau berriz argitaratu du 1992an Nîmes hiriko argitaletxe batek. Kantore horretarik bi «trajeria» edo pastoral sortu dira. Lehena Pierre Bordaçarre «Etxahun-Irurik» idatzia, 1958ko udan eman zuten Maulen eta Ligin. Bigarrena, Pierre-Paul Berçaitz kantari ezagunaren lumatik, 2005ean Ligi-Atherein antzestu ziguten herri horretakoek, Lexantzü eta Etxebarreko zenbaitekin. Kantu zahar hori XV. mende erditsukoa litzateke, hor agitu baitzitateen kontatzen duen gertakizun larria. Larraine herriko Bereterretx nekazari gaztea Mauleko jaun kondearen gizonak etxean hartu zuten, Maulerantz eroan, eta Etxebar herriko Ezpeldoï etxe aurrean hilik utzi. Horren oroigarri dago lauburu bat bertako bide bazterrean. Kantoreak dioskunez, Bazko gauerdi ondoa da. Jendea lotan. Zarata zerbait entzunik antza denez, etxeko jaun gazteak ohetik neskameari dei egiten dio eta honela agintzen: «Abil eta so egin ezan gizonik denez ageri». «Neskatoak berehala, ikusi züan bezala, hiru dozena bazabiltzala leihö batetik besteala».

«Bereterretxek leihoti(k) jaun konteari goraintzi...». Horrek honela erantzuten dio: «Bereterretx, aigü bortala (ator atera), ützüliren hiz berehala». Gizon gaztea mesfidatzen da, haatik ez bide du hautu handirik. Aterako da, behar bezala jantzirik: «Ama indazüt (emazüt) atorra, mentüräz sekülakoa».

Ama, Marisantz, lasterka doa Lakarri herriko Buztanobi etxera, hango anaia gazteari laguntza eskatzera. Baina horrek ezin du lagundu. Marisantz Bosmendietan behera jin baita Buztanobira, hortik agerian dago Larrainetik

etorri dela, han dagoen Bereterretxetik, bien artean baitago Bosmendieta ton-tor katea bere bospasei titiekin. Kantoreak Bereterretxen herririk ez du aipatzen, haatik Andozeko ibarrak mintzo zaigu, eta hori ere Larraineko bidean dago soilik, ez digu zalantzarik uzten. Beraz Marisantz Maulera doa, «Jaun kontearen bortala», eta honek errukirik gabeko ahapaldi hau botatzen dio: «Ezpeldoï altean dün hilik, Abil eraikan bizirik!». Ezpeldoipeko lauburuak erakusten digu Bereterretx nola hil zuten: bi uztai edo arkuren geziez. Ihes egitera saiaturik ote? Bestela zergatik hor? Lehenago hil zezaketen, edo geroago... Haatik arrazoi berezi bat eduki zezaketen hor egiteko, bide gurutze batean baitago. Baina nola jakin? Bakoitzak berea bila dezake. Kantoreak Margarita bat aipatzen du, Ezpeldoïko alaba. Hortik maitasun istorio bat asmatu du populuak, beti bezala. Mauleko jaun kondeak Bereterretx bekaizkeriaz hilarazi luke, biek Margarita maite zutelakoan. Haatik ez dago argi zertako Margarita «Bereterretxen odolatarik ahurka biltzen ari» den: maitasunez ote? Ala hilketaren aztarnak ezabatu nahiz? Eta zergatik Ezpeldoïko «bukata» Bereterretxen atorrean hain aberats da, horietarik «hiru dozena» omen baitaizka? Dotetzat ote, ala ez ikusiaren sari? Jean de Jaurgain, Ozaze Jaurgainean sorturiko historiazaleak (1842-1920) pentsatzen du Bereterretx politikaz hil zutela, gerla zibila baitzabilan orduan Agaramontarren eta Beaumontarren artean. Bereterretx Agaramonten alderdikoa zaitekeen. Leringo jaun kondea berriz, Louis de Beaumont nafarra, Mauleko kapitain-gazteluzaina, Zuberoako gobernaria Akitaniako duke ingelesaren izenean, Lüküztarren aitzindaria. 1449an Zuberoako agintea galdu zuen, urte horretan Frantziako erregearen armadak Maule harturik. Lehentxeago gertatua litzateke Bereterretxen Kantoreak aipu duen gertakizun latza.

### Bereterretxen kantorea (1)

Haltzak ez dü bihotzik  
 Ez gaztanberak ezürrik  
 Ez nüan uste erraiten züela aitonen seme(*e*)k gezürrik.

Andozeko ibarra  
 Ala ibar lüzea!  
 Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Bereterretxek oheti(k)  
 Neskatoari ezteki  
 Abil eta so (*e*)ginezan gizonik denez ageri. (2)

Neskatoak ber(*e*)hala  
 Ikusi züan bezala  
 Hirur dozena bazabiltzala leiho batetik besteala (*bestila*) (3).

Bereteretxek leihoti(*k*)  
 Jaun konteari goraintzi  
 Ehün behi bazereitzola bere(*n*) zezena ondoti(*k*).

Jaun konteak ber(*e*)hala  
 Traidore batek bezala  
 Ber(*e*)terretx aigü bortala, ütüliren hiz ber(*e*)hala.

Ama indazüt atorra  
 Mentüraz sekülakoa  
 Bizi denak orik ükenen dü Bazko gaiüerdi ondoa. (4) (5)

Marisantzen lasterra  
 Bostmendietan behera  
 Lakarri Bützanobian sartü da bi belaünak (*belhaiñak*) herresta.

Bützanobi gaztea  
 Ene anaie maitea  
 Hitzaz honik ez balinbada, ene semea joan da.

Arreba ago isilik  
 Ez otoi egin nigarrrik  
 Hire semea bizi balinbada, mentüraz Mauleala da.

Marisantzen lasterra  
 Jaun kontearen bortala  
 Ai ei eta Jauna, non düzüe ene seme galanta?

Hik bahiena semerik  
 Ber(*e*)terretxex besterik?  
 Ezpeldoï altean dün hilik, abil eraikan bizirik.

Ezpeldoïko jenteak  
 Ala sendimentü gabeak  
 Hila hain hüllan üken eta, deüsere ez zakienak.

Ezpeldoïko alaba  
 Margarita deitzen da  
 Ber(*e*)terretxen odoletarik (6) ahürka(*z*) biltzen ari da.

Ezpeldoïko bukata  
 Ala bukata ederra!  
 Ber(*e*)terretxen atorretarik hirur dozena ümen da.

- (1) Etxea: Ber(e)terretxea (a). Jabea: Ber(e)terretx.
- (2) Gaztetan ikasia eta geroztik maiz entzuna. Bizkitartean Sallaberryk, Jaurgainek eta Berzaitzen pastoralak: «ageri denez gizonik».
- (3) Sallaberryk eta Jaurgainek: «bestera», Berzaitzek: «bestila».
- (4) Gaztean ikasia eta geroztik hein bat entzuna. Bizkitartean Sallaberryk, Jaurgainek eta Berzaitzek: «Bazko biharamena», besteak duen errima gabe.
- (5) Hemen Berzaitzen pastoralak beste bi bertset agertzen ditu:  
 Heltü nintzan Ligira  
 Boneta erori lürrila (*lürreala*)  
 Boneta erori lürrila eta eskürik ezin behera. (*lürreera eska lezake goian*).
- Heltü nintzan Ezpeldoira  
 Han haritx bati esteki  
 Haritx bati esteki eta bizia zeitan idoki.
- (6) Gaztaroan ikasia eta geroztik usu entzuna, agian metrikaren ondorioz. Sallaberryk, Jaurgainek eta Berzaitzek: «odoletik».

### Maitasunezko eresi zaharrak

Amodiozko kantu zahar andana bat badago Zuberoako altxorreatan. Gutiz gehienak Bereterretxen Kantoreaz geroztikoak lirateke antza denez. Baina zenbait garaikideak izatea baliteke, bereziki Txomin Peillenek eginiko azterketen eta konparaketen arabera. Batzuen eta besteen aipamen zehatza egiten du «Zuberoako Itzal-Argiak» liburuan, etsenplutzat hartuz Ahetzeko anderea, Ürrütiako anderea, Ürrütiako jauna, Maiteak biloa holli, Zuberoako albadak (Parise (y) eta Baiona), Atharratze jauregiko anderea (1585. urte irian)... Sail horretan ez naiz luzatuko Txominek eginiko lana errepikatuz: onena zuzenean horren liburura joatea da. Ikus bestalde Jaurgainen idazlan bat gai horrez: *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule*. Etsenplu bakar bat emanen dut: *Atharratze jauregiko anderea*, beste izenez *Ozaze Jaurgainean* deitua, horko alaba baitu aipu, baina egia da hau Atharratzeko Lüküz jaunarekin ezkondu zela edo zutela gazterik, Jaurgainek agertzen duen bezala, baita Berzaitzek «Atharratze Jauregian» delako pastoralean (1997an Atharratzen antzestu zen).

#### Ozaze Jaurgainean

Ozaze Jaurgainean bi zitru doratü  
 Atharratzeko jaunak bata dü galtatü  
 Üken dü arrapostü ez direla hontü  
 Hontürik direnean batto ükenen dü.

Portaleala joan zite ahizpa maitea  
 Engoitik horra düzü Atharratzeko jauna  
 Otoï erranizozü ni eri nizala  
 Zazpi egün hoietan (*hauetan*)ohean nizala.

Bai bena ez nükezü hortan sinetsia  
 Hari erraiten bad<sup>(ei)</sup>ot zü eri zirela  
 Zazpi egün hoietan (*hauetan*) ohean zirela  
 Bera nahi dükezü jin zü ziren leküala (*lekbiala*).

Ahizpa jauntsezazü arropa xuria  
 Nik ere jauntsiren dit ene zaia berdea  
 Engoiti horra düzü zure senargeia  
 Botzik kita ezazü zure sortetxea.

Klara zoaza orai salako leihora  
 Iparra ala hegoa denez jakitera  
 Iparra balinbada goraintzi Salari  
 Ene korpitzaren txerka(ra) jin dadila sarri.

Ama joanen gira oro alkarreki  
 Etxerat jinen zira xangri handireki  
 Bihotza kargatürrik, begiak bustirik  
 Eta zure alaba tonban ehortzirik.

Ozazeko zeinüak dü arrapikatzen  
 Jaurgainek(o) anderea herritik partitzen  
 Haren peko zaldia ürrez da zelatzen  
 Hanko ttipi-handiak beltzez dira beztitzen.

Atharratzeko hiria, hiri ordoki  
 Hur handi bat badizü alde bateti<sup>(k)</sup>  
 Errege bidea erdi erditi<sup>(k)</sup>  
 Maria Maidalena beste aldeti<sup>(k)</sup>.

Ama saldü naizü biga bat bezala  
 Bai eta desterratü oi Espainialat  
 Aita bizi üken banü ama zü bezala  
 Ez nüdüzün ezkontüren Atharratze Salala.

Kantu hau Francisque Michelek eta J.D.J. Sallaberryk bildua zuten, baina mitoz eta leiendaz kutsatua. Bereziki Hongriako errege bat aipu zuten Ozaze Jaurgaineko alabaren senartzat, eta neska horrez «Santa Klara» egin zuten herriarren ahozko tradizioari fidaturik, arrebaren izena emanez. Ondotik Jaurgainek historian txertatu zuen eta haztaka zuzendu, pastoralak errepikatu duen itxuran. Nahiz 1585 irikoa den, eresi zaharretan sartu dut, Erdi Aroko tradizioan kokatzen delako etenik gabe, kate horretako azken ekoizkintan.





## XVI. MENDEA

Euskal literatura idatzia hor hasten zaigu idazle sonatu batzuekin: Etxepare, Lazarraga, Leizarraga famatuekin. Apalkiago, Zuberoak ere pizkunde horretan parte hartzen du protestanteei esker. Kalbinismoak eragin bat badu gure lurraldean ere, bereziki jauntxo eskolatuen artean, hala nola legegizonen taldean. Aitonon seme txikiak dira, etxe noble baten jabeak bere lur eskasekin. Beren lan naturala, laborantzatik eta gerratetik kanpo, epailegoa da, aldizka eta txandaka Lextarreko zuberotar Gortean erematen dutena, Lextarre delarik Zuberoako hiriburua. Bakarrak Mauleko erret hirian erregeren justiziako alkietara igaten dira. Beste zenbait Nafarroako errege edo erregina subiranoaren zerbitzuko jartzen dira. Horrela sortzen edo garatzen da ofizioko legegizonen noblezia bat, jende xeheak gehiegi maite ez duena. Horien artean heziko da gehien bat Zuberoako kalbinismoa.

Zuberoa «de jure» Frantziako erresuman dago 1449ko konkistaz geroztik. Baina Biarnoren eta bi Nafarroen artean kokaturik dago, inguratua, eta bi lurralde horiek ber subiranoa dute Pauen: une honetan Joana Albrete/Labritekoa, «Naffaroaco Reguina Bearnoco Andre guehien» dena Leizarragaren hitzetan. Kalbinista sutua da, eta erlijio berria bere bi jaurrerietan inposatu nahi du. Arrakasta guti du Zuberoan eta Nafarroa Beherean. Jaun euskaldunak oldartzen zaizkio, Atharratzeko Lüküz aitzindari. Joanaren armadak ehun bat euskal eliza erretzen ditu, haietan Urdatz/Santa Grazikoa, baina hau ez da suhoi eta beharrena salbatuko zaio. Herriko basoen zati handi bat kenduko dio, Biarnoko Landa herriari emanaz. Haatik euskaldunoi opari bat ederra emanen digu: Leizarragaren Testamentu Berria.

### Leizarragaren laguntzaile zuberotarrak

Bere itzulpen lanean Leizarragak laguntzaile izan zituen Zuberoako protestant artzain elibat, bera bezalako apez ohiak. Batzuetan Lakarriko Buztanobi aipatzen da, baina segurtamenik ez dago. Seguruago parte hartu zuten ordea Ündüreineko **Landetxeberrik** eta Sarrikotapeko **Tartas** (ala Tartaz?) batek. Leizarragak bere gisako euskara batu bat sortu zuen, lapurteran oinarritua, baina zubererazko hitzak ere sartuz. Eta ondarrean zuberotar hiztegi bat dakar. Txomin Peillenen aipaturiko liburuan aurki daiteke [71.or.].

## Beltran Zalgiz, atsotitz biltzailea eta poeta (? - 1627)

Beltran Zalgiz, Bertrand de Sauguis, noble txiki bat zen, Zalgize Apphathiako jauna, kalbinista, legegizona. Kargu nahiko handiak beteko ditu Maulen, Italiako Piemonten, azkenik Donapaleun, hor baitaude Nafarroako instituzioak, estatuak, gorteak.

Askazia zuen Oihenart katolikoa, eta honek soneto baten bidez diosku poeta handia zela. Soneto hori Oihenarten obretan ikusiko dugu laster. Zoriturrez Zalgiz jaunaren olerkiak galdu dira, agian protestantea zelako erreak. Haatik haren atsotitzak Oihenartek agertuko ditu bere altxorrean.

## Joanes Ezponda, frantsetsezko poeta (Jean de Sponde)

Joanes Ezponda, **Jean de Sponde** mauletarra, orain herriko etxea den horretan jaio zen. Horren arbaso batek XV. mendean eraikia zuen: Ündüreineko Ezponda etxe nobletik zetorren dirudienez. Ondotik Maulekoa «Hôtel de Montreal» bilakatuko zen, gero suprefetura (1800-1926), munduko 2. gerlatik landa eskulan ikastetxe publiko, azkenik beraz udaletxe maila oraiko Ondarearen Etxetik etorri zaio.

Jean/Joanes kalbinista zen, bere aita Eneko (Enecot) bezala, baina semea katoliko egin zen 1593an, Henri III/IV bere nausiaren ondotik, haatik honek baino merezimendu gehiagoz: Joanesek Arroxelako kargu gora galdu zuen, Nafarroako erregeak aldiz Frantziako tronua irabazi...

Ordea Eneko kalbinista egon zen. Denbora batez Joana III Albrete/Labrit erreginaren idazkaria baitzen, horren manuz hemendik protestante «artzaingaiak» Genevera bidaltzen zituen, Calvin handiarekin ikastera.

Horien artean 1600 inguruan, Davant abizeneko zuberotar euskaldun bat agertuko da, Araujuzoneko parrokiak kargatua Biarno hurbilean, Ürrüstoitik berehala. Gero Enekok kargu handi bat ukan zuen Nafarroako Estatuetan, Donapaleun. Hor hilen du 1594an Gaskoiniatik etorritako gerlari katoliko talde batek. Ez ote dugu martiri bat?

XVII. mendean Ariegeko Pamiersen apezpiku dirate bata bestearen ondotik bi Ezpondatar: Henri, Jeanen anaia, eta Jean iloba, biak humanista handiak, gure poeta bezala.

Hau idazle jakintsua zen. Joana III haren manuz, ikasketa zorrotzak egin zituen Biarnoko Laskorren (Lescar), eta gero Suitzako Bale hirian. Teologia, filosofia, grekoa eta latina estudiatu zituen bereziki. Poesiaz beste lanik idatzi zuen: Homero eta Hesiodoren obrak latinez itzuli zituen eta komentatu, Da-

vid erregearen Salmoez ere iruzkin eta komentarioak egin zituen. Haatik olerkian da ezagunenik, poeta bikaina izan baitzen frantsesez, bereziki sonetoan. «Pleiade» taldearen ondotik agertu baitziren barrokoak, horien artean gailendu ziren Agrippa d'Aubigné tragikoa eta beraz Ezponda lirikoa. Haren olerki bat agertzen digu Peillenek, gorago aipatu dudan antologian. Bi euskal itzulpenez laguntzen du, bata bere eskutik, bestea Patri Urkizurena. Geroztik Jean-Baptiste Orpustan irakasle ohiak Ezpondaren olerki guziak agertu ditu euskal itzulpenarekin, hau ere neurtitzetan, behenafar-lapurtera ederrez, liburu elegante batean: «EZPONDA (1557-1595) euskal neurthitzetan».

Lehenik Ezpondak hamalaurkunen edo soneto sorta bat «ondu» zion de l'Estorcart musikari adiskideari (1581-1583). Gero maitasunaz 26 hamalaurkunen idatzirik, Rouen hirian agertuko zizkioten 1597an, eta laster beste kantore zenbait, batak eta besteak bera hil ondoren. Arte horretan Henri Nafarroako erregeari «Poèmes chrétiens» delakoak bidali zizkion, horietan «Stances et Sonnets sur la mort» hunkigarriak (1588). Hona horietako bat, nire zubererazko itzulpenarekin (hau Orpustanek behenafar-lapurteraz eginetik egokitua).

### Stances de la mort

(...)

### Stances de la mort

XII

Tout s'enfle contre moy, tout m'assaut, tout me tente,  
Et le Monde et la Chair, et l'Ange révolté,  
Dont l'onde, dont l'effort, dont le charme inventé  
Et m'abysme, Seigneur, et m'esbranle, et m'enchante.

Quelle nef, quel appuy, quelle oreille dormante,  
Sans péril, sans tomber, et sans estre enchanté,  
Me donras-tu? Ton Temple où vit ta Sainteté  
Ton invincible main et ta voix si constante.

Et quoy? mon Dieu, je sens combattre maintes fois  
Encore avec ton Temple, et ta main, et ta voix,  
Cest Ange révolté, ceste Chair, et ce Monde.

Mais ton Temple pourtant, ta main, ta voix sera  
La nef, l'appuy, l'oreille, où ce charme perdra,  
Où mourra cest effort, où se rompra ceste Onde.

**Herioaz koblak****(...)****Ber geiaz hamalaurkunak****XII**

Oro zaitzat oldartzen, oroz düt egarri  
 Aragia, mündüa, satan aingürüa  
 Haien ühin azkarra, eder asmatüa  
 Desegile düt, Jauna, bena xarmagarri.

Zer ontzi, zoin berme, zoin lo den beharri  
 Ez nadin gal, ez eror, xarmaz ütsütüa  
 Emanen deitadazü? Egoitza saintüa  
 Eskü garait ezina, botz ordoki hori.

Zer? Orano, Jinkoa, sendi (dü)tüt güdükan  
 Zure tenplo, zur(e) eskü (e)ta botzarekilan  
 Aingürü jazarria, mündü(a) et(a) apiotza. (1)

Alta zure tenploa, esküa (e)ta botza  
 Dütüket ontzi, berme, beharri azkarrak  
 Hor hautseko beitira uhinen oldarrak.

(1) *Apiotz: (b)aragia (zubereraz H gabe).*

## XVII. MENDEA

Zoritxarrez XVII. mendean desagertuz joanen dira Zuberoako protestanteak. Matalazen matxinadak 1661ean pertsegituko ditu astoki. Louis XIV erregeak azkena emanen die 1685ean, «Edit de Nantes» delako lege babeslea ezabatuz berdin astoki. Erbesteratuko dira. Galtze handia Euskal Herriarentzat (baita naski Frantziarentzat, iparraldeko erresuma protestanteen mesedetan: Ingalaterra, Holanda, Prusia). Berak guti izanarren, asko ekartzen ziguten beren kultura mailaz, eta ber denboran herritar zintzoak ziren, Paueko buruzagi ñapurrei buruz gure foruen babesle, erlijioakideak izana gatik. Horiekiko lehia bazterturik, alfertuko dira idatzi zezaketen katolikoak. «Gorrien» konkurrentzia beharko dute XIX. mendean berriz esnatzeko eta ernatzeko.

### Gabriel Etxart legegizona

Gabriel Etchart erret (erregeren) prokuradore zen Maulen. 1616-1617 urteetan, euskaraz hamabost gutun idatzi zizkion Miguel Ros, Erronkari ibarreko alkateari. Hona lehenbiziko gutunaren hasiera:

«Jauna ceren çuc ezpaituçu francez lengoageric endelgatzen, eta nic ezpaitaquit escribatzen espainolez, haren causaz heuscaraz escribaturen dut guthun haur, esperançaz plazer harturen duçula goure lengoage naturalaz; eta hain berzerequy advertitzen citut guthun hunçaz nola goure Erregue Jaunac bere Conseilhu privatuyan azquen Bordelen cenian, ordonatu uken dien, eta eman pothere anple goure Jaun gouvernadore eta Jaun Abade Donagracia, eta ene favoretan accordatzeco, ingatzeco, eta...».

Gaurko grafian honela ikusten dut:

«Jauna zeren zük ez baitüzü frantzes lengoajerik endelgatzen, eta nik ez baitakit eskribatzen espainolez, haren kausaz heüskaraz eskribatüren düt gü-tün haur, esperantzaz plazer hartüren düzüla gure lengoaje natüralaz; eta hain bertzereki abertitzen zitüt gü-tün hontzaz nola gure Errege Jaunak bere Kontseilü pribatüian azken Bordelen zenean, ordonatü üken düen, eta eman potere anple gure Jaun gobernadore, eta Jaun Abade Donagrazia, eta ene faboretan akordatzeko, ingatzeko, eta...».

Etxartek *U* eta *Ü* fonemak frantses grafiaren bitartez bereizten ditu: lehen *OU* idazten du «*goure*» hitzean, hiru aldiz, horrela diferentzia ongi erakutsiz. Horren euskalkia Amikuzekoa izan daiteke: hangoa da bereziki «*zitüt*»

forma, Zuberoan «züüt» delarik. Alderantziz gurean KO bezain ohikoa zen berriki arte *REN* bukaera (*eskribatiüren, bartüren*). Haatik iparraldeko beste euskalkietan ere luzaz irau du. Erabakigarriagoa zaitekeen KO delakoa, zubere-raz *tüko* emanen baitzuen, amikuzeraz ordea *tiko*. Baina hor dago bestalde *ber-tereki* bere bukaera arkaikoarekin, Detxeparek erabili zuena, Leizarragak baz-tertu eta euskalki guziek haren ondotik... guziek salbu zubererak, oraino era-biltzen baitu zuberotar askok. Nahiko seinale badugu ene ustez Etxartek zu-bereraz idatzi zuela onartzeko, ñabardura txiki zenbait iparraldeko nafarrera hurbilenari mailegatuz, duda barik Erronkariko «*uskarari*» egokitu nahiz, zu-berotarrek inguruko euskaldunei mintzatzean egin ohi dugun bezala, Amiku-zekoari zerbait «*jesanez*».

## Oihenart atsotitz biltzailea, poeta, historialaria (1592-1667)

Arnaud Oihenart mauletarra da, katolikoa, legegizona, Bordeleko uniber-sitatean ikasia. Kargu politikoak beteko ditu: Zuberoan erregeren ordezkari, Zuberoako Sindik... Abokatu izanez, Iruriko jaun kondearen aurka zuberota-rraren eskubideak defendatzen ditu, baina debaldetan, eta ondorioz Matala-zen matxinada etorriko zaigu 1661ean. Donapaleuko Joana Erdoi andere alargun noblearekin ezkondurik, Oihenart hor biziko da eta, aitoren seme bi-lakaturik, Nafarroako instituzioetan parte hartuko du. Agaramonteko jauna-ren bibliotekaria da ber denboran. Horren idazlanak:

«Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitaniae» (Paris, 1638): Euskal Herri osoko (bere hitzetan bi Euskal Herrietako) historia, latinez.

«Les proverbes Basques, recueillis par le Sr. D'Oihenart: plus les poèsies basques du mesme auteur» (Paris, 1657). Bi zati dauzka euskaraz:

- ATSTOTITZAK edo Refrauk: 706, frantses itzulpenarekin.

- O.ren GAZTAROA NEURTHITZETAN: XXX poema, batak oso laburrak, besteak nahiko luzeak.

Bigarren obra hau Orpustanek liburu batean agertu du 1992an, gure hiru hizkuntza nagusietan, bere oharrekin. Titulua: «Arnaud d'Oihenart, PRO-VERBES ET POESIES BASQUES (1657-1664)».

Atstotitzak Euskal Herri guzian bilduak dira. Haatik anitzek zuberotar kutsu nabaria dute. Zalgiz eta Jacques de Bela kalbinistenak ere Oihenartek bere zerrendan sartu ditu.

Olerkari zorrotz, aratz, prezioso eta ulergaitza da. Bere poemak tapizeria bat bezain apainki eta zehazki lantzen ditu, zubereraz diogun bezala zinez «adelatzen», arau finko eta tinkoak errespetatuz, hala nola bi bokalen topake-ta osoki baztertuz. Arte poetiko bat idatzia du frantsesez, lege zailekin, eta

berak bederen betetzen ditu: ni beldur hein horretako bakoitza dela euskaraz. Eta frantsesez ere hain zorrotzak arras guti dira nire ustez: Malherbe —«Licence poétique? Aucune!»— eta beste bakarrak: agian Heredia, Mallarmé, Valéry... Olerki hotza du, baina jakintsua eta sinboloz aberatsa. Lapurtera pixka batez lagunduriko behenafarreraz idatzi du, haatik zuberotar hitzak eta formak ere sartuz: hala nola «ezarten» eta ez «ezartzen». Hizkuntza nahiko zaila du, guti erabiliak diren hitzekin (zenbait berak asmatuak ote?) eta aditz forma sintetikoekin.

Hein hori hartze baitute gure zuberotar kalbinista zenduek, hona Oihe-nartek Zalgiz jaunari «ondu» zion sonetoa, gure letretako lehena, eta luzaz bakarrenetakoa.

XXVIII - «Zalgiz jaun, Paueko Korte gehiengan Erregeren kontseillari zenaren gorazarretan.

#### HAMALAUURKUNA

Nabusi lehenek lan berri guzietan  
Anhitz elhesari jardiresten dute  
Hatsarrean zeren emaiten baitute  
Zein erdia baita gauza gehienetan;

Ban(a) ere dutenek beteginzarretan (perfektuki)  
Ezarten lan hura gehiago bute,  
Ezenez eskasik utziten balute,  
Ed(o) urhent-peiturik zenbait eretzetan.

Halakoz hik, Zalgiz, Eskaldun Poeta,  
Burura behar duk erramu-boneta,  
Zeren, nola baihaiz Parnason gainean,

Bederatzi ahizpez maiteki hazia,  
Heiek erakatsiz hik gur(e) adinean,  
Burutar(a) eman duk bertzek doi-hasia».

#### SONETO

Los primeros maestros en toda obra nueva  
Obtienen muchas alabanzas  
Pues realizan el comienzo  
Que es la mitad en las mas de las cosas;

Mas asimismo que los que llevan  
Esta obra a la perfeccion  
Reciban mas aun que si la dejasen inacabada  
O imperfecta bajo algun aspecto.

Por eso tu, Sauguis, poeta vasco,  
Has de llevar la boina de laureles,  
Pues has estado en la cumbre del Parnaso.

Tiernamente criado por las siete hermanas,  
Gracias a su ensenanza has en nuestros tiempos  
Acabado lo que los otros apenas habían empezado».

Gaztelerazko itzulpena J.B. Orpustan jaunarena da: goian aipaturiko liburuan, 247. orrialdean.



### Atsotitzak edo Refrauak

(Iturria: *Arnaud d'Oihenart, Proverbes et poésies basques (1657-1664)*, Jean-Baptiste Orpustan, Izpegi).

1. Adausia eta ausikia behinkoaz uken-(*di*)tut.
2. Adiskidea zaharrik, kontua berririk.
3. Adiskidea gauza xipian behar da porogatu, handian enplegatu.
4. Adiskide egik ez behar duanean, bana behar duaneko.
5. Adiskideaz egik urheaz bezala, ikertu gabe har eztezala.
7. Ago Jainkoareki, Jainko dukek hireki.
15. Aita bil(*t*)zaleari (*biltzaileari*) seme barreiarri.
16. Alaba ezkontezak nahi denean, semea ordu denean.
35. Arrain handiak jaten (*di*)tu (*t*)xipiak.
44. Aziti(*k*) bihia.
49. Atzerri, otserri.
107. Kanpoan urzo, etxean bele.
189. Geroa alferraren leloa.
192. Gibel egiok ekaitzari.
197. Gizon Jainkotiarrari *Biriatu* eta *Donostia* bardin latetgia.
206. Habia egin deneko (*t*)xoria hil.
207. Halako tupati(*k*) halako arnotik.
212. Hartzen duena zorduntzen da.
254. Jainkoa, luzakor bad(*a*) ere, ezta ahanzkor.
256. Jainkoari otoi eginez, eta beharrari eginez.
272. Idia geinha (*arta*) dezanak uztar diro.
276. Ilunbeko lana eguargiz ageri.
291. Lagun elhatari, bideko zamari.
297. Lan lasterra, lan alferra.
310. Maitatzeak maitatze du hartze.
322. Nagia bethi lan(*t*)zu.
327. Neke gaberik ezta bizirik.
341. Nori berea da eginbidea.
371. Orga txarrago eta karranka handiago.
372. *Orbiko* txoria *Orbin* laket.  
*Orbi* da Bortuetan *mendi* gora bat, *Nafarroa* elgatako eta *Zuberoako* mugar.
380. Orratzak mundu oro du beztitzen eta da bera biluz gelditzen.
382. Otsoa artzain.
396. Pika nolako, umea halako.
409. Sonulariaren etxean oro dan(*t*)zari.
415. Su gaberik ezta kerik.
443. Zuretik ezpala.
449. Tupa nolako, arnoa halako.

476. Utzak ona hobeagati(k).
478. Xazko epazlea (*sic* = *ebaslea*) aurtengoen urkazalea (*zub* = *urkatzailea*).
495. Bidaide gogaide.
516. Ezta zentheria (*sent(o)eria*) bano min gaitzagorik.
540. Adiskide zaharra berriagatik eztutzala.
547. Aski dakik, bizitzen badakik.
549. Aurki guziak du bere inpertzia (*binperra, kinperra*).
550. Ausartki akometatzea da erdi garhaitzea.
552. Bardin da alfer egoitea eta alfer lan egitea.
565. Burla ga(i)xtoa bere sor-lekura itzuli doa.
567. Buru beza(i)nbat aburu.
600. Gaina eder, barrena uher.
617. Guti erran eta anhitz egina da zuhurraren atsegina.
619. Handikeria lilitzen bad(a) ere ezta bihitzen.
630. Ixilik dagoenak eztió gezurrik.
638. Laster bildua, laster urratua.
641. Mahaian errana bego gorderik dahaillan.
673. Thu etxatua zeruan gora begithartera derora.
697. Gathua ohoin izanagati(k) eztezala ohil eure gelati(k).
701. Neure behiti(k) ezne, guri eta gazna athera nezan (*nuen*), eta neure xahala gal nezan (*galdu nuen*).
702. Ohi bano nauena akatatzenago, zerbaiten eske dago.
703. Orratzak bano hariak luzeago behar du izan.
704. Saguak jan liroena jan beza gathuak.
705. Zalduna senhar ustean, zahar nendin (*zabartu nintzen*) ez-ustean.
706. Zer da mira, ardiak otsoari ihes ari badira?  
*(Hau zerrendako azkena du Oibenartek).*                    «URHENTZA»

## Tartas apeza (Sorhoetako)

Juan de Tartas, Sohütako (orduan Sorhoetako) laborari gotor baten semea zen, ez dakigu zein etxekoa . Apezak usaian etxe onetarik etortzen ziren. Haren bizitzaz gauza guti dakigu, salbu erretore egon zela Arüen, gero Atharratzen, azkenik Mitikilen, Ospitalepea ere zerbitzatuz. Bi liburu idatzi ditu: Onsa hilceco bidia (1666), eta Arima penitentaren occupatione devotac (1672). Lehena Arantzazuko Jakinek berriz argitaratu du 1975ean, Andolin Eguzkitzak prestatu; bigarrena Bilboko Mensajerok 1996an, Patxi Altunak paratua.

Berak lehenbizko liburuaren sarreran dioskun bezala, Tartasen euskarak «badü orotarik zerbait, Züberoak, Basanabarrek eta Lapurdik eman drauko

zerbait, baina ez oro; Arüen egin düt neure pieza pobrea... ». Bere gisako batura moldatu du, ekialdekoa, Amikuzeko azpieuskalkitik hurbila, zubererak dauzkan ezaugarri nabariak tarteko.

Euskara naturala lortu du, bizia, sotila, batzuetan ederra, besteetan errazegia, mordoloa, beharrik gabeko erdal hitzez betea: «Ene tribaillu aphürrak ez du meritutzen...» Ezin ote zuena idatzi «lana» eta «merezi», eguneroko eskal hitzetan? Errazkeria horien justifikatzeko, Axularren arrazoina itzulipurdikatzuz, Arüeko euskararen ahulezia aipu du: «Arüen egin düt neure pieza pobrea, hanko lengajia ez bada aski eder, hanko euskarak dü ogena, eta ez euskaldunak». Tartasen esaldi horretan bi akats usnatzen ditut: batetik idazteko dohain handiak baditu, baina bere hizkuntza ez du lantzen, luma korritzera uzten du, Axularrek ez bezala, eta estakuru merke batekin ateratzen da; bestetik ni beldur zuberotar xorrotx askok bezala, besteen euskara gutiesten duela. Arüen zubereraz egiten dute, haatik Amikuze hurbiletiko kutsu txiki batzuekin, eta hori bekatu handia zuberotar batzuen begietan!

Dena dela, «Onsa hilceco bidia» aipatuz, Ibon Sarasolak diosku: «liburu osoaren estiloa komen nagusigoan datza, honi zor dio testuak modernotasun kutsua». Horrela «akzioari zeharo dagokion mugitasun eta erritmo bizi bat lortzen da, garaiko literaturan ezezaguna dena».

Nahiz bere gaia moralaz duen, Tartasen perediku eta sermoi luzea ez da batere aspergarria gertatzen, istorio labur, umoretsu, errealista, batzuetan pikareskoz aberasten eta gazitzen baitu. Hona holako bat.

«Egün batez espainol bat bere bidean zoala ediren züan hor (txakür) bat borta batetan, eta horak usuki züan espainola igaraitean zangotik, hor haren kontre aski ontsa defendatü faltaz, bertze egün batez espainolak hor hura bera ediren züan borta hartan berean lo zantzala eta ezpata baitzüan bere saihetsean, idokirik eta bülüzirik bere maginatik, eta bere furrebotik, hora hil züan, ezpata kolpü bat emanik, eta gero ikusi züanean hora hilik, edo hiltzen, erran züan horari, bere lengajian, espainolez, *Inimigos tienes, e dormes* [sic], erran nahi baita gure lengajian euskaraz, etsaiak üken eta lo egiten dük.

«Arrazoin züan espainolak hala erraitera horari, zeren etsaiak dütüanak, ez baitü behar lo egin, baina bai egon iratzarri, zoin aldetik jinen den egünaz, edo gaüaz, haren atakatzera.

«Bada neure adiskidea, herioa baita gure etsaia, eta Jaunaren mezüa, eta haren mandataria arrazoin ükenen dü zuri, eta niri erraiteko, jin dadinean, ez bagite egon presto grazian haren aidürü eta beha, *Inimigos tienes, y dormes*, etsaia oren oroz bortan dügü, gure etxean dügü, giten egon prest, grazian, nahi ez badügü ikusi gure arimen hiltzea, galtzea, eta ruinemendü totala».

[Juan Tartas, *Ontsa hiltzeko bidea, Jakin, 70.or.*].

Gaurko grafian eman dut.

Zati hau zubereratik oso hurbil eta gertu dago. Iduri luke Tartasi bere hizkera naturala zuzenean atera zaiola. Soldadu istorio bat kontatzen duelako agian? Txomin Peillenen arabera, baliteke Tartas, apeztu aurretik, ofizio horretan ari izan zela.

### Gure Aita

*Hona bestalde Tartsasek Ontsa hiltzeko bidean (p. 180) agertzen duen Gure Aita otoitza .*

Gure aita zelüetan zirena, santifikatü dela zure izena, jin bedi zure resuma, egin bedi zure borondatea, zelüan bezala lürrean, eman izagüzü egün oroztako ogia. Barka izagüzü gure bekatüak, hala nola gük barkatzen baitügü gure etsaier; ez gitzatzüla ützi tentaziotan erortera, baina begira gitzazü gaitz orotarik. Amen.

*Konparaziorako, bona ondotik agertu diren zubererazko bertsioak:*

1839 – Gure Aita, zelüetan zirena, erabil bedi saintüki zure izena; zure erresuma jin bekigü; zure borontatea egin bedi Zelüan bezala Lürrean; egizü egün gure egüneko ogia; parka izagüzü gure ogenak, hala nola gük parkatzen beitütügü guri ogen egiler; eta ez gitzatzüla eitz tentazionetan erortera; bena begira gitzazü gaitzetik: Halabiz.

1941 – Gure Aita zelüetan zirena, erabil bedi saintüki zure izena; zure erresuma jin bekigü; zure nahia egin bedi zelüan bezala lürrean; igüzü egün gure egüneko ogia; parka izagüzü gure ogenak, hala nola gük parkatzen beitütügü guri ogen egiler; ez gitzatzüla ütztentazionetan erortera; bena begira gitzatzü gaitzeti. Halabiz.

1967 – Gure Aita zelüetan zirena, saintü izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zelüan bezala lürrean ere, emagüzü gaur egün hontako ogia, parkatü gure zorrak gük ere gure zordüner parkatzen deiegünaz geroz, eta ez gü tentaldirat eraman, bena begira gitzatzü gaitzetik.

## Jakes Belakoa (Jacques de Béla) (1586-1667)

Jakes Belakoa, Jacques de Béla, mauletarra da, legegizon familia batekoa, bere aitaren ondotik kalbinista, baina emaztea katolikoa du. Gizon jakintsua da, poliglota, ofizioz epailea.

Haren idazlan nagusia, frantsesez, «Tablettes» tituluaz, argitara gabea, lau mila eta bost ehun orrialdeko eskuizkribu erraldoia da. Kopia bat badu Pauen, departamenduko artxiboetan, beste bi badaude Parisko «Bibliothèque Nationale» delakoan. Alfabetoko letren itzalean, edozein gai aztertzen du, bere ikuspegiarekin, humanisten ildo entziklopedikotik.

P letran, «Proverbes» izenburuaren azpian, berrogeita lau atsotitz dakarzki, gutiz gehienak zubererazkoak. Oihenartek bere obran agertuko ditu.

Aldiz desagertu dira Belaren euskal gramatika eta euskal hiztegia: bi gai horiez bete zituen orriak ostuak, ebatsiak, lapurtuak izan dira.

Bestalde Belak Matalazen matxinada kontatzen du halako egutegi batean: «Journal de l'insurrection des Basques sous la conduite de Matalaz». Eskuizkribu hori Parisko «Bibliothèque Nationale» delakoan dago. Horren kopia bat badut Pierre de Souhy zenaren eskutik. Zuberotarrak «les Basques» deitzen ditu, zuberotar xaharrek beren buruez «üskaldünak» dioten bezala. Belak Matalazen iraultza gaitzesten du, Zuberoa arriskuan sartzan duelako, ordena itzulipurdikatzen eta kalbinista pertsegitzen. Buztanobi Mauleko pastorea de Maytie Oloroneko apezpikuak doi-doia salbatu zuen, Matalaztarrek «Kürütxe Xuri» aldeko zubitik Ühaitzera bota nahi zutelarik. Hurbil dagoen bere jauregira ereman zuen, han behar zen denbora zaindu, eta gero bere mutilez etxera lagundu. Gutik dakitena da: Matalazen sotanen orban itsusia.

## Belapeyre mauletar apeza (? – 1698)

Athanase de Bélapeyre, Jacques de Bélaren semeetarik da. Amaren bidea hartuz, noizbait katoliko egin zen, apeztu, eta Sorhoetako erretore sartu. Gero Zuberoako bikario orokor eta Herriko ofizial (Elizako epaile) izendatu zuen Arnaud III François de Maytie, familia horretako hirugarren apezpikua izan zenak (1660-1681).

Horren aurretikoarekin auzitan sartu zen, halaber gero horren ondokoarekin, honek bere goi kargutik kendu nahi baitzuen, eta Belapeyrek irabazi! Conget bere aitzinekoaren aurka ere proseskan ari izana zen Sorhoetako erretoregoaz, eta hor garaile ateraila! Lumaz berdin zorrotza zen. Asko idatzi omen zuen, eta «un grand écrivassier» izan zelako fama egon zaio. Testamentuan bere Memoriak aipatzen ditu, baita euskal nazioaz eta Zuberoaz idatzi duen historiako liburugai bat, izenburu honekin: «Une histoire et bonnes remarques sur la nation basque et le présent país de Soule». Iloba bati eskatzen dio inprimaraz diezoz. Horren beste berririk ez dago ene jakinean.

Haren ganik dugu zuberera hutsez idatziriko lehen liburua: «Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Gingo Jaunaren eçagutcia, salvatu içateco», hots gaurko grafian: Katexima labürra eta Jesus-Krist gure Jinko Jaunaren ezagützea, salbatü izateko. 1696an agertu zuen, de Revol apezpikuaren baimena gabe. Horrez guti hedatu zen. Euskaltzaindiak 1983an berriz argitaratu du ene oharrekin eta hiztegiarekin. Hau Belapeyrez geroztik murriztu zaigu: zubererak hitz batzuk galdu ditu, gaur zuberotar ezjakinek «manex» edo «espai-

nol» bezala ikusten dituztenak. Haatik orokorki, Belapeyre zuberera klasikoaren aita dugu, eta hau euskara literario bezala etorri zaigu apezten bitartez. Hautzaroan elizan entzun eta irakurri dudana da, bereziki katixima-dotriñan, eta oraino bizi da kantiketan bederen. Belapeyrek idatziriko Kateximatik oso hurbil zen gure haur denborakoa, teologian bezainbat hizkuntzan. Gehiago jakin nahi duenak Euskaltzaindiko edizio kritikoa hor dauka.

Bestalde 1676an liburuxka bat agertua zen zuberera onean, latinezko izenburu honekin: «Pronus diebus dominicis... post Evangelium populo legendus». Ez dakigu François de Maytie apezpikuak berak idatzi ote zuen, ala horren manuz Belapeyrek. Hona «Catechima laburra» liburuko sarreran harturiko zati laburrak oraiko grafian emanak.

#### «KATEXIMA LABÜRRA

ETA JESÛS-KRIST GURE JINKO JAUNAREN EZAGÛTZEA,  
salbatü izateko.

Dio Jondane Johanek c. 17. V.3.

Athanase Belapeyre Apez, Teologian Baxelier, Züberoako Ofizial eta Sorhoetako erretorak, Herri hontako Erretor, Bikari, eta jinkoaren beste haur hon Orori grazia eta bakea zieki Jesüs-Krist Jauna ganik.

(...)

Hartakoz Züberoako jüje espiritüal bezala ordenatzen dügü Herri hontako erretor, edo bikari orori, Jesü-Kristen doktrina eüskaraz erakats eta entelegaerazi diezen bere(*n*) Parropiakoer, gütien igante oroz, Mezako giharek aspaldian eüskaraz egin deizüegün pronoarean ondoan: edo bezperetan, salbü üdüri beitzaikü hobeki dateala haren erraitea pronotik landan, jenteak elizatik hürren daudean leküetan, zointara arrastiritan ez beittake hel; [...].

Eta amoregatik eüskaraz ontsa ezin mintzatzearen penak gibet ez zitzen, ez herabezti: nola ere haboroek ez beitzüie hon ediren herri hontako Apez gazte batek gütiz honat eüskarala ützüli düan Katexima, eta ez beitziraie hartaz zerbützatzen: Segür ere beita, ezagützen ez bagünü haren egileak Teologian jakite züan beno gehiago, ontsa egin nahia züala, Jüstizia garratzean ediren günükeala, haren lanaren bai Doktrinan, bai eüskaran hitz gogor, baita hüts ustekabean egin dütüan hanitx; zoin hontarzünez aipatü gabe ützen beittügü, bere lanean bere izena gorde düana, damü gütiagorekin bara dadin.

(...)

Gomendatzen dügü Jaun Patru, Jüje, eta Zinegotzi herri hontako güzier, nork bere(*n*) leküetan eskü etxek dezen, Kateximaren erran orenean batbedera hartara doen, berak ere han ikusten dütüela; debatätirik langitea, joküak, tehernak (*ostatüak*); güziz Meza, Ofizio, eta Katexima saintüak erraiten direno; elizaka, eta gure errege Jaunek Manatü dütüen penen pean.

Erretor eta Bikariek biziki eskoleraziren dütüe bere(*n*) Parropietako haur gazteak, txipizaroan ihiki ikas, eta hartüa hobeki betikoz begiratzan ahal düelakoz. Hala gure Jaun Apezküpiaren ordenantzzen arau, Nork bere(*n*) Parropietan, Orenen eskola bat ezarraziren düe ahalik sarriena, zoinez arranküra berezi bat ükenen beitüe bere(*n*) erretoretako eginbideek lekü deieno, auher ez daudean, nontik sortzen beitira bizioak; edo beste eskola bür(*ü*)zagi ontsa ikasi, bizitze honetako, elizako jabeez onetsi datean bati eraginen: Baita ahalaz ezariren bereiz neskatilen, serora edo beste bür(*ü*)sagisa ber halakoak: zoin saristatü beitirate Parropiaz, gure errege Jaunaren, haren Kontseilüko, eta Intandanteen erreg(*e*)la honen (*onen*) arau.

Erretorek ardüra ikusiren dütüe eskolak, jakiteko errejentak bere(*n*) eginbideetan dirateanez. Eta Parropia Txipiek ez badüe indar aski errejent bederaren etxekiteko, elizako Gehienek lagüntürik, hurak algarganaeraziren dütüe, ororen gain arteko errejent baten ezarteko.

Errejentek astekal haurrer erakatsirik Igantean erran behar dükeien kate-xima, beti lagüntüren dütüe hartara, haien gogoz ontsa erraitera ürgazteko. Eta hura, erran ürrentü dateanean, bere(*n*) Igante seinaratüen arau berriz hase-raziren deie, aski jakintsü dirateano.

(...)

Orano erretorek ezagüteraziren deie aita-amer, bür(*ü*)zagi-bür(*ü*)zagiser bere(*n*) haur eta zerbütixariak ontsa eskolaeraziten badütüe, lehenik haien jakitearen frütia berek gozatüren düela: zeren Jinkoaren legeak ikasirik, haren zerbütixari hobe beitirate, ha(*i*)nbatenaz emeago eta bere(*n*) peko beitüküie.

(...)

Azkenekoz Züberoa herri hontako Promotora manatzen dügü, iratzarriki orotan baliaerazi dezan lege haur, bestela honen hausleak gaztigatü izanen dira zinez Korte espiritüalean: Salbü Üztaila, Agorrila, Ürrieta hilabeteetan, noiz beitira lür lanen lehia bizigarriak. Eta hobeki oro eginbide hontzaz orit ditean, erretorek urtekal Pronoaren ondoan, Ordenantza haur goraki irakurtüren düe domiseintoreren bi ondoko lehen Iganteetan. Hoiiek manatü dira Mauleko hirian Ürrietaren hogeigarren egünean 1695.

BELAPEYRE, Ofizial. »

*Orokorkiago, ikus Euskaltzaindiko Edizio Kritikoa.*

## Jakes Maitiako apeza (Jacques de Maytie)

Joseph de Révol apezpikuak erabaki zuen katixima baten inprimaraztea frantsesez, biarnesez et euskaraz. Euskarazko itzulpena Jacques de Maytie kallonje, kanonigoari eginarazi zion. Hau Arnaud III François de Maytie zena-

ren illoba txikia, teologian doktore, Ainharbeko priore, Oloroneko kalonje, Zuberoako bikario orokorra zen. Hona katixima horren izenburua: «Catechisma Oloroeko diocezaren cerbutchuco ecinago ilustre eta choragarri Messire Joseph de Révol hanko apezcupiaren manuz egina. Eta Zuberoa herrico uscaldunen amorecatic uscarala utzulia Messire Jacques de Maytie Oloroeco calongiaz eta hanco vicari generalaz. (Pauven) Jérôme Dupoux 1700». Lan hori emendatua eta berriz inprimatua izan zen 1743an, 1746an eta 1788an.





## XVIII. MENDEA

Antzinako hiru mendeez (XV, XVI eta XVII.ez) xehetasun gehiago aurkituko da Txomin Peillenen «Zuberoako itzal-argiak» liburuan.

XVIII. mendean beherapen handi bat ikusten da iparraldeko literaturan, bai Lapurdin, bai Zuberoan. Bi arrazoin ematen zaizkio: bata ekonomikoa, bestea espirituala.

Ekonomian, atzera egin du Donibane-Ziburuko portuak, bereziki arrantzan: Ingalaterrak Kanada hartu du, eta hango itsas urak euskaldun arrantza-leei hetsiko dizkie. Arrantzaren kariara, zuberotarrek Lapurdirekin harreman handiak zituzten, eta horren lekuko agian, zubereraz da «Jeiki, jeiki» kantu sonatua.

Arazoin espirituala: euskaldun kalbinistak isildu dira «Edit de Nantes» delakoaren babes eta geriza galdurik 1585ean. Horien akuluak idazle katolikoak esnarazi zituen: Axular, Etxeberri, Gazteluzar, Materre, Pouvreau Lapurdin; Oihenart, Tartas, Belapeyre Zuberoan. Kalbinistak isildu orduko, katolikoak lokartu dira. Protestanteen joaitea zorigaitz handia izan da ene ustez. Ugaltzeko bi partaide behar dira. Espirituko lanetan ere, norbait behar da bisean bis, erantzuteko, pilotaren bueltatzeko bezala.

Olerkia bereziki behera joan da. Frantziako haize ezti batek bultzaturiko kantu politera mugatu da. Txomin Peillenek horren berri eman zuen «Gure Herria» aldizkarian, 1962ko n° 34 zenbakian. Eresi goxoak dira, baina Oiherarten mailatik urrun gaude. Halaber Corneille edo Racine tragiko handi haienetik Paris aldean.

Filosofoen mendea da XVIII. hori Frantzian. Euskal Herriak ere pentsalariak baditu: Aita Manuel Larramendi, Etxeberri Sarakoa, eta Zuberoan Jusef Egiategi.

### Martin Maister apezka

Martin Maister, Ligiko erretoreak, Kempisen Imitazionea zubereraz euskaratu zuen eta 1757an argitaratu, «Jesu-Kristen Imitazionia» izenburu. Pierre Laffitek lan horrez hau dio: «Ziberotar gaztek on lukete hari jarraikitzea. Tartas baino aiphagarriago zaiku, bai gochoz, bai jakitez, bai hizkuntzaz. Vinsonek haren latin gurbila goretzi baitu, guk haren eskuara maiteago. Huna

liburuaren aitzin-solasa bururen-buru». Horrela mintzo zaigu Lafitte 1931an Baionan argitaratu zuen «Eskualdunen Loretegia» liburuxkako 101-104 orrialdeetan. Hona beraz Maisterren sar hitza, Lafittek bere garaian eman zion grafian.

«IAKURZALIARI»

Haur düzüla, ene irakurzale maitia, zure gatik zure lengujala ützüli izan den lib(ü)rü bat, zuñ mündü ororen erraniala, eskriptüra sainta berhezten delarik, beita, salbamentia egin nahi dianaren, izaten ahal den librürik hobena, eta baliusena; hartakotz ere eztüzü heltübada batere haboro lengujetara ützüli izan denik (hañbestera drano juan izan düzü, sokhorri espiritüal hunen bat bederak bere herriari emaiteko ukhen dian nahikunte borthitza) arrazu horrek berak salduatan desira erazi deio lan hunen egiliari, bere herritar gachuer sortzepenezko langujia baizik eztakianer sokhorri berauren amaitia, ustez Jinkuaren bide hertsian ebiltia, bere büriaren aphaletchekitia, mündiari gerla thai gabezko baten egitia, eta zelialako inbeia saintü baten ükheitia, librü hunen medioz ezagüt erazirik, bere salbamentiaren egitera erakharriren zütian: bena bere flakheziaz lotsaturik egon izan da thenpora lüzaz bentüratü gabe bere desirkuntiaren konplitzera.

Azkenekoz hargatik lotsa hura garhaitürük, atrebitü izan da üskarazko librü gochoñu hunen argiala ager erazitza, ustez ezi (nula hatsarre bati beitaude gaizak oro) hartarik landa izanen den nurbait, harek hüts egin lütükianak chüchentüren, eta hobekiago haren lehen iseia ezariren dianik, edo beste zunbait argitarzün zuri, ene irakurzale maitia, emaitera ekharri izanen denik. Nitzaz dena bezanbat, Jinkoak baletsa, enian ukhen beste deseñik batere, haren gloria handiaren tcherkhatzia, eta zure salbamentiari bide segür baten erakustia baizik, amurio propi traidore gachto harek pharterik batere ükhen gabe, zuñ, uhuñ estalgünez-estalgüne nuntik zer ebatsiren dian dabilan bat bezala, gizonen bihotzetan sartzen beita, hen obra hun uste dütiänen gachtotzeko, eta ezdeusteko, eta hetarik phakü ükhen behar lükien her galerazitzeko.

Hura da altchatürazi zahar zuñtzaz gabetü behardügüla apostoliak erraiten deiküna, zeren (b)aren propitajia den bezala orhiaren hant, eta mingatz erazitze-koa: orobat ütsü den amurio harek laibable (*laidable?*) uste dütügün egitakiak (*egitakiak?*) banitatezko aiziaz hant erazitzen dütialarik ürrintzützen beitütü, eta hen merecimentia oro ezdeusetara erakarten. Hura da gizon zahar zuñtzaz bilaizi behar dügüla apostolü berak manü emaiten deiküna, amurekatik gizon berriaren beztimenta hunez beztitürük bekhatü orijinaletik baratü zaikün khozü gachto haren kuntre bühürtzen ikhas dezagün, eta gure mente orotan azken hatsialadrano hari gerla egiten. Hura da hitz batez etsai ezaba, ezin ikhusten ahal dügün bat, gureki sortü, gureki hil behar dian bat, hartaz zerbütchatzen da ezpiritü gachtua gure bere lazuetan atzamaiteko, eta guri eskien artetik ezkapa erazitze-ko salbazale adorabliak merechitü deikün gloria eternala.

Arren zer dirokegü, zük eta nik, ene irakurzale kariua, besterik pentsa, baik ere behar dutügüla gure pentsamentiak beleratz etchekei, (*e*)ta gur(*e*) egin ahalak bihotztoiki enplegatü, hañ ikharagarri den, eta hañ ezabaki bere phozua barreiatzen dian etsaiaren kuntre, amurekatik gütan abantalla ükheiteko lütükian bidiak zerra diatzogün.

Lehen pentsamentü ükhen behar dügüna da gihaurdanik ezkitakiala hañbeste itchura hunen üdüriaren pian gordatzen den etsaiari bühürt, barnetiko, eta kanpotiko sokhorriak gabe, zeren gihaurtan ezpeitirogü ediren flakezia, ezkazkeria, eta eritarzün baizik. Barnetikuak daude Jinkuak ber grazia saintiaz ezpiritien argitarzün, eta bihotzen gotharzün emaiten deikünetan, zuñen merechitzeko hanitch zerbütchatzen beitzaizkü kanpotikuak.

Kanpotiko horik aldiz daude etsenplü huner jarraitian eta librü hunen irakurtian. Elikidizü eskietara eror ahal librü sokhorri puchantagorik eman litzirozünik, eziez hunek emanen beiteizü. Ezi batzuen eta besten ükheiteko moianik hobena, eta labür(*r*)ena [sic] bada sant Augüstinek dioian bezala, gure bürien, eta Jinkuaren untsa ezagützia. Etziniro, zunbat nahi beita tcherkü eginik, ediren librürük, hobeki ezagüt erazi litzirozünik, zuñen gure enthelegü ororen gañetiko den Jinkuaren izatia; eta zuñen ezin erran ahal beno aphalago den gure ezdeustarzüna; gure flakezia, eta gure ajütü mengua.

Har ezazü arren har, ene irakurzale maitia, boztario handireki, zük orotan gainti zure sortzepenezko lenguaia baizik eztakizüna, librü zure zihaturen egin izan dela üdüritüren zaizün haur. Hunen irakurtiareki batian agertüren zaitzü, lehen gorderik egoiten zeitzün eskaskerriak eta makülak, hetarik sendotzeko moiana edireiten düzülarik. Heben orai drano zihaurtzaz ustekeria sobera hun ükhen dütüzünen fundamen gabia ezagütüren düzü, hetarik soltancharen Jinkuari galthatzeko. Heben zure ezdeustarzüna zunbatetara drano duen senditüren düzü, zük khürütche eta aphaltarzün baizik eztüzüla merechi untsa ikhusteko. Heben ikhasiren düzü, Jinkuaren ganik baizik ezin egürükiten düzüla, zure flakezia gaizkiala hañ erortoki denaren azkargarri edo sendogarri moian hun denik batere. Librü hunen eskolek zure ezpiritari segürantza oso bat emanen dizie, hobiago dela Jinkuaren begien aitzineko gizon bekhatüz estalirik lizan bat ere, bena umilitatiaren handitarzünez begiak zelialat goititzera ezin bentüratzen den bat, eziez süperbius bere hunki egin hanitchez phakü lizatian bat; zeren bere büriak aphal dadüzkaner Jinkuak hüllandanik so egiten beitü, gora dadüzkaner aldiz ez hürründanik baizik.

Eztüzü balinba ihesirik eginen zure arimari hañbeste abantalla ükhen erazi ahal diruan irakurte baliusari. Ez segür bezala nüzü zihaurek, ihurk erran ahal litzirozün beno hanitchez hobeki, ikhusiren, ezagütüren, eta gozatüren dütüzüla huntan edirenen dütüzün egia saintiak. Has zite solamente boronthate oso bateki, Jinkuari zor dütüzün gaizen konplitzian fidel izanen zirela: eta borogatüren düzü zihaur beithan zerbait hunialat bulkatüren zütianik, eta zu-

re biziuez ahalketürrik, hen kuntre hun diren konsellier behatüren zira, iseiatzen zirelarik her jarraikitera. Ezagütüren duzü orano segürki zure debozionalatko hotztarzüna khanbiatzen dela zelialako berotarzün saintü batetara; eta zure gaizkialako enjogidüra hertüren dela, eta hunialakua, emendatüren.

Bena nula librü hunek irakurtü izan behar beiluke, familia osuek hobekienik profeita ahal liruen (*liroien*) bezala, hun lizate hortako, familiako gehien irakurten dakienek irakur lezen azkarki egünian kapitülü bat goizian edo arratsaldian, orok entzün ahal liroien bezala, michkandiek ha(i)n untsa, nula ga(i)neratikuek; hel baledi aldiz lanen hanichtarzüna eliroyen (*b*)ütsarterik eman, egün oroz eginbide horren konplitzeko, elükeie behar aments iganterik ez bestarik eitzi (*ützi*) igaraitera hazkürri saintü bere arimer eman gabe.

«Izanen da düda gabe zunbait erraile, üskararen irakurteko üsantcha gabiak gaitz, phenus, eta gozo gabe gertha eraziren diala eginbide horren konplitzia; hori hala izanik ere hatsarrian, gerualat bethi hertüz juanen dira, ihur kostümatzen den bezala, eta emeki-emeki beste lenguajen irakurtia ikhasten den bezala, hunena ere ikhasiren da. Arrazu hori dela kausa errejentek behar lükeie eskolierer üskara baizik eztakiener librü huntan irakurten irakatsi. Gisa hortan gaitz üdüri den gaiza ehitüren da, eta gozo eta profetitü habororeki batbederak irakurtüren dü berak enthelegatzen dian lenguajia. Eztüzü arren estakürriarik batere ükheiten ahal, zure arimari sokhorri hun horren emaitetik gibeltzen ahal zütianik. Zihaturen barnetiko ezagützia har ezazü jakiletako eia ihurk erran ahal litzirozün beno hobeki eztützünez senditüren, librü hunen irakurtian bihotzeko kanbiamentiak bide chüchenian eбилteko, eta Jinkua ganatko desiren haren konplitükiago zerbütchatzeko, eta eia hanitch ordüz zelüko inspirarzünek eztütüenez bizikiago hunkiren, eziez hanitch pherediküren entzütia. Mendrenetik aments hori dateke iseiüñü hunen egiliak Jinkuari bere boto aphaal beno aphałaguetzaz zuretako galthatüren dian grazia, amurekatik haren lanegina zure arimaren salbamentütako, eta Jinkuaren gloriarik handienare(*n* ?)tako gertha ahal dadin».

## Jusef Egiategi filosofoa

Jüsef Egiategi (Eguiateguy) zuberotar irakasleak hiru liburu idatzi zituen, baina inprimatu gabe egon ziren. Txomin Peillenek Parisko «Bibliothèque Nationale» delakoan ediren zituen: han sartuak zituen Antoine d'Abbadie jakintsunak. Lehen liburuaren edizio kritikoa prestatu zuen Txominek, eta Euskaltaindiak 1983an agitaratu zion «Euskararen Lekukoak» sailean (6. zenbakian). Hori da «**Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)**». Soneto batez hasten da, eta ene jakinean gure letretako bigarrena baita Oihe-

narten ildotik, eta mende batez egonen ere, hemen agertzea balio zait, oraiko grafian, baina ediziokotik oso hurbil dago hau.

«HAMALAUDUNA

«Irakurtzale(a)ri

Bere denboraz egünkal dena bürüzagi  
Franko düanak arrain edo aragi,  
Aldizka delarik hetzaz laski bazkatzen  
Bere bizi az da balima bozki gozutzen.

Libürüz niza ni aki, paper belzten niz ari?  
Bortxaz gibel üzten, xüxen ezinak jarri:  
Megopia düet arrabuhin, ülün, herabesti,  
Gor mütü, lüma ere ardüra net eri;

Belarra ehünetan berekatürük  
Ezin hantik kent zerbait dena hontürük.  
Zer düket arren obratü? Deusere balio ez zena,

Heltübada laitekeana nere obra azkena.  
Bihoa arren dena! ez düanak irakurtüko  
Ez zereio balima, sekülan dolütüko.

Laski: lazki, arrunki  
Megopia: espritua  
Arrabuhin: gogo gaitzeko (biarnesetik)  
Net: arras, oso  
Belar: kopeta, borontea  
Dolütüko: damutuko  
Balima: baldinba

HITZAURIA

(En caractères plus gros que celui du corps de l'ouvrage) (1).

Libürü labür bati etzereio (2) eder hitzauri (3) lüzea; alabadere leal da, düan bat, nolako nahi zertakoz egina den gatik erraiteko. Jakintzüek (4) dakie hüskara (sic) ama mintzoetarik dela bata, hartakoz ere Jinkoak eman zereioan obedantza (5) güziak dütüala; bena delakoz Zeiakinen (6) saldoa hanitzaz jakintzüena beno handiago, (e)ta üsteala hüskara lizateala hiztera (8) nahasi bat, ez kiderik (9), jarraikirik ez lükeana bako(i)tzik, halako basa sinestearen garaitzeko, hartüren dügü heben nabastarria (10).

Ehünetan entzünik gaude, hüskaratik lankei honik sort ez daitekeala; badaite (11) otoitze libürü txar zonbaitek düela sineste hori sortü (e)ta gogor-

tü; bena izanik ere botxea (12) beno gogorrigo, mardotüko dügüla (13) düť sinestea: hartakoz mintzo haren ohorearen gatik, lümarı nız heben lotü; ez gorrrer entzünerazi nahian, ez eta ere ütsüer ikuseraziz egarrian sentagaila (14) haiek ez dauteke (15) niri; bena bai egiari zor düdan eginbideaz düť lan hau besarkatü, fidantzan düdala ager jarriren, hüskara zertan nahi hitz arrotzetaz paira dateikeala. Gauza (17) berrietan ere, ber(*t*)ze mintzoek bezala, beraren izaeriatik (18) hüskaldün ü(n)küdean izenak arozta litiriola. (18 bis).

Haur-min harez, ni obra hontan salbü izanen, behar ez düdalakoz zaharretarik baizik; (*e*)ta haietan düalakoz hüskarak, ber(*t*)zeren kinper, bere ederta(*r*)zünak franko. Ezi, ikertzen deno bere zaharta(*r*)zünean, xahüago da, bere aberastarzünean agertzen; badaite hitz batzü zahar diradealarik, berri direla üdüri izanen; ez da haren falta hüskaldunek ahatze badütüe. Bena haien eginbideak dereie hitz haien arrahartzea manatzen. (19 bis).

Llabür (*e*)ta argitzü izaitea, ez da lankei arına, ez eta ere hitz kütoetan hanitz erraitea. Orozbat ederki mintzatzea ez da erraile güzien arraina; bena erakutsi badüt hüskara xahüki har daitekeala, probatürık dago hala ere mintza daitekeala, (*e*)ta ni beno langile hoberik düano, haietarik sortüren dela haren ohorearen gatik oraino hanitz ber(*t*)zerik.

Egündano ez zait bürüan sartü, ez eta ere sartüko, gaizki mintzatzea hüskaldünen axolgabeaz eta ere nola gogatü (20) ez düen (21) beren ama-mintzoa düeno mezpretzatzen, herria düela arnegatzen (22); (*e*)ta Jinko jaunaren dohainak zankopetan dütüeno jarten, beren büriak dütüela apalerziten (23). Ezi sortzapena denean eder, (*e*)ta mintzoa arauela, ükatzen dütüanak biak, herriari dago (24) traidore, (*e*)ta ber(*t*)ze dierri (25) güziak berenetzaz baliatzen diradeano, baliatü nahi ez den hüskaldünak, ber(*t*)zeren gaintik abantaila üken dütüanetzaz...

Mintzoen banaiteak (26) dütü dierri güziak bederakatzen (27), hartan daude bederak tieso. Hüskaldüna aldiz haietarik lehena dena bere mintzoa eskeletürık (*eskaletürık*) zinez, haren hilerazitera dabila. Deizogün galta (28), datekenean hartara heltü, zer datekean hüskaldüna? Bohameen kastatik datekea? (29). Haiek bezala beren artean hitzauri (30) txar bat oratürık, tximinoek, mintzazale balaude, ez lükeiena nahi. Dieia (31) holako bat obratüren?

Ene gogoan ez dago, jendea bere ama-mintzoari arrimatürık, ber(*t*)zerenaz ez düan axolik (32). Aspaldian dago errana, gizona dela ha(*i*)nbatetan gizon, nola mintzo suerte beitaki; topa hüskaldün menditarrak dakian espainola, delako haien aüzo (33); topa ere ordokitarrak dakian biarnesa edo zerbait frantsesetik, hantik biek dütükeien abantaila gatik, bena beren artean (*e*)ta etsaien ertzean, hüskara xahüa dezen mintza da ene egarria.

Hartakoz ere hüskara baizik ez dakiana, bego artzain, merka(*t*)zalea beno gizon perestüago datekeala ni berme.

Bena hüskararen ontartearen (35) gatik, erran düğüna (36) sineste gabeen eretzean tipil bedi (37), akadoikeria (38) handi baten auzi hau lizateke ekeia. Lizate, ele(*e*)n parrasta altistak urde(*e*)n aitzinean ereitea bezala. Lla-bürzki düğü erranen hüskaldün le(*i*)alak bere mintzoaz jakin bahar düana. *Ai-ta Larramendik* ere laski probatü(*rik*) dagoela hau dela».

### *Hitzauriari* (Peillenen) oharra

- (1) frantsesez esku-idazkian.
- (2) ez zereio: orain, Z., ez zaio.
- (3) hitzauri: nonbait entzuna, ez irakurria, bestelan hitzaurre behar luke.
- (4) jakintsüak: jakintsüek, zuzenago.
- (5) obedantza: orain, Zuberoan, kalitate, honüne.
- (6) zeiakinen: ezjakinen, fr. des ignorants, c. de los ignorantes.
- (7) usteala: usteara, ustera.
- (8) hizkera: Z. mintzaje.
- (9) ez kiderik: ez parerik, berdinek ez.
- (10) nabastarria (Z. zah.): lan eta axola, lizentzia. fr. la liberté de...
- (11) badaite: beharbada.
- (12) botxea: Z. arkaitza.
- (13) mardotüko: malgutuko.
- (14) sentagaila: erremediaketa, fr. traitement.
- (15) ez daueteke: dago-ren erabilpenak Zuberoan, salbu eta pastoraletan, osoki galdu dira, halaber Nafarroa Behere alde hanitzetan.
- (16) niri: bizkaiera da, orain Z. eni, lehen neri, neuri ere (XVI. mende).
- (17) gauza: (L. G. B.), Zuberoan aspaldidanik *gaiüza* (**gaüza**) darabilagu.
- (18) izaeria: gauza baten natura (**izaera**).
- (18 bis) arozta litiriola: landu litzakeela burdin-arotzaren moduan.
- (19) ber(*t*)ze: Oihenartek bezala Lapurdiko hitza, Zuberoan *beste* da ezagun dezakegun bezain urruti.
- (20) gogatü: hemen, gogoan hartu.
- (21) ez düen: ez duten.
- (22) arnegatzen: kasu honetan, ukatzen.
- (23) apaleraziten: eraziten faktitibu zaharra, orain -arazten.
- (24) dago: orain Z. da.
- (25) dierrü: Larramendik asmatua, erresuma (Z.), nazioa (eusk. bat.).
- (26) banaiteak: banaite, (Larramendi), liferentziak, bereizkünteak (Z.).
- (27) bederakatzen: banakatzen.
- (28) deizogün galta: inper. dezaioGUN galda.
- (29) datekea: izan aditzaren geroaldi zaharra, dateke, date. -ea, galdera atzizkia.
- (30) hitzauri: esaldiaren arabera, hizkuntza.
- (31) düeia: duteia? ote dute? al dute?



- (32) axolik: orain ere ez dugu Zuberoan sekulan *axolarik* esaten; ohargarria da, bestalde idazleak hizkuntza askoren jakiteaz egiten duen goraiaparena.
- (33) aūzo (**aizo**): auzo.
- (34) ordokitarra: ordekan, zelaian bizi dena.
- (35) ontarte: merezimendu, meritu.
- (36) erran: esan.
- (37) tipil: argiturik.
- (38) akadoikeria: auzietarako joera, c.pleitismo, fr.procédurierie.

### Nire oharra

Egiategiren testuak eta Peillenen oharrak azken honek Euskaltzaindiarentzat paratu zuen edizio kritikotik hartu ditut. Haatik grafia egokitu dut Euskaltzaindiaren azken erabakien arabera. Batetik euskara batukoa zubereraz ere aplikatzen da, euskalki guzietan bezala, Bergarako Biltzarrean erabaki zenaren ildotik. Bestetik euskara batuan ere puntu berezirik zehaztu da, hala nola arauera/arabera horren kasuan, eta erabaki xehe horiek ere kontutan hartu ditut.

Egiategiren bigarren liburu manuskritoa Parisko «Bibliothèque Nationale» delakoan dago, hirugarrena Donostian, Gipuzkoako Diputazio-Aldundiko jauregian .

Burutzeko bi hitz. Bat: Egiategi purista da, garbizalea, Larramendiren jarraitzailea. Bi: kristau erreformatzailea da, bere denboran progresista zuhera, zentzu oneko aurrerazalea.

Gainerakoa Peillenen edizio kritikoan ediren daiteke.

## Beñat Mardo bertsolaria

Beñat Mardo, Barkoxe Basabilakoa (hiri beherekoa), ofizioz «tallür» jostuna, sona handiko bertsolaria izan zen, ahoz agian Zuberoak ukan duen handiena, XX. mendeko Louis Ligetxekin. Izigarriko erraztasuna omen zuen: edonon, edonoiz, edozein gaiez bertsotan hasten zen. *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan liburuan*, 2 tomoko 159. orrialdean., Agosti Xahok zioen hogeitazko liburuk ez zutela horren obra osoa edenen: «Vingt volumes ne contiendraient pas ses œuvres s'il avait eu un sténographe avec lui dans les séances poétiques qu'il donnait en toute occasion».

Zoritzarrez bere ahapaldiak ez zituen hainbat idazten, eta orain ezagutzen zaizkionek dozena erdia doi-doia gaindi dezakete: agian zazpi-zortzitara hel laitezke... «*Herriko Semeak*» pastoralean (1998), Patrick Queheille-Kanpo idazleak hiru agertu zizkion. Lehena «*Beñat Mardoren kantorea*» (Ni deitzen nük Benat Mardo...), Müseña herritar tzintzarri egilearekin izan zuen lehiaketa (hau hiri

gainekoa baitzen); bigarrena «*Arbotiko prima eijerra*» kantu polita; hirugarrena «*Barkoxeko gathü jalen kbantorea*». Bestalde badago mitikiltar batekin egin zuen kolakata partida, «*Dialogue entre un paresseux et un vieux galantin*». Bosgarren pieza, Garrüzen eztei batzuetan eman zuen kantua, hor Barkoxeko andere bat (Bereterretxeko Margarita) 1769an ezkondu baitzen bertako Théophile de Berdeco «be-dezi» (zub), «meziner» (amik) edo medikuarekin.

Hau Pierre Narbaitz apezak kantu xahar kaier batean ediren zuen, eta Louis Dassance Uztaritzeko auzapez euskaltzainak Gure Herria aldizkarian agertu 1967ko hazilan (azaroan), «*Chronique de la chanson basque – A propos de Beñat Mardo*» artikuluan.

Artikulu horretan, ber kaieretik, «*Ni deitzen nük Beñat Mardo*» piezaren bertsio bat ematen du, J.D.J. Sallaberry mauletar notarioak 1870ean *Chants populaires du Pays Basque* liburuan agertuko zuena baino zaharragoa, mende erdiz bederen.

Ni deitzen nük Beñat Mardo Barkoxe Basabilako  
Ez dizadala eni hont kantorerik haboro:  
Ez dakika ni nizala bürüzagi hartako.

Kantore (h)on(t)zale hizala hartan dük hartzen banitate  
Aleta ez gitzaunik jinen eskolier batere;  
Basabilakorik lauen nihau ez nük ahalge.

Kantore hoi en egilea ez da laboraria  
Zonbait konde, markis ahalda, edo kardinalea  
Bürdiñarik ahal badü joare egilea.

Konde, markis, kardinale gütarik izan ez daite  
Arren hobe diagük egon banitaterik gabe  
Hi sastre hizan bezala ni joare egile.

Geroztik grafia zinez aldatu da pundu batzuetan, bereziki *c* eta *q* letren lekua hartu baitu *k* delakoak.

Baina beste batzuetan moderno kutsua du Dassancek agertzen digunak: *ez diçadala, ez daquica, ez gütçauquic, ez nuc, ez daite* (bi zatitan). Bestalde gaur «manexak» iduri zaizkigun hitz eta formarik badauka: *onçale, gütçauquic, yinen, abalge, konde, burdinaric, yuare, youare, diaguc, sastre*. Haatik Sallaberryren bertsioak bi bertso gehiago dakartzki. Hona horrena osorik, zaharragoari konparatzeko gisan.

### Beñat Mardoren kantorea

Ni deitzen nük Beñat Mardo, Barkoxe Basabilako:  
Otoitzen hait ez dizadala kantorerik hont haboro;  
Ez dakika ni nizala bürüzagi hortako,

Kantore hontzale hizalako z duka hartzen banitate?  
 Apendizik ez zaik ez jinen gainetarik batere:  
 Basabilako laurentako nihaur ez nuk ahalke.

Kobla horren emailea, ez da laboraria;  
 Zonbait markis, edo konte, edo kardinalea!  
 Bürdüinarik düanean zintzarri egilea.

Zintzarri egile nizala ez hadila ez düda:  
 Areta ez hait interronpitu izigarri ardura,  
 Bürdüinaren txerkara junik hire magasiala.

Hitzaz gütüük estonatzen, Müseinako kontea,  
 Zerentako hartzen düan gainetarren altea,  
 Areta nik ere ez diat hiretako antsia.

Konte, markis, kardinale ezin izan gintake,  
 Hobe diagu bai egonik hartü gabe banitate  
 Hi tailür hizan bezala ni zintzarri egile.

### **Berdecoren ezteietakoa**

Garrüzeko jainak (*jaunak*) plazer badüzie (*badüzüe*)  
 Kobla bat intzün (*entzün*) eta joaiten ziraie.  
 Andere Margaritaz soein (*arta*) ükhazie (*ükan ezaziüe*)  
 Gü debeiatü gabe eroaiten düzie (*düzüe*).

Zeliz (*Zeliüz*) ordenatia (*ordenatüa*) lürrian (*lürrean*) gerthatzen (*gertatzen*)  
 Egiazko plazerak handik (*bantik*) dira jiten.  
 Gure desir güziak ditügü (*dütügü*) jüntatzen  
 Zien (*Züen*) projet orotan benedikaka zitzaien.

Andere Margarita othoi (*otoi*) ohar (*orit*) zite  
 Eztezazüla (*Ez dezaziüla*) ahantz (*abatz*) sekülan Barkoxe.  
 Agradatüren zaizü segürki (*segürki*) Garrüze  
 Eta zure ikhustia (*ikhustea*) guri izanen lüze.

*Laugarren bertso bat gebitzen dio frantsesez:*

Monsieur de Berdeco comme un bon médecin  
 Pour sa jeune Dame aura beaucoup de soin:  
 Dans la ferme assurance de votre union  
 Que le Ciel vous donne sa bénédiction.

*Par Beñat Mardo, aux noces de Berdeco»*

Bere artikuluan, Dassancek «Arbotiko prima eijerra» kantua ere aipatzen du, agian Mardorena dela erranez, baina testua eman gabe. Hona.

### Arbotiko prima eijerra

Jaun baruak aspaldi(a)n

Xederak hedatü züti(a)n (zütüan)

Txori eijer bat atzaman dizü Paueko seroren komenti(a)n (*komentüan*)

Orai harekin biziren düzü, aspaldian gogu(a)n beitz(i)a(n) (*beitzüan*).

Jaun barua orai zü

Felizitatzen zütügü

Zeren beitzü musde la Plazaren prima eijerra esposatü

Andere hori irus düzü, zuri ez deizügü dolü.

Igaran aipirilaren bürrian (*bürüan*)

Armadaren erdian

Züntüdan bihotzian (*bihotzean*), armak oro eskian (*esküan*)

Present espiritüan (*espiritüan*), manka besuen (*besoen*) artian (*artean*).

Jauna maite banaizü

Erraiten düzün bezala

Kita ezazü, kita ezazü, erregeren zerbütüxia (*zerbütüxia*)

Eta maita herria, üken dezadan plazera.

Xedera balitz halako

Merkatietan (*merkatüetan*) saltzeko

Xiberuako (*Züberoako*) aitunen (*aitonen*) seme(e)k eros litzazk(e)ie oro

Halako txori eijertto zunbaiten (*zunbaiten*) atzamaiteko!

Patrick Queheilleren lehen pastoraleko kantore hau Jean de Jaurgainek agertü züan, beste kantu xahar batzuekin, «Quelques légendes poétiques du Pays de Soule» idazlanean, eta hau agertu zen 1899an La Tradition au Pays Basque liburu-bildumako 361-409 orrialdeetan. Liburu hori 1982an berriz agertu du Elkar argitaletxeak. Kantu hau 408-409 orrialdeetan dago, eta azken honetan Jaurgainen ohar bat: «I. Recueillie à Mauléon en août 1895, chantée par Mme Mathilde SARTHOU, de Saint Palais.-Voy. Les variantes incomplètes publiées par M.Françisque-Michel (*Le Pays Basque*, p. 325), eta par M. J. SALABERRY (*Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*, t. I, 1883-1884, p. 7).

Arbotin eta Garrüzen ezteiliar koblakari, Mardok arrakasta bazuen Amikuzen. Dirudienez bere zuberera hein bat amikuztartzen du bigarreanean, lehenean ez bezala, non ez den kopiatzailearen eraginez: intzün, handik, ditügü, ahantz (zubereraz: *entzün*, *hantik*, *dütügü*, *abatz*). Baina zuberotarrek ohi dugun bezala, ohartzea eta oroitzea (*oritzea*, *zub*) nahasten ditu .

*Hona orain Quebeillek agertzen duen birugarren kanta, Dassancek aipatzen ez duena.*

### **Barkoxeko gatü jaleen kantorea**

Ihautiria hüllantzen

Maltesak oritzen.

Ase baten egitera dira abiatzen

Salazar armatürik, ihizera joaiten

Fortüna dü egiten.

Paradisen gatüa

Oren tristean (*tin*) sortüa

Salazar armarekin haren atzemailea

Lau lagünekin, gero, dobatan jalea!

Gatüa zen marfundi

Zahar eta itsusi

Hamabost urte hontan jaten züen (*zin*) xixari

Barbalot, süskandera, arratu, berhilki

Ez zena greütgarri?

Gatüa ezarri

Aroztegian segretki

Hamabost egünez han herakita(*ra*)zi

Nola beitzen zaharra, trendetzea gati(*k*)

Gozatzeko hobeki.

Gatü jaleak (*lik*) nor diren

Nik ez dit (*eztit*) erraiten

Sants bere emaztiareki(*n*)... balinba han ez zen!

Portaü gatü-jale dela ez dit entzün üken...

Ez, ez dit sinesten!

Cette chanson imprimée

Le onze février

Dix-sept cent quatre-vingt-treize j'avertirai

Maltesak gatüetarik begira itzatzüe (*zie*):

Zonbait koi dirade!

Haatik Dassancek bere idazlanean berriz agertzen du Francisque Michellek 1857an *Le Pays Basque* liburuan (367-369 orrialdeetan) ezagutarazi zuen ondoko pieza horren etorkirik eman gabe, baina testutik agerian dago lehian dauden bi bertsolarietarik bata Beñar Mardo dela.

**Dialogue entre un paresseux et un vieux galantin**  
**Alfer baten eta ñapur zahar baten arteko solasa**

Idiarte ñapürra  
 Aspaldian hala da  
 Partidu bat banikek hiretako aberatsa  
 Mitikileko dük eta Petiri Santzen alaba  
 Hareki<sup>(n)</sup> egik ezkontza.

Beñat, esker dereiat  
 Doi-doia hitz eman diat  
 Petiri Santzen alabarik etxerat nahi eztiat (*ez diat*)  
 Haren aitaren ezagützera Barkoxerat gei diat  
 Hirekin dük, jakin diat.

Idiart, hobe huke hik  
 Bilu lintzea (*leintzea?*) ützirik  
 Nik perrüka emanen dat (*deiat*) sagarroi larrüz eginik  
 Bürü xurien gordatzeko harek kalitate badik  
 Halako bat behar dük hik.

Beñat, esker dereiat  
 Hiru kalota batiat (*baditiat*)  
 Hire sagarroi larrüzkoaz batere beharrik eztiat (*ez diat*)  
 Hiaurentako begira ezak, joaiteko ohealat  
 Petirirekin lotzerat.

Idiarte ñapürrek  
 Eta Beñat auherrak  
 Hola zütüen algarri egin karesa ederrak  
 Gazteak maite lan eginan Petiri Santzen lagünak  
 Kuñat geiak neskatilak.

Bai, jente honek erri  
 Koblak beitira berri  
 Aireta eta egitateak zaharrak zaitzat üdüri  
 Auher eta neskatilekin Petiri Santzen askazi  
 Hola beti düit ikusi.

Xahok pieza horren zati bat agertu baitzuen, Mardo xaharra lehen aldiko galtzaile ikusten du errespetu gabeko gazte bati buruz, «vaincu pour la première fois de sa vie», bertso honen arartez:

Beñat, esker dereiat  
 Hirur perrüka badiat  
 Sagarroï larrüz eginik, eta  
 Hire begiratzen (*di*)tiat.

Baina F. Michelek alderantzizkoa uste du: Mardo zela gaztea, Idiart aldiz adinekoa. Dena dela, sagarroï larru horrek arrakasta handia ukan zukeela pentsa dezakegu, beste kaier xahar batetiko bi bertso hauetarik:

Idiart hobe hüke hik  
 Apez perrükak ützirik  
 Nik bat eman nahi dereiat sagarroï larrüz eginik  
 Neskatxen gogatzeko harek kalitate badik  
 Hala behar aldiz hik.

Beñat, esker dereiat  
 Hirur perüka badiat  
 Hihaurentako begira itzak saggarroïen larrüak  
 Eta egin kallota bat joaiteko ohilat (*ohealat*)  
 Eta ez neskatileta(*ra*)t.

### «Amodiozko baratzetan»

Titulu horrez hasten da Txomin Peillenen idazlan bat nahiko mardula eta lodia, zubereraz, *Gure Herria* aldizkarian argitaratua, 1962ko 34. zenbakian. Agertzen du XVIII. mendean maitasun abestiaren loratze bat gertatu zela iparraldean, eta bereziki Zuberoan, zitazioak emanez eta iruzkinak eginez. Bi iturri nagusi ikusten dizkio: batetik tokiko aitoren semeen ohitura iraunkorra, bestetik Frantziako gorteen eragina.

«XVIII. mentean – Oyhenartek eta Zalgizek erakutsi bideti(*k*) – nobleek amodioa eüskaraz kantatzeko üsantxa jarraiki dizüe. Ber denboran Frantziako Errege-Korte miragarrian, zaldi-mitilik hoberenak eüskaldünak dütüzü. Kortean zamarizain egonik, hanitx gure kartieletarat erretirutzen zütüzün, frantses jei eta kantoreen orimentxa ejerra berekin ekartez [...].

«Lehen tandako kantore nobleak aisa dütüzü bereizten, beitakigü noren ezteietako eta zonbait aldiz nork eginik izan diren. Hontaz kanpo tanda hortako kantoreak serios dütügü. Bigerren tandan ber mintzajejan hontürik ere, amodioa üsü jokü bat bezala agertzen düzü ».

Bigarren joera horren alde, Peillenek Garat lapurtar kantariaren etsenplua aipatzen du: Luis XVI.aren gortean «*Mendian zoin den eder*», «*Maitea non zira*», «*Aitarik ez düü*» abestuz, Marie-Antoinette erregina «xarmatü omen» zuen.

Peillenek orduko kantagintzaren tematika ikertzen eta azaltzen du, bereziki lore, txori eta izarren simbolikarena, etsenpluak emanez, haietan «*Arbotiko prima eijerra*» kantuko bertso bat, «txori eijer bat» aipatzen duena, baita xedera, oraikoan ongilea.

Gero behere horretako eragina aipatzen digu; batetik «jardin à la françai-se» delakoa: «*Orai banoazü herriti(k)*», «*Zelüko izarren bidea*»; bestetik «jardin à l'anglaise» delakoa: «*Alageraz*», «*Zeta haria*», «*Belatxaren brüneteta*», «*Iragoento ligiarraren kantoreak*» (azken hauek Frantses Iraultza denborakoak omen).

Peillenek aipaturiko kantuak aurkitu eta ediren daitezke J.D.J Salaberryren «*Chants populaires du Pays Basque*» abesti liburuan, salbu «*Zeta haria*», hau Allande Artigau Elixagarai ligiarrak bere herrian bildua. «*Amodiozko baratzetan*» zer agitu eta gertatu zen hobeki jakin nahi duenak, Peillenen idazlan horretara zuzenean joatea du, edo/eta Salaberryren kantutegira. Hona halere, dastatzeko doia, kantore horietako baten etsenplu, *Zelüko izarren bidea*.

### Zelüko izarren bidea

Zeluko izarren bidia  
Nik baneki,  
Han niro ene maite gaztia  
Chuchen khausi;  
Bena gaur jagoiti nik hura  
Ez ikhousi!

Haritch gazte bat nik aihotzaz  
Trenkaturik  
Uduri zait ene bihotza  
Kolpaturik:  
Erruak eroriko zaitzola  
Eihaturik!

Ahal balitz ene begia  
Zerraturik,  
Ene maite gaztiarena  
Argiturik,  
Ezar niro ene odola  
Ichuririk!

Zeren beitzen lili ooren  
Eijerrena,  
Baí eta ene bihotzeko  
Maitenena,  
Haren izanen da ene azken  
Hasperena!

Zelüko izarren bidea  
Nik baneki  
Han niro ene maite gaztea  
Xüxen kausi  
Bena gaur jagoiti nik hura  
Ez ikusi!

Haritx gazte bat nik aihotzaz  
Trenkatürik  
Üdüri zait ene bihotza  
Kolpatürik  
Erroak eroriko zaitzola  
Eihartürik!

Ahal balitz ene begia  
Zerratürik  
Ene maite gaztearena  
Argitürik  
Ezar niro ene odola  
Isuririk!

Zeren beitzen lili ooren  
Eijerrena  
Baí eta ene bihotzeko  
Maiteena  
Haren izanen da ene azken  
Hasperena!



## Pastorala edo trajeria

Oraiko ustez 1750koa dugu data seguru bati fidatuz ezaguturiko testu zaharrena, «*Ste. Elisabeth de Portugal*». Hona horrez Beñat Oihartzabalek idatzi duena: «Gaur egun, esku-izkribu hori, Baionako Euskal Erakustokian aurki daiteke (MS I4), aski ongi kontserbatua. Ex-libris-ek hauxe dio: «*fait à Ezkioula le trois janvier 1750 (...) // tragedie de Ste. Elisabeth il y a Entout 1696 vers*». **Jauliber** sinatua da (1).

Oihartzabalen arabera, baliteke testu hori zaharrago baten kopia izatea. Berriki arte, ber antzerkia luzaz errepikatzen zuten. Testua *errejenta delako* taula zuzendariak zekarren berkopiatua, batzuetan laburtua edo/eta emendatua. XIX. mendean pastoral berriak idatzi dituzten errejentak ezagutzen dira. Pastoral idazle soltearen figura berant agertuko da, XX. mende hasieran, «*Üskal-diinak Ibañetan*» antzerkiarekin.

Pastoralaren etorkiaz teoria ezberdinak badaude. Ez naiz horietan gehiegi sartuko, pastoralaren ikerketa orokor luze batera neramakelako: gehiago jakin nahi duena berezilarien obretara joan dadiela. Bi hitz soilik antzerki mota horren sorreraz. Batzuen ustez, euskaldunon tradizio zaharretik letorke: teoria horren aldeko idazle sonatuenak ditugu Agosti Xaho, Junes Casenave eta Manuel Lekuona (2). Azken honek gainera pastorala ahozko literaturan kokatu zuen, ustez bertsolaritzatik zetorrela. Horren frogarik ez dago inon. Alderantziz pentsa daiteke lehenbiziko pastoralen egileak idazle ikasiak zirela, agian elizgizonak, Georges Herelle frantses irakasleak izkiriatu zuen bezala (3).

Dena dela, ezagutzen ditugun testu zaharrenak XVIII. mendekoak ditugu, agian XVII. mendeko batzuen kopiak. Beraz bi mende eta erdiz geroztik bederen, pastorala literatura idatzian osoki sartua dago. Idazki batean oinarritzen da, beste antzerki klasikoak bezala. Aktore bakoitzak bere parte gogoz ikasten du, inolako inprobisaziorik egin gabe. Zuberotar guziok ongi dakiguna da, eta besteek ere ikas dezakete bistakoa den egia sinple hori.

Baina ez! Hegoaldean literaturako aditu zenbait tematzen dira Manuel Lekuonak idekiriko bidean aurrera, pastorala egiazki ezagutzen dutenen abotsa entzun barik. On Manuel Lekuona zenak horretan anka sartu zuen ederki, gizon handienei batzuetan gerta dakioken bezala. «*Errare humanum est*» dio gure zaharren zuhurtziak, eta barkatzekoa zaio, baina «perseverare» delakoa nekez entelega dezakegu pastoral idazleok. Segurki, holako lan baten egiteko, maratoiaren korritzeko bezala, ez duzu lazgarri listoa izan beharrik, baina gutienez arnas puska baten ukaitea hobe duzu. Eta bukatzean inor ez dakizula jin salatzeri: oinik ez duzu mugitu, amets egin duzu!

Georges Herellek dio pastorala Erdi Aroko frantses misterioetarik (ministerioetarik) datorkigula, eta goizik sartu zitzaigula, XV. mende bukaerantz.

Oihartzabalek ordea pentsu du berantago agertu zela: agian XVII. mendean. Segurki XVIII. mendekoak dira testu zaharrenak, ikusi dugunez, baina ordukotzat antzerki mota hori ongi eratua dago. Beraz horren etorkia aitzineko mendean kokatzea ez litzateke gehiegikeria. Europa hego-mendebaldeko beste eskualde batzuetan, hala nola Britainian, desagertuko zen teatro «rural» batetik sortu zuketena zuberotarrek, denborarekin beren kutsu eta plegu bereziak emanez (4).

Ber ildotik, Txomin Peillenek erran izan dit haren ustez pastoralala zuberotarrek santuen ohoretan antolatu zutela, Biarnoko buruzagi protestanteen aurkako erresistentzia moduan. XVI. mende bukaerantz Joana Albretekoaren pertsekuzioak pairatu baitzituzten, ondorioz ez zuten ezer ikustekorik nahi Paueko jaunekin, bereziki epaile kalbinistekin, ez eta haien erlijio zerebralarekin: jende xehea kultu ikusgarri eta sentikor bati atxikia egon zen, bereziki kalbinismoak debekaturiko sainduen itxura eta ospakizunei. Orokorki pastoralak zuberotarron nortasun berezia isladatzen eta babesten du orain ere. Geure burua euskaldun aldarrikatzen dugu, pastoralala euskaraz emanez.

Pastoralaren izena Italian sortu zuen XVI. mendean Tassio idazle famatuak. Gero hedatu zen Espainiara eta Frantziara. Carvantesek bat idatzi zuen, «*Gala-tea*». Frantzian arrakasta handia bildu zuten XVII. mendean Honoré d'Urfé baten komedia loretsuek. Baina Zuberoako pastoralarekin ikustekorik ez zuen antzerki mota horrek, izena salbu. Hor aipu ziren artzain eta artzaintsa batzuen maitasunak. Haatik jende horiek ez ziren egiazko pastoreak: errege eta printzeen gorteetako jaun eta andere handiak ziren ardi larruz maskaratuak. Zuberoako pastoraletan agertzen diren herritarrek ez daude gutiz gehienetan artzainetarik urrun: haietakoak ez direnean, haien ondoko hurbilak bederen...

Beste izen bat ere badu pastoralak: **trajeria**. Hiztegietan sartzea hartze luke. Horren ordezt *tragedia* jartzen digute. Ez zait egokia: trajeriak badu tragedia parte bat, baina komediatik ere bai. Ez da greko zaharren edo frantses klasikoen tragedia osoki beltza. Maiz ongi bukatzen da, zerua lagun, eta kristau esperantzaz aberats da. Nagusiki epopeia da, teatro epikoa, gainera sinbolista eta surrealista. Heroi baikor baten bizitza sublimatuz ospatzen du zoragarriki, ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka eten gabean.

Erlijiotik etorria denez bere *kiristi, türk, aingürü, saintü, apez, apezküpi, Aita Sain-tü* eta *satanekin*, pentsa daiteke lehenbiziko idazleak elizgizonak izan zirela, Herrellek erran bezala. Eskuinetik publikoari begira, kiristien ate urdinak zerua adierazten du, ezkerretik türk eta satanen ate gorriak infernuko sua, erdiko elur xuriak inozentzia, aingeru, elizgizon, artzain eta artaldeei ate zabala irekiz. Istorio zoragarri batean sartu behar duzu begi belarri, haurtzaroko bihotzarekin, eta horretarik ez atera, haria ez galdu, bestela zinez aspertzea baitukezu magia horren ate aurrean, beste guzietan ongi gozatzen dutelarik, eta zu amorrus denbora luzean!

Pastorala ez baduzu maite, zaude lasai: Zuberoan ere betidanik badaude hastio dutenak. Etxean egoten dira eta denentzat hobe: maite dugunok, eta ez gara guti, bakean goza dezakegu. Ni operak ez nau berotzen. Ez naiz joaten eta kito! Baina zinez pena nuke gal baledi, jende askok prezatzen baitu, bere gisan ederra delako, pastorala niri miresgarria zaidan bezala. Azken batean denon altxorrek ditugu.

### Clovis

Trajeria xaharren dastatzeko doia, hona *Clovis* pastoraleko zatiño bat, Francisque-Michel frantses idazleak 1857an agertua bere «Le Pays Basque» liburuko 71. orrialdean (5): Clotilde erreginaren otzoitza da.

Adoratcen çutut, Jauna,  
Celuco erreguia,  
Celiaren, lurraren eta  
Gaiça ooren creaçalia.

Guk cer behar dugun,  
Jauna, çuk badakiçu  
C(ç)oure gracia handiaz,  
Othoi, guida guitçaçu.

Jauna, othoi, erakax daçu  
Cereguin behar dudan  
Clovis sinhexi ala  
Refusatu behardudan.

C(ç)u adoratcen çutielarik  
Hitza dit avanzatu;  
Bena, Jauna, bestela,  
Othoi, çuk libra nezaçu.

O Virgina Maria saintia!  
Balìa çakitizat arestuosa  
Jesus seme Jaunaren  
Eretcian, othoi, onxa.

Gidatua izan nadin  
Hutzic batere eguin gabe,  
Ene salbazale justua  
Jesus offensatu gabe!

Adoratzen zütüt jauna  
zelüko erregea,  
Zelüaren, lurraren eta  
gaüza ooren kreazalea.

Gük zer behar dügün  
jauna zük badakizü,  
Zure grazia handiaz  
otoi gida gitzazü.

Jauna otoi erakats izadazü  
zer egin behar düdan,  
Clovis sinetsi ala  
errefusatü behar düdan.

Zü adoratzen zütüelarik  
hitza dit abantzatü,  
Bena jauna bestela  
otoi zük libra nezazü.

O Birjina Maria saintüa  
balìa zakitzat (...)  
Jesus seme jaunaren  
eretzean otoi ontsa.

Gidatüa izan nadin  
hütsik batere egin gabe,  
Ene salbazale jüstoa  
Jesus ofentsatü gabe!

*Clovis* pastoralia 1770ean Sarrikotapean antzeztu zen, 1799an ez dakigun herri batean, eta 1858an Atharratzen, beraz Francisque-Michelen liburua agertu ondoren.

### Prodiga

1770 urte horretan, Sarrikotapetik bost kilometrora, *Prodiga* pastoralia antzeztu zuen Onizepeko gazteriak, abuztuaren 20an. 1796an erreplikatu zuen Ürrüstoikoak, ekainaren 19an. Hor Frantziako Iraultza denbora zen, nahiz gogorrean pasatua, 1794ko uztailan Robespierre uzkailez eta hilez agintea hartua baitzuten eskuineko errepublikanoek. Dena dela, ohiko testuari nazio jaio berriaren gorazarrea gehitu behar izan zitzaion honako bertsoetan (6):

Viba, viba Françia  
Viba viba naçionea  
Viba viba republika  
Eta asamlada guçia.

Viba Françiako generalac  
Eta soldadouac oro  
C(ç)ientako loxa dira  
Munduko eresoma(ç) oro.

Emigrantec eta apessec  
Françiaric jouan çirenian  
Ousté çuen ginen çirela  
Sei hilabeten barnian.

Etçuen ouste Françian  
Hain soldado abilic baçela  
Ouste çien oro erhoric  
Burçaguituren cirela.

AITA

Citoyen çoure erosomalat  
Placer duçunin jouanen çira  
Kiristitu çirelacos  
Utçiren deiçugu houra.

Condiçionereki guerlaric  
Gouri emanen estuçula  
Eta kiristi leguia eresoman  
Eta Erepublika çariren duçula.

Biba biba Frantzia  
biba biba nazionea  
Biba biba errepublika  
eta asanblada güzia.

Biba Frantziako jeneralak  
eta soldadoak oro  
Züentako lotsa dira  
mündüko erresumak oro.

Emigranteek eta apezek  
Frantziarik joan zirenean  
Uste züen jinen zirela  
sei hilabeteren barnian.

Ez züen uste Frantzian  
hain soldado abillic bazela  
Uste züen oro chorik  
bürüzagitüren zirela.

AITA

*Citoyen* zure erresumalat  
plazer düzünean joanen zira  
Kiristitü zirelakoz  
ütziren deizügü hurra.

Kondizionerekin gerlarik  
guri emanen ez düzüla  
Eta kiristi legea erresuman  
eta Errepublika ezarriren düzüla.

Eta hotz emaçie orai  
 Guitian eretira  
 Eman nahi deiçiet orori  
 Ardoa houn batetariç edatera.

Eta hots emazië orai  
 gitean erretira  
 Eman nahi deizüet orori  
 ardo hon batetarik edatera.

Ondotik zazpi bertso horiek ezabatu zituzten, haatik oraino irakur zaitzkeen Webster jaunak Atharratzen eskuizkributik bildu zituelarik.

1, 4 – Beñat Oihartzabal, *Zuberoako Herri Teatroa*, in *Antropologiaren euskal bilduma (AEB)*, Haranburu-Editorea, S.A., 1985, Donostia).

2 – Manuel Lekuona, in *Euskal Herria*, 1. tomoa, 456-457, «*Aozko Literatura Euskal Errian. Ebokamen*». Lan Kide Aurrezkoa, 1985.

3 - Jean Haritschelhar, in *Etre basque, La Pastorale*, 280-281. Privat, Toulouse, 1983.

5 – Francisque Michel, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*, 1857, Paris. Edizio berria 1994an, Elkar etxean.

6 – Wentworth Webster, *A la découverte des Basques, Les loisirs d'un étranger au Pays Basque*, 257-258 . I<sup>ère</sup> édition: Imprimerie française et orientale E. Bertrand, 1901. Réédition Elkarlanean, 1998.

## Belako zalduna, historiazalea (1709-1796)

Jean-Philippe de Bela mauletarra, Jakes handiaren biloba, hamazortzi urterekin Frantziako armadan sarturik, gerlan ari izan zen eskuin, ezker, hala nola Suedian, eta gero Poloniako erregearen alde, hau Louis XV.aren aitaginarrereba izanez. Belak frantsesez askotxo idatzi du. Obra nagusiak: «*Mémoires militaires du chevalier de Béla*», eta Euskal Herriko historia bat eskuizkribuz, hiru tomotan: «*Histoire du Pays Basque*». Argitara gabea, Parisko «Bibliothèque Nationale» delakoan dago (Manuscrit N.A.F. 22.06). Belak beste guzien aurretik zazpi euskal «probintziak» honela aipatu zituen XVIII. mende erditsetan: «*ON DIVISE LES BASQUES EN SEPT PROVINCES OU PAÏS PARTICULIERS*». Manex Goyhenetche zenaren aurkikuntza dugu, Joseba Agirreazkuenaga EHuko irakasleak aipatua 2004ko maiatzaren zazpiko *Berria* egunkarian, «*Manex historialari isilaren emari ugaria*» delako artikuluan.

## XIX. MENDEA

Hasteko bi euskaltzale handi aipatu behar ditugu: Xaho eta Abbadia. Euskaraz guti idatzi dute: Abbadiak bospasei gutun eta esaldi zombait (*Ez ikusi, ez ikasi...*); Xahok artikulu andana bat, Patri Urkizuk bi liburuxkatan agertu duena. Baina bi gizonen euskararen alde lan asko egin dute, zombait aldiz elkarrekin, nahiz oso ezberdinak ziren ideologiaz .

### Abbadia aita-semeak

Antoine d'Abbadie (1810-1897) irlandarra zen amaz, jaiotzaz eta haurtzaroaz. Euskalduna ere bazen: aita, Mixel Abbadia, ürrištoitarra zuen, eta honek euskaraz irakatsi zion, hizkuntzaren aldeko maitasuna emanez ber denboran. 1826an ipar Tolosako Lécluse irakaslea lagundu zuten «Gramaire basque» delakoaren antolatzen. Hor agertzen da Mixel Abbadiaren idazlan xume bat, La Fontaineren *Le corbeau et le renard* alegiaren itzulpena.

#### **Le corbeau et le renard**

Belle jaunac, zuhaiñ baten gaiñen phausaturic, gasna bat bere moskhon atchequitcen zin; Acheri jauna, hunen urrinac ginaraciric, language huntan mintzatu cen: «Egun hon, mousde bellia, zoiñen eiger ciren! cer ichura ederra duzun! zure cantoria zure zayaren paria bada, eguiazqui zu cira oihen [sic] huntaco chorien erreguia». Elhe hoyez, Belliac hanich boztario sentitcen du; eta bere botz ederra entzunarazteco, moskho largo bat zabalcten, eta bere bazca erortera uzten du. Hau Acheric aztaparretan harturic erraiten do [sic]: «Ene jaun ona [sic], jaquin behar duzu, lausencazalle guciac behazallen oguirequi guicentcen dírela; Leccione hunec dudagabe gasna bat balio du». Belliac, ahalqueturic, cin berantche batequi erran cin, secula eztiela berriz atzamanen.

*Itzulpen fidela da, galizismoen baztertzeko heina ziburki egokitua. Euskara, Pettarrekoa du osoki, bots Ürrüstoikoa, zuberera klasikotik hurbil egona gatik «zin» eta «do» bezalako ñabardurez ongi markatua.*

#### *Hona oraiko grafian emana*

Bele jaunak, zühain baten gainean pausatüririk, gazna bat bere moskoan atxekitzen züan; Axeri jauna, honen ürriñak jinarazirik, language hontan mintzatu zen: «Egün hon, musde Belea, zoinen eijer ziren! zer itxüra ederra düzün! zure kantorea zure zaiaren para bada, egiazki zü zira oihan hontako txo-

rien erregea». Ele horiez, Beleak hanitx boztario senditzen dü; eta bere botz ederra(*ren*) entzünarazteko, mosko largo (*zabal*) bat zabaltzen (*idekitzen*), eta bere bazka erortera ützen dü. Hau Axerik aztaparretan hartürrik, erraiten deio: «Ene jaun hona, jakin behar düzü, lausenkazale güziak behazaleen ogi(*a*)reki(*n*) gizentzen direla. Letzione honek düda gabe gazna bat balio dü». Beleak, ahalketürrik eta kexatürrik, zin berantxe bateki(*n*) erran züan, sekülan ez düela berriz atzamanen.

*Axeri izen berezi eta propio bezala dago hemen; ogireki apantziala muşaqabean.*

Antonio katoliko suharra zen, xuria, erregetiarra, jauna eta jakintsu zorrotza, poliglota, zientifikoa (atronomoa, geografoa eta abar. . .). Euskal Jaiak urtero antolatu zituen 1851etik, hala nola Maulen 1880an eta 1990ean, Lore Jokoei leku handia emanaz. Euskal kultura mugimenduaren aita dugu. Euskararen alde lan asko egin zuen, bereziki Xahorekin. Eskua sartu zuen gramatikan, hiztegian, ortografian. Haatik euskaraz ez zuen askorik idatzi: Lore Jokoen kariara gutun labur multzo bat lapurteraz, zubereratiko aztarna batzuekin, eta ber euskararen *Zubernoatikako gutuna*, hau nahiko luzea, Urruñako udalari zuzendua, horri eginarazi nahi dion bide batez. Abbadiaren hizkuntza maila ertainekoa dela dio J.B. Orpustan jaunak, eta horretan ados nago. Agian erosoago zen aitaren euskalkian, eta behar bada jakintsunari zor diogu Ürrüs-toiko kalostrepean ageri den hilartitza, horren izeba eta gozama, ama ponteokoaren hilobi gainekoa (aitaren haurride gehiena zen Maitena):

J.H.S.

Heben dago erhausteco  
Bena berriz phizteco  
Maria Maitena  
ABBADIACO alhaba zena

---

Heben dago errausteko  
Bena berriz pizteko  
Maria Maitena  
ABBADIACO alaba zena

---

Sortu zen apherilan  
1771-an  
Hil izan da abentian  
Laugarren egünian  
1856-an  
JINCOAREN bakian

---

Sortü zen apirilan  
1771an  
Hil izan da abentüan  
Laugarren egünean  
1856an  
JINKOAREN bakean

---

Igaraile bihotz hona  
Ber bidian zoazana  
Gomenda ezazu JINCOARI  
Eta Virginia MARIARI

---

Igaraile bihotz hona  
Ber bidean zoazana  
Gomenda ezazü JINKOARI  
Eta Birjina MARIARI

---

Adio gabe eguzama  
Phausian dela zure arima

Adio gabe egüzama  
Pausian dela zure arima (1)

(I) dela: dagoela

Zuberera klasiko ederrean idatzi zuen idatzi zuenak (ene ustez Antonio Abbadiak berak, usaian ez baitzen batere delegazalea), eta grafia nahiko modernoan, bereziko *OA* (eta ez *UA*) basa diftongoarekin: geroztik atzera egin izan da puntu horretan, batuko grafia etorri arte.

## Agosti Xaho (Augustin Chaho)

Agosti Xaho, Joseph-Auguste Chaho (1811-1858) Atharratzekoa zen, «basabürütarra », nahiz ama mauletarra zuen. Eliza katolikoari gorroto zion, antiklerikal amorratua zen, «franc-maçon» edo «hargin libroa», gorria, ezkerrekoa, errepublikazalea. Abbadiarekin zer zuen ikusteko? Adina, zuberotar etorkia, biak ber urteetan Parisen ikasle izan zirela, euskararen eta Euskal Herriaren ganako maitasuna, hizkuntzena ere bai, biak poliglotak baitziren. Gainera Louis-Philipperen monarkia burgesaren aurka maiz elkartzen ziren bi muturretakoak: errepublikazaleak eta erregetiar legitimistak, hots karlisten antzekoak. 1836an gramatika lan bat elgarrekin agertu zuten, «Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner» zuzendua: «*Etudes grammaticales sur la langue basque*». Lanaren gorputza Xahori zor zaio. Baina d'Abbadiek hitzaurre mardula eskaini zion, beste hizkuntza batzuekin konparaketak eginez. Bestalde Xahok kantu bilduma bat prestatu zuen, orain bi aldiz argitaratzen dena, hiztegi bat hasi eta grafia berri bat proposatu: «*Règles de l'orthographe euskarienne*».

Frantsesez idazle joria dugu. Haren obra ugarien artean azpimarratzekoa da «*Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques*» liburua, duela guti berriz argitaratua eta gazteleraz itzulia. Ber hizkuntzan, euskaldunen historia bat hasi zuen Mehaine Beltzuntzeko jaun erregetiarrarekin... Xahoz asko badaki Fermin Arkotxa hendaia gazteak.

Hona Patri Urkizuren *Agosti Xaho, Azti-begia eta beste izkribu zenbait* ediziotik zati bat.

### XIII

#### Herritar ezinago maiteak!

Hilabete honen hogeita bederatzüan, Baionako eta Mauleko bi arrondissementüetan, berrogei bat mila elektürrek behar düzüe izentatü depütatü berri bat, Konstitüzio berriari obeditzeko. Napoleonek egin deizüe lege berri hau; eman beitzenozüen, Frantziako Popülüak, zazpi miliu eta bost ehün mila botzez, harek bortizki galtegin züan indarra eta poterea. Zihaurek badakizüe



düda gabe, nik beno hobeki, zoinen irus eta kontent izan behar dügün gure oraiko zorte berriaren medioz.

Kestione hau ützirik saihetsealat behar deizüet deklarätü ene deseina eta pentsamentüa: nola, seküla beno konfidantxa handiagoreki, elektionen hontara agertzen nizan, eüskaldun lege, eüskaldün fidel bat bezala. Aldi hontan ez da hamar ez hameka errepresentanten izentatzerik. Hirur depütatü baizik ez düke Baxapireneetako departamentüak. Baxenabarrek, Ziberoak eta Lapurdik, hori erran nahi beita Eüskal Herriak eta eüskaldünek orok, ez dükeie depütatü bat baizik. Departamentüak hirur; Eüskal Herriak bat. Denak aski; hon balira!

Herritar ezinago maiteak! Digno eta kapable etxekitzen banaüzüe züen errerepresentatzeko Pariseko Senbladetan, aski dükezüe botzen eni emaita. Beharbada, hola prekozionatüz, ontsa beno hobeki eginen düzüe. Nik uste dü, eta paristar zonbaitek ere erraiten düe, ez zaizüela aldi hontan dolütüko; halako beitera denborak!

Sei urteren eginik izanen da oraiko izentazione hau. Senblada berri horrek urtekal ükenen düan sesione edo bilküra ordenarioak ez dü iragan(en) hiru hilabete beno haboro. Denbora horren büüan, Pariserik ützüel ondoan, izkiriba neikezüe eüskaraz zer lege berri egin ote dükeie(n) züen depütatü berri horiek. Gazterik joan nintzan Pariserat, herritar ezinago maiteak! Paseiatü niz hanitx urtez hiri handi, miraküülüsü, paregabe hartan. Han dira orano, Eüskal Herrian bezala, ene adiskiderik hoberenak. Herritar ezinago maiteak! Gogutzen zütüet igor nezazüen preferantxaz Pariseko Senblada berri hortara. Ihork-erek ez deizüe emanen nik beno hobeki hango (banko) berri.

Aldi hontan ez düe ükenen depütatü berriek parkamentürik. Erraiten dü biarnes prudentak, aberatsak sartürik ere dohainik depütatü edo errerepresentant, kario kosteko direla azkenekoz popülü ga(i)xoari. Hori erran nahi da aberatsek eta handiek ez düela seküla neglijatüko aberatsen eta handien int(e)-resa, ürgüülüa eta abantaila. Orai artino eginik izan diren lege(e)k orok, Frantziako popülü tristeak pakatzen dütüan legarrek, orok, petxa eta kontribüzio-  
ne güziek maleruski erakasten deiküe egia hau ekia bezain klar. Nik ere aldi batez izkiribatü nüan biarneser bere(n) lengua jean ber gaüza: handiek bere(n) abantaila bereizia ez düela seküla(n) ütziako txipien eta popülüaren amoregati(k); non ez den gizonaren natürel gaixtoa eta anbizionea kanbiatzen. Ez dakigü Jinko jaunak eta Napoleonek eginen ote düenez holako miraküülirik. Arte hontan, nik, elektür banintz eta laborari, prefera niroke depütatü aberats puxant bati, ni bezala bere ofizioti(k) bizi den gizon galant zonbait; atentzio-  
ne emanez zer eta nolako den gizon baten lana eta ofizioa.

Herritar ezinago maiteak! Züek bezala mündü orok badakizüe nizala egia maitale bat. Haurtzarotik aitzina igaran hogeita bost urte(e)tan ene lana ofizioa izan da, egia ho(r)ien txerkatzea, erra(i)tea, izkiribatzea eta inprimaeraztea, herriak jakin dezan eta ezagüt ditzan egün egiten düdan bezala. Errege

Filiperen aitzinean ez nintzan isiltü ez ikaratü, nahi bada haren aldekoak akü-satü nütüan heriotze eta krimo izigarri batez. Lege egile bat behar düzüe izen-tatü hilabete honen hogeita bederatzüan. Herritar ezinago maiteak! Lege per-feitaren seg(*e*)retüa nik ez badakit, ez da izanen ontsa estüdiatü faltaz. Arran-tier batek bere ürre zilarren kontüa etxekiten düan bezala; negoziat batek bere komertzioa sürbeilatzen düan bezala; jeneral batek gerla pratikatzen düan beza-la, nik estüdiatü üken düüt popülü oren hatsarreak, (*b*)istoria igaranak, erre-bolüzioneak, lege zaharrak eta lege(*e*)n berritzeak: hori beita ene gradüko gizon-en enplegüa, eginbidea, lana eta ofizioa. Ene ofizioko gizonak dira nazione oren eskolazaleak eta politikako errejentak. Gure lümatü(*k*), bere ütürbürütik bezala, kurritzen da nazione oren, errege eta enperadore oren fama hona edo gaixtoa. Gurea beno estatü nobleagorik ez düt uste badela.

Baionako eta Mauleko bi arrondisamentüetan eginik izanen da oraiko elekzionea. Häütatüko düzüen gizona izanen da partikülarki Frantziako hiru eüskal herrien depütatüa. Ni bazterrealat ütirik ere, emazüe otoi atenzione, herritar ezinago maiteak, depütatü horrek izan behar lükeala eüskaldünaren beritable potreta, eta ez gizon ezpiritü gabe, jakitate gabe, eskola handi gabe zonbait. Abertitzen zütüet aldi hontan gisa oroz begizatürrik izanen dela eüs-kaldünen depütatüa. Aldi hontan izanen dira züen jüje, elekzione(*e*)n errespe-türa, Frantzesak eta paristarrak; ez da ene espiritüa nik nahi nükean bezala kobardi; ene jakitatea eta eskola politikoa txipi da, nahi bada hogeita bost ur-tez iseiatu nizan ene argi mendrearen hedatzera. Ni häütatzen banaüzüe fran-tzesek konprenitüko düe eta hartüko düe behar den gaintialat eni akorda di(*r*)okezüen preferantxa hori.

Gizon eskoladün eta argitürrik den herri orotan laüdatürrik izanen dela es-perantxa düt eni eman zinirok(*e*)ien konfidantxa marka hori. Gaüza jakina da, eta hanitx lekütan, zonbat maite üken düdan gure Eüskal Herri paregabea. Nik libürüetan ezariz geroz, aitor düe sabantek, Europako Akademia orotan, hanitx püntüz erdararen hizkuntza nahasi ho(*r*)ien oren nausi dela gure eüs-kara zahar eta ederra. Ezari deiet franzeser inprimatürrik ber gisan, gure nazio-nearen historia amiragarria. Esplikatü deitzet eüskaldün zaharren lege parega-beak eta libertate perfeita. Bi mila urte hontan dira, Frantziaren eta Espainia-ren artean, zazpi probintzia, zortzi ehün mila arimatako herri txipi bat: eüs-kaldün izena, bere legeak eta libertate ederra kontserbi beitütüe bi mila urtez, arma bardinez, Frantziako eta Espainiako nazione krüdelen oren kontre. Gerlari famatü elibat [*sic*] izan beitära: bere nonbre txipian seküla bentzütü-rik izan ez den armada bat: obraz, bihotzez eta korajez popülü handi bat. Nork erran dü Frantziari nik bezain üsü eta nik beno gorakiago? Nik eman letziona tradüzitü dü espainol gaizoer Espainiako historiadore famatü batek. Madrilerik Alemanietara artino hanitxek irakurri düe eta gasetek (*kazetek*) erran düe nik zonbat maite düdan gure Eüskal Herri lilia. Arren, herritar ezi-

nago fidelak egizüe afera horren gaine(a)n errefletzione bat: gure herria ontsa ezagutzen düdanez bai edo ez? Ala ez ote nakike Parisera hel eta züen sofrentx [sic] eta dolore(e)n behar bezala deklaritzen? Egizüe iseiü bat.

Erradazüet egia. Herritar ezinago maiteak! igaran lau urte(e)tan ez ziradela izan Errepublikaren promes faltsüez eta gure Jaunen obra gaixtoez sobera kontent eta satisfet! Ez ni ere. Lehen ürratsaren egiteareki sartü zen bide gaixtoan berrogeita zortziko Errepublika malerusa. Erran ahal di(r)okegü barkoxtar laborariek izkiribatü zeitade(e)n leteraren konforme, izan ginela memento batez alegantzia handitan, ustez jinen zen kanbiamentü handirik alde honeal; ustez legarrak demenitüko ziren. Fite jin zen kanbioa, bena alde kontralat. Legarrak demenitü plazan berrogeita bost zentimak üken züntüen. Ah! zer gizon banoak, züen urte hartako depütatü jaunak; batak traidore besteak indiferent. Klar da Frantzia tronpatüririk izan zela ordünko eleksione miserable(e)tan. Eta zer depütatü saldoa! Zer konstitüzio bastart egileak! Berrogeita bederatzüko eleksione(e)z badakizüe zer pentsa, nik heben esplikatü gabe. Napoleonek kanpo ezari düan azken kanbera nahasi horrez ere ez deizüet erran behar ene pentsamentüa; ez eta ere nor güntüan hanko adiskideak eta kontrarioak. Atera gobernatü düzüe zihareen gustüala. Dügün egin esperientzia handi bat: dügün ikus lan eginaren erresültat ederra. Zazpi miliu eta bost ehün mila botz mintzatü direnez geroz tenpesta izigarri bat bezala, ützi behar dügü igaraitera Frantziako Popülüaren jüjamentüaren Kontseilüak, *Conseil d'Etat* frantzesez deitzen dügünak presentatüko dütü lege berriak, bere haütüzko kontseiler elibat [sic] kargatzen dütüalarik lege ho(r)ien esplikatzeaz eta defendatzeaz züen depütatuen aitzinean, herritar ezinago maiteak. Depütatüaren eginbidea izanen da behar den bezala botzaren emaita; legea hon dela uste badü haren süstengatzea; legea gaixto balitz haren errefüsatzeta. Lanik difizilena izanen da legar, petxa eta kontribüzioe ooren kalkülata; despendio güzien erreglatzea, amoregatik eta laborariaren azken errekur(t)sa eta azken ardita gal ez dadin le(i)ze ezinago barna hartan. Ni igor nezazüe Pariseko Senbladala; eta zin egiten deizüet kontüak errendatüko deitzüedala depütatüen ezpata bezain zorrotz, herrüririk egin gabe! Bego sürbeilantza hori ene esküetara».

*Urkizuren edizioan 11 orrialde betetzen ditu XIII kapitulu bonek (71-81): lehen erditua, eskas aire, agertu diot. Gero Xabok Konstituzio berriko lau atal nagusiak aipatzen ditu. Bukatzean oroitarazten du nola berrogeita bederatziko bozketan, deputatu aulkia boz gutiz butsa egin zuen, batetik biarnesen «jeloskeria txar» baten erruz, bestetik Biarnon ukan zuen karro-sa ixtripu latz baten ondorioz. «Uste zünüen hanitxek, hala barreatü beitzen berri tristea, hiltzera ninduela, hilik ez banintzan».*

*Azpimarratzeko da bestalde Xabok, lehenago Sorhoetako Tartasek bezalatsu, biztegian erakusten duen lazakeria: bitzak burrustan hartzen ditu frantsesetik, gutiz gehienen baliokide arruntak euskaraz badituqularik.*

*Alta bestalde euskara aratzaren jabe dela erakutsi du. Zein ote da errazkeria honen zergatia? Nabiko arrunta den joera bat dugu zuberotarren artean, beste puntakoa dugularik purismoa, garbizalekeria, Egiategiren ildotik.*

## Jean-Baptiste Arxu (Archu) (1811-1881)

Jean-Baptiste ARCHU, sortzez altzürükütarra, eskoletako irakasle izan zen Bordelen eta gero La Réolen (Larreolan ote?), gero hor eskoletako ikuskari. Kargu publiko nahiko gorak ukan zituen bigarren herri horretan.

Haren euskal idazlan bikainenak: 1848an «*La Fontaineren alegia berheziak neurt-bitzez frantzesetik uskarara itzuliak*» eta 1852an gramatika bat, hiztegi batekin, «*Bi mihiren gramatika, uskara eta frantzesara*»: zuberera du oinarri, baina ekialdeko behenafarreraz osatzen du, Sorhoetako Tartasen antzera, nahiz gutiago. Hori dugu joera naturala gure euskara beste euskalkietako euskaldunei zabaldu nahi dugularik. Alegiak eta hiztegia berriz agertu dira «*Klasikoak*» sailean, 33. zenbakian.

Beste idazlanik: 1847an Bernat Etxepareren olerki batzuk agertu zituen, frantses itzulpenarekin, halaber Ohenarten atsotitzak. Ez omen dira Arxuren hoberenetarik. 1948an «*La Marseillaise*» eta «*Le chant du départ*» kantu iraultzaileak euskaraz jarri zituen, hirugarren bat idatzi euskaldunen ohoretan, laugarren bat errepublikazaleen alde. Ruthen liburua zubereraz itzuli zuen L.L. Bonaparte printzearentzat, Manuel Inchausperen ordeztu, hau ingeles hizkuntzariarekin haserreturik.

### Belea eta haxeria (1)

Zühain baten kükülan jarririk,  
bele jauna zagon gazna bat moskoan.

Haxeri jaun, üsainaz deitüririk, (2)  
gelditü zen zühainaren ondoan. (3)

Hitz hoiek diotzü hegaltariar:  
«Egün hon, agur, gure jaun beleari!

Zoin pollit, zoin eder den! (4)

Egiazki, zure botzak zaiaren  
balin badü idüria, (5)

bortütan diren ihizi ederrenen  
zü zira erregea».

Beleak, hitz hoietzaz hantüririk,  
bere botz ederra erakutsi nahi dü;  
mosko handi bat zabaltüririk,  
gazna lurrerat ützen dü. (6)

Haxeriak, gazna atzamanik,  
 beleari erran züan ordüan: (7)  
 «Jakin (e)zak, jauna, lausenkarria  
 hari beha denaren kostüz mündüan  
 betidanik izan dela jankidea.  
 Ene lezioneak, arauz, balio dik  
 gazna bat segürki».  
 Bere tontokeriaz ahalketüririk,  
 Beleak, beranxki,  
 Zin egin omen züan  
 Gehiago ez zütela atzamanen. (8) (9)

### Zuberera klasikoan:

- (1) haxeria: axeria
- (2) usainaz: ürrinaz
- (3) gelditu: baratü, eküratü
- (4) pollit: eijer
- (5) idüria: üdüria
- (6) lurrerat: lürrealat
- (7) zuen: züan
- (8) gehiago: haboro
- (9) zutela: züela

*Alegia hau nagusiki zubereraz dago, borren seinale direla bereziki euskalki borretako hitz eta formai hauek: zühain (zubaitz), gazna (gasna), moskoan (mokoan), botzak (bozak), hoietzaz (hauetaz ala horietaz?), atzamanik (atzemanik), kostüz (gostuz), arauz (araiz), ümen (omen), atzamanen (atzemanen), eta lehenik haxeria (Basabürüko H bo-rrekin). Beraz zubererazko grafia berrian jarri dut orokorki.*

### Igela idia bezain handi jin nahi dena

Igel batek idi bat ikusi zien; (züan)  
 Handixka zela zaikon (1) idüritzen. (üdüritzen)  
 Arraultzea beno igela handiago ez zen.  
 Hedatzen da, hantzen eta loditzen,  
 Loditarzünaz aberea garait ahal dezen. (dezan)  
 «Soizü ontsa, ahizpa –erraiten zien–, (so egizü) (züan)  
 Aski deia? Erradazü, ez niza heltzen?»  
 «Ez, ez». «Orai?» «Ez zira hüllantzen».  
 «Soizü orai?» «Ezin zira». Igela da arrahantzen (so egizü)  
 Eta gaixoa be(re)hala lehertzen.  
 Igelaren idüri hanitz bagütüzü, (üdüri)  
 Giren beno handiago jin nahi gütüzü.  
 zaikon: zubereraz zeion, behenafarreraz zakon.

**Otsoa eta axuria**

Azkarrenaren arrazua beti da hobe(*re*)na,  
 Ikusiren dügü ber(*e*)hala.  
 Axuri bat ari zen edaten  
 Erreka baten (*b*)uretirik.  
 Otso bat barurik  
 Hara da jiten,  
 Goseak deitürrik.  
 «Ahalkegabea  
 Zertako ene edaria  
 Dün türbüsten?  
 –Dio otsoak bere kexüan–  
 Zehatürk (*b*)iz izanen».  
 «Jauna –dio axuriak–,  
 Ez zitiela, otoi, egon samürrean. (*ziteala*)  
 Ez ditit (*b*)urean hoinak;  
 Soizü, banoazü edatez  
 Hogei ürratsez  
 Zü baino beherago,  
 Eta zure edaria, segürki düzü egia,  
 Ez dit niholere türbüsten».  
 «Türbüsten dün –dio gorago  
 Abere gaitz horrek–,  
 Eta badakiñat joan den urtean,  
 Zühain baten azpian,  
 Nitzaz hintzala gaizki mintzatzen».  
 «Nolaz?... Ez nüdüzün sortürrik,  
 Ene ama orano dit egoskitzen»  
 Erraiten deio axuri(*a*)k.  
 «Hik ez badün erran, hire anaiek».  
 «Ez dit anaierik». «Beraz hire askaziek.  
 Ez naizüe hainbat maitatzen  
 Züek, Züen artzainek  
 Eta horek; (*txakürrek*)  
 Badakiñat, bena nün mendekatüren».  
 Ordün oihanealat dü eramaiten  
 Eta hortz ederrez han jaten.

**Mendia haur-minetan**

Mendi bat haur-minetan  
 Orroaz ari zen.  
 Jente(e)k, orroa hoietan,  
 Uste üken züten (*züen*)  
 Mendiak sortüko ziela (*züala*)  
 Parise bezalako hiri bat.  
 Zer ezari zien (*züan*) mündüala?  
 Sagütto bat.  
 Kontü hau gogoala bazait jiten,  
 Ikusten düdala zait idüritzen (*üdüritzen*)  
 Espantotx bat zoinen erranak  
 Hanitx beitü hitzemaiten,  
 Eta zoinen lan eginak  
 Aizetan beitira joaiten.

**Oiloa ürre-arraultze errülea**

Bekaizteriak oro dütü galtzen,  
 Oro nahiz irabazi.  
 Egia düdala erraiten  
 Nahi düt jakinerazi.  
 Gizon batek oilo bat bazuen (*bazüan*),  
 Zoinek goiz güziez,  
 Ber kokodatzez,  
 Erakusten beitzuen (*beitzüan*)  
 Arraultzea zuela (*züala*) errün.  
 Errün züten (*zütüan*) berrehün,  
 Oro ürrezko arraultzeak.  
 Gizon bekaiztiak  
 Gogoan zuen (*züan*) izan  
 Oiloak sabelean  
 Ürre zenda (1) zonbait zuela (*züala*).  
 Hontarzün horren lasterrago  
 Ükaiteko,  
 Oilo gaixoa hil zuela (*züala*)  
 Jakin (e)zazü, adiskidea.  
 Bena zer izan zen haren dolüa!  
 Sabela irauri ondoan,  
 Ürrerik ez zeion ediren barnean:  
 Beste oiloak bezalako zen.

Gizon horrek, hontarzün berak galdü zuen (*züan*).  
 Zer leziona handia!  
 Hanitz jente eskele (*eskale*) jin dira  
 Aberats nahiz izan  
 Laster eta bertan.  
 (I) zenda: meategi.

## Etxahun-Barkoxe Pierre Topet-Etxahun (1786-1862)

Pierre Topet-Etxahun barkoxtar nekazariak bizitza dramatikoa ereman zuen, gehien bat bere faltaz itxura guzien arabera : jende askorekin haserretzen baitzen, susma daiteke ez zaitekeela beti besteen erruz, nahiz berak hori saltzen digun bere kantu hunkigarrietan. Gizon minbera zen, ausarta ber denboran, erasotzailea, eta konponketarako dohain guti zuen antza denez.

Kantu idazle onenetarik izan zen herriko doinuetan. XIX. mendeko euskaldun poeta handiena izan zela uste da Zuberoan, baina beste euskalkietakoak hainbat ezagutu gabe, hala nola Elissamburu eta Zalduby lapurtarrak, Arrese-Beitia bizkaitarra, eta abar... Bere nahigabeak maisuki abestu ditu. Lirikaren ondoan, satirika ere landu izan du ironia zorrotzez edo umore gazi-gozoz.

Euskara Barkoxekoa du, beraz nagusiki Pettarrekoa, nahiz Barkoxe Basabürüan dagon, baina Mauleko kantonamenduan. Elisioak ugari ditu, Pettarreko moduan: adibidez «mendingo» eta ez Basabürüan bezala «mendian». Hizkuntza nahi bezala derabil, malgutasuna eta zehaztasuna ezkonduz esaldi tinki eta indartsuetan. Hiztegi aberatsa du, dela biarnesetik hitzez, dela euskal hitz zahar eta klasiko. Geroztik biarnesetik hitz gehixenak galdu zaizkigu, baina euskal hitz batzuk ere arrotzuxe zubereraz, «manexak» edo «espainolak» direla pentsatzeraino: beldür, gertatü, eta abar...

Ideien aldetik zer? Agosti Xahori olerki luze bat «ontzen» dio. Hor eta beste bertso batzuetan, errepublikazale agertzen da. Sozialista dela erran izan da gainera, baina zer funts eta oinarri du iritzi horrek? Egia da txikien eta txiroen aldeko bertsoak ere badituela. Baina «sozial» izatea ez da baitezpada «sozialista» izatea. Adibidez, katokiko integristen artean badaude probreen laguntzeari ematen direnak, hala nola «Ama Teresa» serora zena Indiako dohakabeen artean, politikan eskuin muturreko ideiak aldarrikatuz ber denboran. Alderantziz, sozialisten artean (ere) badaude pertsona berekoi eta egoista batzuk, bakarrak ezagutzen ditut, baina hor ere ez da orokortu behar...

Uste dut Etxahun-Barkoxe, euskaldun asko bezala, eskuineko anarkista dela, oroz gaintetik bere jabegoari, eskubide pertsonalari, beregaintasunari errotik atxikia: baserri mundu zaharretik datorkigu, hor bakoitzak berea egin



behar baitzuen, Estatu probidentzial batetik urrun. Are gehiago, Estatuetsaitzat ikusten zen, bere zerga, lege arrotz, funtzionario larderiatsu eta hotz, poliziako eta soldaduekin. «Ofizialena» kantuan, nekazari ez diren beste guzietan ziria sartzen die, artesau eta langile mota guzietan adarra jotzen. Nahi dut irrifar egiteko zela, baina nonbaitik ere, hor agertzen zaizkit nekazari munduak beste ofizioez dauzkan aurreiritzi ezkor guziak!

Bestalde abertzalea ote zena? Galderak ez du zentzu handirik garai hartako. Eta geroztik ere iparraldea murgildu da ama hizkuntzaren matria apolitiakoan. Segurki «Etxahun xaharra» euskaltzalea da, oroz gainetik zuberotarra, hots «egiazko üskaldüna». «Barkoxeko eliza» kantuan honela dio: «Barkoxeko apezak, Oro dira manexak. Ez gineroa üken ahal Ziberuko seme bat...». Haatik «Montevideorat joaileak» olerkian, Euskal Herri osoaren ikuspegi bat erakusten du: «Bi bertsetan hontzeko denbora düt hartzen, Üskal herri güzian nahiz kanta ditzen...». Eta: «Hau da üskaldünaren sistema tristea / Hürrünean beitu bere sinestea...». Baina horren euskaldungoa hizkuntzan eta lurraldean datza, ez du politikaren usainik.

Etxahun-Barkoxe bertsolaria? Bertsolari handi fama du Pierre Topet-Etxahunek. Baina bat-bateko lehian ari ote zena? Horren frogarik ez dugu. Barkoxeko erretoreari elizako atean kantatu zizkion bertso mingarriak aldeztu aurretik prestatuak zituela erakutsi du Jean Haritschelharrek. Halaber «Etxahun eta Otxalde» kobla sorta ezaguna, bidarraitarrak idatzirik aurkeztu zuela 1890ean, Mauleko Lore Jokoetan: 28 urte hartan zendua zen Etxahun-Barkoxe. Honen ahozko dohainen berririk ez dugu mementoko.

Aldiz idazle zorrotza zen Pierre Topet-Etxahun. Idazlanak ezinago zehazki zizelkatzen eta tzitzukatzen zituen behinere hutsunerik ez soberakinik utzi gabe neurtitzeko silaben artean, familian egon den kaier bakarraren arabera: zuzenketaz bete dago. Topeten perfekzioak ez dio guti zor artesau eta ofiziale lan artatsu horri.

Etxahun Barkoxekoaz gehiago jakiteko, Haritschelharren bi liburuetara joatea da: ikus Bibliografian .

### Ürxapal bat

Ürxapal bat badügu herrian tristerik  
Nigarrez ari düzü kaloian barnetik  
Bere lagün maiteaz beitu(a) izan ütirik  
Kontsola ezazüe, züek adiskidik. (*adiskideak*)

Oi ene izatea dolorez beterik  
Mündüan ez ahal da ni bezain tristerik  
Ni bezala maiteak traditü düanik  
Habil Amodioa, hürrün ene ganik.

Traditü zütüdala deitazüt erraiten  
 Bata bezain bestea biak akort ginen  
 Ene bihotza düzü zuri beti egonen  
 Kitatü behar zütüt lotsaz etxekoen.

Oi ene traidorea zer düzü erraiten  
 Ele faltsü erraitetz ez zireia asetzen  
 Ene flakü izanez zira prebalitzen  
 Hortarik ageri (dü)zü nonko seme ziren.

Maitea nahi zütüt segreki mintzatü  
 Arrazuak dereitzüt nahi esplikatü  
 Bihotz oroz züntüdan osoki maitatü  
 Kitatü behar zütüt, hiltzera noazü.

Tonba bat nahi dizüt lürpean ezarri  
 Ene korpitz tristea gorde mündüari  
 Ene ixterbegiak ditean liberti  
 Akort izanen zira zü ere haieki.

### **Maria Solt eta Kastero**

Maria Solt eta Kastero  
 Bi amoros zahar bero  
 Hirur hoge hamarna urtetan hartü düe amorio  
 Kastero jelostü gero, Maria Solt ezari kanpo.

Maria Solt doa nigarrez  
 Izorra dela beldürrez  
 Barnetxbordako andereak kontsolatü dü erranez  
 Emazte zaharrik oküpü agitzen ez dela arauez.

Maria Soltek arrapostü  
 Santa Elisabet badüzü  
 Saintü zahar baten ganik oküpü agitü düzü  
 Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü.

Kastero ez düzü saintü  
 Sobera bürauti duzü  
 Elizalat joan eta taharnan egoiten düzü  
 Kastero dena gatik saintü, Maria Solt antzü zira zü.

**Ofizialeenak**

1

Oi laborari ga(i)xoia  
 Hihaurek jaten artoa  
 Ogi eta ardo geinutzen auherren asetzekoa  
 Halere hain haie maite nola artzainak otsoa.

2

Artzaina bada beztitzen  
 Josleak (dü)tü gomendatzen  
 Zaragollen alderki bata oihal hobez ezar dezen  
 Halere higatüren dizü aitzinea beno lehen.

3

Dendaria berant jiten  
 Arratse(a)n goizik ützültzen  
 Eta mündüaren jorratzen arte hartan abüsatzen  
 Ez beitü jaten düana hüllandzeko irabazten.  
 (Asteko denbora iragaiten mündüaren jüdikätzen).  
 (Artoan jaten düan gatza harek ez dü merexitzen).

4

Orai ürüle oro  
 Idorreatan nahiago  
 Hanitx lan agertü beharrez, hari(a) oro txori lepo  
 Hallikatzen balinbadüzü, zehean laur opilo.

5

Ehülea hari galto  
 Ükenik ere han franko  
 Ondar harien ebatsi nahiz oihal(a) üzten zerratzeko  
 Forni(t)zaleari erraiteko hariak zütüala gaizto.

6

Harrigilearen adreta  
 Harek badaki zer pentsa  
 Mürrüa gaizki egin eta erdiroak lohiz tapa  
 Etxea lurtatü denean, harrien gaiztoak falta.

7

Menüser, maiastürüa  
 Oi zer lan güti egilea  
 Dena gaizki egin eta zurak dü estakürüa  
 Pasta zela adarrondotsü eta beta bühürria.

- 8  
 Eskalanpu egileak  
 Ebasten (*dü*)tü materiak  
 Zazpira sos balio düana saltzen beitu hamabira  
 Ostatin (*Ostatuan*) jan hen (*haien*) saria eta etxen gosez familia.
- 9  
 Biñer batek besteari  
 Estakürü eman nahi  
 Zoini bere kopadüra hobe beitzazio üdüri  
 Aihen gabe nahi datinak (*dateanak*) hura beza üsü berri.
- 10  
 Oi taharnari fidela  
 Jüje ez baliz igela  
 Arrainak jakile har eta hek (*haiek*) litzak(*e*)ie kondena  
 Haien etxe lejitimoa guri saltzen deiküela.
- 11  
 Errejent bat bada hiltzen  
 Har(*e*)k ez dü prozesik üzten  
 Hontarzünak beütütü harek hein hon batetan ezarten  
 Züntzürrean kontrolatü eta pantzoilean hipotekatzen.  
 (*Züntzürrin, pantzoilin*)
- 12  
 Jaun apezek etsortatzen  
 Karitate egin dezen  
 Berek aldiz pakatü gabe hitz bat ez düe erraiten  
 Herriko praubik (*praubek*) gosez eta haien ürrik (*ürreak*) erdoilatzen.
- 13  
 Ilaginak aberasten  
 Arimak hain ontsa galtzen  
 Pezüan eta kontüetan zer ez düe hek (*haiek*) ebasten?  
 Horiekila behar düke Jinkoak aizina üken.
- 14  
 Kinkillarien soin hütsak  
 Bortaz borta dabiltzanak  
 Haien prenda ordinaria ixkilinb(*a*) eta ligeta  
 Astin (*astean*) emazter ebatsiak igantean gero joka!
- 15  
 Oihanzainak eta guardak  
 Kontzientziatzko gizonak  
 Gerak bazaitze farzi(*a*)razten, ihesiren (*dü*)tüe postak  
 Lagüner hareraziren (*dü*)tüe bardin gaizo sineskorrak.

- 16  
 Sarjanten golde nabarrak  
 Dirade gizon okerrak  
 Haien egitekoetarik egiten (*dü*)tüe Indiak  
 Aisa pergüt izanen dira haier behatzen direnak.
- 17  
 Sarjant eta notariak  
 Oi arnes nesesariak  
 Haien ele ülün gezürrek nahasten gaüza txipiak  
 Ez da lagün hobeagorik bertan hüsteko etxeak.
- 18  
 Oraiko arotz gaztik (*gazteak*)  
 Gizon galant dira güzi(*a*)k  
 Zaharren eskoletarik ez balira ikasirik  
 Altxeirü hanitx ezar eta egin espantü handirik.
- 19  
 (*Oraiko*) sonülarria  
 Ardüra dük egarria  
 Sonü egiteko behar dük noizeta(*r*)ik manazalea (*noizetik ere abal da,*  
*elisione hori gabe*)  
 Godaletaren hartzeko aldiz beti prestik (*dük*) esküa.
- 20  
 Dantzariaren arina  
 Ez dük ez bürüan mina  
 Zoinen adreki badabilan hara eta hona  
 Eta halere irus, ager(*i*) beitätik lan egina.

## Emmanuel Inchauspe apeza (1815-1902)

Zunharretan jaio zen «Harixmendia» laborari etxean, hamar hurreko familian. Baionan apezturik 1840an, han jardunen du erretiroan sartu arte (1890ean): lehenik ospitale zibileko kapellau, omonier; gero katedraleko kallonje, kanonigo; azkenean diozesako bikario jeneral, orokor, hots apezpikuairen urgazle nagusi. Mgr Lacroix Erroman laguntzen du «Vatican I» kontzilioan. Gero Errepublikak departamenduan dituen kargudunekin topo eginen du, eta ondorioz kargua utziko (adina ere bazuen) eta Onizegainen kokatuko. Hilobia han du.

Idazle maisua dugu zuberera, eta lapurteraz ere ona zen, baita frantsesez. Asko idatzi zuen. Hona haren obra ezagunenak:

- 1 – Elizako liburu bat, zortzi aldiz agertua izenburu ezberdinekin.
- 2 – *Jesu-Kristen Ebanjelio Saintia Sen Mathiuren arauera, Inchauspe Apezac Zubero-co uscaralat utzuliric.*
- 3 – *Dialogues basques* liburuan zubereraz parte hartu zuen beste hiru euskalki literarioen ordezkarien alboan.
- 4 – *L'Apocalypse de Saint Jean*, euskaraz itzulia.
- 5 – *Le verbe basque*: euskal aditzaz, lan erraldoia.
- 6 – *Jesu-Kristen Imitacionia, çubero-co uscaralat utzulia.*
- 7 – *Eguiazco erreligionea*: Imitazione delakoaren ondotik, ber liburuan.
- 8 – *Maria Birjinaren hilabetia, edo Mayatzian egun oroz egiteco irakourtaldiak Maria Virginaren bizitze eta berthute ederren gainen.*
- 9 – *Kantika Saintiac* (zubereraz)
- 10 – Axularren *Gueroco Guero* berriz agertu zuen, baina bere gisan antolatuturik: «Edicione berria, garbitua, chuchendua, eta bere baithaco ordenan eman». Idazle baten obraren horrela manipulatzea, eskubestatzea, ez dugu hain errazki onartzen orain.

Frantsesezko idazlanak ere utzi dizkigu: *Etude sur l'origine bayonnaise de Se Eu-rosie, vierge et martyre, et sur les Boïens et Boïates* eta *Le peuple basque, sa langue, son origine, ses traditions, ses caractères anthropologiques*, Xahoz ere liburuxka bat gogorra, eta protestanteen aurkako idazki bortizik.

Euskarazko lanetara itzultzeko, *Dialogues basques* liburuan parte hartu zuen beraz, zubererazko bertsioa emanez, beste hiru euskalki literarioetako idazle hauen alboan: Iturriaga (gip.), Uriarte (bizk.) eta Duvoisin kapitaina (lap.). Bestalde liburua frantses eta gaztelaniazko itzulpenekin agertu zen, bai 1857ko argitaraldian, bai 1978an Hordagoren errepikan. Hogeita hiru elkar-riketa baititu, hona lehenbiziko lauak.

## Dialogues basques

### *Leben elestaldia*

Igaran egüneko zure elestak hanitx txostatü nündüan.

Laket zait jakitea.

A. Nahi nüke zerbait erran zenezan aberexka zonbaiten gainen.

Ez da gaitz plazer horren zuri emaita.

A. Hanitx esker neikezü.

B. Badakizüa zer den zeta?

Ustez bai ; hona heben.

Bena badakizüa nontik horra den?

A. Arauz Indietarik.

B. Ez da Indietara joan behar zetaren ükeiteko.

A. Nola! hüllanagotik jiten lizate?

B. Heben berean ediren daite. Jinkoilo baten lana da zeta.

A. Jinkoilo baten lana! Badaitekea?

B. Bai; jinkoilo baten lana.

A. Erran ezadazü nola egiten düan lan eder hori.

B. Bada jinkoilo mota bat xuri eta lodi dena. Honek errüten düüan arraultzetarik elkiten dira har txipiñi batzü. Ber(e)hala hasten dira marrüga-tzearen ostoetarik jaten. Jaten düenaren antzo handitez doatza. Erhia bezain lodi egiten dira berrogei egüen barnen. Ordüan hasten dira ahotik elder egoisten ainarbak bezala. Egoisten düe zühainen adarretan bere(n) bürüen üngürüan. Hon(e)la baratzen dira elderrezko zarpa baten barnen. Zarpa hau deitzen da küsküa. Küsküak ezarten dira hur herakian, eta han mardotzen dira. Hartzen da hari bat, eta diren lekütik elki gabe, barreatüz badoatza. Kotxeian haria hartürrik, egiten da mataza doan bezala barreatüz.

A. Nork erran liro ikusten diren soineko ederrak zor zaitzola jinkoilo-ari?

B. Küsküaren barnen diren harrek oso osoki zia üdüri düe.

A. Hilik ala bizirik dira?

B. Hilik gure begietan, bena bedatsean elkitzen dira küskütik jinkoilo-türrik.

A. Hori da gaüza izigarria.

B. Bi gaüza hoietarik zoin zaizü izigarriago? arrapiztea ala jinkoilotzea?

A. Hain izigarri edireiten düt har baten jinkoilotzea, zoina hil baten arrapiztea.

B. Egiazki harritzeko da egün lürrean herrestaka dabilan har baten bihar hegaltaz lehen zen beno ederrago ikustea. Hau ikusirik ez da neke sines-tea arrapiztüko girela gü ere egün batez lehen beno ederrago. Jinkoilo berri hoiak errüten dütüe arraultzeak eta ber(e)hala hiltzen dira.

A. Zer! hain denbora gütiz bizi dira?

B. Bai, eta badira abereak orano gütiago bizi direnak.

A. Hori hala bada, ez dügü kexü izateko gure biziaren llabürtarzünaz.

### *Bigerren elestaldia*

B. Egün erle(e)z mintzatü behar nitzazü.

A. Haziendatto baliosak dira erleak: hoiak emaiten deiküie eztia.

Ez bakoizki eztia, bena ere emaiten deiküie ezkoa.

A. Nola eztikoi beniz ezinago, ez nintzan ezkoaz oritzen.

B. Eztia jateko bezain hon da sendogarritako. Marranta denean hartzen da eztia hurari nahasirik. Atxeterrek janerazten düe zombait aldiz barazkal aitzinean korpitzetik librerazteko. Bestalde orano, zombat gaüzarentako ez

da hon ezkoa! Honeki egiten dira tortxak, oihal ezkostatuak eta herskailü mota hanitx. Erleak sortzen dira jinkoiloak bezala, eta jaten düe eztia. Lilietan edireiten düe eztiaren eta ezkoaren geia. Liliaren irinareki egiten düe ezkoa, eta eztia aldiz liliaren kokotsetik elkitzen düen zühatzareki. Irina biltzen düe lilien gainen gibelesko aztaparren herresta erabiltez. Zankoetan badütüe galtzak bezalako batzü, eta ez dira üküratzen hoiek bete artino. Zühatza hürüpätzen düe mütürrean düen tronpa bateki. Zühatzarentako badüe sabel bat, eta han ezti egiten da.

Irinarentako badüe beste bat, eta han ezko bilatzen da. Gero, ahotik eztia egotxiz (*egoitziz*), egiten düe orrazea.

Eginik denean orrazea, honen xiloak eztiz betatzen dütüe.

A. Xiloa deitzen da tegitto?

B. Orrazearena bai.

A. Zorobilatzen naie ni gaüza hoiek orok.

B. Ez düzü zertzaz zorobila.

A. Zer! ez da zorobilatzeke gaüza lilien gainen den irinaren ezkotürik ikustea?

B. Eta ez zütü xorotzen gük jaten dütügün gaüzen ikusteak gure odolara kanbiatzen?

A. Egia diozü, ez nündüzün ohartzen.

B. Egün behiak jan düan belharra bihar eznetürik jaten dügü.

### *Hirurgarren elestaldia*

B. Egün errüllüaz mintzatü behar gira.

A. Zük nahi düzün bezala.

B. Errüllüa da üllü mehe, lüze, berdatx bat. Lexarretan edireiten da, zeren han errün ohi beitütü bere arraultzeak.

A. Horrek erran nahi dü errüllüen harrek lexarraren ostoa jaten düela.

B. Bai, jinkoiloen harrek marrügatze(è)n ostoa bezala. Bena jakin behar düzü zoin-nahi jinkoilo ez eta zoin-nahi zühain ostoa ez direla hon zetaren emaiteko. Üllü honeki egiten da herskailüa.

A. Erier ezarten zaiena.

B. Bai, hura bera. Eritarzün haboroenetan hori izaten da azken sendogarrria. Odoloreak dütüenentako ezinago hon da.

A. Eta nola emaiten da sendogarrri hau?

B. Erraustürik, eta ikusazü nola. Errüllüak bildü ondoan, üzten dira hiltzera eta idortzera; eta idortü direnean, zapätzen dira zaparri batetan. Errauts honeki egiten den herskailüak erratzen dü eta züsküllü eragiten. Zonbatak ez dioie üllü hoier zor bere(n) osagarria! eta zonbatak bizia!

Eta erranen deitazü ez direla hoiek xorotzeko gaüzak?



*Laugerren elestaldia*

B. Hona heben aberexka bat zük ezagützen ez düzüna.

A. Heben atzaman düzü?

B. Ez, Ameriketan sortzen da, eta hantik ekarten düe tinta egiteko. Koxenilla deitzen düe.

A. Alabena koxenilla gorri da, eta aberexka hori hauts kolore.

B. Hotarraina ere berde da berainez, bena egostean gorritzen da. Biña-gre txorta bat isurten badeiozü, ikusiko düzü nola gorritüren den.

A. Zoinen xabal eta biribil den! üdüri dü ilar-xabala. Mütürra xerriarena bezalako dü.

B. Hartakoz deitzen düe espainolez xerrittoa. Bada beste har bat hau üdüri kermes deitzen dena. Bena harek emaiten düan tinta ez da hain eder.

Bata ala bestea zühainetan aurkitzen dira, zeren haien amek zühainen ostoe-tan üzten beitütüe bere(n) arraultzeak. Harrak hoietarik elkitzen dira, eta egiten dütüe mallak, berak barnen egoiten direlarik. Bada beste tinta gorri bat orano ederrago dena. Purpra deitzen da, bena hain da bakant, non ezinago gütik üken beitezakeie. Arrain-küskü baten barnen edireiten da, eta txakür bati zor zaio.

A. Zer! Txakür bati! nola agitü zen hori?

B. Txakür batek ebil ohi züan goseak hilik. Goseak eroan züan itsas-bazterreala, eta hasi zen arrain-küsküdün jaten. Egün oroz joan ohi züan bere gosearen hileraztera. Ützültzen zen mütür güzia gorritürük. Norbaitek ustez odola zela eta zauri zonbait bazükeala, heltü zeion. Ikusi züan tinta zela dena odola üdüri. Eta horra nola aurkitü zen tintarik ederrena eta karioena.

A. Bai, kario izan behar dü, ezi arrain-küsküdün hanitx behar date bildü soineko baten tintatzeko.

B. Hain da kario non erregeek eta handi zonbaitek bakoizki üken beiti(r)okeie. Orobat gertatzen da perlaz. Arrain-küskü baten barnen edireiten da itsasoan. Horra non mündüan diren gaüzarik baliosenak zor zaitzen aberexka elibati [sic].

A. Bai egiazki. Nork erran li(r)oke errege eta erregiñen apaindürak hoier zor zaitzela!

B. Orobat gertatzen da elizako ornamentüentako.

J. D. J. Sallaberry legegizona  
eta kantore zahar biltzailea (1837-1903)

Mauletarra da, abokatua, notarioa eta politikaria. Haren ekarpen nagusia: *Cbants populaires du Pays Basque* kantutegia, 50 piezaz egina, hitz eta musika, 1870ean Baionan agertua. Edizio berri bat badago salgai. Liburu horretan le-

henbiziko aldiz agertzen dira euskal kantu zahar batzuk, ahozko tradizio luzetik bilduak, hala nola *Ber(e)terretxen Kantorea*, ustez ezagutzen dugun zubererazko kanturik zaharrena. Jaun horren beste idazlanik:

–*Uskalduner: beti aitzina xuxen xuxena dabila Uskalduna* (1889): Berdoly parlamentarigai errepublikazalearen alde, «Biltzarre errepublikanoak» babesturik, Paueko Garet argitalatxean agertu zuen 23 orrialdeko kaiera. «Basa-Nabarreko botzemaile(e)r» zuzendua, eskualde horretako behenafarrera onean idatzia, honela bukatzen da: «Biba Berdoly! Biba Errepublika! Biba Eskualdunak!».

–*Les mascarades souletines, avec les airs notés*, in *La tradition au Pays Basque*, PP. 265-280.

## Jean Iribarne apeza (1814-1890)

Altzabehetin sortua, Zalgizen hil zen. 1838an apeztu zen, Oloronen bikario sartu 1839an, Eskiulan 1843an, eta gero erretor izan Xiberoko parrokia andana batean aldizka: Garindainen 1844an, Arüen 1856an, Onizegainen 1862an, Sarrikotapean 1868an, azkenik Zalgizen 1873an, eta hor egonen da bururaino.

*Almanak uskara edo Ziberouko egunaria* aldizkariko arduradun izan zen horren hastapenetik (1887) bere hiltzeraino apantziara (1890). Gero segida hartu zeion Larrieu bedeziak eta segürtatu aldizkariak iraün züano (1914eala).

Bibliografian xehetasun guti edireten da Iribarne apezaz eta horren obraz, salbu hiru liburu argitaratu zituela:

*Ciberouko guthuna*, 1852

*Mysterio edo eguia gehienac*, 1856

*Sen Grat Oloroueco aphezcupiarentaco Mous de Lassale catradaleco erretorac erran dutianac uscaraz ezariric*, 1879.

## J. B. Althabe apeza (1843-1911)

Jean-Baptiste Althabe, Maulen jaioa, 1868an apeztua Baionan, ber urtean Atharratzera bikario bidali zuten, 1872an Lexantzüra erretore, 1884an Urdiñarbera. Kargua 1906an utzi zuen.

Euskaltzale trebea zela pentsa dezakegu: 1902an Hondarribiako bilkura famatuan parte hartu zuen ortografiaren bateratzeko batzordean, Pierre Broussain hazpandar euskaltzaingaiaren gomendioz Azkuek horretarako hautaturik. Bi lan aipagarri zor dizkiogu, liburuxka zientifiko-teknikoak:

–*Ciberouko botanika eta lantharen jakitatia*, Baionako Lamaignère inprimerian, Jacques Laffitte karrrikako 9an, 1900an .

–*Houunkailu berrien enthelegia Ciberouko laborarier*, ber lekuan, 1904an.

Printzipioz XX. mendean agerturiko lanak dira, baina praktikan, aditu batzuen arabera, XIX. mendea egiazki munduko lehen gerlaren hastean bukatu zela pentsa daiteke (beraz 1914an).

Aipaturiko bigarren liburuxka hori Kepa Altonagak argitaratu du EHU-ren Zientzia eta Teknologia «Ekaia» aldizkarian, 2006ko 20. zenbakian, Althaberen bizitzaz eta idazlanez argitasun baliosak emanez gainera. Hona apez jakintsuaren bigarren obratiko zati bat oraiko grafian emana.

### «Honkailü berrien entelegüa Ziberuko laborarier

[...] Ez da düdarik honkailü horiek egiten düela hon handi lürrari. Bena jakin behar da nola zerbütxa (*erabili*). Behar den gisan ez balin badira emanik, despendioa bada eta ez profeitürrik.

Arren jakin behar da: azota (*nitrogenoa*), fosfora, potasa eta latsüna (*gisua*) edo plastrea (*igeltsua*), horiek direla miraküilü egileak. Lürrak behar dü orano üken bürdüina, koxü bat, magnesia, karbona, oxigena, hidrogena, sofre, kloro, siliza, manganesa, soda; bena üsüan lürrak berak badütü, eta aireak eta ebiak (*eurriak*) nasaiki emaiten deitzo (*e*). Mintzatüko gira bereziki lehen lau aipatüez; zeren eta nasaiki eta beretzeko gisan (*assimilables*) edireiten badütü lantareak, azkarki pusatüko beitü (*haziko baita*).

Üzta urte oroz lürrari emanarazten bazaio, bortxatü da akitzera eta auher-tzera (*alfertzera*), zeren eta faltatzen betzaio azota eta fosfora, edo ere potasa eta latsüna. Zer egin arren? Eskaz edo higatü zaionaren errendatü (*itzuliz*). Eta nola? Barne gorotz eta *engrais chimiques* horietarik emanez ».

*Gero bi gauza zinez azpimarratzen ditu: batetik gorotzaren pobrezia kimikoa, eta beraz onkailu kimikoz osatu beharra, bestetik gorotzaren premia, onkailu kimikoek ez duten humus, lurbeltz, lurrustela ekartzen baitu, eta hau ezinbestekoa, baitzepadakoa zaie lurraren gorputzari eta biologiari. Aitortzen dut Althabe agronomian franko argitua ikusten dudala, bereziki bere denborako.*

### «Ziberuko botanika edo lantareen jakitatea»

*Idazlan hori lehenik agertu zen atalka Eskualduna astekariko zortzi zenbakitan (664-680, hutsarte zenbaitekin), 1900ko martxoaren bederatzitik aitzina. Laster liburuxka batean argitaratu zuen.*

*Altonagak dioskun bezala, biztegi botaniko bat da, frantsesa-euskara, hirurehun sarrera-koa, hogeita lau orrialde betetzen dituen. Horko berrogei bat landararentzat, Althabek agertzen du sendabelar bezala jendeak nola erabiltzen dituen. Txomin Peillenek erabilera hori aipatu du bere idazlan batean: «Herri-sendakuntza eta sendagingoa Zuberoan», *Anuario de Eusko Folklore*, 39., 244 orr. (1994-95).*

*Altonagak azpimarratzen du Althaberen liburuxka horrek «oso sarrera laburra» duela, «lau pasarteduna». Lau horietarik azkeneko biak aldatuko ditugu hona, ezin argiago erakutsi-ko baitigute Althaberen idazlan honen abiapuntu filosofiko kreaionista:*

«Jinkoak lantare bakoitxari eman dü bere poterea sendotzeko edo eritze-ko. Minaren kantüan ezarri dü orotan belhar sendozalea; ezagütü behar beita salbü Jinkoaren dohaina.

«Hatsarretik Jinkoak egin züenean lürra, erran zeion: lürrak ekar be(t)za belhar süberteak, bakoitxa bere aziareki, bai eta zühain frütü emaileak, bakoitxa bere frütü eta aziareki. Eta hala izan zen, Jinkoak manatü bezala. Ikusirik lantareen, zühainen, üzten baliotarzüen espantagarria gizonen eta kabaleen hazteko eta sendotzeko, dezala gizon fededünak goratik erran: Jinkoari dügün laüdorrio eta esker».

Testua gaurko grafiara itzuli dudala bistan da. Bestalde J.M. Bidadorrek liburuxkaren argitalpen elektronikoko bat paratu du 2005ean *Klasikoen gordailuan*, aldaketak eta gehiketak eginez, bereziki castellano-latin hiztegi bat, euskara-frantsesaren ondoan:

*Ziberuko botanika edo lantharen jakitatia*. <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AlthabeBotanika.htm>.

## Félix Larrieu bedezia (1863-1941)

Mauletarra, bedezia, Paris aldeko Montfort-L'Amaury hirian bizi izan zen luzaz, hango auzapez kargua bete, Maurice Ravel musikari euskaldunaren adiskide egin, eta han hil ere. Haren euskal lanak:

–*Uskal Noelen lilia*: Eguberri-Natibitateko kantu bilduma bat da.

–*Almanak Uskara*, Irigaray apezarekin.

–Frantsesez *Mauléon et le Pays de Soule pendant la Révolution*, in *La tradition au Pays Basque*, PP. 465-488.

1789eko zuberotarren 53 kexa kaier publikatu zituen 1891an *Cahiers des griefs des communautés de Soule* izenburuaz, S.S.L.A.P., P.P. 83-148, eta 175-405. Zuberoan 69 parrokia baitziren, beraz gehixenen kaierak aurkitu zituen Mauleko ganbara edo graner batean, eta salbatu.

Hona Dogson eüskaltzaleari 1893(?)an Pariseko *12 rue de la Sorbonne* delakoala igorri zeion gütün baten idazkia:

«Jaon maitia

«Zoure haiduru egon nuzu hamar egun hountan, oustez, izkiribatu zenereitan bezala, jin gei zuniala egun baten igaraitera nizan herriala. Bethi lanez gainitika badit, eta ene egitekoetan hanitch gibel nuzu. Hartakoz eztit gaiza handirik egin ahal ukhen Helaina pastoralen gañen. Imprimatzen hasirik deia? Hatsarretik lana hartzez, molda arao, ehikiago egin nikiozu.

Zoure *Concordance* dena hanitch ountsa zitazut. Han heben balukezu bai zerbait chuchentu beharrik, halere ez tutuzu hutsak handi.

M. Reitterer osoki sendoturik dela jakitiak ountsa atse egin ditazu. Bertan joaitekoa deia?

Ountsa nahi zuntuket ikhousi joan beno lehen. Bihar ere houna jin nintekezu arratsari buruz. Bena thenore doian jakin erazteko, houn lukezu un télégramme, zeren eta letera bihar postan ezarriak eztutuzu etzi baizik helturen Montfortea.

Zoure zerbutcharia

F. Larrieu atcheterra».

*Gutunazalaren gibeiko partean:*

«Helaina pastoralara Vaugirardeko ene egongian tüzü. Borthazañak emanen tereitzu».

*Oraiko grafian honela lizateke:*

Jaun maitea

Zure haidürü egon nüzü hamar egün hontan, ustez, izkiribatü zeneitan bezala, jin gei zünüala egün baten igaraitera nizan herriala. Beti lanez gaintika badit, eta ene egitekoetan hanitx gibel nüzü. Hartakoz ez dit gaüza handirik egin ahal üken Helena pastoralaren gaine(a)n. Inprimatzen hasirik deia? Hatsarretik lana hartzez, molda arau, ehikiago egin nikeozü.

Zure *Concordance* dena hanitx ontsa zitazü. Han, heben balükezü bai zer bait xüxentü beharrik, halere ez dütüzü hütsak handi.

M. Reitterer osoki sendoturik dela jakiteak ontsa atse egin ditazü. Bertan joaitekoa deia?

Onts nahi züntuket ikusi joan beno lehen. Bihar ere hona jin nintekezü arratsari bürüz. Bena tenore doian jakinerazteko, hon lükezü un télégramme, zeren eta letera bihar postan ezarriak ez dütüzü etzi baizik heltüren Montfortera.

Zure zerbutxaria

F. Larrieu atxetera.

Helena pastoralara Vaugirardeko ene egongian düzü. Bortazainak emanen deizü.

*Ikusirik orokorki egarten duen euskararen maila, estonagarria zait pastoralari dagokien aditzei zati honetan ematen dien plurala. Gutunean aldiz «pastoralen» idazten du, baina gero aditza singularrean: «Imprimatzen hasirik deia?» Gutunazalean presaka idazteak esplika dezake. Eta gutunean izena eta aditza ez daude ber erranaldian...*

## Aña Urruty anderea

*Protestantea zen, eta bere elizan euskaraz idatzi du, bereziki itzulpenak eginez .*

## Pastoral idazleak: Aguer, de Maytie, de Menditte

XIX. mende azkenera gizon berri bat agertzen da Zuberoako «trajerian»: idazlea, izkiribainoa. Horraraino «errejenta» baizik ez zen ezagutzen. Horrek testua zekarren, zuzendua, petatxatua, emendatua, moztua. . . baldintza horiekin maiz errepikatua urtez urte, batzuetan mendez mende. Errejenta zen pastorealean saristatzen zuten parte hartzaile bakarra. Hona beraz, horren parean uztarturik, idazlearen figura berri eta modernoa. Haatik pieza berri «ontzale» bezala ezagutzen ditugun lehenek bi ofizioak batera zeramatzaten. Estrainekoa dukegu Jean-Pierre **Saffores** atharraztarra (1799-1855), bereziki *Napoléon Empereur* eta *Cartouche* piezen idazlea eta beste askoren irakasle, antolatzaile, taula zuzendaria.

Jean AGUER, Atharrazte Bürgübürükoak hiru trajeria «ondu» eta jaulki ditu, bi mendeen juntan, Frantziako erregeen ohoretan:

–*François 1<sup>er</sup>*, Liginaga-Astüen emana (1900)

–*Louis XI*, Ligin (1903)

–*Henri IV*, ber urtean, Onizegainen.

Baina lehenik dantzari bikaina zen eta pastoral errejenta. Taula zuzendari berri bat moldatu zuen, Ozazeko Leon Sallaber famatua, eta honek bere al-dian Battitta Urruty garindaintar mitikoa lagunduko zuen.

1906an elkarrekin agertzen dira pastoral errejent ez diren lehenbiziko bi trajeria idazleak: Clément d'ANDURAIN de MAYTIE mauletar gaztea eta de MENDITTE apeza, «*Uskaldunak Ibañetan*» antzerkiarekin. Atharrazten emanen zen 1908an (eta 1954an Sohüta/Sorhoetan). Pieza horretan agertzen dira hiru alderdi: frankoak (kristiak), moroak (türkak) eta bien artean euskaldunak: hauek lehentze agertzen dira pastorealean, beraz pastoral berriari buruzko lehen urratsa ikusten dut hor. Haatik hirugarren alderdiak afera konplikatzen du publikoarentzat. Bestalde d'Andurain «gerla handian» hilen da (1878-1916), eta de Mendittek pastoreala utzirik katixima bat idatziko du.

Trajeria horren bi liburuxka gelditzen dira Baionako Euskal Erakustoki / Museoa, Hérellek utziak, erranez obra hori ezin edirena dela. Hona horko baten sarrera, eta bereziki lehen perediku luzea, bere 44 bertso edo bertsetekin. Sarrera jatorrizko grafian utziko dut, lehen peredikuan aldiz jatorrizko grafiaren parean oraikoa jarriko dut.

«**Zibero.**

*Uskaldunak Ibañetan*

*Trajeria hirur phartetan.*

*Eskualdun ona*

*kasetaren moldetegian*

*Marengo kbarrikan, 8.*

*Bayonan.*

*1906.*

«Trajeriaren egitiak emaiten deizkun zuzenez hitz bat.

«Orai argitarat emaiten dugun *Trajeriaren* egitera ekharri gutu gure Uskal-herriko usantcha zaharraren amorioak.

*Trajeria* huntan osoki errespetatu dutugu, sobera phastoraletan laidogarriki hautserik diren, errelijioniaren eta onestatiaren legiak. Bizpahirur orenez jokhatu da, eta behazalek eta so egilek ezte deusere behar eztenik ez entzunen ez ikhusiko; aldiz, ikhasiko die egiazko errelijioniaren, Uskal-herriaren eta gure mintzaje zahar bezañ ohoragarri denaren maithatzen.

Eliza besta astelehen batez, edo, ihautiriko astegun batez, edo igante arristiri [sic] batez, ofizioen tenorez kampo, deskantsu gocho eta onest bat dateke, *trajeria* hunen jokhatzia.

Liburu egiler legiak ezagutzen dutian zuzenak giharen begiratzen tugu. Zuzen haien arabera, *trajeria* hau jokatu nahi dukienek, behar dukie hitzartu lehenik gureki. (1)

Orai danik jakinerazten dugu, eztugula utziko hunen jokhatzera behinere igante edo besta goizez. Igante arristiriez [sic] jokhatzia honhartuko dugu, jaun Erretoraren baimenarekin [sic], ofizioen aitzinetik edo ondotik, beste solasik gabe.

Berberak hounhartuko [sic] dutugu dantza jauziak edo maskaradetako gizonen beren arteko dantzak, *trajeriaren* ondotik.

*Trajeriaren mustrek* ere eginik izan behar dukie, igantez egiten badira, ofizioen tenorez kampo bethi.

(1) Hitzartzeko aski date izkiribatzia adreza huntara:

**Murde Clément d'ANDURAIN**

*Château de Maytie*

MAULÉON.

Edo orano:

Imprimerie FRANCO-BASQUE

*Rue Marengo, 8*

BAYONNE.

Gure aitak zuhur ziren, hen artian Uskal-herriaren legiak, eta Errelijionearenak bat beitziren, Uskaldun izatia ala Khiristi hon izatia batetara horra beitzen.

Guk ere Errelijioniaren eta sorlekhiaren amorioa legetako hartuz, bethi jarraiki dezagula gure aiten sail ohoragarria!

Biba Errelijonia! Biba Uskaldunak! Biba Uskara!».

**SUJETAK edo ATURRAK****Uskaldunak**

OTCHOA, Uskaldunen erregia.

GARZIA, Laphurtarren gehiena.

ENEKO, Garaztarren gehiena.

SEMEN, Ziberotarren gehiena.

AINGURIA, PETRISANTZ, BAILETAK, SOLDADOAK, etc.

**Frankoak**

CHARLEMAÑA, Frankoen erregia.

ARROLAN, Bretañako aitzindaria.

OLIVIER, Franko gehiena.

TURPIN, archibiskoa.

GANELON, Bordeleko kontia.

ANSELMO, Erregiaren palazioaren begiraria.

EGGIHARD, Erregiaren mahañaren aitzindaria.

**Mahometanoak**

SOLEIMAN EL ARABI, Saragozako erregia.

ABU-TAHER, Hueskako erregia.

KHASEN-BEN-YUSUF, errege Morroa.

**Lehen pheredikia**

Agur uskaldun bat  
deiziet emaiten orori,  
Bethi lagunt zitzaien  
galthatzen Jinkoari.

Dembora zaharreko  
aitek eman etsempliak,  
Hon da izan ditian  
goratik aiphatiak.

Badeia populu bat  
guria bezañ zaharrik,  
Hañ libro, hañ azkar  
odolez izan denik?

Egunko solasak  
deizie erakutsiko  
Zer indar zien gure aitek  
zuzenen begiratzeko.

**Lehen perediküa**

Agur euskaldün bat / deizüet emaiten orori  
Beti lagünt zitzaien / galtatzen Jinkoari.

Denbora zaharreko / aitek eman etsenplüak  
Hon da izan ditean / goratik aipatüak.

Badeia popülü bat / gurea bezain zaharrik  
Hain libro, hain azkar / odolez izan denik?

Egünko solazak / deizüe erakutsiko  
Zer indar züen gure aitek/züzenen begiratzeko.



*Ibañeta* garatian

egun ikhas dezagun  
Nola gure libertatiak  
begiratu behar tugun.

Ibañeta garatean / egün ikas dezagün  
Nola gure libertateak / begiratü benar (*dü*)tügün.

Han gure aitek zien  
etsai aiphatu bat goithu:  
Arrolan eta haren  
armada erhaustu.

Han gure aitek züen / etsai aipatü bat goitü  
Arrolan eta haren / armada erraustü.

Gerthakari handi hura  
hirur phartetan gei dugu  
Zier orhiterazi  
Jinkoak plazer badu.

Gertakari handi hura / hiru partetan gei dügü  
Züer oritarazi / Jinkoak plazer badü.

Lehen pharteko solasak  
Iruñe hiri zaharrian  
Ezariko gutu Otchoaren  
palazio ederrian.

Lehen parteko solazak / Iruñe hiri zaharrian  
Ezarriko gütü Otchoaren / palazio ederrian.

Otchoa zen orduko  
Uskaldunen erregia,  
Gizon eder bat, sentho,  
orez maithatia.

Otxoa zen ordüko / eüskaldünen erregea  
Gizon eder bat sento / orez maitatüa.

Gehien lagun zutian  
Garzia Laphurtarrentako,  
Ziberotarrena Semen,  
Manechena Eneko.

Gehien lagün zütüan / Garzia lapurtarrentako  
Ziberotarrena Semen / manexena Eneko.

Aizo honarekin  
ehi da ontsa bizitzia;  
Aizo gaistoareki  
eztaite izan bakia.

Aüzo honarekin / ehi da ontsa bizitzea  
Aüzo gaiztoarekin / ez daite izan bakea.

Uskaldunen aizo  
ziren Españako aldetik  
Morroen populiak  
jinik Afrikatik.

Eüskaldünen aüzo / ziren Espainiako aldetik  
Moroen popülüak / jlinik Afrikatik.

Jinkotako Allah  
zien haiek adoratzan,  
Eta beren legiala  
ahala mundu biltzen.

Jinkotako Allah / züen haiek adoratzan  
Eta beren legeala / ahala mündü biltzen.

Mahometano haiek zien emaiten haitia: Allah-ren adoratzia edo ehorik izatia.	Mahometano haiek / züen emaiten haütüa Allahren adoratzia edo / ehorik izatea.
Uskaldunek ordian zutien burkhidetako Moroen hirur errege oro zoiñ krudelago.	Eüskaldünek ordüan / zütüen bürkidetako Moroen hiru errege / oro zoin krüdelago.
Hetarik bata zen Soleiman el Arabi, Harek zutian Saragozan hanitx martir hilerazi.	Haietarik bat zen / Soleiman el Arabi Harek zütüan Zaragozan / hanitx martir hilarazi.
Bestia Hueskako aitzindari tchipi bat zen, Bekhaitz eta krudela, Abu-Taher deitzen.	Bestea Hueskako / aitzindari txipi bat zen Bekaitz eta krüdela / Abu-Taher deitzen.
Khasen-ben-Yusuf deitzen zen hirurgerrena, Mundu huntan izan den gizon faltsiena.	Khasen-ben-Yusuf / deitzen zen hirurgerrena Mündü hontan izan den / gizon faltsüena.
Morroek hirur astez <i>Iruñe</i> setiaturik, Hirian ezin sartüz ziren etsiturik.	Moroek hiru astez / <i>Iruñe</i> setiatürük Hirian ezin sartüz / ziren etsitürük.
Ikhusiren dugu nola jakin zien gure aitek, Uskal-khentia ezeztatu nahi ziela Morroek.	Ikusiren dügü nola / jakin züen gure aitek Eüskal kentea ezeztatü / nahi züela moroek.
Etzien nahi Morroek Allah baizik beste Jinkorik, Ez elizarik, ez aphezik ez mintzaje uskararik.	Ez züen nahi moroek / Allah baizik beste Jinkorik Ez elizarik, ez aphezik / ez mintzaje eüskararik.
Uskaldun gehienak, aihaitera khumitatuz, Hil nahiko dutie hurak phozoatuz.	Eüskaldün gehienak / aiharitera kümitatüz Hil nahiko dütüe / hurak pozoatüz.

Otchoak bere etchian  
elhe emanen du haieki,  
Eta *Charlemaña* da jinen  
bere laguneki.

Otxoak bere etxean / ele emanen dü haiekin  
Eta *Xarlemaña* da jinen / bere lagunekin.

Frankoen eta Morroen  
artian da phizten gerla,  
Eta Otchoa baratzen  
bakian berbera.

Frankoen eta moroen / artean da pizten gerla  
Eta Otxoa baratzen / bakean berbera.

Hitzemanerazten du  
Charlemaña erregiari  
Frankoek ogenik eztiela  
eginen Uskal-herriari.

Hitzemanarazten dü / Xarlemaña erregeari  
Frankoek ogenik ez düela / eginen Eüskal Herriari.

Bigerren phartiareki  
khausitzen gira, uda beroan,  
Altabizkarren, Otchoak  
zian jauregian.

Bigerren partearekin / kausitzen gira üda beroan  
Altabizkarren Otxoak / züan jauregian.

Haritz handi elibaten [sic]  
itzalian, Uskaldunak  
Bildu zütian alageraki  
elizabesta astelehenak.

Haritz handi elibaten / itzalean eüskaldünak  
Bildü zütüan alageraki / eliza besta astelehenak.

Han urthe oroz primakak  
baziren haien artian,  
Pelotakan, koblakan  
eta dantza jauzietan.

Han urte oroz primakak / baziren haien artean  
Pelotakan, koblakan / eta dantza jauzietan.

Huna nun Otchoak  
besta egun haren erdian  
Berri gaichto eli bat [sic]  
jakiten dutian.

Hona non Otxoak / besta egün haren erdian  
Berri gaizto elibat / jakiten dütüan.

Charlemaña Saragozan  
eztelakoz ahal izan sarthu  
Iruñe hiria errez  
dela mendekatu.

Xarlemaña Zaragozan / ez delakoz ahal izan sartü  
Iruñe hiria errez / dela mendekatü.

Ganelon bekhaisteriak  
traidore egin diana,  
Heltüren da lehian  
Jaun Otchoaren gana.

Ganelon bekaizteriak / traidore egin düana  
Heltüren da lehian / Jaun Otxoaren gana.

Harenganik Uskaldunek  
jakinen die xeheki  
Arrolan Ibañetara  
heltzen dela laguneki.

Haren ganik euskaldünek / jakinen düe xeheki  
Arrolan Ibañetara / heltzen dela lagunekin.

Hitz hartzen die berhala  
behar tiela armak hartu  
Afruntia behar dela  
odolian chahatu.

Hitzartzen düe berehala / behar (*dü*)tüela armak hartü  
Afruntüa behar dela / odolean xahatü.

Bere salhatze eta  
tradizionia gatik  
Izanen da Ganelon  
ontsa gaztigaturik.

Bere salatze (e)ta / tradizioea gatik  
Izanen da Ganelon / ontsa gaztigaturik.

Zeren ezpeitutu deusek  
hañ desohorätzen gizonak  
Nola salhater eta  
traidore izatiak.

Zeren ez beütü deüsek / hain desohorätzen gizonak  
Nola salater eta/traidore izateak.

Hirurgarren phartian  
ikhusiko dugu nola  
Ibañetako bortian  
eginik izan zen gerla.

Hirurgarren partean / ikusiko dügü nola  
Ibañetako bortüan / eginik izan zen gerla.

Frankoak alde batetik,  
beste aldetik Uskaldunak,  
Münduko soldadoetan  
orotako hoberenak.

Frankoak alde batetik / beste aldetik euskaldünak  
Mündüko soldadoetan / orotako hoberenak.

Lehon elibaten [sic] pare,  
zalhe hala nola orkhatzak,  
Gure aitek Ibañetan  
goithu zütien Frankoak.

Lehu baten pare / zalhe nola orkatzak  
Gure aitek Ibañetan / goitü zütüen Frankoak.

Bitoria handi horrez  
ziekin mintzatuz egun  
Nahi gira burhagertu  
Goratik Uskaldun.

Bitoria handi horrez / züekin mintzatüz egün  
Nahi gira büragertü / goratik euskaldün.

Gure aitek beren lurrak  
ezpataz defendatzen zütien;  
Uskararen begiratzeko  
zer etzien eginen?

Gure aitek beren lürrak / ezpataz defendatzen zütüen  
Eüskararen begiratzeko / zer ez züen eginen?

Ezi Uskal-herriko lurrak  
beretu beno lehenago  
Uskara hen artian zen  
hanitch mentez zaharrago.

Ezi Eükal Herriko lürrak / beretü beno lehenago  
Eüskara haien artean zen / hanitx mentez zaharrago.

Batere balinbadügu  
ohorerik eta ahalkerik  
Eztugu ez behar egon  
zuzen zaharrez gabetürik.

Batere balin badügu / ohorerik et(a) ahalkerik  
Ez dügu ez behar egon / züzen zaharrez gabetürik.

Eztugu ez izan behar  
ez ezachol, ez sorhaio;  
Behar dügu ukhen odol  
ñaboek beno haboro!

Ez dügu ez izan behar / ez ezaxol, ez soraio  
Behar dügu üken odol / ñaboek beno haboro!

*Uskaldunik* ezteite izan  
*Uskararik* ezpada haboro;  
Ezkinante izan Uskaldun  
ezpalinbagira *libro!*

*Eüskadünik* ez daite izan / *eüskararik* ez bada haboro  
Ez ginante izan eüskaldün / ez balin bagira *libro!*

## XX. MENDEA

«Zuberoako idazle zenduak» liburua har dezake mende horretako idazle zenen testuak hein bat ezagutu nahi dituenak. Idazle haien testu guti agertuko dut hemen, alde batetik ez errepikatzeke, bestetik ez gehiegi luzatzea gatik. Aldiz bazter utzi nituenenak, bai eta bizi direnenak, nasaikiago zabalduko ditut.

Gainera, aipaturiko liburu horretan ez bezala, hemen argitan eman nahi dut Kepa Altonaga idazle bizkaitarrak errauts petik jalgi berri duen izkiribaino talde bat, «Atharratzeko elia», prosa zientifikoan aitzindari ahantzia, Albert Constantin medikua buru. Hau J. B. Constantin idazle ezagunaren semea zen.

### Jean-Baptiste Constantin (1847-1922)

(*Zuberoako idazle zenduak*, 11-38 or.)

Urdatx/Santa Grazin sortua, errient egon zen Garaziko Izpuran, gero Atharratzen, eta bere azken urteak iragan zituen Basabürüko hiriburu txiki horretan. Horren artikulua eta kobla anitz agertu zituzten «Eskualduna» astekariak (orai «Herria» deitzen da) eta beste kazeta batzuek. Gainera «Joanes garaztarra» izengoitiaz sinaturiko bertsetez, sari andana bat irabazi zuen Lore Jo koetan, bereziki Donapaleun (1903), Kanbon (1907), Atharratzen (1908) eta Donajuane delako Donibane Garazin (1912).

Euskaltzaindia sortu baiko, J.B. Constantin euskaltzain urgazle izendatu zuen euskararen Akademia horrek.

Santagraztarraren obrez, idazlan zenbait agertu dira, horietan zabalena «Klasikoak» saileko 79. liburua, Patri Urkizuk prestatua: «*Jean Baptiste Constantin – Haritchabaletaren bizia. Don Juan eta bere adixkidiak*». Gainera «*eranskina*» badu, neurtitzezko eta hitz lauezko (prosasko) idazlan batzuekin.

«Don Juan eta bere adixkidiak» erran delako hori, istorio irrigarri bat da, lau urdaxtar/santagraztarrek Izabako benta batean bizi izan zutena, noiztenka irri guti eginez. Erronkariko edo Zuberoako izaki, bakoitza bere euskalkian ari da hor; beraz Erronkari aldekoa ere dasta dezakegu hartako doia, nahiz Urkizuren ustez, zubereraz hein bat kutsatua daitekeen. Baina bere aldetik Urdatxeko euskarak ez ote du Erronkarikoaren herexarik, hiztegian bederen: zuberotar gehienek ez bezalako erdal hitz batzuk darabilzki. Badugu hor zer bila, baina lehenik goza dezagun istorio sotil horren zatiño bat, piper eta gatz xehez eijerki, poliki aberastua.

Negu betean lau gizonek mendia gainditzen dute delako bentara jaisteko. Bidean elur erauntsiak harrapatzen ditu. Hona benteroak egiten dien harrera:

«-Zer bada? xuek keben, holako tenporareki! xuek don Juan, Xapalanda, Trinkia eta Bixar! eta zer berri dago Santa Grazian? Baia, Santa Grazia guziko laur gizon bapoenak orai keben! karak(h)o! Maria xuan dadila, eta saits (*jaits?*) dezala anis pitxerra, kortarik gizon korier baso banaren emaitako!

Don Juan: - Gosetürik gütüzü eta barazkaltü nahi gira. Badüzü arauz ardo iñar bat orano?

Benteroa: - Bai, karak(h)o, ardau izanen diagozu bai, atzo xinik diagozu eta bada ardao, Oliteko iriko ardau hoberenatarik, eta gero zahagian beitago xin bezala ahotxek (*zuberotarrek*) ez zazuera erran Frantzian Juanek eta Mari-Paittak ardaoari ur ezarten diela. Edan zazie anis kortarik buen trago eta zahagitik barrikalat hustuko dugu orai xuen begien aitzinean ardao, eia ikusiko xuenez urik botatzen».

Lau santagraztarrek eguna ongi pasaturik ostatuan, jan eta edanez, hor lo egiten dute. Haatik elurak ez du atertu eta bigarren eguna hor pasa beharko dute.

«Biharamenean hotzak iratzarrarazten dütü goizik gizonttoak. Elürra seküla bezain gustüan ari da orano.

Don Juan (*santagraztarra*): Ba! Karak(h)o! Halako denborareki kanpoan dena barnerat nahi beita arrimatü, gü barne(a)n egon gitean, orano barne(a)n beigira. Dezagün jan eta edan, azken hilak arauz zorrak pakatüren (*düi*)tütü! Mari-Paitta (*benteroaren emaztea*) beha beitzen komer(t)sari, agertzen zaie ordüan:

Eta beraz ni arren azkena hil artio beti hartzetan egon! O kori ez, nik behar diezt xuek kementik xuan bage batetarik edo bertzetarik, ifernutik edo zelutik, Frantziatik edo Espainiatik, saintuetarik edo mil(a) demonioetarik ene hartzea. Eta gero demonioen egina, behar xuela onki xan eta edan orano! Eta akabaturik badira xateko eta edatekoak oro? Bai xuek ekarri tripot, luka(i)nka, xerri azpi eta xerri uzterxeak, gure alubia ederra eta salon ona, guziak xan tutzie!

Mari-Paittak gezürra ederki botillatü zeien: ez zeien etxit erran haiek ekarri gaüzten erdiak gorde zütüala, ondo(*ko?*) egünetan jateko bere senarrareki bürüz-bürü.

Benteroa: - Baia rekontxos! Ardao ere akabatu diagozu, anisa ere bai! Bazia-gozun xuek xin zelarik bost kantaro eta sei pinta lo menos, eta orai ez diagozu lo mas hirur pinta! Anis ere baziagozun kantaro bat eta bederatzu pinta, eta orai ez diagozu siquiera baso xiki bat nik edateko! Bai ez diagozie izan behar ariman penarik ez diagoziela aski onki probetxatu! Baia, baia Maria, egin zala gizon koier kontia, paga dezen eta arranka ditean fresko freskoa bortiari karaz!

Trinka: -Baia ote barur hotz-hotza orai bortüari bürüz, eta holako denborareki? Ez ote deia arren deüs ere etxe hontan guretako? Ezta xokolaterik ere?

Mari-Paitta: -Eta aurra, ez! Akabatu diagozu xa! Eta dirurik ere ez erosteko, orai xuek eman behar xuena baizik.

Xapalanda: -Egitzü ordüan patata frijitüak eta oliat bat!

Mari-Paitta: -Bai aurra, eta non dago olio eta ogia?

Bixar: -Ttentamentüa, eta egizü urinez.

Mari-Paitta: -Mila miliu demonioa, ekarzazu zuk urina! Ez diagozu ez Espainian urinik Frantzian bezala!

Don Juan: -Baia Maria, atzo eta herenegün hain ontsa jan eta edan ondoan auher gorri ginelarik, behar dügüa arren egün barurik igaran bortüa hainbeste elürreki?

Mari-Paitta: -Eta zer nahi duxue, ez badago xatekorik? Nahi duxue patata?

Trinka: - Eta gordinik dütügüa jan behar?

Mari-Paitta: -Eta ezarzue hauts pean erratzen! Onki on diagozu kola ere!

Xapalanda: -Hirur ehün kanu! Ezarzü arren unka bat, hauts pean, bortüan hil behar badügü ere holako denbora tzarreki, ez gitean aments gosez hil!

Benteroa: Baia Maria! Kontia, kontia gizon koier! Poko probetxo dugula guk orai koiek eben egonez!

Mari-Paitta: -Baia kontia? Ordian patatak bage, hirur hogei eta hamazortzi real fuerte eta sueldo bat ziagozun, eta orai patatekin hamazazpi sueldo haboro. Kontiak orok egiten du laur hogei eta hamasei real fuerte, edo eta hobeki konprenditzen bada, ehuneta laur hogei eta hamabi sueldos.

Sueldoak balio dü bost sos hegiar beste gaintian. Gaizo Don Juan eta haren lagünak, ez ziren hainbat Espainian üsatürrik [...].

Benteroa: -«Baia amigo! Ez zizte atzo eta erenegun bezain alegre! Ots, ots, boltsa horik larga!».

## Albert Constantin (1873-1957)

Jean-Baptiste Constantin zuen aita, Urdatx/Santa Graziko dendari-jostuna berriz ama. Izpuran sortua, Atharratzen mediku (sendagile) egon zen, baita luzaz kantonamenduko kontseilari orokor (Basses-Pyrénées departamendu biltzarreko hautetsi). Aitak baino gutiago idatzi zuen antza denez, baina uste zen baino gehiago: Euskaltzaleen Biltzarreko mintzaldi zenbait ezagutzen genizkion, baina orain ohartzen gara Xiberoko berriak izenik gabe agertzen zituela «Eskualduna» astekarian, eta ber gisan artikulua idazten «Gure Herria» aldizkarian. Haren obra biltzekoa da oraino. Baina Euskaltzaleen Biltzarraren urteroko junta handietan egin zituen bi mintzaldi, lehena 1950ean Urdatx/Santa Grazin, bigarrena 1957an Eskiulan, agertzen ditugu beheraxago.

A. Constantinez erran izan da euskararen alde anitz eraunsi eta jardun zuela eta euskaldunen alde guti: zentzu horretara mintzatu zen atharraztar



ezagun bat, geroztik zendua, orduan gaztea, mediku zenaren izenik aipatu gabe, 1962ko udan Paueko Casino delakoan, laborari gazteen eta Edgard Pisani laborantzako ministroaren arteko bilkura handi batean. Alberten historia ez zuen ezagutzen, ez eta besteek ere. Orain Kepa Altonagaren ikerlanari esker, badakigu Constantin laborarien alde goizik saiatu zela, beste gizon batzuekin: Marcellin eta Xemark Zugun zalgiztar etxeko jaunak, Dominique Iribarne ingeniaria eta abar... Hortako bi «Congrès» edo Biltzar egin zituen Atharratzen, lehena 1910ean, bigarrena 1912an, eta hitzarturik zen hirugarren bat erabat oztopatu zuen hamalauko gerla handiak.

Biltzar bakoitzean A. Constantinek mintzaldi bat egin zuen. Lehenean «Zühainen eritarzünaz eta haien arraberrikatzeaz» delakoa: idatzirik agertu zen 1913ko «Almanak uskara edo Ziberouko egunaria» aldizkarian, eta K. Altonagak berriz argitaratu dio Ekaia 17 aldizkarian, 121-137. Bigarrenean Albert mintzatu zen «Aberetegien behar den bezala egitetik eta etxekitzetik laborariak ikeiten ahal düüen abantailez». Altonagari esker ikusten ahal dugu Constantin medikua euskarazko prosa zientifikoaren lehen aitzindariarik izan zela. Haatik hona hemen haren lumatik etorriak, literatura klasikotik hurbilago dauden bi mintzaldi haiek.

### Ürdatx / Santa Grazin

Jaun-andereak,

Goiz hontan, Santa Graziko eliza eder eta nasaian, peredikü bat entzün dügü ez nolana hizkoa, bena bai eliza horri eta egünko besta eder honi ezin hobeki emana. Doi-doia, herriko jaun merak honki jina eman deizüe, zoinen eijerki! Gero, Eskualzaleen Biltzarreko lehen bürü jauna, musde Dassance, mintzatü da, beti bardin gozo, beti bardin sarkor, beti bardin bere Eüskal Herriaren eta eüskararen alte.

Gure diharüzainak ere üken aldia. Nontik ez? Mozkinak aberatsago eman bageneizko, argi leiko hobeki begitarte jaun horri eta gure batarzünak büüt liroke orai artino ahal üken ez düanik xede franko.

Musde Elissaldek, hargatik, ez deigü berri gaixtorik eman: badira haurretan, estüdianteetan, apez gazteetan, saldotto bat eüskaraian zinez trebatzen ari direnak; bai izkiribainogei, bai peredikarigei jite ederra beitüe eüskararen erabilteko eta moldatzeko. Haietarik zonbait saristatü (*dü*)tügü, ez, heltübada, haien mereximentüen, bena gure ahal txipiaren arabera. Musde Ithurriague, Parisekoak, eman deigü berri, nola hanko eüskaldünak biltzen diren algarretara, nolako indarra egiten düen beren maintzairearen eta beren ohidüren garbi eta azkar zaintzeko eta begiratzeko, nola badiren haurrak Parisen sortüak eüskara emaiten beitüe Eüskal Herrian hazirik diren zonbait(*ek*) beno hobeki.

Eta orai zazpigerren mintzaldi bat arrunt behar düzüela bazkariaren partez! Dolü deizüet, bena bego! Behartü naie eman deitzatzüedan xehetarzün zonbait Ziberoan gaine(a)n, Santa Grazi herria eta elizatan gaine(a)n. Xehetarzünik ez: balizate lib(ü)rü handi baten betea. Etzekoz, argi zerbaít, han-hebenka, larri-larria, gogoalat heltzen zaitan bezala.

Ziberutarrak aipaturik dira aspaldiko lib(ü)rü zaharretan. Erromanoek, latiz, deitzen zütüen «ausci», eta orano ere «aotxak» deitzen gütüe hegiz haintiko nafartarrek. «Auscien» fama hürün hedatzen zen eta haien herexak baratzen dira Frantzia pean.

Ziberoa oro oihan zen; ez, ahal, laket-lekü arrotzentako. Ziberutarrak berak aldiz, ala bake ala gerla, üsü norapait abioan eta zonbat nahi hürün.

Menteak jin, menteak joan, erromanoen indar handia galdü zen; eresuma berri elibat sortü. Zibero txipia bizi zen, libre, bere mauletar «vicomteen» manüspenean (*manaspenean*).

Hona non anglesak sartü beitziren Frantzian, bai eta ere, baraxñi-baraxñi, abantxü oro berentü. Haien armada bat heltü zen Maulera eta, gerokoz, ikusirik ez züala hoberik holako indarrari bühürtürik, berriz Aita Saintüak eta Nafarro(a)ko Erregek hola aholkatürik, ordüko Mauleko «vicomte» Auger hirurgerrenak bere züzenak oro saldü zeitzon Edouard Angleterrako Erregeren semeari. Hori agitü da 1307an. (1)

Anglesen peko baratü da Ziberoa 150 bat urtez, eta hanitx bürüzagi honak üken dütü. Haien denboran da, Santa Grazin, Nafarr(o)aren eta Frantziaren arteko müga kanbiatü. Bena, gero, Frantziako Errege arrapiztü eta azkartü denean, nahi üken züan Ziberoa ere anglesetarik xaha ledin eta, haren ize-nean, Maulera agertü zen biarnes armada handi bat, beren Vicomte «Gaston de Foix» gehien. Anglesek lekü egin züen. Bena, nola Frantziako Erregek ez beitzüan, ordüan, esküetan aski diharü gerla horren gastüen bardintzeko, biarnesak egon ziren Ziberoan nausi handi, 1449tik aitzina, 30 bat urtez. Hogeita hamar urte! Sobera urte, gaixo ziberutarren: ezi, arte hortan, biarnesek erauntsi düe azkarki beren eiheralat hur biltzen: «Barlanese», ordüan eüskaldünek «Sarraltzüne» deitzen züena, seküla geroz Ziberukoa beitzen, iganerazi züen Biarnorat; Biarno eta Zibero arteko mügak hanitx lekütan arraerabili zütüen. Ordüntik dira Barkoxe, Hauze, Montori eta, oren gainetik, Santa Graziren bilaizteko (*biluzteko*) ondoko menteetan agertü diren **tître** züzengabeko haboroxeak.

Zorrak bardint eta, Louis XIak biarnesak elki zütüan Ziberutik eta sekü-lakoz Frantziari jüntatü, bere lege bereziak oro ützen zeitzolarik. Zoin ziren Ziberuko 64 herrien arteko lege bereziak ez dügü aizararik orai lehen (*heben?*) erraiteko. Badira lib(ü)rüak izan beitira eginik lege horietan gaine(a)n eta, orano berri, musde Nussy-St Saens, Bordeleko jaun jüje batena.

Protestanteen gerlak piztū ziren eta haien armada bat sartū zen Ziberoan indar handietan 1587an. Bazterrak oro xeheki zütüen, jente eho eta hebentik elki zütüenean, traza txarrean baratū zen lüzaz Ziberoa. Bena arrajeiki zen, eta berrehün bat urtez, franko bake ederrean egon da, salbü, Louis XIVen denboran, «Matalazen» iharrausaldia. Badakizüe nola Erregek etxeki züan Ziberoari bere legeen kontreko legar bat. Ziberutarrak bühürtü ziren eta armetan jarri, Goyhenetche, Mitikileko erretora, Matalazeko semea, gehientako harzen züelarik eta, bi urtez abantxü, asaldatürük egon. (2)

Gero jin da Errebolüzione handia. Frantzia zolatik-gain kanbiatü dü. Adio Lapurdi, Zibero, Baxenabarre eta haien libertate bereziak! Hebentik harat oro bardin, orotan bardin. Hasi dira Frantziaren departamentüka zatikatzten. Nahiz orano ahal oroz, Eüskal Herriari etxeki, hanitxi ohartü zeien behar züela galtatü Eüskal Herriak berak departamentü bat egin lezan bereiz aüzoekilako nahastekarik gabe eta galtoegite hori honartü züen Lapurdik, Ziberoak, eta Baxenabarren, Baigorrik, Garazik eta Oztibarrek, bena egotxi züan Amiküzek. Garrüzten bildürük 1790ean, apirilaren 9an, Amiküzeko gizonak deliberatü züen hobe zela biarneseki boti departamentüaren egitea. Eta hola eginik izan zen. (3)

Eta Santa Graziko herria bera zer bilakatü zen arte lüze hortan? Herriaren izen egiazkoa eta hatsarrekoa ez da Santa Grazi, bena bai Urdatx. Urdatx dügü ikusten izk(i)ribatürük paper zahar orotan. Berantean zaio izen hori kanbiatü Santa Engraziaren errelidak hor zirelako. Berriz, denbora haietan, Santa Grazi ez zen herri bat besteak üdüri; ezi parte bat bazüan Nafarro(a)ko lürrean eta beste bat Frantzian, ühaitza zelarik bi erresumen arteko müga.

Bederatzügerren mentean, düala 1100 bat urte, lehen komentüa eraiki züen Santa Grazin, Nafarro(a)ko errege baten manüz, erran gabea Nafarro(a)ko lurrean eta nonerebeita, orai Dolaintiko txapela den leküan. Ordünko herria bazen aspaldian, gütiena bizpahirur ehün urte hartan; erran nahi beita Santa Grazik badüala, orai, gütiena, 1300 urte adin.

Komentüko fraideak ez ahal ziren lehen haütatü güne hortan hanitx laket, ez beitzeitzen, arauz, egitekoak han sobera ontsa joaiten. Berriz, 1085ean, Don Sancho Ramirez Erregek beste Nafarro(a)ko komentü azkar baten manüspenean (*manaspenean*) ezari zütüan. Fraideen amentsa zen komentü berri baten eraikitea Santa Grazin berean, bena Frantziako partean, eta xede hura bete züen, düala 800 urte, egongia eta eliza berriak eraiki zütüenean, orai orano ageri diren leküan. Gero, nahi bezala, 1307an, anglesak Ziberun (*Zuberoan*) sartü zirenean, Nafarro(a)ko Erregeren baimenareki, bi erresumen arteko mügak elki zütüen ühaitzetik eta goiti ereman, bortü goralat, orai orano diren güne(e)tara. Horra, arren, gerokoz, Santa Grazi Ziberuko (*Zuberoako*), eta ez Ziberuko herri txarrenetarik; ezi, 64 herrien artean, beti 5 lehenetan ekarririk izan beita.

Angleseki ontsa elki bada Santa Grazi, ez zaio protestanteki ber gaüza agitü. Horik behin heltü dira Santa Grazira, 1587an, bazterrak oro arrobatü eta xeheki, komentüa erre, elizari ere sü eman. Eliza txütik baratü zen, bena komentüa ez züen arraeraiki, eta, geroz, kalonjeak alojatzen ziren, ahal bezala, üngürüneko etxeetan.

Ez zen protestanteen ostikata azkena. Gaixtoena orano jiteko zen 1755ean, Oloruen musde Revol apezküpü zen. Santa Grazi eta Ziberoa oro, ordü haietan, Olorueko apezküpüaren peko ziren, orai Baionakoaren bezala. Musde Revolek bazüan, Oloruen, eskola handi bat apezgeien. Eskola bai, apezgei ere bai franko, bena ez sosik horien bizierazteko. Ohitü zeion, behar züala Santa Graziko komentüa zerratü, horko mozkinak bahitü eta mozkin horik eman eskolari. Eta hala-hala egin züan.

Zer herotsa kalonjeek eta santagraztarrek! Zonbat ürrats eta zonbat proses! Bena Errebolüzione handia jin zen eta oro isilerazi.

Eüskalzaleen Biltzarraren besta hontan nolaz egon Santa Graziko eüskara aipatü gabe, Ziberuko aberatsena, garbiena, hoberena, santagraztarrek berek nolana, mihimena bezala, üngüratzen düena, bai elestako, bai izk(i)ribatze-ko hain leüñ eta goxo dena?

Düala 50 bat urte eta, geroz, hanitx denboraz «Eskualduna» kasetan, aste oroz arraheinki irakurririk ziren santagraztar baten izk(i)ribüak eta, egün ere, gure artean, bada santagraztar koblakari gazte bat orano ohore egiten ahal beiteo sorleküko eüskarari.

Ürrentzeko, behar dü, herri hontan berean, doi-doi heben ene begien aitzinean zen jaun handi bürü xuri bat mentzitü eta bereizi. Fama gaitza bildü dü Ziberuan gainti, Santa Grazin bide, zübü, eliza-egile, bai eta ere orotan eta gisa hanitxez orori honkiegile. Arranküra handi horien güzien artetik, ez zaio ahatze seküla bere eüskararen ertzeko eginbidea. Arraheinki zaintü dü eta etxeki, ez galtzera ez mendratzera ützi gabe. Behatü da beti, gizon gizontara, odolaren manüari eta bihotzaren erdian eüskaldünek eüskarari dügün amorioari. Berriz, apez bezala, ikusi dü zer lagüngoaz azkarra gure mintzaireak deon errelijionari.

Jauna, badakit ontsa, ez zirela ihoren eskerren ondoan eabilten; bena orai behar (dü)tüzü hartü, bihotzetik jelkitzen, bai nihaurenak, bai zure parropiant ororenak, bai Eskualzaleen Biltzarreko parteliant holako saldoan egün heben bildürik direnenak. Jaun erretora, dioie bazoazala Santa Grazitik. Aitzinte helt, parropia berrian, aitzinte helt, beste hainbeste honki egitera, nola heben egin beütüzü!

Jaun, andereak, hontan zerratzen dü egünko ene solaza. Behar dügü beste lan bati lotü. Ohart düzüe Santa Grazin gaine(a)n den errefrau zaharra. Musde Dassancek aipatü dü bere ahapaldian. Beha zitaie:

«Santa Grazi da gora;  
 «Jente galantak han dira;  
 «Petiri Santz lasterkatü düe opil kaldüz Ligin behera».

Petiri Santz, erran nahi beita gosetea, miseria. Petiri Santz santagraztarrek lasterkatü badüe hain hürün eta, orano, ogi opil kaldüz, behar dügü sinetsi heben baratü den aski hatü egün gure laketeraztekoa. Dügün ikus mahain ün-gürüetan zer dabilan. Txesta eta goza!

Jaun, Andereak, Jinkoak deizüela apetitü hon!

### **Senta-Grazian, 1950ko setemeren 7an»**

(1) Akitaniako dukerrian zegoen Zuberoako bizkonderria. Gure duke ingelesa, Alienor handiaren ondokoa zen: Ingalaterrako errege zen ber denboran, edo horren seme. Zuberoa gobernatzen zuen Mauleko kapitain-gaztelüzainaren arartez. Jaun hau usaian gaskoina zen, zenbait aldiz euskalduna. Zuberoan ez zegoen soldadu ez kargudun ingelesik. Beraz «ingeles okupazione» baten aipatzea, anakronismoa da, eta okerra gainera. Hitzza erabili gabe, ildo horretarik doa A. Constantin, bere denborako ideologiaren arabera.

(2) Goihenetxeko (Goihetxeko) seme zen. «Matalaz» izen gaindikoa zuen.

(3) Biarno eta iparraldeko hiru euskal «probintzien» arteko departamendu baten egitea «Assemblée Constituante» delakoak erabaki zuen 1790eko urtarrilaren 12an. Euskaldunek ez zuten hautatzerik ukan.

Aitzinetik gure 12 deputatuak euskal departamendu baten alde zauden, baina legebiltzarrak xede hori baztertu zuen, hastean «Béarn» deituko zen departamendua eraikiz. Egia da gero Amikuzeko hautetsiek ezabatzen ahal ez zutena delibero batean onartu zutela. Gero aldizka ber bidean sartu ziren Nafarroa Behereko beste eskualdeak.

### **«Eskiulako herria nola egin den**

«Eüskaltzale lagün maiteak, orano mintzaldi! Entzün düzüe elizan Santa Graziko botz handia, hanko jaun erretoraren dei eder eta nasaia. Heben berriz, lerro-lerro, Jaun meraren elesta sotila, eüskara garbikoa – jaun merari ihardesten musde Dassance biltzarre hontako bürü lehena, beti erne, beti goxo, beti eginbidetsü, musde Ospital eta musde Camino, kontükari eta izkiribaino, biak gazte ele zühürreko eta gük ele honari beti badantzüt hon. Eta zü, Elissalde jauna Gereziatako erretora Liginagako ohia, gure adiskide... ez xahar, bena aspaldikoa, ezagütü zütügü lehen pelotakari, betsülari, ditzolari, orai nahi zinate berbera zerbütxari, bena bara zakizgü bietarik zerbütxari eta gidari.

Eta orai azkena! Ez da azkena beti hoberena. Montrari so; aspaldian egüerdi; kanpotik baratzale horik engoitik gure elk haidürü; barnekoak, hoberenean, bazkaria ohart eta hortzak izerdi... eta orano behatü behar gizon xaharren solazari.

Bai bena gizon zaharrak ez beitu hitza jan nahi; Eskiulako bürüzagier hitzaman beitzien ekarriko zeitzela egün honat berri zombait herri hontan gaine(a)n: hatsarrez zer den; noiz eta nola abiatu den; zer gisaz agitzen den holako herri gotorra, odolez, gogoz eta mintzajez osoki eüskaldün Biarnoko lürretan; berri horik eman behar deitzüe argitara larri-larriak, ahal bezain hitz güitan. Bena lehenik behar düet eta nahi düet goratik oihüstatü zombait eta zombait paper eta libürü zahar bilatzez eta ikertzez lagüntü naüan Pabeko apez jakintsün batek, musde Labordek, eta zer esker deiotan egin deitan heldüra handiarentako.

Eüskal Herriko eta Biarnoko herri haboroxeak zinez zahar dira: mila urte eta goiti. Eskiula ez da haietarik, sortü berriago da. Düala zazpi ehün urte, herri honen eremü zabalean (abantü 3.000 hektara) ez (zen) deüsera mendi ütsal, oihan, larre eta tarta baizik. Heltübada, han edo heben, artzain edo ülain ola bat edo beste. Eta norenak ziren lür auher horik oro? Oro batenak, oro Ledeuixe, Oloru kantüko herri txipiko jauregiarenak. Eta Ledeuixeko jauregia, hanko lür eta züzenak oro Atharratze jauregiko jaunarenak, «de Tardets» deitzen zen familiarenak.

«De Tardets» aria, aria aipatüa eta aberatsa. Bere zütüan Ziberoan Atharratze eta Aloze; Baxenabarren Ahatsa; Biarnon aldiz Ledeuixe. Ez da arren estonagarri kantore zaharrak erranik ere nola Atharratze jauregiko anderea, andere Santa Klara, joan zen, ezkontzez, Hungariako errege ganat, eta nola Atharratzerik abiatzean, haren peko zamaria ürrez zen zeltatzen.

Bena «de Tardets» aria behar zen orano hanitzez aipatüago eta hanitzez aberatsago; ezi, 1365 urtean, «Arnaud Sanche IV de Tardets», Atharratze jauregiko jaun gazteak hartü züan emaztetako andere «Saurin de Luxe», Baxenabarreko familia handiaren prima eta honek ekarri zeitzon dotetako Lüküzen, Landibarren, Izuran, eta beste hanitx lekütan, «de Luxe» familiak zütüan lür eta züzenak oro. Bien artean zer indarra! «Arnaud Sanche de Tardets» hil zenean, semeak hartü züan «de Luxe» izena, ondokoek ere bai, eta horrengatik familia beti Atharratzen baratü.

Hantik bertan, ohartü zeien «de Luxe»koer, behar zütükeiela Ledeuixeko lürak beste gisaz eta hobeki gozatü, eta arrunt hasi ziren zatika emaiten, etxaltegei, berek ontsa bereizten zütüen nahiant elibati, bakant zombait biarnes, kasik oro eüskaldün, hanitx Atharratze alteko. Ehün bat urteren bürüko, bazen etxalte multze hon bat ageri, herri baten geia. Bena ez züen Biarnon orano herritako ezagützen. Hebenko bizizaleak bazianden «de Luxe»koen peskizan; «de Luxe»koek zarabiltzen bai jüstiziari, bai beste egitekoer zoazkeen ürratsak. Ez züen gobernamentüari legarrik pakatzen, soldadogoarik ere ez zor ihon ere; ez ziren, erraiteko, bizizale horik dolügarri.

Bena jin zen bazterra. Bestetakoek bezain, Biarnoko legarkariek ere begia zorrotz eta aztaparra kako... Ikusi züen hor bazatekeala diharü bilgü berri gizona, eta, herri bezala ezagüterazi züen Eskiula bere hon-gaitzekin. Zoin ur-

tez? hori ez dioket xüxen-xüxena erran; bena, 1385ean, agertü beitzütüen Biarnoko herri ororen izenak, Eskiula ez da orano herroka hortan mentziturik. Aldiz, Maulen egin kontratü batetan, 1456ean, Eskiula agertzen da, herri bezala, Ziberuko bortüetan züzen elibaten erostün. Arren, herri bere(i)z bezala ezagütürik izan da 1385-1456 artean, ene ustez 1440 altexean, erran nahi beita düala 514 urte. Elizaz, aldiz, beti Barkoxeko.

Joan zen denbora. 1567an piztü zen, heben gainti, Katolikoek eta Protestanten arteko gerla izigarria. Ordü haietan, «Jeanne d'Albret» printzesa Biarnoko bürüzagi zen, berriz Baxenabarreko erregeña. Ziberoan ez züan züzenik. Bera protestanta, protestant sütatüa, eta biarnes haboroxeak protestanterazi zütüan, berek nahi ala ez. Ez züan düdarik, hanko erregeña zen bezala, bere Baxenabarreko peko eüskaldünak ere hala-hala bildüko zütüala baizik. Bena ustekeria hortan handizki gainti egin züan. Eüskaldünak errotik bühürtü zeitzon erregeñari eta handi-txiptiak oro harmetan jarri. Nola «Charles de Luxe», ordüko Atharratze jauregiko jauna, omen handiko gerlari beitzen eta, berriz, Baxenabarren jaun handi, hura züen Katolikoek hartü gehientako. Pentsa «Jeanne d'Albret»en herra gaiztoa! Gerla itsusi horrek iraün züan hanitx urtez, bazterrak oro porrokirik. Gerokoz ürrentü zen «Jeanne d'Albret» hil zenean eta haren seme «Henri IV» katolikotü eta Frantzian errege sartü zenean.

«Charles de Luxe» ordüan, ützüli zen etxera, akitürik, zahargisatürik, go-goia ülün, gerla egitez zor handien pean sartü beitzen; berriz, berritan ezkontürik izanik, bazütüan hameka haur, haietarik zazpi-zortzi alaba: ez ahal zen haien dotazetik ere hanitx aberastü.

Bada erran zaharra: «*Bago erorialat egürkariak laster*». Nola, besteak beste, «Charles de Luxe» jesan beitzüan 20.000 libera ürre «Guicharnaud de Mesplès» deitzen zen biarnes aitonon seme bati eta ez beitzeon hitzeman egüneko zor hori bardintü, «de Mesplès» «Chales de Luxe» Eskiulan zütüan lür eta züzenak oro bahierazi zeitzon, tribünalean salerazi... eta berak erosi. Hori agitü da 1590ean. «Charles de Luxe» hil da Atharratzen 1604an, 69 urtetan, eta bere ordeinüan aipatzen dütü üken dütüan nahigabe eta bihozminak.

Eta horra noiz eta nola «de Mesplès» aria sartü den Eskiulan, sartü eta egon 200 bat urte, Frantziako Errebolüzioe handia drano.

«de Mesplèsekoen» denboran, nonbait horik herrian sartü eta ehün urteren bürüan, Eskiula Barkoxerik bereizi zen elizaz eta parropia solt jarri. 1689an, Herriak erosi züan «Pierre de Laffitte» bati etxe bat, apezetxegei 550 libera; eta 1691an, erran nahi beita düala 263 urte, musde Dubos, lehen erretora, parropian sartü. «de Mesplèsekoer» ez zizeiken, balinba, gaitzi eüskara gal zedin Eskiulan, eta beitzakien haren galerazteko behar zela elizatik hasi, lehen hirur erretorak izentarazi zütüen hirurak biarnes. Gerokoz, ezagütü züen, arauz, eskiulatarreki ez züela hoberik eta, hantik aitzina, erretorak oro jin dira eüskaldün.

«de Mesplèsekoen» denboran ere, 1774an, kabaletan, üzürrite handia, eritazün gaitza. Hilabete gütitan barne(a)n, hil zen Eskiulan 4 idi, 329 behi, 111 xahal eta biga.

Eta horra non, eskiulatar maiteak, hitzeman neitzüen argiak eman deitzüedan, ahal bezain labürzki. Orai badakizüe züen herria noizkoa den, nola hasi eta bildü den, zoin esküetan iga(ra)n eta egon den; hala-hala badakizüe ere zer odoleko ziden, eüskaldün odol garbientetik; badakizüe ere zer askazgoa düzüen Atharratzekila eta, egün, atharraztar bat botz da askazgoa horren züer aipatzeaz.

Gure aldetik, heben bildürük giauden eüskaltzale oroek ikusten dügü zer kartsüki eta zer indarrez betidanik erauntsi düzüen, nahiz züen eüskaldün izatea eta züen mintzaje maitea edüki. 1760an orano, Errebolüzione handi aitzineñian, helerazi düzüe Pabera paper bat, beti han beita, bai zihaturen artean, bai eskoletan, bai elizan, eüskara düzüela galtatzen.

Guretako oroentako, zer erakuspen bihotz edirengarria! Ailekigü balia, gü ere ber xendetarik ebil gitean! Ailizagü sarreraz bürü barne(a)n, hezürra bezain gogor, nahikunte oso bat ahanztera goatzan eginbide elibatzen [sic] hobeki betatzeko, bai eta ere pitzeraz bihotzetan kar bat haboroxe(e)k dügüna beno beroago!

Etxahun zenaren kantorioan olan baziren artzainak. Bena artzain jaunak lo eta ardiak ihesi. Berriz, libürü handi batetan, mündüko libürürük handieanean erranik da: «Begirari eta zaintzale deitzen dütüzüe zihaturen bürüak! Bena begirari eta zaintzale horik nork begiratüren eta zaintüren zütüe?» Nork? Hala nahi bagira, gihaurek! Gihaurek, non ez giren osoki ütsü eta tonto erori!

Jakintsün handienek gorensten düe eüskara, ederrez. Berriz, badü eüskarak berainez guretako indar berezi bat, delakoz zühürago eta argiago beste mintzaje hanitx beno, sotilago, ahalkexünago eta errespetü egarriago. Bestalde, den bezala, gurea! Bai gurea, aiten aitek guri ützia, gük ere gure haurrer hel dizegün, hala-hala, mendratzerik gabe! Lot gitean, arren, bakoitxa gihauren xokoan eta gihauren heinean, xede horietarako lanari.

Izan gitean irakaspen emaile, bai, nahi dü, irakaspen behar da! bena lehen lehenik eta oroz gainetik, izan gitean, eskiulatarrak üdüri, edükizale, edükizale gogor, erakuspen agertzale!

#### A. Constantin »

*Gure Herria, 1954eko azaro-abendoa: Dr Constantin jaunaren mintzaldia Eskualza-leen Biltzarran, Eskiulan.*



## Kadet Oxibar (1880-1968)

(*Zuberoako idazle zenduak*, 4I-49 or.)

Gameren sortua, apeztu zen Betharramen, San Mixel Garikoitzen ordenan, eta misiolari joan Ameriketara. Sorterriari eta familiari zinez atxikia egon zen beti. Hor gaindi zegoelarik urrutian, lurreko beste bazterrean, haur denborako oroitzapenak agerarazi zituen «Autour du clocher» Zuberoako parro-pien hilabetekarian 1970reko hamarkadan. 1979an sortu berria zen «Sü Azia» elkarteak libuxka batean bildu zituen, **Lehenago Gameren** izenburuaz, eta 2002an berriz agertu du itxura hobe batean, grafia berrian, hobeki enstelegatzeko behar diren oharrekin, eta kasete bat lagun.

Kadet, adinarekin Euskal Herrira itzulirik, Angeluko «Refuge» komen-tuan xahartu zen, seroren apez kapellau, eta hor itzali 1968an.

### «Ihizen

«Zonbait aldiz eskolalatekoan, baratzen (*topatzen*) güntüan zihigarrak (*Zibi-gakoak*) otso ihizera joaiten. Lehenik tirari hoberenak, güne hobexenean gorderik jarteko; eta gero berantago, ohiltzaleak mendia gainti hedatürrik: Hua! Hua! Ohe! Ohe! Huua! Oihüz, tiroz eta zer nahi herotsez bazoatzalarik, tirariak goiti joan ziren gaintialat otsoen joanarazteko. Arratsean baganakian otsoa atzaman züenez, zeren eta ordüan mendi hegitik, beren armak herrokan, tiratzen züen. «Atzaman düe, atzaman!». Eta kontent etxerat joaiten ginen.

Gaü batez ikusi güntüan ülünarekin behera jiten, astoetan ekarten züelarik hiru otso ehorik... Hanitx aldiz deüs ere gabe ihizlariak behera horra ziren. Pierra Haritxondoko zena arrailarian üsü ari beitzen, behin norbaitek südürra otso bati hüllanarazi zeion eta erran: «Orai haatik hor dük! Sendizak!».

Zihigarrak zonbait aldiz altzürükütarrekin hitzartzen ziren, algarrekin ihizen ibilteko, hurak ihizlari fama handikoak beitziren. Negü batez zihigarrak bederatzü otso eho züen, eta altzürükütarrek bat bera, arauz otsoak Sobe gain hortan laketago beitziren. Behin haatik altzürükütarrek hartz bat eho züen. Ithe nabari herexa izanik eta holako zerbait bazela jelostürrik, beren artean hitzartü züen holako egünean ihizera joanen zirela, eta haien tirari hobere-na olan beitzen, hura ere behera jinen zela eta lagüner jüntatüko. Erran be-zala jin zen Ithe nabari behera, eta lagünak horra zirela borogatürrik (*entzünik*), deliberatü (*erabaki*) züan han berean egürükiko zütüala.

Etzanik jarri zen hurak jin artino, bena memento baten бүrüan entzün züan osto herots bat. Harat so egin eta, deüs ere ez ikusi. Berriz etzanik egon. Apür baten бүrüan, berriz entzüten dü osto herotsa, eta oraikoan ozenkiago. Jeikitzen da arma esküan, so egiten, eta hamar ürrats hürrün hartza hari so. Arma soineala eraiki, ginatü, eta banba! tiratzen deio. Bena ez ontsa atzaman, eta hartza aire gaiztoan abiatü. Behar ere kantüan agitü zeion zühaintze txipi

bat. Jauzi batez hartara igan zen eta goiti hel ordüko, hartza igaitera abiatzen. Ordüan haatik, gain behera ontsa ginatü züan eta hartza ederki kolpatü. Hartza iraili zen eta ützülarrikaz gainbehera abiatü, izigarriko orroak egiten zütüalarik... Haren aztaparretan ordüan izatea. Atx aztala!...

Nontik nahi den, zerbait harritzeko izan behar zen, non eta gure gizona, zühainetik lürrealat eraitxirik, han engoxatü (*trenpiütcartü, alditxartü*) beitzen. Alta ez zen lotsorra (*beldürtia*)... Herotsak entzünik, lagünak presan heltü ziren. Ihizlariari eta hartzari besta egin züen Altzürükün eta Maulen. Hantik aitzina, ez zen haboro entzün Ithe naban hartz herexarik izan zela. Düdarik gabe, deüs ere erran gabe, lagüna hantik joan zen, eta Espainialako mendietarat igan. Püntü hartarik aitzina, urte zonbaitez ontsatto eho (*hil, erabil*) züelakotz, otsoak ere galtzen hasi ziren, eta haiez ere ez da orai ha(i)nbat mintzo».

## Gure Herria aldizkarikoak

(*Zuberoako idazle zenduak*, 53-95 eta 105-116)

Munduko bi gerla handien artean, eta gero ere apur batez, zuberotar bazuek Baionako «Gure Herria» aldizkaria kasik berek bete zuten. Haboroxeak gizon gazteak ziren, bereziki apezgaiak: **Dominique BEHETY** larraintarra, **Jean ÉTCHEGORREN** Liginaga-Astüekoa, **Pierre LANOUGUERE** (Pette Xibero) garindaintarra, **Jean-Baptiste MAZERIS** eta **Jean-Pierre PICOCHET** barkoxtarrak...

Haatik laikoak ere bazeuden: **Jean de JAUREGUIBERRY** medikua (sendagilea), **Fabien HASTOY** erriente (maisua)... Azken bi horiez gero mintzatuko naiz, baita lehenaren **Madalena** eta **Clément** haurrideez, haatik ez segidan aipatuko dudan liburuan bezain xeheki.

Izendatu berri ditudan apezgai haien idazlan zatiak agertu nituen «**Zuberoako idazle zenduak**» delakoan, eta irakurlea hartara igorten dut, **53-95** eta **105-116** orrialdeetara.

Haatik **Dominique ACHIGAR** zihigarra bazter utzi nuen, ordu hartan (2001 urtean) oraino bizi baitzen: Zihiga Axigarreko seme hau, aita kaputxi-noa, luzaz misiolari egonik Oubangui-Centrafrigue erresuman, Carcassone hirian itzali da 2003ko udaberri hastean. Haren omere ona dasta dezagun.

### «Bakoitxa bere lanetan

«Ez dü orano aspaldi, Zihigako etxano batetan bizi ziren, adinez aitzinatürik, senar-emazte elibat: Jauntto eta Kattalina. Bazüen behi ñabar eznaütin bat, etxe urde bat, txakür bat, oילו saldo bat, baratze eder bat, arto alorxkot bat eta soroxkot bat. Emazteak züan behia jeisten, arrautzeak biltzen, baratzea egiten. Atharratzen ibiltzen zen hatü saltzen, ezne, arrautze, ilar eta porrü, piper eta tomate. Behar zütüan gaüzak erosirik, etxerat hona zen arraheinki, nonbait pere-

dikatzen inganatü gabe, emazteen artean haizü den bezala. Gizonarentako ziren aldiz kanpoko lanak, alorreko eta soroko arrenkürak: Jauntto errege bezala bizi zen; jaten züalarik salda gizen, uin(h)uada (*tipulada*), piperrada gorri, urdazpi gorri, pastetx (*taló*) lodi, mestüra mardo; eta edaten Zihigako hur paregabetik, salbu igantez: ordüan bi senar-emazteek hüsten züen terrixkotara bat gorritik, segür üdüri beitzeien, amiñi bat berotü ondoan, gazte zirela.

Bena mündü hontan ez da zorihon osorik. Goiz batez Jaunttok erran zeion Kattalinari: Aserik nün beti kanpoan egoitez: nahi düña ni ari nadin barnean lanean eta hi kanpoan?». Kattalinak honartü züan esprabü (*iseiü, entzegu, saio*) hori eta joan alorrealeat.

Jauntto aldiz etxean egon zen. Behia jeitsi eta eznea pausatü züan sükalte erditan, bi pitxerretara ezarteko. Ohartü zeion behar züala Zalgizerik ekarri(*riko*) ardo berria txeste, haboro egürüki gabe. Badoa xaiala (*sotoala*), terrixot bat ezarten dü turrustari para eta ardo ontziari broketa (*txotxa*) elkitzen trükeseekin. Ber denboran entzüten dü sükaltean ontzi hautse herots handi bat. Broketa esküan, ziuntaz laster bat egiten dü, jakiteko zer ote den; ikusten dü eznea iraurrik eta txakürra bortatik kanpo ezkapatzen. Makila lodi bat hartürrik, ondoan jarraikitzen zaio. Txakürra baratzean sartzen da zerrailü gainetik, gizona ere kihilla zabal eta. Biak elkitzen dira baratze zolatik, txakürra aitzinean, büztana sabel pean sartürrik; Jauntto gibeletik, makila esküan eta jüramentüak mihian. Jauntto ez zen nahi zeditü ihize ttipi bati, ezi lehenago bazüan lasterkakako prima Ahüzkin irabazirik. Bazoan iñazia (*tximista*) bezain zal(h)e, bena txakürra zal(h)eago».

Jaunto erorten da, eta xaialat ützültzean, ardo güzia isuririk edireiten dü: «Adio hamabost pitxer!». Artean urdeak baratzearen erdia alhatü dü. Kabale ñapürrenen jo nahiz, beste xanpillus (*itzulipurdi*) bat egiten dü.

«Ordüan hameka orenen altea zen. Barrükütik sankaz entzün züan behia, orano barurik. Jaunttok kanpoalat elki züan, etxano alde peko soro patar ttipian alha ledin. Bena lotsa zen behiak zerbait gaizki egin likeon, txakürak eta etxe urdeak bezala. Aüzoan jesan züan hiru soka eli, bel(h)ar tornü kargatzen erabilten den soka lodi haietarik, eta algarri opilatü (*korropilatu*) zütüan mütürretarik. Gero soka mütür bata behiaren joaltean estekatzen dü, beste mütürra aldiz, tximinearen gainetik behera sükaltealart urtukirik, bere esküineko zanko sagarrari. «Holaz, zion bere beitan, behiak p(h)ürü (*bederen*) ez ditadak deüs ere eginen, norapait joan nahi datekeanean borogatüren beütü».

Bena lüza gabe, behia ezponda batetan lerratürrik badoa durdullaxkaz (*itzulipurdika*) soro zolalano, soka tiratzen düalarik. Ber denboran, sokak Jauntto ekarri züan herrestaz kapitxale kantüetara eta hantik goiti altxatü zanko zolatik tximinearen barnealart. Gaixo Jauntto oihüz ari zen, planta txarrean, zankoak gainean, büruz piko, büria bost zehe gora lürretik. Behar ere, püntü hartan, Kattalina horra zen bazkaritera : harek Jaunttori heltüra egin zeion.

Jauntto egün bat egon zen ohean, lotsak eritürrik. Kattalinari erran zeion: «Ni ez nün nahi haboro barneko lanetan». Eta hantik aitzina, lehen bezain irus bizi ziren Jauntto eta Kattalina, bena Jauntto alorrean, Kattalina aldiz barneko akodiñetan».

## Jean Pierre Oxibar

Kadet Oxibar aipatu dugu. Beste **Oxibar** bat bada, hau **Jean-Pierre**, Txinan misiolari zena, eta behin bederen «Gure Herrian» idatzi zuena, 1937ko apirilatik ekainerako zenbakian: «Azia-tik Uskal-Herrilat» (*Asiatik Eüskal Herrialat*). Yunnan probintzian dago, Vietnamdik hurbil, Phoueuleko prefeturaren meneko eremuan. Horko sei populuen berri ematen digu:

«Seigerrenik *OUA* deitzen direnak, üngürüne horietan hanitx beitira, bortüetan bizi. *Oua* horien erdi bat nonbait, xinoisen (*txinatarren*) esküpean bizi dira eta hen (*baien*) lege(*e*)r jarraikitzen. Bena beste erdi bat basa dira orano, eta ez düe beste bürüzagirik (*e*)zagützen bakoitxak bere herrizaina baizik edo leküz-lekü errege txipitot bat. Beti algarren artean aharran edo güdükan ari dira, eta ez dira oro algarretarat biltzen xinoiser gaina (*gainera*) joaiteko baizik [...].

*Oua* basak ez dira ene egongia kantüan bizi. Behar da ebili bi egün apürrerrik hen (*baien*) eremüala heltzeko. Bena horra dira üsü merkatüala gaüza erostera; eta ordüan kasi beti arropa zerbait jaunsten düte (*düe*), zeren eta bere(*n*) günetan pikarrai-gorri (*biluz-gorri*) beitoatza eta hala hala ikusten ahal dira zonbait aldiz bideetan eta merkatüan ere bai.

*Oua* basa horietarik parte hon bat lepo-mozle deitzen düte (*düe*) eta egiazki halako dira. Urtatse ondoan, bigerren hilabetetik laugerreneala eta berriz zortzigerren hilabetean (orai da), elkitzen dira andanaka bere(*n*) egongietarik eta bideetan ikusten balin badüe berbera doen bat edo armatürrik ez diren jente bakant zonbait, arrunt her (*baier*) gaina (*gainera*) badoatza, bere(*n*) nabela handiez lepoa mozten, bürüa beren zakü beltz batetan sar eta haputikaz (*hapatakaz*) arraützültzen etxerat bürüz. Urte oroz atzamaiten düte (*düe*) hanixko, gainti horietan ere.

Orai düala abantxü urtea, *Oua* basa andana bat jin ziren gaü batez (üsü gaüaz jelkitzen dira), hebentik bi orenen bidean den herri batetara. Etxau (*ai-zogüine*) batetako etxe bakant batetan ziuntaz sartü ziren, han ziren jente güzien lepoak moztü eta ihork ere ezin jarraiki ahal izan, ordariaren berer emaiteko; Hola aita eta ama, lauzpabost haurreki, ber denboran iraülirik etxe(*a*)n baratü ziren eta bürürrik gabe.

Nihaurek ikusi dit heben gaintiko *Tai* gizon bat erremedio bila jinik ene gana. Igaran urtean *Oua* basen nabela petik doi-doia inhes (*ihes*) egin züan eta ordünko zauriak min egiten beitzon (*beitzeion*), horra zen ene gana, sendo nezantzaltatzera. Herexa izigarri bat badü lepoan gaine(*a*)n. Lotseriaz (*beldürrez*) erdi gor eta erdi ertzoz baratü da . Zonbait oihü elibat egiten ditü (*dütü*), üdüri behi bat sankaz ari bezala.

Bena galtatüren deitazüe zer debrü egiten düen hainbeste bürüreki. Nihau ez niz orano ebili *Oua* basen eremü barne(*a*)n, eta ez düt beraz ikusi zer egiten düen, bena heben denek badakie eta beha zite(*e*) zer erraiten düen hebenko jentee .

*Oua* basek sinesten düe bere(*n*) errisaren eder ederra lürretik jelkerazteko behar düela jente bürü bat ekarri bere(*n*) alor kantüala; hura ahal bezain ontsa ohoratü eta, hola üzta hona segür ükenen düela. Beraz herri bakoitxak bürü bat gütienik behar dü atzaman.

Erraiten düe zonbaitek bürü hartan baratzen den odola txortatzen düela bere(*n*) alorraren gaine(*a*)n. Oroek aldiz, bere(*n*) gisan erraiten düe eraman düen bürü hura lantatzen düela kolte gora eta zorrotz batetan gaine(*a*)n, han behar beitiüe ützi zonbait aldiz urtea beno haboro ere, ordaria hel artino. Bürüa kolte haren gainean den bezain sarri, jiten dira *Oua* basen emazte andana bat, zikintarzünez baizik ez beztitürrik, haren aitzineala, bere(*n*) gisan kantatsez nola dolü zaien erraitera , planta hartan jente haren ikusteak (*ikustea*).

Eta kantatzean, holaxeko hitz elibat emaiten emen düe (*dütüe*): «A! Gaixo dohagabekoa, eta nola hulakatü ahal izan zira arren! Zeren ez zünüan kasü gehiagoxe egiten, bide handi hurak gainti joaiten zinelarik! Ez zinate orai planta hontan heben. Bena ez ziteala etsi, ez. Gük heben ontsa erabiliren zütügü. Gure Jinkoa izanen zira aurtenko.

«Soizü ekarten deitzügün idi eta urdeak. Horik oro zure ohoretan ehoko (*hilen, erabilen*) (*di*)titzügü orai ziren güne hetan (*baietan*) üken dezazün eta jateko prunki. Bena zük ere, otoi, gaüza horien ordai ükeneraz izagüzü üzta hon bat eta arraützüüren gira orano zuri eskerren emaitera». Eta gisa hortan lüzaz ari dira gisala (*omen*).

Ordüan arren (*beraz*), noiz eta nihauk ikusiko beitiütü eta entzünen gaüza horik, xüxentzen ahal diket herroka horietako erranetan, zerbait aipatü balin badüt osoki egia ez denik. Bena nihauren bürüa traste txar hek (*baiek*) atzamaiten balin badüe, ez dükezü ordüan hain aisa. Zer nahi izanik, Jinko honaren lagüntzarekin [sic], ez niz etsitzen egün batez oso osoa eta ez bürüa ber-bera, joan ahal izanen nizala *Oua* basen artealat eta hantik aitzina, ez zitzaizüet (*nitzaizüe*) nihauk ikusiez baizik mintzatüko. [...].

**Misioniste txipitot bat .**

**Changin-en, bürüllaren I3ian»**

## Jaureguiberrytarrak

*(Zuberoako idazle zenduak, 119-153)*

Euskaraz ez zuten izigarri bat idatzi de Jaureguiberry familiakoek, baina eragile handiak izan ziren herriaren eta hizkuntzaren alde, bereziki Jean, Madalena eta Clement haurrideak. Izenburuaren azpitik aipaturiko liburu horretan zatiño bana hartzen diet hemen dastatzeko doia.

**Jean de Jaureguiberry** (1880-1952): Argentinan sortua, bederatzi haurri-detarik lehena, Alozen hil zen, aita-amen herrian. Armadako sendagilea zen. Eskualherrizaleen mugimenduan parte hartu zuen munduko bigarren gerlaren aitzintzoan. «Aintzina» aldizkarian idazten zuen, baita «Gure Herria» delakoan. Haatik haren obra nagusia frantsesezkoa da, nahiz euskal izenburu batekin: «Basabürüan» liburua. Zuberoako euskaraz itzuli du 1996an Jakes Sarraillet lakarrar irakasleak, Baionako Maiatz aldizkarian.

Espainiako gerlaren kariara, hegoaldeko euskaldunen alde jarri zen Jean, Madalena arrebarekin, eta handik ihes etorriak lagundu zituzten. Geroxeago, aleman armada hemen zegoelarik, erresistentzian parte zuten biek, eta horretan beste lau Jaureguiberrytar ere sartu ziren: Clement anai gazteagoa seme batekin, eta medikuaren bi seme gehienak.

Goian aipaturiko liburutik, hona «Xikitoka» artikulua bukaera, xikitoa zer den azaltzen duena. Pette Hegixilo, Atharratzeko merkatutik herrira itzul-tzean, mahats ardo gorri-beltzez hein bat dopatua (bere arnas beroak salatzen duenez), parrokiako erretore lapurtarrari konfesatzen zaio, Pazkori buruz.

«Bekatü handixenak agertü ondoko, Pettek ez daki haboro zer aitort. Behartzen zaio apezari heltara jin:

–Ele tzarrik erraten duzu?

–Bah, Jauna... Noiztarik noiztara... Holaxek... Xikitokaz...

–Zer da hori, xikitoka?

–Jauna, hori düzü Zibero zoko hontako txostaka zahar bat, güdüka bat elez eta oihüz. Mendi bixkar batetarik beste mendi bixkar batetan, artzain batek beste artzain bat ikusi bezain sarri, igorten diozü xikito bat, eta besteak xikito batez ihardesten. Xikito bakoitxak badizü lau bertset (1) ahal bezain zorrozki hontürrik. Eta ürrentzeko beti ber hitza: xikito! Zernahi batak besteari erraiten ahal diozü solaz hortan, elerik tzarrenak. Batak ez besteak ez dizü kexatzeko züzenik; bena bai ber xedean ihardestekoa. Hola da xikitokako legea!

–Gauza hainitz Xuberoan ikasia naiz, bainan ez hori. Eta xikito zombait badakizu? Aditu nahi nuke baño.

–Jauna, eleak torpeegi dütüzü, ez sobera eijer, heben zuri bürüz erraiteko.

–Errazu... Errazu...

–Nahi düzünez gainen, Jauna, beha zite honi:

*Bertzaren üzkü beltza  
 Kanpetaren tinta beltza  
 Ützi nezak isilik  
 Hizan bezalako mütür beltza, xikito!*

Jauna, ez ziteala kexa, bena bai ihardets, nahi badüzü.

–Alo! Eta badakizu bertzerik.

–Jauna, aitzinegi joanen gütüzü. . .

–Errazu, Pette, errazu. . .

–Nahi düzünez gainen, hau ere badakit:

*Gerezi beltz jan diat  
 Kakeria badiat  
 Isilik egoiten ez babiz,  
 Aboala eginen deiat, xikito!*

Ez kexa, Jauna. . .

–Alo! Eta bertze bat oraino?

–Jauna, hobe dizügu bi horietan egonik.

–Errazu, Pette, errazu bada. . .

–Nahi düzünez geroztik, honi ontsa beha:

*Haxeria badoazü bere xilotik  
 Jarraiki zakitzo ondotik  
 Haboro jakin nahi badüzü  
 Sar zakitzo üzkü zilotik, xikito!*

–Aski hola, Pette, orai badakit zer den xikitoka.

–Jauna, arauz, ez zaitzü ene xikitoak sobera gaitzitü?

–Ez, Pette, izan ez bazinu hats hori.

–Jauna, hatsik gabe honarat jin beharko zaitadanean, ez nüzü ariko xikitokan».

(1) Bertset: bertsoa. Hemen *neurtitza*: lau badaude xikitoko bertso edo bertsetean.

(*Gure Herria aldizkaritik*)

## Madalena edo Madeleine de Jaureguiberry (1884-1977)

Paueko errientsa eskola eginik, Argentinan irakasle egon zen sei urtez. Mündüko lehen gerlan senargaia galdurik, ezkondu gabe bizi izan zen amaren ondoan Zibozen.

Emazteen euskaltzalegoaren sustatzeko, «Begiraleak» batasuna sortu zuen eta horren buru izan. Espainiako gerlaren inguruan, hegoaldeko abertzaleen politika munduari erakutsi nahi izan zion, orduko frantses idazle katoliko handienekin: Mauriac, Maritain eta abarrekin. Sail horretan ez du sekulan etsitu geroztik.

Euskararen alde jardun du etengabe, eskolan sararazteko bereziki. Pauko inspektür-ikuskariak horretara lehiarazi nahi zituen, hitz ederrik eraiki zuen, baina besterik ez! Halaber iparraldeko emakumeen Ekintza Katolikoan. Berak euskaraz irakasten erauntsi du eskola batzuetan. Horretarako liburuxkak, disko bat eta hiru antzerki «hontü» zituen.

Euskararen balioaz artikulu asko idatzi du iparraldeko agerkari eta kaze-tetan, gehienik frantsesez. Clement anaiak Inchauspereen «Le verbe basque» gramatika lanaz eginiko laburpen matematikoa ezagutarazi nahi zuen. Zinez barreiatuak daude Madalenaren idazlan laburrak. Euskaltzain urgazlea zen, eta 1975etik ohorezko euskaltzain.

Hona Madalenak Belokeko Aita Xabier Diharce, «Iratzeder» poetari bidaliriko sortatik gutun bat, 1964ko urriaren laukoa:

«Ez deizüt erraiten ahal ene boztarioa, atzo goizean irakurri düdalarik *Basque-Eclair* kasetan: « Le basque langue liturgique». Eta geroztik istankal, ene gogo, bihotz, arimek dioie: «Bena, Jauna, nola nik zuri eskerrak ützü! Ez nizün uste holako gaüza bat ikusten ahal nüala ene denboran, zoinen azken mügetara heltzen ari beniz».

80 urteak bete ditit egün horietan; eta zonbat nahi entzütän düdan erraiten «ez düdala adina markatzen», urteak hor dira, eta azkenak amets bat bezala igaraiten ari. Eta aldiz, gibel ützültzen nizalarik, üdüri ziztazüt hürrün, zinez hürrün «Aintzina» eta lehen Begiraleen denborak!

Zonbat ginen egün haietan, ber lanari lotü ginenak? Esküko erhietan kontatzen ahal ginen, erraiten zeitan düala ez aspaldi *Lafitte* jaunak. Üdüri zait xenda her(t)si baten gainti lüzaz ibili nizala *Xibero* xoko hontan, Baiona gain-tiko ber sailari jarraikitzen zindeen lagünetarik hürrün!

Ene anaie bedeziak zinez lagüntzen nüdüan, eta segür nüzü, orano hobeki zük hitzeman zeneiztazün otoitzek, ezi beti ene beitan senditü beütü Jinkoaren lagüngo.

Bena orai zer boztarioa ene gogo bihotzen! Baneikezü hanitx gaüza zuri kontatzeko; hona haietarik bat. Deüsek ez leikezü erraiten ahal xiberotarren estonamentüa noiz eta ere entzün beita igaran üdan Ebanjelioa kantatzen, Atharratzeko elizan. Üdüritü ziküzü, behazaleei orori, pastoral baten lehen perediküa entzütän günüala, eta zer ahaire ederrean (botza ere eder zen).

Atharratzeko ostatü batetan xiberotar batek kantatü züala, igante gaü hartan, goizean elizan entzün Ebanjelioaren parte. Behin entzütea aski izan, haren gogoz begiratzeko; eta ostatüan zirenak oro errespetüekin, isil-isila behatü ziren. Eta igaran egünean, gure artean, zer müdüan Ebanjelioa beno pastoral ederragorik!».



## Clement de Jaureguiberry (1895-1965)

Munduko lehen gerlan sartu zen hemeretzigarren urtean, osorik egin zuen artillerian, eta bi aldiz kolpatua, kapitain gradoan bukatu. Luzaz Argentinan egonik, munduko bigarren gerlan ere parte hartu zuen erreserbako ofizier bezala, beti kanoien artean. Gero Bildozen plantatü zen eta Mauleko Regum lantegia kudeatu zuen zuzendari karguan. Xiberoko maki handiena (Maule, Arbaila, Basabürükoa) manatu zuen, bospahei ehun gizonen buru, eta Ospitalepekoaren laguntza polemikoarekin, Zuberoa libratu 1944ko uztail-abuztuetan. Guduka horren egutegia frantsesez idatzirik utzi zuen, eta horren sinadurarik gabeko liburuxka batean agertu du Atharratzeko erresistentzia batzordeak: «*Août 1944 – Libération de la Soule – publié par les soins du Comité de Libération de Tardets*».

Haren alaba Marga(r)ita «Mallaita» Joannyk dituen eskuizkribu batzuek erakusten dute Clementek euskaraz ere luma ona zuela, eta idazle sena. Horietarik bat «Zuberoako idazle zenduak» liburuan agertu dut, 138-153 os-toaldeetan: «**Mort pour la France**». Istorio zinez hunkigarria dugu hor, eta ene ustez argigarria ere bada.

Hona horren bi zatiño: hasiera eta bukaera.

«Igaran ürrietan heltü nintzan aspaldian inbeiatzen nüan gaüzala: egün baten osorik bortüan igaraitera. Goizik partitü nintzan makila bat esküan, füsüilaren hede a esküin-exker soinean igaranik, xahakoarena kürütxe, exker-esküin, eta bizkarrean estekirik, orai moda berri deitzen den «sac de scout» delako bat [...].

Egünaldí ezinago ederra z oan. Hegoa aire arin batek, lanoak xahatürik, bazterrak oro klar eta argi ezari zütüan. Xendak ützerik hartü nüan, xüxen, petigora, gaineala hel artino, eta gero, hegiz-hegi, ikusi nüan günerik goreneala. Han lüzaz eküratü nintzan, largabistarekin gainti orotarar so. Espainiako aldean, bortü gora, bere botxü, lapitz kolore ütsolekin. Ahünerik ezküin, eza gütü nüan günea, non ere beita «Pierre-Saint-Martin» delakoaren leize fama tüa. Esküinago Betzülako maxela pelatüak. Orhi aldepean, Erroimendiko naba eta San Jüsefen ermita xuri-xuria oihanaren erditan. Eki itzalgialat büruz, itsasoa ageri zateana hürürünean? Ez nezakean ontsa ezagüt. Iparraldealat, bista hedatzen zen Eüskal Herriaren gainetik Biarno zolalat [...].»

*Bortuan nabikoa ibili ondoren, idazleak ederki baliatzen du emazteak prestaturiko bazkari oparoa, eta jarraian siesta egiten du belarrean etzanik. Atzartzen delarik, laino pean gertatzen da.*

«Emeki-emeki sartzen zeitadan beldürra gaüa kanpoan igaran behar zeitadala. Bah! Memento sordeirik bi gerla denboretan igaranik nintzan. Bai! Eta biharamenean ber lanoak aitzina etxekitzen bazüan? Üsüan, aste bat osorik mendiak lanapean baratzen dira. Nihaturen bürüarekin elestan, hola nindoan, batean ordokian, bestean gainbehera, seküla goiti hartü gabe [...].

Bat-batetan borda baten mürrüa, eta hürrüntxago, lano arte batetarik agertürik, etxe aitzine bat. Eküratü nintzan eta deitü *Ou!* Txakür bat, etxeko bortatik kanpo, txanpaz gainera jin zeitadan, bena ene makilaren lotsak zanko sagarretarik hein honean etxeki. Berriz ere ber oihüa eman nüan. *Ou... Ou!* Emazte xahar bat bortala agertü zen, esküak kota hegalean txükatzen zütüalarik. Oihüka hasi zen: «*texi! Xumix! Ago isilik, txakür txarra*».

Txakürra isiltürik, bena bere malezian beti (büruzkin?), berriz, mintza ahaltü nintzan. Jinkoak deizüla egün hon! Lanoan herratürik nenbilan gain haietan, burü eman düdalarik züen soroarekin. Bidea gainbehera segitü dit, eta segür kontentik hona heltü nüzü. «*Oh! Eüskaldün zira, emazü aitzina eta sar zite. Oro bustirik zira. Sü hon bat badit kozinan piztürik. Texi! Xumix*».

[...]

Lüzaz elestan egon ginen. Jakin nüan haren alaba, bere senarrarekin, peko alorrean arto biltzen ari zela, eta bi haurrak eskolatik laster goiti heltüren zeitola. Kafe hon bat aigardentarekin lehenik, barnearen berotzeko, hartü behartü nüan, eta gero züzüluko mahainean plantatü zeitadan ogi, gazna eta ardo. Arrastiri apala zen. Kanpoan beti lanoa. Sükaltea ülünxka zen, bena süiaren argidürrarekin, gaüzak hobeki ikusten nütüan. Emaztea kanporat jelki zen oiloen bazkatzera, eta hantik ezagün zen: «*prura! Ttitta! Texi! Txakür kanpixa! Ttitta... Ttitta...*».

Arra ützüli zenean, txütik nintzan, mürrüan zen kaxa (*kazola*) bati so. «*Soldat Oxogorriborde Arnaud –Mort pour la France– 14 janvier 1915*». Emaztea hüllantü zeitadan. Ez nintzan ausart galtatzera nor zen Arnaud hura. Emazteak ordüan: «*hori izan düzü ene biziko malür handia. Gaixo Allande! Lau urte ginizün ezkontürik, gurlara joan behartü zeionean. Lüzaz berririk gabe egon nündüzün; gero artetarik karta elibat, ontsa zela zeioenak, bena adrezarik gabe arrapostü emaiteko. Abentiän, azkenekoz, beste karta bat heltü zeitadan, adreza emaiten züana, eta etxeko berri xebetarzünak galtatzen. Izkiribatü neion letera lüze bat, gaiia osorik igaran benüan. Hainbeste gaiüa galtatü behar beneitzon etxaltearen joanarazteko. Arrapostü igorri zitazün. Harek ere letera zinez lüzea, üken düdan bakoitxa. Gero, deüs ere haboro. Egün oroz, ezin lanean ariz, fatürraren baidürü. Gaiiak, baur lo zirenen kantüan, nigarrez*».

«*Eta gero, barantailaren bosgerrenean, hürrüntik ikusi nizün jaun mera, jendarma batekin jiten, eni berri izigarriaren ekartera. Erakatsi nabi deizüt, eskolatürik beitzira eta balere eüskara ez abatzerik, Allanderen letera*». Hona, bürüa apaltürik, süiaren argidürala, irakurri nüan Allande Otsogorribordak, «*mort pour la France*», bere emazteari igorri zeion lehen eta azken letera».

## Borthiry Sala, Jean-Baptiste (1889-1974)

Larraintar honek bertsolari fama zuen. Ahoz ez dakit askorik ari ote zen. Haatik bertso paper prezatuak «ondu» zituen: *Sü Azia* elkarteak zenbait agertu zizkion kaier batean 1979 urtean. Nahiz ez den Jaureguiberrytarra, Clementen ondotik agertzen dut, munduko lehen gerlaren lekuko bezala. Zauri larriak jasan zituen eta ondorioz inbalier gelditu. Presonergoa ere ezagutu zuen. Oroitzapen garratzak agertzen ditu ondoko bertso hauetan.

«Agur deiat Maule alteti(k), agur Orhiko bortüa,  
Bedatseak igaraitean kentü deik motto xuria,  
Hürrüntik ere boztario diat hire ikustea,  
Beitakit hire aldepean dela en sorleküa.

Haritxa ez hiz zotükatü hi sortü lekuti(k),  
Hantxe gure etxe zaharra, aldean bi borda xuri;  
Begiak jarri zaizt errada, dütüdanean ikusi,  
Partitü nintzan leküala bazterrek naie urtuki.

Esker honak deitzat, Armada, hik egin deitadak honki,  
Ene gaztetarzüen ederra eman deiat maleruski;  
Estropiat ezari eta igorri naik epantxüti(k),  
Etxekoen karga naik ützi pensione txar bateki.

Lau urt(e) et(a) erdi(re)n bürüan dütü etsaiak armak pausatü,  
Fochek egin kondizione güziak dütü honartü;  
Orai badügü bitoria bat eta aski espantü,  
Bena hilak ez arrapiztü, ez estropiatak sendotü.

Ama ere ber abiseko, aitag zeitan proposatü  
Anai galdüaren leküa etxen nahi nüanez hartü,  
Infirmitate(e)n kausaz ez düt eskeinia ez honartü,  
Eta nonbait ahal lekütan ogia txerkatü.

Zerbait ikas nikeola orano üdüri zeitan,  
Eta korajez ontsa munta aprendiz partitü nintzan;  
Ma(ra)dikatü gerlaren kausaz holaxe niz adin hontan  
Zola-zolatik arrahasle hogeita hamar urte(e)tan».

## Fabien Hastoy (1879-1950)

(*Zuberoako idazle zenduak*, 97-103)

Lexantzün sortua, Atharratzen hil zen. Irakasle izan zen lehen mailako eskola publikoan, bere aita bezala (hau Lexantzüko errienta beitzen): lehenik Lapurdin gaindi, gero Alozen.

Artikuluak idatzi ditu «Eskualduna» astekarian eta «Gure Herria» aldizkarian, bereziki «Betzülako aize ephailia» sinatuz (1936). Istorio txikiak eta antzerki laburrak «ondu» ditu, eskoletan emateko. Oro har, eskuin-ezker, gauza franko idatzi du, baina ez dago hainbat horien berri zehatzik.

La Fontaineren hamabost bat alegia euskaraz egokitu ditu, eta horiez da famatuena. Hona laburretarik bat.

### «Igelak idia bardintü nahi

(*La grenouille qui veut se faire aussi grosse que le bœuf*)

Agorrilako ülüntze bero batez

Musde igel

Beti ergel

Ari zen hürrün entzünarazi nahiz

Bere karraka ehelegagarria (*nazkagarria*)

Iratzarraztez Jauregiko lozalea.

Edatera zen hüllantü idia

Igeltto

Bekaiztto

Zertako zen bera hain txipia

Hantzen da, diolarik ahizpari

«Hori bezainbeste nüken sarri!»

Jarri zen llodi, biribil

Zorro

Morro

Bai...zapart egin eta hil!

Apollot horrek bezala

Egile bada, gisala!»

## Pierre Lhande (1877-1957)

Aita-ama xiberotarretarik sortu zen Baionan, Argenterie (Zilarrerriako) karrikaren 8an. Aita Jean-Pierre galdurik, bederatzigarren urtean Pierre Zalgi-zen kokatu zen Pauline amarekin, bi erdi arreba handiagoeekin eta bi anai gazteagoeekin. Arreben ama, Paulineren ahizpa gehiena zen. Hau zendu baitzen, alargunarekin ezkondu zen Pauline hamazortzi urteetan, iloben ama ordezko bilakatuz. Pierrek ikasketak egin zituen Mauleko Saint François instituto katolikoan, gero Baionako apezgaitegi handian. Hortik joan zen Jesuitetara. Jesusen Lagundian apezturik, irakasle egon zen Hernanin eta Hondarribian. Hor gipuzkeraz ongi ikasi zuen, eta Lafitteren arabera, zuberera baino hobeki ematen omen zuen. Puerto Santa Marian ere irakasle lanetan jardun zuen. Baina Espainiako erresumatik haizatu zuten politikako ideien gatik, Espainiako gobernua euskaldunen aurka eramaten zuen politika jorratu baitzuen mintzaldi batean.

Anartean sortu da Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntzaren lehen bilkuran, Oñatin, hegoaldeko lau diputazio edo kontseilu orokorren gerizan. Hor 1918ko irailaren 5ean izendatuak dira lehen lau euskaltzainak: Resurreccion-Maria Azkue eta Luis Eleizalde apezak, Arturo Kanpion eta Julio de Urkijo jaunak. Deliberatzen dute Euskaltzaindia hamabi kidetara helduko dela. Beste zortziak izendatuko dituzte 1919ko irailaren 21ean Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko jauregian: Txomin Agirre, Pierre Broussain (hazpandar medikua), J.Blaise Adema (lapurtarra hau ere), Ramon Intzagarai, José Agerre, J.B. Eguzkitza, Ramon Olabide, eta **Pierre Lhande** Zuberoako euskalkiaren izenean. Lhanderen ondokoa **Guillaume Eppherre** date (1958-1974), eta gero altzürükütar apez horren segida nik dut 1975etik.

Zalgiztar-atharraztarra eskuin-ezker ibiliko da mundu zabalean: lehenik Paris aldean pobreen zerbitzuko, zer nahi eraikin eginaraziz; laster hego Ameriketara; azkenik Indian: han oroimena galduko du bat-batean, 57 urteetan, eguzki kolpe baten ondorioz ote? Eta ez du sekulan osoki berriz bilduko; biziko azken herena zinez mendraturik iraganen du, bereziki Atharrazteko xahar-etxean, eta hor zenduko da laurogei urteetan.

Frantsesez asko idatzi du, denetarik: prediku, mintzaldi, eleberri... Izigarriko arrakasta bildu zuen Pariseko Notre-Dame eliza nausian egin zituen Garizumako predikuez, eta gero irratiz eman zuen «l'Évangile par dessus les toits» mintzaldi sailaz.

Euskal gaiez ere anitz idatzi zuen frantsesez : olerki, saio, eleberri, artikulua, ikertze, estudio... Sail horretan aipa ditzadan bereziki «La tombe basque» idazlana, «L'émigration basque» liburua, eta Larrasquet barkoxtar apez hizkuntzalariarekin Etxahun-Barkoxez «ondu» zuen liburuxka.

Jean Larrasquet linguistikari doktore zen, eta Zuberoako euskalkiaz lan zorrotzak agerturik baditu, bereziki horren fonetikaz, hala nola «*Action de l'accent (tonique) dans l'évolution des consonnes étudiée dans le basque souletin*» (Paris, librairie Vrin, 6 place de la Sorbonne): egia erran, doktoregoako agertu lana du hau.

Lhandek frantsesez baino askoz gutiago izkiriatu du euskaraz: kobla zenbait, itzulpen bat edo beste, gutun eta mintzaldi bakarrak, «Eskualduna» asterkarian berrixka zenbait zubereraz... baina eleberri bat, «Yolanda», gipuzkeraz: lehenik frantsesez idatzi zuen, eta gero berak euskaraz itzuli. Edizio kritikotik bat prestatu dio Jon Casenave lapurtar irakasleak, eta Euskaltzainak bilduma» delako sailean agertu Euskaltzaindiak, ene lan honen Bibliografian ikus daitekeen bezala.

Bestalde Lhandek Euskaltzaindiaren «Euskera» aldizkaria bi urtez kudeatu zuen, eta «*Dictionnaire basque-français*» delako hiztegi sonatua hasi. Parte handiena egin zioten Pierre Lafitte eta Philippe Aranart apezek. Baina aita Lhanderen famak euskarari zerbitzu egin dio lan berezi horretan, eta orokorki ere.

Hona haren bi gutun, Jon Casenavren edizio kritikotik hartuak, 99-102 orrialdeetan:

#### «Eskuara eta eskualzainak

Azken hilabeteko «Gure Herria (n)», *Eskualduna* idazle edo izkiriakale batek behin zerabiltzan solas batzu aiphatzearekin, gure irakurtzale askoren gogoan itzaltto bat utzi duelako beldurrarekin nabil. Itzaltto hori, Eskual «Akademia» edo *Eskualzaindiaren* etsai batek baxharrik altxatu balu, nere xokoan geldi-geldirik egon nintake, ze(re)n etsai itsuari erantzun edo ihardestea, (h)azia lur ahulari emaita da. Bainan solas okher horren aiphatzea gure adiskide zinziñezkoenatarik delakotz, eskuratu daukigun gai hori, hein batean garbitu eta xuritu behar dugula deritzat.

Eskualdun idazlari harek omen dio, Eskualzainek «eskuara, beren ustez, bertzeek baino hobeki dakitenek», beren biltzarretan «gure eskuararen goiti-beheitiez erdaraz mintzo omen» direla; eta «omen» horri egiaren itxura zenbaiten emaita, «hoitarik batek hala aithorturik» dela derasa.

«Aithorzale» hori Eskualzainetarik zoin edo nortsu den, egileak ez zu erraiten eta neronek, eztakidalakotz, salha ez nezake. Bainan garbiki erran dezakedana da, gure biltzarretan, hastapeneko othoitzean hasiz eta azken hitzeradino eskuara derabilgula. Bai! erdarari agurrak egiteko, Elizalde, Eguzkitza, Olabide, Altube, eta abar...bezalako Eskualdunekin ongi giagok, muthil! Horiek baino, frantses ala espagnol erdararen etsai gaitzagorik, Baiona'tik Bilbo'radino harrapatzea erres [sic] ez-litake. Gutarik batek, oraino eskuararatu ez-diren yakinbide batzuen aiphatzeko, noiztarik noiztara erdel-hitz moltxobat balimbazer(ab)ilan, ikhustekoa zen Eguzkitzaren begi beltzen tximista eta Aita Olabide'k xuxen botatzen zako: «Euskeraz, yauna!».

Beraz, zuk ere, batzutan erdaraz mintzatzen zareztela aithortzen dezu?

-Bai... zera... zu... Zoaz eskuaraz solas egiterat, guk derabiltzagun gai batzuez: «Sur le mode de préfixation et de suffixation des radicaux au mode direct féminin du tutoiement dans le verbe basque»: edo: «sur les appareils enregistreurs dans la phonétique expérimentale!».

Diot: maiz-maizenik eta biltzarraren burutik buru eskuara derabilgula, eta egoki den bezala, gauza xehe eta zail batzuen adi(ə)razteko, han-hemen frantzes, espainola, anglesa, bai eta ere alemana, agertzen dugula. Zer gintezke eta zer indar ginuke, gure eskuararen alde hizkuntza horietan idatziak edo argitaratuak diren guthunak ezin irakur eta ezin ulert bagintu? Eskuararen ikhertzeko eta aberaste-ko aski bada, gure artean eta mende hautan deramagun eskuararen biphilki mintzatzea, zoazte Ziburu eta Donosti'ko porturat eta zuen Eskual-Akademian sarraz itzazute han aurkhituko dituzuen xardina saltzaileak. Hitz dautzuet hek eskuara hutsa –eta nolako!– eramanen dauzutela.

Begotza hor itsuen eta ergelen aitzaki horik: bertze izenik ez dute merexi... Hitz hori gogorxko badirudizu, adiskidea, irakur zazu Aita Larramendi'k, orai duela ehun eta lauetan hogoï urthe hurbil, ziona: «Etzaitzatela tonto tzarren erautsiak ozpindu ta ikaratu, eztirade jendartekoak ez aurkituko; ezta billatu bear ere. Bazterretan, ta itsu, ezerere danik agertzeko ta argitaratzeko. Zer dugu astoren batek edo bestek esana gatik?» (247) Hala dio Larramendi'k.

Aspaldi danik yakina den gauza da, berenaz hobekienik lanean ari diren zirikatzaileak berak alferrak eta ahalgegabekoak direla. Ttirritta, xinaurriaren... tittirriazale; leiztorra, erlearen zirikatzaile.

Alabainan, Eskualdunen artean, eskuararen alde zerbaiten egiteko ez ginuke ez ttirrita ez leiztorra beharrik: GUZIAK ERNE ETA ERLE? TXINAURRI ETA GINAURRI. Etsaiak baditu frango... kampoan; hekieri buru egiteko Eskualdun guziak batetaturik ere ez-gare gehiegi. Bazterrerat utz ditzagun bada gure berhexgoa eta berekhoikeriak. Gure anai gazteak guk baino lan gehixago ephaiten badu, hobe: lan gutiago guretzat! Norberak bere alde-tik, indarraren neurrian. Orok bihotzean maitetasun bera deramagu: *Euskera* eta *Euskadi*ren maitetasuna. Horrela sua bulharrean dakharrenak bere baithan lekurik utz ez lezake bekhazterriaren sukhar gaistoarentzat. Bertzela, harrek «Eskualdun» izen garbiaz bere buruaren aphaintzea merexi ez duala diot eta nago.

Pierre LHANDÉ

Eskualzain

*Gure Herria*, n° 2, Otsaila, 1921»

(247) Mendiburu: *Jesusen bibotzaren devocioa, San Sebastian 1747 (Réédition Dodgson) 19-20garren orriak. (P. Lhande-k ezarritako nota)*».

### «Ûskaldün güdükarientako güthünak (248)

Jakin dügü bihotzeko atsegin egiazko bateki Pariseko jaun gazte batek eskütan hartü dian egitekua gure herritar güdükari zaurthien (*zaurituen*) hunetan (*onetan*). Jakinik bazirela hirinausiko eritegietan Uskaldün hanitx eta hanitx, jaun hura jua zeitze (*zaie*) ikhustera, üskara-plañä (*euskera klasikoa*) xüxen emaiten dakian jaun aphez bateki. Heltu bezain sarri nabaritu die (*düie*) gure Uskaldünek etziela, bestek bezala, zertan denbora higa, etzelakoz han ez erizaiñik, ez igailerik üskara zakienik. Amets ükhen balire (*balüe*) irakurtzeko zerbait! Bena han ziren güthün eta kasetak (idazti eta egunorokuak) oro erdara tink-tink hortan ezarririk ziren eta hek (*haiek*) ezin erdara enthelega! (*konpreni, ulertu*). Hain laster jinarazi dütie (*dütüie*), jaun horiek, Uskal-herritik (*Eüskal Herritik*), güthün eta irakurgei eli bat (*elibat*), hersatzen (*zuzentzen*) zirelarik bere(n) hanko adixkider, beste liburu eta mouzkin zunbaiten ukeiteko.

Guk ere, Gipüzkoako alderdi huntan girenek, entzün dügü jaun hunkigile horien deia eta nahi günüke egin zerbait, gure ahalaren müga labürretan, haier lagüngoamiñi baten (apur bat) erakhartzeko. Horrengatik, EUSKAL ESNALEA edo *Uskal-Irazarzalía* deithürrik den güthün amostoroztuak gei deitze igorri oraiartinokan argitarazi dütian kartillak oro, algarri josirik urthekal.

Bihotz-altxagarri zaiku goguan igaraitia gure gaixo güdükari zaurthürrik direnek ükenen düela bide horrez nula higa eritegietan orenak (orduak) eta egünak. Bere odolezko anai Uskaldünen emaitzari esker, beren oiñhazien artian balinba erro eginen die (*düie*) hebenko atsohitiz edo alegien irakurtziareki, eta ahatzeko dütie bere(n) bihotz-minak.

Dagün hilabethian Gregorio Mujika jaunak emanen dütü Españako erdaraz xehetarzün zunbait güdüka izigarri huntan bere(n) eginbidia ederki egin dien Uskaldunetaz. Oraidanik eskerrak deitzogübürüratü gei dian lanarengatik, hala nula eskerrak deitzegü üskal-irakurgei zunbait igorriko deizkien gure irakurzale orori. Badakigü Españako Uskaldünak, hala Frantziaren althe direnak nula Alemaniaren althequak, bere(n) odolezo anaien bihotzminak berenak balira bezala hartzen dütiela. Ni ezniz phüntsützen (aserretzen) hebenko kaseta erdaldünek erabiltzen dütien elhez baten althe edo bester aitzi (kaltez, aurrezka, kontra), ezi badakit bihotzez eta egiaz uskaldünak oro bat girela, denak adixkide, denak anai.

PHETIRI LHANDE-BASAGAITZ.

Jesüsen khidegoakoa.

Mendeluzar (Undarribin), Azaruaren 10'ian

EUSKAL-ESNALEA -1914 »

Hona ber idazkia, beti zubereraz, oraiiko grafia estandarrean emanik:



### Eüskaldün güdükarientako gütünak

Jakin dügü bihotzeko atsegin egiazko batekin Pariseko jaun gazte batek eskütan hartü düan egitekoa gure herritar güdükari zaurtüen honetan. Jakinik bazirela hiri nausiko eritegietan eüskaldün hanitx eta hanitx, jaun hura joan zaie ikustera, eüskara plaina xüxen emaiten dakian apez batekin. Heltü bezain sarri nabaritü düe gure eüskaldünek ez züela, besteek bezala, zertan denbora higa, ez zelakoz han ez erizainik, ez igarailerik eüskara zakianik. Aments üken balüe irakurtzeko zerbait! Bena han ziren gütün eta kazetak (idazti eta egünorokoak) oro erdara tink-tink hortan ezarririk ziren eta haiek ezin erdara entelega! Hain laster jinarazi dütüe, jaun horiek, Eüskal Herritik, gütün eta irakurgei elibat, hertsatzen zirelarik beren hanko adiskideer, beste libürü eta mozkin zombaiten ükeiteko.

Gük ere, Gipuzkoako alderdi hontan girenek, entzün dügü jaun honkigile horien deia eta nahi gütüke egin zerbait, gure ahalaren müga llabürretan, haier lagüngoia amiñi baten erakarteko. Horrengatik, EUSKAL ESNALEA edo Eüskal – Iratzar(t)zalea deitürük den gütün hamabostoroztüak gei deitzee igorri orai artinokan argitarazi dütüan kartillak oro, algarri josirik urtekal.

Bihotz altxagarri zaigü gogoan igaraitea gure gaixo güdükari zaurtürik direnek ükenen düela bide horrez nola higa eritegian orenak eta egünak. Beren odolezko anai eüskaldünen emaitzari esker, beren oinazeen artean balinba erri eginen düe hebenko atsotitz edo alegien irakurtzearekin, eta ahatzeko dütüe beren bihozminak.

Daigün hilabetean Gregorio Mujika jaunak emanen dütü Espainiako erdaraz xehetarzün zombait güdüka izigarri hontan bere eginbidea ederki egin düen eüskaldünez. Oraidanik eskerrak deitzogü büürüalatü gei düan lanaren gatik, hala nola eskerrak deitzegü eüskal irakurgei zombait igorriko deizgüen gure irakur(t)zale orori. Badakigu Espainiako eüskaldünak, hala Frantziaren alte direnak nola Alemaniaren altekoak, beren odolezko anaien bihozminak berenak balütüe bezala hartzen dütüela. Ni ez niz püntüsützen hebenko kazeta erdaldünek erabilten dütüen elez, baten alte edo besteer aitzi, ezi badakit bihotzez eta egiaz eüskaldünak oro bat girela, denak adiskide, denak anai.

Jon Mirande (1925-1972)

(Zuberoako idazle zenduak, 157-171)

Parisen sortu, bizi eta hil izan zen. Aita-amak xiberotarrak zituen, baina frantsesez ari zitzaizkion. Euskara bere kasa ikasi zuen hogeit urteetan, eta euskalki guzien ezagutzera heldu zen; zubereraz, lapurteraz eta gipuzkeraz bereziki, trebetasun handia zuen: hiru horietan idazten zuen, eta gainera batuari

buruz bazoan euskara zabal batean, nahiz baturako bideratzea ez zen oraino hasia.

Abertzalea zen Mirande, baina oso bere gisakoa: arrazista zen argi eta garbi, batere izkutatu eta gorde gabe. Nazien alde agertu zen... haiek gerla galdu ondoan! Jesus Jainko juduaren etsaia zen, baina bere gisako sinestea bazuen, paganoa: euskaldun zaharren Urtzi zuen bere Goikoa. Eusko Jeltzaleari ere aither zen, horren abertzaletasun kristau, garbi eta bakezalearen aitzi, aurka, kontra.

Ministerio batean lan egiten zuen, Paul Valéry poeta famatuak bezala, eta haren antzo eta balde, lan horretan izigarri aspertu zen. Bestalde oroz kurios zen: goizeko seietan jeikirik, beti ari zen irakur eta ikasten; hizkuntza andana bazakien, eta haietan bretoiera. Bretoi lagunak bazituen, abertzale gogorak; euskaltzaleen artean ere adiskide minak, alta ideologia ezberdinetakoak: Txomin Peillen sozial-demokrata (politikan ez zeuden ados), Jon Etxaide kristaua, Gabriel Aresti «gorria»... Idazle zorrotza dugu, bai prosan, bai olerkian. Hona dastatzeko doia (lekukotasun luzeagoak goian aipaturiko nire liburuan).

#### «Banüan adiskide bat

Banüan (banin) adiskide bat  
 Hoberik ez beitzen  
 Tabala da ezagün  
 Enekin gaü et(a) egün  
 Gerlan ibili zen,  
 Gerlan ibili zen.

Bala bat horra zaigü  
 Ene ala hire?  
 Lagüna dü ebaki  
 Zertako ez naü (nai) hunki  
 Harekin ni ere,  
 Harekin ni ere?

Hedatzen deit esküa!  
 Armatzen ari (ai) nintzan  
 Nik ezin deiat eman  
 Eskürrik, ago heben  
 Betiko bizian,  
 Betiko bizian».

*Aleman armadako kantore zahar bat (Ublan, 1830) egokitu du hor Mirandek. «Agui-rrre Presidenta» pastorealean kantatu zuten 1995ean Arrokiagako herritarrek.*

## Ligetx (1901-1940)

(*Zuberoako idazle zenduak, 175-184*)

Louis Liguex, Larraine Ligetxeko semea, Zihiga Baratzabalerat ezkondu zen, eta han gazterik hil bular-erraietako tuberkulosi gaitzetik. Aho-mihiz bertsolari hauta, bikaina omen zen. Haatik izkirioz bertso, kopla eta kantore guti utzi du: dozena bat ene jakinean. Hameka ediren dizkio, gutunazal handi batean Allande Socarros kazetalariak, Etxebarre bere herriko kontseilura hautatua izan delarik: herriko etxean ezarririk zituen horko Joseph Althabe, Arrabarko etxeoak, Ligetxen arreba baten semeak. Horiek eta beste bakarñoak agertu ziren *Gure Herria* aldizkarian.

Aho-mihiz nahi bezala ari omen zen Ligetx, eta horrez oritarazten dü Beñat Mardo XVIII. mendeko barkoxtar bertsolari famatua. Beharbada bi xiberotar ezagun handienak ditugu sail horretan. Etxahun-Barkoxe bikaina zen izkirioz, haatik aho-mihiz oroitzapenik ez du batere utzi. Etxahun-Iruri bi sailetan ari zen, baina bat-batean asmatzen baino hobea zen kantore idazten: aho-mihiz Ligetxekin lehian entzun dutenek diote larraintar-zihigarra joko horretan nagusi zuela, zaluagoa eta zorrotzagoa. Etxahunen irakaslea zen, eta bere maisu hori galdurik, Xiberoan bere heinekorik gabe gelditu zen Etxahun-Iruri, damurik.

### Basabürüa eta Pettarra

(*izenbürü hau nik emanik*)

1 - Orhin sortü txoriak Orhi dü maitatzen  
Zonbat nahi hürüntik, harat da nausitzen  
Ni bortü txoria niz, Pettarrean (*rrin*) bizitzen  
Sorleküa ez beitzait gogotik jelkitzen.

2 – Basabürü gainean zabal da bortüa  
Han dirade garbi, sano air(e) eztia  
Osagarriarentzat lekü tratatüa  
Han da han egiazki irus bizitzea.

3 – Bena hona zer düen erraiten Pettarrean (*rrin*)  
Larrainen, Santa Grazin, Hauzen eta Lakarrin  
Ligin, Lexantzün eta Etxebarre herrian (*rrin*)  
Jenteak (*tik*) bizi direla miseria gorrian (*rrin*).

4 – Ezinago ohil (*basa*) dük basabürütarra  
Ez dük bate(*re*) basago ihize zaharra  
Apürrek die zerbait jente manera  
Mantsotü gabe die ützi behar lürra.

5 – Han bizi behar düanak (*dinak*), han behar dik sortü  
 Kanpotiarrik ez dük orano laketü  
 Pettarrean (*rrin*) nahiago dük Pettarra higatü  
 Bizia eztiago eramaiten beitü .

6 - Mespe(*re*)txü , trüfen gatik bizi Basabürü  
 Pettarren ürgüllüa lehen nahas bürü  
 Oro hil nahi dütü üngürüz üngürü  
 Bena basabürütarra beti da hen (*baien*) bürü.

7 – Biba Basabürüa zer nahi izanik  
 Pettarrean bezala Jinkoak eginik  
 Hire mespe(*re*)tatzeko ez die züzenik  
 Ez beitü egin nahi (*nihuri*) ogenik.

8 – Pettarrek die behar hire sokorria  
 Bestelan lüke bertan miseria gorria  
 Haien gaznek lükeie ttipi üngürüa  
 Axala gogor eta üdüri harria.

9 – Sei hilabetez dütü urte oroz hazten  
 Negütik landa deitze kabaleak (*lik*) ekarten  
 Bedatsean (*tsin*) eta üdan bortüan (*tin*) (*dü*)tük igaiten  
 Larrazkenean (*nin*) aldiz etxerat joaiten.

10- Negüa jin denean hiau hiz baratzen  
 Isiltarzünean hiz ordüan bizitzen  
 Mihise xurien pean ardüra gordatzen  
 Inoxenten arropaz ederki beztitzen.

11- Kantatzen hasi denean (*nin*) küküa bortüan  
 Pettarrer dük erraiten bihotza esküan  
 Süskerra bezain berde lilien artean  
 Hen (*baien*) haidü(*rü*) bezala bertan jin ditean.

12- Pettar edo menditar, oro bardin gira  
 Bizitzeko badügü algarren beharra  
 Bego sa(*i*)hetsealat bekaizteria tzarra  
 Auher eta aizinantez beitago sobera.

13- Jinkoak eman deigü manü bat ederra  
 Algarren maitatzea ütirik aharra  
 Pettarra maita ezak basabürütarra  
 Dezagün egin oro(*e*)k (*e*)üskaldün azkarra.

14 – Txoria(k) kaiolatik penuski kantatzen  
 Sorleküa beitzaiio tai gabe oritzen  
 Bata bestea(k) dügü algar kontsolatzen  
 Sorleküa gogoan girade isiltzen.

*Eskerrak Marcel Accoceberry, Larraineko auzapez obiari.*

## Etxahun-Iruri, Pierre Bordazarre (1908-1979)

*(Zuberoako idazle zenduak, 187-200)*

### **Koblakaria**

Beraz Ligetxekin aho-mihiz bertsotan ikasi zuen. Haatik ez omen zen haren heinera heltzen. Egia da zortzi urtez gazteago zela, eta irakaslea ordukotz famatua. Hau goizik joan zen, 39 urteetan, eta Etxahun lehiakide hurbilik gabe geratu, beste koblakari handirik ez baitzen orduan Xiberoan. Ments horrek ene ustez kalte egin zion, bertsotan trebatzeko anitz ari eta jardun behar baita lehiakide on baten aurka. Mattin eta Xalbador luzaz hobetuz joaten ikusi ditut, elkarrekin eta beste batzuekin lehiatzeari esker. Etxahunek noiztenka horiekin parte hartzen zuen. Sari handi bat irabazi zuen 1946an Hazparnen. Baina gero ez zuen maiz ekin: artetarik etxean Xalbadorrekin, hau bere artaldearekin neguan Xiberoara bazetorrela. Etxahun kantore «ontzeari» eman zen gehienik, airea barne, horretan gustuanago ari baitzen ere. Berrogeita lau urteetan pastoralari lotu zen, arrakasta handi bat erdietsiz .

### **Kantore hunkigarriak**

Berrehün bat kantore «ondu» zuen. Ez dira denak Agur Xiberoaren heinekoak, franko baditu gertakizun txiki baten kariara norbaitek eskatuak eta berehala idatziak. Baina beti hitz eijer, politik edireten ditu, ahairea berak asmatzen du, simple, goxo, hitzari ongi ezkondua. Horretan maisu da, musikaren irakurtzen ez dakielarik, eta lazgarriko dohain eder hori gutzizatzen dio Xalbador adiskideak *Odolaren mintzoa* liburuan.

Haatik 1946ko udaberrian nabaritzen hasi zelarik presoner ohien ome nezko kermezetan kantari, haurren eta gazteen mirespena irabaziz, adineko jendeak erran zigun: «Bena gaixoa, Etxahun txipia dük hori! Bestea züan bestea, Barkoxekoa, Etxahun handia, egiazko Etxahun!».

Denborarekin Irurikoak bere dohainez eta lanez erakutsi du Etxahun txikirik ez dagoela. Bi Etxahun, oso ezberdinak, eta biak berdin handiak baditu gure Xibero txikiak: horrez burgoi, fier eta harro giaudetzu!

### Züberoaren bi maxelak

Xiberoak bi mazela baditu, bi Etxahunek simetrian bezala erakusten dizkigutenak, beren urratsetan eta idazlanetan bizi izan dituzten bezala: batetik Irurikoaren «eki begi» alegera, polit eta goxoa, besteek ikusten diguten bakarra; bestetik Barkoxekoaren «itzal herri» bortitz, gogor eta iluna. Hori ere hor daukagu, gure lurraldean, gure baitan eta gure historian: Oier III.a, Xiberoko azken bizkonde oiesa, Matalaz apez iraultzalea, Pierre Topet-Etxahun «zaharra» eta zakarra, Jon Mirande idazle tragikoa, Xiberoko bi makiak...

### Pastoral idazlea

Mende laurden batez bakarra izan da, Junes Casenave agertu arte. Ohiko santu eta frantses erregeen orde euskaldunon historiako heroiak ospatu ditu. Bederatzi *trajeria* «ondu» ditu, lau zuberotar ohoratuz, beste lau euskaldun, eta Gaztelako andere sonatu bat, «*Ximena*».

1- Etxahun Koblakari	- Lehentze	1953an Barkoxen
2- Matalaz	1955	Eskiulan
3- Ber(e)terretx	1958	Maulen, Ligin
4- Santxo Azkarra	1963	Gotaine-Irabarnen
5- Le Comte de Tréville	1966	Irurin, Maulen
6- Chiquito de Cambo	1967	Maulen, Donostian
7- Pette Beretter	1973	Gotaine-Irabarnen
8- Ximena	1979	Atharratzen, Irurin
9- Iparragirre	1980	Urdiñarben, Urretxun

### Etxahun eta herioa

Etxahunen trajerietan maiz zati baliosena da hiltzera doan heroiaren kantorea. Ataka horretarik iragan beharko dugu denok, eta horren sargian bakoitzak ukaiten ahal duen sentimendua hunkigarriki txaranbelatzen du Etxahun-Irurik, egiazko poeta den bezala. Ikus eta entzun bereziki de Trévilleren azken hitzak, baita Nafarroako Blanca erreginarenak (*Pette Beretter* trajerian) eta Rdrigorenak (*Ximena* trajerian).

## Alexis Etchecopar «Attuli» (1924-2005)

Aitaitaren sortetxe izenetik «Attuli» deitua, Barkoxe Larraja auzuneko Etxekopareberrian laborantzatik bizi zen familiarekin. 1924 hastean sortua, 2005 ondarrera hil zen 82 urteak arras bete gabe.

Duela mende erdi bat, Etxahun-Iruri bezain on agertu zen kantore alaie-tan bezala hunkigarrietan. Baina gizon apal eta herabea zen. Bordazarre pla-

zagizona zelarik, nahiz goxoa eta xehea, Etchecopar ez zegoen gustura jende oste baten artean: publikoan agertzeari uko egin zion berehala. Agian geroztik ere kantore «ontzen» erauntsi duke, hau da jardun, bere xokoan isilka: esperantza dut horren berri jakinen dugula noizbait, agian laster, bereziki Patrick Queheille herritarraren lumatik 2010ean Barkoxen emanen zaion pastoralaren kariara.

### Pilotarien Biltzarra

1

Agur, agur, adiskidik (*adiskideak*), agur bihotzetik  
Zaharrak eta gazteak bildürik hürüntik  
Eüskaldün jokü jaunari bere lür harrotik  
Lili ederra da egün zabaltzen itzaletik.

#### Arrapika:

Gizon gazte(*e*)ntako belarra  
(*e*)Ta zaharren indarra  
Kanta obra ederra  
Pilotarien Biltzarra.

2

Gure Jinko jaunak deizkü ezarri mündüan  
Txori(*a*)k kantüz oihanean et(*a*) ardiak mendian  
Untzietan mariñelak itsaso erdian  
Eta pelota maitea Eüskal Herri aldean.

3

Arbolarik ederrena oihanin (*oihanean*) haritxa  
Aize handienak dio sano da (*del'*) arraza  
Eüskaldün pilota horri besuk (*besoak*) ez kürütxa  
Beti nausi izan dadin denek dezagün altxa.

*Baltsa musika batek kiribiloan airaturik, zinez erakarzarria da kantu hori: beraz arrakasta handia bildu zuen hastetik eta geroztik atxiki du..*

### Sorleküa kitatüz

1

Sorleküa kitatüz ikas egarrían  
Lanean hasi nintzan fede azkarrean  
Hainbeste igaranik beste(*e*)n bazterrean  
Ene bihotza bardin egoiten herrian.

2

Arrosa bat üdüri, hürüntik batzarri  
Hiriko bizitza hain da maitagarri  
Gaztetik desiratüz lili eder hori  
Ez nin (*nüan*) uste bazila (*baziüala*) hainbeste (*i*) elorri.

3

Sorleküko boneta ez düüt ez kitatü  
 Hiriko lantegian nintzalarik sartü  
 Hegal horrek ditazüt fedea bermatü  
 Penaren haizatzeko indarra doblatü.

4

Plazera ezinago ene bakantzetan  
 Txorieki kantatzez mendi bizkarretan  
 Bai eta haurride(*e*)kin herriko bestetan  
 Girelarik pikatzen dantza zaharretan.

5

Denek ikus dezagün alegrantzietan  
 Üzta handi eder bat herriko plazetan  
 Lanta de(*t*)zagün nor(*k*) gure etxe(*e*)tan  
 Eüskaldün (*b*)ontarzünak gazte(*e*)n bihotzetan.

### **Bihotzeko argia**

Gizon batek bere bizian sartüz geroz bide lüzean  
 Kantatzen dü alegrantzian esperantxa bihotzean  
 Eüskaldün ooren indarra  
 Noiz nahi beti ber eskerra  
 Gaztea bezala xaharra  
 Goiz arrats bardin alagera  
 Kantorea gure izarra  
 Jinkoaren dote (*i*) ederra  
 Ikas eta heda sügarra  
 Bihotzeko argi ederra.

Seme baten da xarmagarri harek entzüten düalarik  
 Etxondoan bere aitari kantore zahar ala berri  
 Eüskaldün ooren indarra  
 Noiz nahi beti ber eskerra  
 (goikoari jarraiki)

### **Denak dira xorrotxarenak**

Xorrotxaren amets handia arma güzien zorroztea  
 Merexitzeko jornalea, gaüko alojea  
 Mahain hon bat gure nahia eta perestü bürüzagia  
 Ezti dezan beharrüean etxekanderea.

Xorrotxaren lehen manüa kantü berrien emaithea  
 Bigarrena zerbützatzea geztera harria  
 Hirugarrena lagüntzea senar auherren emaztea  
 Laugarrena korteatzea andere güziak.



Gure korporazionean badüğü lan egin ahala  
 Ez beitu hantzen ber heinean sakolari zola  
 Fama beituğü aspaldian gure lanaz kontent girela  
 Ohar zitee beharrüean xorrotxak girela.

Eskü laster agüdoenak  
 Zahar eta (*i*) arraheinenak  
 Kantari agradableenak  
 Kalitate horik norenak  
 Kobla berriak gozodünak  
 Bai eta zahar ederrenak  
 Ihauteriari eginak  
 Denak dira xorrotxarenak.

## Guillaume Eppherre (1911-1974)

Altzürükün sortu zen, Etxeberria laborari eta nekazari etxean, hameka haurridetarik bigerrena. 1936an apezturik, goi mailako ikasketak egin zituen Occitaniako Tolosan. Bere apez lan gehiena Baionan ereman zuen, lehenik apezpikutegiko idazkari eta segretario bezala. Gero Saint Bernard ikastetxe katolikoan «omonier» edo kapellau egon zen, baita katedraleko kalonje. «Basque-Eclair» egunkari kristau-demokratatzen arta hartu zuen, frantsesez.

Zinez euskara ederra zuen, zubereraz jakina, baina lapurteraz ere. Horren lanak sakabanatuak daude, beraz biltzea zor diogu. Xiberoko euskalkiaren izenean, Lhanderen ondoko euskaltzaina izan zen (1958-1974), eta beraz ene aitzinekoa. Sartzeko hitzaldia zalgiztar-atharraztar handiari luzatu zion, haren bizia eta obra ederki aipatuz. Bestalde hona Jean de Jaureguiberry zenari «Gure Herria» aldizkarian, 1952ko uztail-abuztuko zenbakian egin zion gorazarrea.

### Ziberuko seme bat

Dioie Etxahun zaharrak galtatzen züala Barkoxerat igor lizeien azkenean erretor bezala «Ziberuko seme bat». Hitz hori zaigü ohartzen orai, de Jaureguiberry bedezi zenari pentsa eta.

Jaun horren bizia gogoz igaraiten dügülarik, horren lanak, izki(*ri*)büak, ahapaldiak, egün oroztako arrazuak ohar eta, horren gogo-bihotzeko xendak eta plegüak ikertzen dütügülarik, erran dezakegü ez dela deüsere besterik nahi izan bere bizi denbora oroetan, salbü «Ziberuko seme bat».

### Haur denbora

Sortü zen Alozen 1880 urtean, api(*ri*)la azkenean. Aita hanko bereko zen, bena denbora zombait Ameriketara igaranik, Buenos Aires hiriko gaintian. Han

sos buxi bat bereizirik, funts handixka bat berak plantatürrik, jinik zen, oroz-bakoz bere ustez, kartielealat. Ama aldiz Zibozeko zen. Bederatzü haurretarik lehena jiten zen gure bedezi izan beharra. Johaño deitü züen, kartieleko beste motiko hanitx bezala.

Lehen bost urteak igaran zütüan Alozen, ziberotarrez baizik ez beitzen prefosta mintzo, ordünko aloztarrak oro bezala. Haur elestari eijerra zenez batere ez dakit, bena bai ordünkoz ezpiritü zorrotza eta hartze hona zütüala. Berrogei urteren bürüan orit züan orano (eta hain eijerki erraiten!) bost urte<sup>(e)</sup>tan ikusi züan Charlemagneren pastorala.

Urte hartan berean, aitak zerbait berri gaizto jakinik Ameriketako etxezainez, behar üken züan itsasoko bidea hartü. Eraman züan berekin bere familia txipia oro eta hirur mixkandi, bi mitil etxebartar eta neskato bat lakarrarra. Arren, Ameriketana eta Alozen bezala, Johaño txipia egon zen ziberutarren eta basabü<sup>(rü)</sup>esen (*basabürütarren*) artean. Aüzoak ere haboroxeak eüskaldünak zütüen, hegiatz honaintiko eta haintiko. Erran gabea haatik, kartiel hetan (*haietan*) espainola ere amiñi bat mastekatzen züela.

Han igaran sei urteetan, gure aloztar pottikoa ez zen eskolan ebili. Harek ikasi zütüanak: otoitzeak eta katixima, etxekekin, denak eüskaraz. Bena eskola arraroena zen harentako bere aitaren konpainia. Ezinago maite züan harekin [sic] bazterren miratzea, gaüzen eta jenteen aipatzea. Ondotik berak zioan, bere aitareki [sic] züala ikasi egiazko *filosofia*, erran nahi beita egiazko balioen ezagützea.

Maite züan ere haatik zamariz eбилtea eta haren adinari emanik zen ihizteka. Ordünko bazakian ahatebasa eta erbi atzamaiten, bazakian ere haxerien bere<sup>(n)</sup> ziloetarik elkerazten. Ah! jaun bedezia, uste dit Basabürüko pottikoeke oroeke inbeiatüko zeizüen holako eskola süerte.

Bena hameka urteetan arrajin zen Ameriketarik eta haren etxekeak Zibozen kokatü, kartieleko günerik eijerrenean. Ibar esküinaren eta Ibar exkerraren artean, hegilla batetan, bi aldeetarar so eta bortü gorari para.

### Eskolak

Jin eta, hasi zen eskolan ebiltan. Ez zakian eüskara baizik eta espainol koxü bat. Urte batez bere adineko lagünen heineala heltü zen. Proba, bazüala entelegü eta hartze; proba ere, Mendicouague deitzen zen haren errejenta errejent hona zela. Urte bakoitx zertifikata igaran züan eta batetan latiari lotü ordünko jaun erretorareki; hau Guichandut deitzen zen, Donapaleü [sic] ondoko.

Ondoko ürrietan, Paueko *lycée* lati eskolan sartü zen sei urte<sup>(re)</sup>ntako. Eskolier arraroa zela, ageri da haren notetarik. Urte oroz prima andana bat eramaiten züan, zer nahi lan süertetan, izan ledin edo kontüka eskola edo frantses ala lengüaje zahar eskola. Azken bi urte<sup>(e)</sup>tan, bere *baccalauréat* etsamenarekin ekarri züan berekin eskolier hoberenaren prima ederra.

Bedezi eskolak hasi zutüan hamazortzi urte(*e*)tan, Bordelen, eta бүрүтү batere te(*re*)bükatü gabe bidean. Bena ez zen ekürüan egoiteko bedezi izan nahi. Itsasontzietako bedezi kargüa haütatü züan eta hortakoz espreseko eskolak egin bai Rochehorten [sic], bai Bordelen.

Hogeita bost urte(*e*)tan bedezi zen. Ez nakike erraiten jakintsünek nola deitzen düen haren bedezitzeko izkiribü-lana. Entzün düt ber-bera ordünkoz jadanik ezpiritüko minak eta bizi manerak ikertzen eta miatzen zütüala. Fransesek hori deitzen düe *psycho-pathologie*.

### Kolonietan bedezi

Bedezitü bezain sarri, galtatü züan Afrikako kolonietarat joatea, soldado bedezi bezala eta hanko bereko jente(*e*)n bedezi. Zerk eman zeion ideia hori? balinba bere haur denborako Ameriketako oharmentxa goxoek. Zer bizitzea hola eremü handier gainti eta ezagütürrik ez diren kartiel berrier gainti harat-honat eбилtea! Han jente arrotz eta berrien ikustea, haien bizi maneren ezagützea!

Non igaran düan denbora, soldado bedezi bezala? Hona, llabür-llabür: 1905-1907 *Soudan* deitü kartielean; 1908-1910 eta 1911-1913, *Gabon* deitü bazterretan; 1914-1917, Frantzian gerlan, beti lehen borroketan; 1917-1918, *Côte d'Ivoire* deitü kartielean; 1921-1923, *Oubangui* deitü Afrika erdiko eremüetan; 1924, *Marokeko* gerla günetan. Erretreta hartü zuan 1925 urtean.

Zer izan zen hogeitü urte horietan haren bizia? Eüsüaldün atrebitü baten bizia. Besteak joan nahi ez ziren güne(*e*)tarat joaiteko beti prest zen. Ez ballentiaz; bena eginbidez eta amodioz. Ez züan seküla galtatüko berarentako abantaila zerbait. Eginbidea edo beharrünea non beitzen, han zen oso-oso.

Eta zer oharmentxak ez dütü ekarri bere bidaje lüze(*e*)tarik? Artetarik, behar züan hirur hilabetez zaldiz ebili, beltz saldoxkot bat lagün, bere lan güneala heltzeko. Güne haietan ezagütü dütü Afrikako beltz jente aria handienak eta txipienak. Ezagütü eta soinatü. Berehala maite züen hanko jentee, belhagile larrüxuri hona deitzen beitzüen.

Zer istoria eijerrak ez zütüan kontazen bere Afrikako denborakoak: ihize istoria, jente istoria, lanjer istoria?

Begiratü balütü eta paperetan ezar(*r*)i! Zer gaüza eijerrak orai bagüntükean gure agerkari hontan emaiteko!

Erraiten züan ikusirik Afrikan barne(*a*)n jente pipiñi elibat, mündüko txipienak eta haien kartiel ondoan beste beltz elibat, bi metra gora zirenak. Iku-sirik haien merkatüak, oihan tipilünetan, algarri deüsere erran gabe, agertü gabe, aldika jinez merkatalgoen ezagützera.

Erraiten zütüan hanko ihizteka istoriak: lehu, elefant, basabehi, zaldi lepälüze, gazela, antilopa, eta holako zernahi jarraikirik eta ehorik.

Güne batetan, han, egin züan behin zühain batetan Basabürüko gisa kabana bat koltez eta estoilaz (*ostoilaz?*). Han igaraiten zütüan denborak! Ez batere

ihiztekan, bena irakurtzen eta goaitatzen. Ûhaitz ondoan beitzen, egürükitzen zütüan ihiziak zernahi gisatakoak eta haier soz egoiten, haien bizi manerak es-tüdiatzen.

Erraiten züan ere egün bat osorik igaranik behin, zühain bati estekirik, hanko salbajeak üngürüan ezpainak murtxatüz eta erriz. Ahal züana oro es-kent eta, zerbait mehatxü eta künjüe(r)ia egin eta, azkenekoz libratü züen. Be-na ez zinez arrünküratü (*arrenküratü*) gabe.

### Gerlan bedezi

Beste haboroxeak bezala, jaun bedezia izan da gerlan. Bere ofizioan egin dü gerla, bedezi bezala. Etxe(a)n zen lehen gerla hatsarrean, eta bere koloniako errejimentü batekin [sic] egon da gerlakagiako lehen herroketan, hastetik eta 1917etara artino. Ordüan joan behar üken zaio Afrikalat, *Côte d'Ivoire* deitü kartielealat.

1924 urtean harentako berriz gerla, *Marok* deitü gaintian. Badütü ohar-mentxa zonbait bildürük paperetan: «*Sur l'Ouerga*» aitzin-izena emanik. Espe-rantxa dügü egün batez herroka horik heben berean agerereziko dütügüla.

Hirugerren aldía, gerla ezagütü dü bena hürünxka, 1939-1940ean, Salie-sen eta Tarban, ospitale(e)tan bedezi bezala. Hor ere zer oharmentxa eijerrak ez dütüa bildü !

Azkenekoz gerla Ziberoan berean. Bena hau, ez üsatü gerla. Alemanen joaiteko püntüko gerla. Behar zen jakin nola lagünt kanpotik jin armadak, no-la etsaien partitzean kartielean ezar gaüzak anple etxekiko zütüan soldado tropa txipi bat.

Bedezi bezala egin dü beti gerla, bena segur ez auher, beti bere eginbidea eta bere eginahala egin ez. Gerlan ez da oroen lana ber(r)a, bena oroek badüe beren balioa. Eta erraiten ahal dügü egün Jaureguiberry jaunaren balioa izan dela gerlan ere ezinago handi.

Aitzineko gerlan, beti han izan da gerla güdüketan berean, tai gabe bere zerbütüan, gaü ala egün, espantürük, ez ballentiarik gabe, sekülan ez etsitürük, ez akitürük, ez lotsatürük, ez bürüa galdürük. Ohart gitean zer erraiten züan, orano düala urtea, Jean Iriart bere herritarraz, «*un héros inconnu*» berak deitzen züana agerkari hontan.

Badakigü berak bildü zütüala «*croix de guerre avec palme*» eta «*légion d'honneur*» bi ohore-markak Verdun hiri kantüko güdüka lazgarrietan. Halako güne(e)tan ez beitzütüen emaiten ohore-marka horik ontsa merexitü gabe.

### Kartielean bedezi

Bena gerla ez da sekülako izate bat soldadoentako ere. Jaun bedezia ezkon-tü zen, gerlatik ützüli bezain sarri, andere Grison atharraztarrarekin [sic], ez-kontü eta familia bati bürü jarri. Hirugerren hauraren jitearekin [sic], 1925

urtean, ützi züan orozbakoz bere kurri-bizitzea, soldado-bedezi bezala erre-treta hartü, eta kartielealat jin egoitera.

Lehenik bere familia txipiarekin [sic] jarri zen Donibane Lohizunen, bere küinat Althabegoity bedezia lagün, hau itsasontzietarik jinik. Biek lan hanitx eta bizi irusa ereman züen bederatzü urtez, bata eri-bisita(t)zale, bestea radio bekanikaz min iker(t)zale. Bena küinata ustekabetarik joan zen, zazpi haur txipi ützen zütüalarik. Berak lau haur zütüan eta oro eskoletan.

Egon zen orano bizpahirur urtez bere lankian. Bena ahal bezain zalhe, adinaren jitearekin, nahi izan zen arrajin bere sorleküalat, Aloze xokoalat. Han etxe eijer bat plantatürik, бүрүтү züan gure kartieleko etxeko-sume hani-txen ametsa: bizipidea segürtatürik, sorterrian beren habiaren egitea, eta haur-denborako lagünekin azken urteen eramaitea.

Erraiten ahal dügü azken urte horik izan direla gure jaun bedeziarentako urte baliosenak. Bere bedezi lana egiten züan zerbütü egiteko, hala beharrü-nea zelarik. Bena haboroenik etxe(a)n bizi zen.

Etxe(a)n, bere familiarekin [sic]. Haurrak eskolatürik, üsü-üsüa biltzen zeitzon ondoala. Eta han, haien oroen boztarioa eta besta handi zen. Bere ama xaharra ere hor züan, Alozerik Zibozera, bi ürratsetan. Eta egün oroz joaiten zeion ikustera bi orenez, haren istoria xaharren arra-entzütëra, haren arra-go-xatzera haur-haurrean bezala.

Etxe(a)n zen bere gogo eta jakitatekin. Eta han zinez baliatü dü denbora ikasteko, pentsamentükatzeko, gaügen egiazki pezatzeke. Azken denbora horietan dütü eman bere eüskal lan eta artikülü haboroxeak, ordüan hobekienik maitatü bere sorleküa. Bena beti jakitate gose zen. Jakin dü egün oroz lib(ü)rü bat p(h)ü(rü) бүрүтик бүрү irakurtzen züala.

### Izkiribülan

Irakurtzea maite bazüan, izkiribatzen ere ezinago trebe zen. Badü aspaldi Gure Herria hontan, haren artikülüek ezinago arrakasta züela. Zer plazera egiten zeigün haren izenaren ikusteak ! beiganakian lan eijer baten irakurtzera baguntzala.

Haren artikülüak eta lanak ez ziren seküla estroxan izkiribatürik, bena be-ti aizinala, emeki-emeki, hitzak ontsa haütatüz, gogo lantüz. Lehenago gure kartieletan baziren txütükan ezinago adret ziren gizonak. Badirade orano etxe(e)tan zurezko gaüza zonbait, ezinago eijerrak, nabela püntaz lantzez lehenago eginik. De Jaureguiberry(r)en artikülüek ber feita egiten düe, alde orotarat so egin eta, beti eijerrago eta goxogo dirade.

Aipa ditzagün ber-bera agererazi dütüan lib(ü)rü sotil eijerrak:

*Histoires comiques d'un Marsouin* (1923),

*Les Blancs en pays chauds* (1924),

*Le Basque moyen* (1929),

*Basabiürüan* (1952),  
*Etude psychiâtrique de l'Européen aux Colonies*, dans le «*Manuel de pathologie tropicale*»  
 de Blanchard.

Bena zer ez dü eman *Gure Herriari*, eta aitzinetik *Eskualdunari*.

### **Bihozmin**

Azken urte horiek ez zeioen ekarri boztario eta goxo ber-bera. Bena ere bihozmin. Espainiako gerla izigarriak zaurtü (*zauritü*) dü Eüskal Herria, itsuski porroki. Eta zer pena bi alde izan litean Nafarr(o)a eta beste probintziak, hain lüzaz anaïen artean izan ledin güdüka izigarria!

Jaun bedezia izanik zen hilabete zombait lehen Oiartzuneko gazte bilkürä batetan. Eta ami(r)atürük zago(a)n han ikusi gaüza ederrez. Eta gero halako gazte(e)k behar züela hil edo ihes joan, Eüskal Herria odolez hüstürük bezala? Ez da erraiten ahal zer bihozmina züan.

Beste pena bat izigarria behar züan berehala, bere lagün maitearen galtzea. Hogeï urte algarreki [sic] egonik, sekülan ez debeiatürük, biziaren boztarioak algarreki goxatürük, nahigabeak egaririk, haurrak hein honeala lagüntürük, lüzaz irus izan behar ziren. Gaitz izigarri batek eraman zeion lagün maitea. Ordüan orano hobeki hüllantü zen bere ama xaharraren ondoala.

Hortarik landa gerla. Ihork ezin asma zezake(a)n gerla bat. Jenteak ezaxoltürük üzten zütüana. Gaixo bedezia, min egiten zeioen jakiten zütüan berriak (*berriek?*) eta ikusten zütüan ikustate(e)k. Gure erresuma ez zen aitzineko gerlako trenpüan. Zerk egürükitzen züan?

Ordüan agitü zen itxes izigarria. Itsas-naiak bezala, etsai armadak hedatü ziren Frantzian, gure kartiel xokoala artino. Eta hori ere bihozmin handia de Jaureguiberry bedezia bezalako soldado bihotz azkar batentako. Ez züan honik üken ikusi ez zütüano plantatzen alemanak egotxi behar zütüen indarrak. Bere ahalaz parte hartü züan bere anaïe batekin azken heineala artino. Berak deüsere abantaila ez honüne egürüki gabe.

Azkenean bere osagarriko arrünkürä (*arrenküra*). Üdüri haritxa bezain sano, eta uste gabetarik jin zaio noküa, ahülezia bat bezala, eta hortarik landa palisia (*paralesia*) kolpea. Arrajin da, bena doi bere ezinbestearen ezagützeko eta senditzeko eta egarteko.

Bazakian norat ari zen. Orano hobeki sartü da bere familiaren eta ariaren zainetan eta goxotarzünean bezala. Haboro min eta pena sendi eta, aitzinago zoan haren eüskal arima-bihotzen amodioa. Eta holaxe emeki-emeki, bere haurren balioa ikusiz handitzen eta hedatzen, bere etxekoen eta adiskide(e)n eta herritar(r)en bihotz hona senditüz bere beitan, hobeki konprenitzen züan harentzat bere Eüskal Herriaren amodioa izan zela argi bat eta indar berri bat; haren izateari eman zeïola barneko hontarzün eta sü bat bezala.

### Eüskaldün osoa

Orai haren izateari so egin eta, ez dezakagü besterik erran, izan dela eüskaldün osoa, Basabürüko egiatzko semea, hedadüraz eta jakitatez besteak beno handiago, bihotzez halaber besteak beno süharrago. Beste(e)tan bildü jakitate beretü dü, eta beretzez eüskal odolak eta arimak zütüan balioak oro bü-rütü düti eta honarterazi.

Honüne horien oroen ütürria Jinkoa bera beita, nahi üken dü ezagütü, go- retsi eta maitatü, bere etxekoek eta herritarrek bezala, oihürik gabe, bena isil- isila gogo eman ez eta ezagütüz zoin aberats, zoin bihotz altxagarri, zoin xa- hü eta saintü diren gure aiten ohidüra zahar eta maitagarriak. Ohidüra horien bihotza kausitü dü eta maitatü; bihotz horrek lagüntü beiti honüne oroen ütürri saintüala, Jinko Honaren gana.

Basabürüak eman dizagüla, Jaun Bedezia, zü bezalako haritx xüxen eta eder hanitx, zure balioko ezpiritü zorrotz eta argi hanitx, zure ber süko bihotz hon eta bero hanitx.

### G. Eppherre

#### «EUSKALZAINDIAN SARTZERAKOAN GUILLAUME EPPHE- RRE JAUNAK EGINDAKO ITZALDIA ETA JEAN ELISSALDE JAU- NAREN ERANTZUNA

##### «Aita P. Lhande Ziberotar Euskalzaiñaren orhitzapenez

Baiona, 1959 agustuaren 29an

Euskalzaindiaren Jaun Buruzagi eta Jaun kide agourgarriak:

Houna noun jin den orai enetzat thenoria, ziek diala zounbait hilabete heben berian egin haitiari ageriki eta euskal bihotz guziaz «bai» erraitekoua.

Zien batarzun eder, jakitate handiko eta ouhouragarrian egun hounhar- tzen duzienak eztezake gorde ezinago hounkirik izan dela eta doi bat ere han- turik egin duzien haitiaz eta erakoutsi nahi ukhen deiozien ezagutzaz.

Bena euskal erranak beiti bere zuhurtzian, latiak «honor onus» dion be- zala, kargia karga dela, laster borogatu du bere beithan eginbide handi eta her- si elibati [sic] buruz zela. Arren pharkaturen deiozie zien hounian, denbora zounbaitez dudän egon balinbada ahalke bezala bere chokhouan. Euskalzaiñ ouhouriarren ukheiteko, ezteia behar ukhen jakitate handi eta lan eder ager- tzeke? Eztireia behar jakin chehe-chehia euskal mintzajiaren segretu habo- rochiak, haren erro gordeenak eta haren harat-hounaka eta udaripen (*uduri- pen?*) gaitzenak, zien artian Lecuona eta Lafitte jaun aphezek, Oriche jaunak eta Lafon jaun erakasle handiak dakitzen bezala? Ezteia behar ukhen argita- rat emanik izkibu-lan eder eta baliou hanitch, ziek oroek egin duzien bezala? Ezteia behar ukhen Euskal-Herria alden-alde iganik, eta zounbatetan! euskal

ouhouriairen bethi phitz begiratzeko eta euskal mintzaje paregabiaren maitha-erazteko, Dassance jaunak bezala, eta harekin batian Elissalde jaun Zerbitzari maithagarriak, egun berian 76 ourthiak bethatzen dutian eta heben ene eguzaita den aphez gaztiak bezala?

Eztezake haatik erran egun zien artian sarzaliak, huts-egin duziela zien haitian. Euskalzaindiak beitu euskararen eretzian argi osoua eta gisa batez ere ahal osoua; mundu hountako eta besteko Jaun Buruzagiak bezala, Euskalzaindiak ere bere heinean, bere dohaiñak nahi dutianer hedatzen beitu eta ahala beitu ezdeusetarik ere zerbaiten egitekoua.

Zibero-herrialdia, Euskal-Herriko herrialderik hurrunena eta tchipiena, nahi ukhen duzie begiratu zien artian bethi phitz eta gora. Nahi ukhen duzie hanko mintzaje berhezia bere hitz eta moule eta orhitzapen chahar-eijerrek bere etchen izan zadien Euskalzaindian, beste euskal mintzaje hedatu nasai eta eder oroen artian. Eta hortakoz, nik bezala, Ziberotar oroek egun buhurtzen deitzie eskerrik handienak eta hersienak». (1)

*Guillaume Eppherre zenaren leben zati hau bere grafian utzi dut. Ondokoak oraiko idazkera batuan ezarriko ditut, Euskalzaindiak 1978an, Bergarako bilkura handian erabaki baitzuen euskalki guzietan erabiltzekoa zela. Arte horretan, 1950 urteetan, Eppherre eta Lafon euskaltzainek leben kanbio bat ekarri zuten: «ou» diftongo horren lekua bartu zuen «u» letrak, eta honena «ü» hizkiak, Amikuzen eta Zuberoan leku handia duen fonema bereziaren adierazle. Gero 1960 urteetan, Pierre Charrittoni esker, «x» sartü zen iparraldeko euskalki guzietan «ch» nabasgarriaren orde, azken hau «tʃe» aboskatzen baituzue begoaldeko haurrideek: hortik «Mixel» eta «Tʃao» bezalako itsuskeriak, «Mixel» eta «Xao» behar litzatekeen lekuan. . .*

*Gainera Euskalzaindiak eta euskaltzainak «t» bat irabazi dute, bigarrenak tildea galdu: orain Euskaltzaindiko kideak euskaltzainak deitzen gara.*

### **Ikustate**

Zertako ote bi galtze izigarri, ezin ordarizkatzekoak, üken dütügü batetan, orai düala bi urte, gure Ziberoan? Lhande aita jesüistaren galtzea eta Constantin jaun bedeziarena?

Hurak ziren bi jaun heinez kanpoko zirenak jakitatez, bihotzez eta hedadüraz, honki egitez ere ezinago ezagütürik zirenak eta bazterrik gabe gure herrialde maiteari ohore egiten zeioienak. Hatsarre-hatsarretik Euskaltzaindiak nahi üken zütüan biak bere parteliant hartü, bata euskaltzain bezala, aita Lhande, eta bestea ürgazle bezala, Constantin jauna. Biak batetan, egün zombait arte, ez balütü gure Jinko Jaunak bere ganat deitü, badakigü hedadüra berezi batekin eta ahal hoberenekin Constantin jaunak euskaltzain alki hau etxekiren züala, gure Zibero herrialdea ezinago botz eta ohoratürik izanen beitzen haütü horrez.

Beste izan ez balitz Jinko honaren xedea, aita Lhanderen ordari beste norbait ere heben gogo honez zoin ordüz ikusiren güñan: Aranart jaun kalon-



jea. Ez dezakegü ahantz [sic], aita Lhanderi kargüak handitü eta lanak atetü zeiotzanean, haren euskal hiztegiaren agererazteko lan xehe eta baliosa, haren eskütik honartü züena eta ederki bürütü Lafitte eta Aranart jaun apezek, Lafitte jaunak bere jakitate oroekin [sic], eta Aranart jaunak bere ziberotar mintzaje eta oritzapenak oro lan horren honetan ezaririk. Geroztik, damürük, Aranart jaun apeza bere lan eta kargü handiek hürrüntü düe euskal lanetarik. Beti etxeki izan da haatik bere Ziberoari; eta eritu atzinean, Ziberoko erretor gehien izan da Mauleko hirian.

Orai osagarriaren arrajitearekin ez dügüa esperantxa ükeiten ahal arte haboroxe badükeala eta berriz euskal laneri lotüren dela Ziberoaren honetan? Euskaltzainditik igorten deiogün ikustatezko oritzapen honek lagünt dezala bere min eta gaitz oroen egarten eta goitzen.

### Aita Lhande nor zen?

Züer esker euskaltzain jaunak, egün, heben, bilküra ohoragarri hontan, Ziberoko herrialdea da ohoretan. Gure oroen gogo-bihotzak hegalez bezala doatza ordü hontan mendi arte gorde hartara, hanko herrixka motto haietara eta han bizi diren egiazko euskaldün sotil eta maitagarri haietara. Badakigü ontsa han bizi dela, beti pitz eta bero, euskal odol bat, osoki etxekirik dena euskal izate berezi eta ezinago goxoari, gain-gainetik borogatzen düana bere beitan beste euskaldün oroen anaie-amodioa.

Zoin ordüz gure begiz ikusi nahi badügü itxüra edo begitarte bat, Ziberoa egiazki ezagüterazten eta maitaerazten deigüna, Ziberoaren beraren begitarte dena, gure gogo-bihotzek arrapitzerazten deigüe Aita Lhanderen begitarte ezinago maitagarria. Aita Lhande eta Ziberoa bat beitirade, orai eta aspaldiko urteetan, orai eta agian! sekülakotz [sic].

Egünko egün hau Aita Lhanderen oritzapenak, Aita Lhanderen itzalak dü egiten, dena oro, hunkigarri eta bihotz altxagarri bazterrik gabe. Hartakoz [sic] ere üdüri zaigü hobeki, heben haren itxüra bera dügüla ikusten eta haren begitarte bera, hura bera dela gure artean arrapiztürük bere korpitz txüt eta lerdén eijerrean, bere apez arropak lerdénago eta txütago eginik eta beste üdüripenetarik oroetarik gabetürük; hura bera dela gure artean, bere begitarte leün, ezti eta goxoan, erria ezpainenetan, begiak argiz eta amodioz beterik, bürüa bere bilo kakoilatüez koroatürük; hura bera dela gure artean gogoa argi, elea aiher, bihotza eztitarzünez beterik eta arima beti sütan.

Aita Lhande ezinago maitea, orai direnak oro ageriki eta batere itzalik gabe zabalik beitirade zure begien atzinean, zihauerek erragüzü zer izan den zure bizitze amiragarria eta misteriozkoa; zihauerek erragüzü zer izan den zure izate espantagarria.

### Haren aria eta izena

Aita Lhande eta Ziberoa, bat dirade gure gogo-bihotzetan. Eta haatik, ontsa kasü egin eta, ikusten dügü Aita Lhanderen bizitzea igaran dela non-nahi salbü Ziberoan. Bena Ziberoan zütüan erroak barna sartürrik, Ziberoan züan beti bi-hotza, Ziberoan bere indar hargia, Ziberoan ere egin dü bere paüsüa.

Ariaz Aita Lhande ziberotarra zen eta haatik sortü da heben Baionako hirian, orai düala laueta hogeita bi urte, 1877ko üztailaren 9an, aita saleros-penetako aferetan beitzüan, hatü eskentzale.

Berari laket zeion erraitea ez zükeala Lhande izena (gük Ziberoan Llande erraiten düguna) üken behar, bena Basagaitz izena. Haren ariako bati herriko segretariak edo idazlariak kanbiatü zeion izena sortzaroko paperetan, ustez eta Allande aitaren izena familiako izena zen. Zonbategaz ez zatekean ederrago eüskaldünentako, Aita Lhande, mündüan holako gizon ezagütüa, deitürrik izan zedin Aita Basagaitz! Giaude frantsesek eta besteek nola erranen züen izen hori: balinba «Basaguets» edo holako zerbait.

### Gaztetzüna

Plazerekin ere aipatü nahi dügü Lhande haurrak bere lehen eskolak egin zütüala gük ezinago maite dügün ikastetxe batetan, Sen Bernat ikastegian, Eskola Kiristietako fraide erakasle agüdo eta haütüzkoekilan. Berak amen-(omen?) peredikü batetan kontatü dü nolaz zortzi urteen altexean lehentez merexitü züan Sen Bernat ikastegian ohorezko kürütxea. Hura bularrean, etxerat heltü zen; amak gisala, ez zeion sekülan hainbeste bijita eginerazi Baiona oroetan nolaz eta egün hartan. Geroztik lüzaz etxeke egon da bere lehen erre-jenter. Urtez eta urtez jerraike izan da hanko ikasle ohien bilkürer bai Donostian bai eta ere Parisen.

Haur-haurretik eüskara mintzatü züana eta maitatü? Ez balinba net, Baionan zagolarik. Bena haren amañiak bazüan jauregi zahar bat Zalgizen, Ziberoaren erdi-erdian, oi zer herri eta kartiel paregabe eijerrean! Eskola artetako paüsü egünetan zer boztariorekin ez züan egiten Baionarik Zalgizerako bidaje lüzea! Üdüri beitzeion Zalgizerat joaitea zelüalat heltzea zela. Han bai Ziberuko eüskara mintzatzen züan (.) haren haur joküetako lagünak oro eüskaraz ari beitziren, ziberotar plainez.

Haren haur izatean bi gaüzak ezinago hunki züen haren haur bihotza eta haren jite ezinago aberatsari plegü berezi bat eman zeioen, haren biziaren abioa egin beitzüen eta haren izatea orozbakoz bere hokiari ezari. Aita ezinago maitea galdü züan, uste gabetarik. Eta denbora haietan ere senditü züan pizten eta handitzen apezgoalako deia. *Mon petit prêtre* haren libürü goxoari beha, norek-nahi (*nornabik*) pentsa dezake nolaz zohitü zen holako egünaldietan eta ondoko denboretan haren bihotz gaztea, eta bereziki nola döhañez eta bertütez bete zen haren ama maite-maitearen arima kartsü eta saintüa; ama

haren mereximentü gorde eta ezinago baliosek egin beitzüen eta bürützen la-güntu Lhande gaztearen apez deia eta gük denek amiratü dügün Lhande apez-zaren bizitze saintü eta argi handikoari eman beitzieoen sortzea eta altxatzea hein ezinago hartarat. Orai düala bospasei urte, historia hunkigarri hori argi-taratü nahi üken düe zinema filma [sic] edo ikusgarri eder batetan, *Les mains liées* deitü düena; damürik haatik filma horren egileek ahatze düe aipatzeko Aita Lhanderen izena hasteko xehetarzünetan.

### Apezgeia

Lhande motiko gaztea, arren hola sartürik bere orozbako bidean, joan zen Zalgizerik bi ürratsetan den Mauleko kolejio [sic] edo ikastegialat, apezgoari bürüz hürrünetik moldatzen hasteko. Nahiz ez zen ikastegi patxada handi-koa, Mauleko ikastegia orai bezala ordüan ere oroek maite züen Ziberoan eta üngürüne(e)tan: erakasleak ziren jakitate honeko eta hüllant aisak, eskolan be-zala joküetan ere ikasleekin bat egiten züenak. Ikasleak aldiz, haboroxeak zi-berotarrak eta gehienak apezteko ürratsetan. Aita Lhanderen ordünko lagün ohiek begiratü düe oritzapen bat ezinago goxoa beren ikasle lagünaz, ezinago trebe beitzen, beste eüskaldün hütsak beno hanitxex trebeago, izkiribü lanetan eta bereziki frantses lengoajearen sotilki eskükatzen; bena joküetako harat-ho-natetan ere ez zen besteak beno gibelago. Gihauri ordünko ikasle ohi batek kontatü deigü nola egün batez, paseiüra joan zirelarik, lagün andana batek egin züen joküa, Mauleko gaztelü zaharraren güdükaz hartzekoa. Arratsean, Lhande gazteak bürüa oro beterik jokü hortako egitatez eta ballentiez, izkiri-büz ezari zütüan güdüka haren gorabeherak frantses «poesia» edo kobletan, Birgilio (*Virgilio*) lati izkiribaino zaharraren kobla moldeetan.

Hamazortzi urteetan sartü zen Lhande apezgeia Baionako Seminario han-dian. Beti etxeki zeitzon ziberotar apezgei lagünak eta erran dezakegü ez düa-la üken bere bizian lagün hurak beno adiskide hoberik eta maiteagorik. Haie-tarik zombait nola ez dütü aipatü halako ordüan, herioak gazterik mündü hontarik hartü dütüalarik, hala nola Elichiry apeza, zalgiztar gazte lagüna eta kasik aüzoa!

Zer izan ziren Baionako Seminario handian Lhande apezgeiak igaran zü-tüan bost urteak? Laneko eta otoitzeko urteak, erran gabea; bena ere goxotar-züneko urteak lagünen amodioan, haiekilan deskantsüan; apez bürüzagi zon-baitek beitzioien, gisala, soberaxko bezala emanik zela deskantsüari. Bena zoaza, zü, halako jiteko gazte baten heinean begiratzera! ez ditazke izaten ahal gazte oroen jitea ez heina osoki berrak [sic]. Eta hari gogoia beti alha ari zeion eta bihotza jauziz.

Ordü haietan, apezgei gazteari aiher zeion izkiribatzea bai frantsesez bai eüskaraz eta ahalaz ere koblaz eta bertsüetan. Haren lehen frantses bertsüak eta artikülüak agertü izan ziren *Le Courrier des Familles* eta *Le Patriote des Pyrénées* egün-

karietan, izenorde erabilten zütüala Nahi-Preherel eta Petit Pierre. Bürüzagi zonbaitek zioien haren lanari ogen egiten zeioela holako izkiribülanek. Arren bürüzagien eta haren artean ezin ontsa jin bat beitzen, egün batez –hogeita bi urteak bazütüan– behar üken zeion «adio» erran bere Seminarioari, bere lagüner eta nork jakin? bere egiazko deiari eta geroari.

Bena gure egüen haria bere esküetan zonbat nahi ezteki erabilten düanak bazüan bai harentzat bere xede berezia, gorderik zena gizoner. Kontatzen entzün dügü, ordü izigarri hartan, Lhande gazteak uste gabe bürü egin züala aita jesüista batekin bürdinbideetan bidajez zoalarik; aita hari bere bihotza zabaltü zeiola eta harek aholkatü aita jesüisten Jinkotiar batarzüna. Badakigü ordüan zonbat gaizki ikusirik ziren aitzindarietz Frantzia herrian aita jesüistak eta haien obra baliosak. Gaizki ikusirik izateak ez züan lotsaerazten Lhande gaztea. Joan zen haien etxe batetarat «erretreta» edo gogokaldi sühar baten egitera eta han xedea hartü bere biziko jesüista eginen zela. Xede ezinago dohatsüa! Zeren, zer haütüzko seme baliosa ez züan galdüren Eliza saintak, eta ere balinba gure Eüskal Herriak, beste izan balitz Lhande gaztearen deliberoa!

### Jesüistetan apezgoalat

Orai artino xehe-xehea jerraiki dügü Lhande gaztearen izatea, gorabehera horik oro heben igaran beitirade guri hüllan, eta horietan beitügü kausitzen gure herritar famatüak gure Ziberoari ekarri deion amodio ezinagokoaren erroa eta ütürbürüa. Ez dezakegü hainen xeheki jerraik ondoko ürratsetan, bestelan bihar artino heben beiginateke, züen damütan eta gure nahi gabetan!

Rodez hirian sartü zen Lhande apezgeia, 1900ko setemeren 5ean, aita Jesüisten etxean, bere bizi berriko aprendizgoaren egiteko. Emanen dütü hamar urte apezteko eta hameka bere estüdioen bürützeko, aita Jesüisten bizi maneraren arabera. Arte hortan hanitx herrialde igaranen dütü.

Lehenik Belgikarat joan behartzen zaio bere Jesüistagei lagünekin; bere aprendizgoa ere ützi behartzen zaio zonbait hilabetez zinez bürütik minez izanez. Han haatik biltzen dütü bere bi libürü berrien geiak, *Les Mémoires d'un Ecureuil* eta *Fils de Dauphin* libürüen geiak. Lehen botoak eginen dütü bi urteren bürüan, 1902ko setemeren 8an. Gero Ingalaterran urte batez arrahartzen dütü bere lati, greko eta frantses estüdioak. Zer oritzapena ez dü orozbakoz begiratü Aita Longhaye bere erakasleaz! Ondotik haren bizitzea izkiribüz emanen beitü. Hartarik landa bi urtez berriz Holanda herrialdean arrahasten dütü filosofiako edo zühürtazünezko estüdioak. Bi urtez frantses lengoajearen erakasle emaiten düe bere bürüzagiek Espainiako ikastetxe batetan, Puerto Santa Marian, Kadiz aldean. Balinba han beitü hartzen bere libürü ederrenetarik baten geia edo ideia *Luis* libürüaren geia. Berriz gero doa Belgikarat, Enghien hirialat, aita Jesüisten Seminario handialat lau urtez teologia edo egiazko apez-estüdioen egiterat. Arte hortan apez ordena ükeiten dü Tolosan, 33

urteetan, 1910eko agorrilaren 28an, egün berean beita harek eman düan lehen mezaren 49. urtebürüa. Urte baten bürian bere apez lanari lotzeko heinean zen, aita Jesüisten herroka handian.

Arte hortan, ez zen haren ezpiritüa beti para egoiten, haren gogo a beti alhan ari zen eta haren lüma tai gabe parra-parra. Eta ordüan non züan üsü gogo? Balinba, aipatü dügün libürügeietan; bena horrez segür gira, üsü beno üsüago bere Eüskal Herrian, eta bereziki bere Zibero kartiel xokoan. Estüdio urte haietan, agererazi dütü Lhande apezgei edo apez gazteak bi libürü guretako ezinago baliosak, eüskaldün ikasle haboroxeer geroxago gogo zabaltü deigüenak: *Autour d'un foyer basque* eta *L'émigration basque*. Lehen a, arrahartüko dü ondotik beste libürü batetan, *Le Pays Basque à vol d'oiseau*. Lehen hori oritzapeenez egin dü, gogoan erabiliz eüskal etxondoetako gorabeherak eta bereziki etxekoetarik haurretako ondoramenak. Bena bigerren hura, *L'émigration basque*, lan xehe eta handiko libürüa da, alde oroetarik jakitate eta xehetarzün hanitx bildü behar beitzüan haren egileak, oraiko eüskal lan eta estüdio süerte haboroxeen hastapena eta leinürüa hartan ediren beitaite. Arte hartan izkiribatü ere dü Lhande apezgeiak artikülü franko agerkarietan: *Le messager du cœur de Jésus*, *La reine Blanche de Castille*, *Le Grand Almanach Catholique*, eta *L'Almanach du Pèlerin*, bena oroz gainti hebenko *Eskualduna* astekarian.

Bai egiazki haren gogo a beti alha ari zen eta haren lüma beti lanean. Gük, heben, esker hanitx zor deigü haren jesüista aitzindari eta gehiener, ezagütü düelakoz Lhande ikasle süharra ez zela besteen heineko eta haren bihotzean eüskararen eta Eüskal Herriaren amodioak ez züala ogen egiten haren apezteko lanari eta estüdio süerte orori.

### Aita Lhande Eüskal Herrian

1911ko urtean, haren aitzindariak, ikustate ezinago hon batez, nahi üken düe bere apez sailaren egitera jin zadin lehen-lehenik, eta nork daki ez zenez haien nahian orozbakoz jin zadin? gure Eüskal Herri maitealat. Hamar urterentzat Eüskal Herria izan da Aita Lhanderen egongia, lankia eta gain-gainetik laketgia.

Arte hortan behar üken dü egin Belgikan Aita Jesüisten «Hirugerren Urtea», arimako bizi saintüaren xehetarzünen hobeki ikertzeko beretako eta bes-teentako. Eta gero behartü zaio joan, beste hanitxi bezala, hirur urtez ordünko gerla izigarriaren geiari jerrakitzeko; hantik ekarri beitä *Les Mouettes* libürüaren geia.

Bena horik oro bortxazko geiak ziren. Aita Lhande ordüan osoki eüskal herritar zen, lehenik Ondarribian eta gero Hernanin, Aita Jesüisten ikaste-txeetan erakasle eta aita ezpiritüal gisa. Eta zer urte baliosak harentzat eta bereziki guretzat, eüskaldünentzat!

Haren eskola-lanek eta haren ikasle gazteek ez züen harenganik deüsere galtzen; osoki bere lanari emanik beitzen. Haren lanen eta haren arranküren gogo-berri badügü *Jeunesse* ordüan agertarazi züan libürüan. Gerlako arrakon-trü izigarriek eta han apez lagün eta gazte hanitxen egitate amiragarriek ere haren bihotza hunkitzen züen eta izkiribaerazi deioe libürü hunkigarri zonbait: *Le prix du sang*, *Trois Prêtres-Soldats* eta *L'enseigne de vaisseau Auguste Lefebvre*.

Bena hamar urte hurak izan dira Aita Lhanderentzat argi bat bezala, ezagütü beitu bere Ziberoaz eta Lapurdi-Baxenabarrez kanpo bazüala Eüskal Herriak beste hegal zonbait, oi zoinen ederrak! gogo-bihotzez zoin aberatsak! eta zoinen maitagarriak! Nafarroatik Gipuzkoan gainti Bizkaiala eta Araba bazterreala artino (*bazterrealano*). Ezagütü beitätü probintzia haietako eüskaldünen ohidüra zaharrak, mintzaje berezi nasai ederrak eta orotan gainti bertüte ezinago azkar eta iraünkorrak. Ezagütü beitätü ere han gizon hedadüra handikoak eta eüskaldün ezinago süharrak, hala nola Domingo Agirre, Azkue, Eguzkitza, Altube, Intzagarai apeza, aita Intza eta Larreko edo Irigarai eta zonbat holako!

Han Eüskal Herriaren amodioa handitü eta hedatü eta süstatü zaio aita Lhanderi. Ez züan bazterrik ordüan haren bihotzeko süharrak: ikasi nahi üken dü gipuzkoar mintzajea eta emaiten züan bere ziberotar mintzajea bezain aisa edo aisago; Harriet zaharraren hiztegia esküetaratüririk, nahi üken züan ikasi eüskal hitzen saila eta atea (*meta*) oro; eta gogoan hartü züan xedea, gure alderdiko hitzak oro bildüririk, hiztegi baten egitekoa ondotik agererezteko. Han ezagütü bizi manera eta egitate berezi elibatek [sic] eman deioe ere nahia libürü berri elibaten izkiribatzekoa, hala nola *Mirentchu* eta *La Ferronnerie d'Ameznabar* Gure Herria hilabetekarian agertü zena, gero *Yolanda* izenean eüskaraz emana, gipuzkoar eüskaran. *Mon Petit Prêtre* libürü hunkigarria ere denbora haietan argitarat eman züan.

Ordüan ere ardüra izkiribatzen züan artikülü eüskal agerkarietan, *Eskualduna*, *Euskalherriaren Alde*, *Euzkadi*, *Revue Internationale des Etudes Basques*, *Jesusen Biotzaren Deya*, *Pueblo Vasco*; bai eta ere frantses agerkarietan *Liberté du Sud-Ouest*, *Etudes*, *Revue pratique d'Apologétique*, *Durendal*, eta holako.

### Euskal(t)zaindian

Bere(n) lanen oroen artetik, jerraiki zen ahalaz Probintzietan egiten ziren eüskal biltzar edo batzarreri. Harek ihork beno hobeki ikusi züan egiten eta lagüntü Oñatiko Batzarra; honek бүrütü lanetarik sortü beita «Euskal(t)zaindian», batarzün güziz ohoragarri hau. Ez da arren batere harritzeko, Euskal(t)zaindiko lehen jaunek, beren lehen bilküra batetan, 1919ko setemeren 21ean hura bera haütatü bazüen Zibero herrialdearen izeneko euskal(t)zain, haren kar handia ezagütüririk eta hain beitziren ageri haren lanak eta mereximentüak. Euskal(t)zaindiko jaunek hain züen ere horren jakitatea gora

etxekitzen, non hori bera 1920ko arramaiatzaren 23an izentatü beitzüen *Euskera* agerkariaren idazle edo izkiribazale. Geroztik bi urtez agertarazi dü gipuzkoar euskara ederrean agerkari preziatü hori, ihork ere ez beitezake kausi ez zela jaun hori sortzaroz gipuzkoarra. Ordüan ere *Euskal Esnaleak* agertü züan gipuzkoarrez (*gipuzkeraz*) Aita Lhandek Domingo Agirre olerkari eta nobela egileaz egin züan mintzaldia.

Bena, bena... holako gaüza ederrak ez zezake(a)n sobera lüzaz iraün. Aita Lhanderen kar handia sobera ezagütürük zen: Eüskal Herriaren alde egin züan mintzaldi baten ondotik, gobernüak jakinerazi züan Aita Lhande ez zela haboro ontsa ikusirik Bidasoaz bestaldean. Ez zeion net baliatü agererazi berri züan libürüa *Notre sœur latine, l'Espagne*. Behar üken zeion, arren, «berriz arte» erran hanko adiskide oroer eta deitü züen bere Jesüista bürüzagiek Sarlat ikastetxerat, eta berehala Tolosako «Caousou» ikastetxealat.

### Tolosako hirian erakasle

Han ez züan lo egon behar eta bere eskola-lanaren gain eman züen *Faculté des Lettres* delako Ikastegi handian eüskararen erakasle. Haatik, nahi beno lehen, erakaste hori ützi behar üken züan, ikastetxe katolikoek ez beitzüen ontsa hartzen apez bat ari zadin holako eskola emaiten gobernüko ikastegi batetan, beste erakasle alkietarik apezak oro kanpo emanik izan ondoan.

Hasi zen ordüan libürü berri izkiribatzen eta agererazten: *Le Père Longbaye, Bilbilis, Fils de Dauphin* edo *Les lauriers coupés, Le pays basque à vol d'oiseau* eta bereziki *Le Dictionnaire basque-français*. Ordü haietan ere, Ziberoan igaraiten zütüan pausüko egünetan, ebili zen han eta heben ziberotar koblakari famatü «Etxahun xahar» zenaren kantore eta berrien biltzen, eta izkiribatü züan ere llabür-llabürra haren bizitzea. Peredikatzera ere norat nahi deitzen züen eliza handienetaraz bezala parrophia txipienetaraz. Ezagützen dügü han nonbait orai Malaysiako gaintian ziberotar aita misioniste bat, Aita Lhandek komünione handiko erretreta peredikatürük, apezteko deia entzün beitzüan Urdiñarbe xokoan bere peredikari süharrari esker.

### Parisen lan handiak

Bena peredikük üsü Pariserat deitzen züen Aita Lhande, haren artikülük *Etudes* agerkarian ezinago gustatürük. Eta hau dela, uste gabetarik Pariserat izentatürük izan zen. Adio ordüan ikastetxeak eta haietako gazte maiteak! Adio ere eüskal lan handiak! Gure ziberotar apez ezpiritü argia, lüma sotil eijerra eta elestari goxoa orozbakoz joan zen Pariserat *Etudes* agerkarian izkiribaino bezala eta peredikari handi bezala.

Haren hiztegia, *le Dictionnaire basque-français*, doi-doia hasirik zena, baratüko zena ezin eginean? Ez; Aita Lhandek ezagützen züan Laffite jaun apeza, Uztaritzeko Seminarioan erakasle eta eüskaltzale süharra zena ordüan ere orai

bezala. Eta honek bazüan adiskide bat Aranart jaun apez eritarzünez eküratürrik zena Heraitzen. Biek Aita Lhanderen saila gogo honez honartü züen eta бүрүтү. Egia erran behar da, aita Jesüistek gastüak largoki (*zabalki*) egarten zütüela eta Aita Lhande bera jiten zeila artetarik Uztaritzerat, bi apez gazteen korajatzera eta haiekin egün zombait goxoen igaraitera.

Geroztikako Aita Lhanderen bizitzea oroen ohartzapenetan (*oritzapenetan*) da. Hasi zen Parise ondoan diren eremü hitsen bijitatzen eta han erreljioneko aziaren hedatzen ai ziren apez ezin heltü eta serora gaixo zombaiten lagüntzen. Haien berriak emaiten zütüan *Etudes* agerkariko iakurleer. Bena heltüra beharretan zirenek lagüntü behar züen. Ordüan piztü züan Parise ondoko eremü hitsen obra ezinago baliosa, geroxago Verdier kardinalak hedatü eta handitü behar züana. Ez detzakegü aipa haren lanak eta harat-honatak eta perediküak oro; bena bost urtez бүрүтү zütüan 52 eliza, 90 gazteen biltoki, 58 parropia-etxe, 40 erisoengia (*artagia*), 12 eskola, 8 haur-baratze eta 14 haurtegi; eta erosi ere 90 lür eremü obrentzat. Izkiribatü zütüan *Etudes*-etako artikülüak eta hirur libürü *Le Christ dans la banlieue*, *Le Dieu qui bouge* eta *La Croix sur les fortifs*.

### Radioetako peredikaria

Ber denboran zer perediküak Pariseko elizetan!

Eta ordüan, Gerlier Pariseko jaun kalonje gazteari, orai Lyoneko hirian kardinal denari, ohartü (*oritü*) zeion, *Radio* bekanika atrebitüari esker helerazten ahal zela Jinko Honaren elea bazter oroetarat. Lan horentako apez bat zeion hobeki joaiten zena, eta hura Aita Lhande. Eta honek lan hori ere honartü züan, lehen kolpütik (*kolpetik*) behar zen hein eta eskaide (*esküaire*) hura ediren beitzüan eta jentea iharrausi eta hunki alde oroetan; ez beittake heben erran ahal, zer letra (*letera*) edo gütün hunkigarriak andanaka eta ateka (*metaka*) ükeiten zütüan.

Zortzi urtez, lan hori ere tai gabe ereman züan, bazterrealat batere ützi gabe Parise ondoko eliza eta parropia günetako obra. Peredikü libürtiak ordü haietan arrunt-arrunta elkitzen ziren libürü egingietarik: *L'Evangile par-desus les toits*, *Le Bon Pasteur*, *Les Pauvres dans l'Evangile*, *De Bethleem au Golgotha*, *La France missionnaire*, *Les Béatitudes*, *Le Pater*, *l'Evangile de la douleur*, *L'Evangile par-dessus les frontières*, *Paraboles*, *Petites béatitudes pour les jours d'épreuve*, *Carillons de fêtes*. Beste peredikü berezi handi ere zombait agerterazirik bazütüan: *Huit fresques de saints*, *Ste Jeanne d'Arc*, *Dieu et Jeanne*, *La poète angélique*.

Nolaz gizon batek berak hainbeste lan egin zezakean? Gük ez dezakegü aisa entelega.

Eta arte hortan non zen Aita Lhandek Eüskal Herriarentzat züan kar handi hura? Beti alha zago(a)n haren bihotzean. Artetarik, egün zombait päüsüren ondoan jiten zen bai Zalgizerat, bai Atharratzerat. Zer egün goxoak, han bere Ziberoan igaiten zütüanak bere anaie eta beste etxekoan ondoan!



Bena noiznahi ere bere perediküetan, uste gabetarik jiten zeion Eüskal Herriko oharmentxa (*oritzapen*) bat edo beste, hanko kartiel eijer bat, hanko egünaldi goxo bat, hanko egitate edo ohidüra hunkigarri bat. Giaude zer pentsatzen züen haren entzüleek Eüskal Herriaz. Balinba misteriozko lekü bat zela, lürreko Paradüsüa bera edo holako zerbait; eta gük, heben girenek, aitor deza-kegü ez züela ez batere gaizki pentsatzen.

### Mündüaren gainti

Aita Lhanderen bürüzagier ohartü (*oritü*) zeien hedadüra bat orano handi-agoa ükeiten ahal züala gure herritar süharrak eta Pariseko üngürünetan egin honkia hedatzen ahal züala mündüko eremü zabalenetara. Holaz igorri züen lehenik hegoaldeko Ameriketarat, ondoko urtean Madagaskar isla edo ügarte (*üharti*) ederrealat, eta hantik landa Indietarat, eki jeikigiako Indietarat (*Indiarat*). Oroetarik ekarten züan zerbait berri balios eta honki egingarri, eta denetarik ere zerbait peredikü pasta (*gei*) eta libürügei. Ameriketan ezinago botz izan zen eüskaldün saldo handiaren kausitzez, lehenagoko eüskaldünen oritzapenen edireitez. Hantik landa agererazi züan *La France rayonnante*. *Madagaskarren* misioneak xehe-xehea ikusi zütüan; bena üken züan sekülako abantaila, hanko lehen misionisteen hobien edireitekoa. Eta hantik ere ekarri züan libürügei bat, *La Mission de Madagascar*. Indietan gero zer harat-honatak eta lanak! Bena oroetako plazerik handiena, bihotza hantü zeiona: hanko eüskaldün apostolü saintü eta famatüaren hobiari herritar baten agurraren ekarte, san Frantses Xabierreko seme handiaren korpitzaren esküetan erabiltea. Hantik landa, tarrapatan libürü bat elki züan *L'Inde sacrée* eta film-ikusgarri bat ere plantatü...

### Aita Lhande eri

Zer ez züan egin behar, denborarekin? Bera azken bidaje eta azken libürü eta film horik izan dira haren ezpiritüko argiaren eta bihotzeko süiaren azken argia eta süia. Eritarzünak jo beitzüan uste gabetarik, bena lazki! Egotxi züan tanpez zilar bizia bezain zainart zen eüskaldün seme hedadüra handikoa; egotxi eta ezintürrik ützi 57 urteetan! ahalak, elea eta ezagützea ere elki, herria eta zonbat eskualde argitzen zütüanari.

Ondotik emeki-emeki arrajin zeion elea, lehenik eüskara, gero ingelesa eta azkenean frantsesa, zotüküa ere arrabildü züan, bena ez sekülan haboro lehen züan gogoa eta esküairea. Ezinago lanari etxeki zen jakintsünak behar üken dü ordüan ikasi pausatzen, eta gero emeki-emeki lanari lotzen; behar üken dü ikasi zerbaiten nekez moldatzen, lehenago ütürritik hura bezala arrazua eta elea jiten zeionak. Lüzaz esperantxa begiratü dü berak, eta orano lüzazago hari etxeki zirenek, haren beharra eta haren mentsa ezinago sendi züenek. Egin dü ere lan zonbait, artikülü zonbait agerterazi, libürükka bat ere moldatü *Le*

*moulin d'Hernani*; Pariserat ere arrasartü zen egün lazgarrietan, lloba bat apezgeia hartü zeion gerla izigarriaren ondoan. Bena ez; erranik zen gaitzari ez zeiola haboro gainea hartüren; gaitzak bai aldiz denbora kostüz goitüren züala; emeki-emeki eta bata bestearen ondotik, ahalak oro elkiren zeitzoala; haren kürütxearen bidea lüze izanen zela azken heina jo artino.

Eta mündüko üdüripenez kanpo, arimako segetüak, misteriozko egitateak miratzen dütüentako, azken urte lüze horik ez dirade izan Aita Lhanderentako urte baliogabeakoak. Zelüko Jaunak badaki bi gisatara arimen mol-datzen, lantzen eta hontarzünez betatzen. Batean eginerazten dü zernahi honki eta lan, eta mereximentü bilerazten; bestean para egonerazten dü arima eta han, segetüan, kanpoko liliek ekiaren argia hürrüpatzen düen bezala, bere izate ezinagokoaren leünürüa, üdüripena eta gero balio espantagarria harerazten deitzo arimari. Aita Lhandek honartü dü, ez batere bortxaz bena amodioz, saintütarzüneko bide süerte izigarri hori, beti otoitzean beitzago(a)n, beti «bai» beitzion bihotz oroz eta erri ezti batekin egünak egünaren ondotik ekarten zeion ezinbesteari.

Han, Atharratzen, azken urte horietako oharmentxa (*oritzapen*) hunkigarriak eta bihozmin egingarriak begiratzen dütüe denbora ederretakoak beno kartsükiago. Bere ahale betean zen denboran beno handiago izan beita Aita Lhande eüskaldün süharra, ezinean kausitü delarik eta zütüanez oroz gabetü zen egün haietan.

### Adio Aita Lhanderi

Eta zentü da Aita Lhande, orai düala bi urte, 1957ko apirilaren 17an Aste Saintüko astizkenarekin (*asteazkenarekin*), Bazko egüneko lorian egiazki eta oro(z)bakoz sartzeko, bere biziaz oro(e)z, bere izate espantagarriaz, bere izpiritü [sic] argi eta kartsüaz, bere bihotz süz beteaz maitatü züan bere Nausi ezinago handi eta maitearekin.

Eüskal Herria dolüan sartü da holako seme pargabeakoaren galtzean; bildü da otoitzean han Atharratzen, Bazko astelehen hartan, haren korpitzaren üngürüan; orano orai noiztarik noiztara egoiten beita haren botzaren beha eta haren arrajitearen haidürü.

Egiaz, Eüskal Herriak galdü dü bere seme haütüenatarik bat; galdü dü, bena lehenik ere ontsa gozatü dü eta baliatü, haren izateak üzten beitü gure zelü urdin eijerrean argi bat sekülan ere itzaliren ez dena, haren ezpiritü argi goxo eta maitagarriak egiazki altxatü beitätü Eüskal Herriak dütüan hontarzün aberats ezinagokoak, haren bihotzeko süiak piztü beitätü eüskal bihotzetan amodio bat, ezagütze bat, indar bat eta sü bat, gü oro eta balinba beste hanitx ere ezinago lüzaz eraikiren eta süstatüren gütüenak.

Oi Aita Lhande maite-maitea, gure anaie gehiena, gure jauna, orai gure begirari kartsü eta saintüa zirena, heda dezazüla gure Eüskal Herri maiteala zure

amodioaren süia, heda dezazüla eüskal seme oroetara zure eskü goxoaren ez-titarzüna, heda dezazüla eüskal bihotz oroetara oroek ber amari zor deiogün amodioa eta alkarren artean denak bihotzez bat egiten gütüan amodio saintü eta itzalik gabekoa!

G. EPPERRE»

## Grégoire «Ddiddle» Eppherre, anai gazteagoa (1929-1974)

Apeza hau ere, Mauleko Saint François (d'Assise) ikastetxe katolikoan matematika irakasle izan zen. Eustaltzain urgazlea, mauletar gazteen euskal-duntzeaz arduratu zen, bereziki kantatzearen arartez, eta horko ikastolaren sortzaletarik izan zen 1972an: «**Eperra**» abizena du orain Sohütakoak (Sorhoetakoak). Horren idazlanak ere biltzekoak dira. Hona bat, Gure Herria aldizkariak agertua 1971eko ekainean: Gregoierik mintzaldi batean eman zuen 1970eko urriaren 25ean, igande goizez, Euskaltzaindiak Mauleko udaletxe zaharrean J.D.J. Sallaberryren omenez egin zuen bilkura idekian.

### «J. D. J. Sallaberry eta Ziberoko ahaire zaharrak

Jaunak eta andereak,

Azkenik mintzatüko zaizüe ziberotar bat. Eta gogoeta zonbait egin badüt lan hau honartü beno lehen, ez nizalako ez müsizient edo müsikari bat, ez jakintsü bat, ziberotar bat bür(ü)agertzea hon zela pentsatü düt, Ziberoko seme baten ohoratzeke.

Eüskal Herria maite düzüenek, badakit amodio berezi bat ekarten düzüela, gehienek bederen, gure «Lürralde bereziari», hein bat ezagützen düzüen ber [...].

Zibero hontako seme zen Sallaberry ere, eta Ziberoko kültürari etxekia, bena bereizkeriarik gabe. Düala ehün urte argitarazi züan libürü balios hontan, eta orano gehiago famlian ützi dütüan paperetan, edireiten dügü Ziberoko ahaire hanitx, bena ere Baxenabarreko eta Lapurdiko, bai eta ere *Gernikako Arbola*, hitzak bederen.

### Eüskal Herriko müsikaren ebolüzioa

Sallaberryren balioaren behar den bezala prezatzeke, eüskal ahaireen biltzeke egin düan lanari bürüz, behar da jakin nontik horra diren ahaire horik, zoin diren herrian berean sortüak, eta zoin kanpotik jinak. Behar da ikusi zer müsika süertetarat tiratzen düen, ala eüskaldunek badüenez beren müsika, bere lege bereziekin [sic], popülü beltzek edo vietnamtarrek düen bezala.

Galto horik ikertü dütüe barnatik, ahal zütüen bezain barnatik bederen, Charles Bordes eta Aita Donostia, bi müsikari jakintsün handiek. Haien lane-

tarik erraiten ahal düğü, larri-larria bederen, zer izan den eüskal ahaireen ebo-lüzioa. Bi hitzez behar da beraz erran zer müsika lege edireiten dügün eüskal ahaireetan.

Ezagützen dütügün ahaire zaharrenak, 15. gizaldikoak direla uste düğü. Ordüan, eta 18-19. gizaldietara artino (*gizaldietalano*), itsas alde hontan gehienik hedatürik zen müsika gregorianoa. Honen legeak llabür-labür: melodiarrentako zazpi modu, bakoitxak bere kolorea emaiten beiteio ahaireari; (*er*)ritmo aldetik, bi edo hiru denboratako neürriak edo mesürak nahasteka.

Hamazortzigerren gizalditik honarat sartzan da müsika moderna; honen legeak : bi modu bakarrik, major(*r*)a eta minor(*r*)a, kolorea ahaireari emaiten düena. Ahaire bakoitxean ber (*er*)ritmoa has eta ürrent, bi denboratakoa edo hiru(*e*)takoa (*hirutakoa*).

Eüskal ahaireetan zer edireiten dügü? Bi müsika hoitan (*borietan*) izkiriba ditazke(*a*)n ahaireak, bena ere bi müsika horien legeak nahasten dütüen kantoreak. Eta gehiago dena, eüskaldünek badüe beren kantatzeko manera. Ez dütüe ahaire baten nota güziak, müsika baten lege(*e*)n arabera eman behar litzatekean goratarzünean emaiten, xüxen: edo dira goraxago, edo apaltxago.

Hona etsenplü bat. *Bazterretik bazterreal*a hasten den kantorea bildü düe Charles Bordes eta Aita Donostiak, bedera maneretara. Hona zer dion ahaire horrez Aita Donostiak:

«La modalité, dans la chanson de Bordes, est mêlée: par sa tonique elle serait du 8° mode, mais l'ambiance est en la (4° mode) quarte-dominante de la tonique mi.

«Mon chanteur, de son côté, la transformait en mode mineur moderne... Mais vers le milieu, mon chanteur dérivait au mode majeur. La chanson, en plus de ses variantes dans le même mode, avait complètement modifié sa tonalité».

Eta (*er*)ritmoaz ere beste bitxikeriarik erraiten dü. Kantore hori entzün nahü düanak, edirenen dü, Chuburu (*Xübürü*) at(*b*)arraztarrak kantatürik, düala bizpahiru urte «Orhiko kantariak» agererazi dizka (*disko*) batetan.

Beste etsenplü bat hona: *Txorittua nurat hua* (Txorittoa norat hoa). Hau Sallaberryren libürüan modu minor(*r*)ean izkiribatürik. Bena eüskaldünek modu hortako 3., 6. eta 7. notak bereziki, batean goraxago, bestean apaltxago kantatzen dütüe.

### Sallaberryk bildü kantoreak

Ikusten düzüe etsenplü hoitarik (*borietarik*) ez dela aisa eüskal kantore baten ahairearen izkiribatzea. Eta behar dügü gogoan üken Sallaberryk bere libürüa gazterik argitarazirik züala. Müsika ikasi züan, ez ofizioz eta bizipide baten egiteko, bena denboraren igaraiteko eta hortako gusta züalakoz. Ikasi züan beraz ordüan haurrer eta gazte(*e*)r erakasten ahal zen bezala: müsika moderna. Eta bere jakitatearekin ari izan zen kantore biltzen.

Zer ahairu sũerte edireiten dũgũ arren haren libũrũan? Lehenik aisa izkiribatzen ahal zũtũan. Eta beraz kanpotik Eũskal Herrian sartũ ahairuak. Ezen, ez dũgũ uste ũken behar eũskaldũnek ez dũtũela beren beitatik elki ahairuak baizik maite.

Dũala ehũn urte, alde hontan bederen, Frantzian egin «romances» hoitarik (*horietarik*) dira. Ziberoan egũnko egũnean ere ezagũtũenetarik da *Zũ zira zũ, ekiaren paria* (parea). Amodiozko kantore bat da, eta Sallaberryk ekarten dũ. Bena horri konparatzen badũgũ *Zũ zira zũ, ekiaren pare*, Erbinttoren kantorea, zer eũskal gozo barnagoa ez dũgũ hontan edireiten! Eta hau ez dũ Sallaberryk hartũ.

Bena eũskal ahairu zaharrak ere badũtũ libũrũ honek. Hogeiez goiti konatatũ dũgũ. Zonbait haatik ez dakigũ sobera ahairu arrotzetan ala Eũskal Herrikoetan klasatũ behar dũtũgũn.

Bena segũr gira *Txoriũuak kaloian* (Txoriũoak kaiolan) ahairu zaharra dela. Kantore horren mũsika bi lekũtan edireiten da Sallaberryk beno lehen izkiribatũrik : Pascal Lamazouk «Chansons des Pyrénées» libũrũan, eta de la Villehelio andereak Salaberryk beno urte bat lehen agererazi zũan libũrũan. «Cette chanson a un caractere étrange», dio Sallaberryk. «Caractere étrange» segũr mũsika modernoa baizik ikasi ez dũanarentako. Bena segũr niz beste ahairerik ere, hori bezain «étrange» bazũala entzũnik merkatũ arratsetan, Mauleko ostatũetan. Hona nola izkiribatũ dũan ahairu hori Sallaberryk. (Notak, eta kanta Xũbũrũk).

Ahairu horrek, adesa aipatzen gũnũan gregoriano kozũa badũala, ez da dũdarik. Hona nola izkiriba gini(r)on gregoriano (*er*)ritmoarekin. Eta kanta ahairu bera, hitzik gabe, mezako alleluia batetan bezala, beti «a» eginez. (Notak, eta kanta Xũbũrũk).

Beste kantore bat ere badũ Sallaberryk, ber gregoriano kozũarekin : Ixkerrenen zamaria, bena hiru denboratako (*er*)ritmo modernoa izkiribatũrik. Eta ez dũe bi kantoreek egiterik batere; lehena sendimentũzko kantore bat da, bestea trũfatzeko kantore bat.

Salaberryren beste ahairu zaharrak mũsika modernoa izkiribatũrik dira. Bena ageri da usũan melodiatik kanpo den zerbait erakutsi nahi dũala, nota txipi zonbait haborokin ezarriz: hori eũskaldũnen kantatzeko manera. Gũziek ezagũtzen dũzũe *Adios, ene maitia* (maitea); ahairu arrotz bat da, eta Sallaberryk dakar. *Agotaren* kantorea ber ahairuan kantatzen da. Bena ez dũ Sallaberryk ber manerala izkiribatũ, ez beitu *Agotaren* ahairu bera ber manerala entzũn.

### Sallaberryren mereximentũak

Holako kasũ handiarekin, hainbeste ahairu bildũz, eta hainen gazterik, Sallaberryren mereximentũak ez dũtũgu aski goretsiko. Ez balũ lan hori egin, zonbat ahairu balios orai galdũrik, heltũbada. Ala beste norbaitek bildũko zũtũan?

Jadanik aipatü deizüet de la Villehelio anderea. Agerarazi zütüan hamabi ahaire: hoitan (*borietan*) kantika bat (interesenta), zortziko bat «Ikusten duzu goizeanen» ahairearekin, eta Ziberoko maskaradetako mar(t)xaren sonüa. Barutzen zaizkü (*zaizgü*) bederatzü kantore. Bigez besteak Sallaberryren libürüan dira. Bazakiana ote de la Villeheliok ere bildü zütüala zazpi kantore horik? Ez dügü erraiten ahal. Horik dira: *Txoriñoa kaloian*, *Argia dela diozü*, *Iruten ari nuzu*, *Xarmagarri bat badit*, *Goizean goizik jeiki nüdüzün*, (ahaire paregabea); eta beste biga: *Zelüko izarren bidea*, bena ez Sallaberryren ber ahairean, eta *Agota*. Bena heben gaüza batek ez gütü apür estonatü: de la Villeheliok *Agota* kantoreari emaiten deion ahairea. Eta erran behar dügü ahaire hortan ez dügüla sekülan entzün *Bereterretxen kantorea* baizik. Aldiz, bai *Agota*, bai *Bereterretxen kantorea* ontsa ezagütürük dira, bena beti beren ahaire bereziekin emaiten dira.

Bereterretxen ahaire paregabea bezala, Sallaberryk ez bazütüan bildü, non ediren egün beste kantore andana hau? *Ahaire zahar bontan*, *Alageraz*, *Atharratze jauregian*, *Beñat Mardo*, *Txori erresiñola*, *bots emak enekin*, *Txori erresiñola üdan da kantari*, *Egüntto batez nindagoelarik*, *Gaztetarünak bainerabila*, *Txorittoa norat hoa*, *Jondane Estebe martirra*, *Mendekoste pestetan*, *Ikazketako mandoa*, *Mutil gaztea*, *Oi laborari gaixoa*, *Orai banoazü herritik*, *Plainü nüz bihotzetik*, *Ürzo lüma gris gaixoa*.

Eta ez dütü aipatzen, beharbada Eüskal Herrian baizik haboro kantatzen ez diren ahaire arrotzak: *Argizagiak zelütik*, *Prima eijerra*, *Ene izar maitea*, *Andereño bat*, *Ostiraletan düzü...* eta abar.

### **Ikasbide bat**

Zerk ekarri züan Sallaberry, egün hainen gora altxatzen dügün lan horren egitera? Lan horren egitera, bai eta familian ützi dütüan paperen izkiribüz eta müsika notaz betatzera?

Haren denboran, eüskal kültüraren ikertzen hasten ziren jakintsün zonbait. Haien lanen berri gaztetik bazakian, eta beste hanitxek bezala, Sallaberryk ere bere lan partea egin nahi izan dü balinba jakintsüentako. Bere libürüan ezarri dütü kantoreak frantsesezko ützülpinarekin. Bena badakigü ere edizione bat egin züala oso eüskaraz. Hortarik ageri da Eüskal Herriaren, eüskal kültüraren eta eüskaldünen amodioz ari izan dela.

Haur nintzalarik, libürü hau Ziberoko etxe hanitxetan bazen. Ez da erraiten ahal zer hedadüra üken düan. Honi esker dügü hanitxek heben ezagütü eüskal izatearen argia.

Müsikaren aldetik holako lan baliosa egin düan lehen gizona izan da Sallaberry, iparralde hontan bederen. Eta pentsa ez zela harentzat lan errexa. Orai bizi balitz, oraiko magnetofona, zinta eta tresna amiragarriekin, zer ez liro egin! Üdüri zait etsenplü bat dela, eta eüskal kültüran sartzera kümitatzen gütüala».

## Mixel Eppherre, anaia gazteena (1932-1999)

Oso bertsozalea zen, **Battitta Zübükota** ostatuko anaia zaharragokoarekin. Luma sotila zuen gainera, bai zubereraz, bai behenafarreraz. Artikulu andana badü idatzirik kazetetan, bereziki **Gazte** hilabetekari ohian, 1960 irian, eta azken hamarkadetan **Lema** aldizkari jeltzalean, sinadurarik gabe: horiek ere bildu beharrak. Mixel Enbata kazetaren (1960) eta gero mugimenduaren (1963) sortzailetarik izan zen, beste sei lagunekin. Horrek ninduen Enbatara erakarri. Ondotik, Labégueriarekin Enbatatik urrundu zen taktikaz, baina beti abertzale suhar agertuz, eta guziz euskaltzale.

Altzürükü **Etxeberriko** premu eta jabea den **Johañe (Jean Pierre)** anaiari zor diogu Santa Graziko «Hartza» kantorearen berpiztea Michel anaia gaztearekin, biek Altzürükün kantatu baitziguten 1981/VI/28 arratsean, **Arxu** idazle zenari eginiko omenaldian.

### Hartzaren kantorea

1

Malür bat heltü zaikü (*zaigü*) Basabürüan  
Egiaz erraitera Santa Grazian  
Prima eder bat hartzak usuki Pusunpes altean  
Bena hanitx irus izan da jan ez düanean.

2

Otsoa izan balitz harakoitia  
Ihork aski zükean horaren haxitzea  
Bena hartzari nor leiteke mentüra haxitzera  
Zeren eta hura beita oro malezia.

3

Prima handi haren aflijitüa  
Egin zereionean hartzak usukia  
Mentüraz eta koste(*re*)n ziozü kolpe hura bizia  
Gangrenatzen aisa beita hartzaren usukia.

4

Erran Mainer, beha hadi ene erranari  
Peko eihera borta zerra ezan hobeki  
Hartz handi hura horra bazain Ehüsarre (*Ühaitxarre*) aldeti(*k*)  
Zepo (*b*)on bat heda eta hatzamanezan zankoti(*k*).

5

Konplitü direnean hilabeteak  
Lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatziak  
Sendotüren zi(ri)ozü primari dolorea  
Eta gero kantatüren Hartzaren kantorea.

*Euskera XXVI (2. aldia) 1981 (2), eta Separata: Jean Baptiste Arxu idazlearen mendurrena, azken ostaldean (musikarekin).*

Gaineala **Kadet Salaberremborde** zena, arreba baten semea, Saint François ikastetxean lagun ukan nuena, gero apezturik eta Mauleko erretor izanik, oso euskaltzalea zen hura ere. Euskara bikaina zuen. Sü Azia elkartearen sortzean parte hartu zuen. Elizako ofizioetan euskararen lekua zabaldu zuen Mauleko parrokian.

Eppherre ariak bazuen nondik: ama gaztean andereen pastoral bateko «sü-jeta», protagonista izan zen, eta horretarik baztertu nahi izan zuen herriko erretoreak, ordu hartan apez gehixenak pastoralari aihar baitzauden. Pazkoen egitea ukatu zion, baina neskatilak ez zion amore eman!

## Johañe Eppherre (1931-2004)

Altzain sortua zen, ene amaren herrian, Eiheraberrian, Altzürükükoen askazi urruna. Batxiler ikasle ginelarik Mauleko Saint François ikastetxe katolikoan ezagutu nuen mutiko prestu eta lagunkin hori, ni baino zahartxeagoa, Sebastia(n) ene adineko anaiarekin. Johañe 1955ean apeztu zen eta irakasle sartu Nayko seminario txipian, Biarno ekialdean, Lurdetik hurbil. Bikario Kanbon 1958an, Atharratzen 1959an, Eskiulako erretore 1974an, Atharratzeko 1980an.

Gizon apal eta herabe horrek euskararen alde, euskaraz lan egin du isilik, gramatika ikasgaiak emanez kaier batzuen bidez, bereziki aditzaz. «Sü Azia» elkartearen sortzean parte hartu zuen, beti bezala zarata guti eginez eta bere burua guti agertuz. Horri esker elkarte sortu berriak 1979an bi liburuxka argitaratu zituen: bata Kadet Oxibarren artikulua andana batetik «*Lehenago Gameren*», bestea Larraineko *Borthiri Salaren* koblena. Bera ere kobla idazten ari zen noiztenka, trebeki. Hona etsenplu bat.

### Aita Lhande-n orhitzapenetan

Zalgizeko elizan, egün besta handi,  
Jentia orotarik bildü da ederki;  
Eman ükhen onduan zeiniak egüerdi,  
Meza khantatü dügü denek algarreki.

Egün hau berhezia zertako den othe?  
Aita Lhande-n sortziak beitu ehün urthe;  
Eginbide hersia nahi dügü bethe,  
Gogo hunez emanez heben haren althe.

### Aita Lhanderen oritzapenetan

Zalgizeko elizan, egün besta handi  
Jentea orotarik bildü da ederki  
Eman üken ondoan zeinüak egüerdi  
Meza kantatü dügü denek algarreki(n).

Egün haur berezia zertako den ote?  
Aita Lhande(re)n sortzeak beitu ehün urte  
Eginbide her(t)sia nahi dügü bete  
Gogo honez emanez heben haren alte.



Ziberotar handia izan Lhande Aita;  
Hura bezalakorik beste bat ezpeita...  
Beldür ni lüzaz giren egonen goaita  
Jinkuak berriz dezan holako bat haita.

Oroz gaiñetik beitzen egiazko apheza,  
Bigerren etxe zian Zalgizen eliza;  
Khartsüki eman deikü hanitxetan meza:  
Eskerrik hoberena Jaunak hun-har beza.

Ezpiritü argia, untsa muldatürrik,  
Thai gabe ikhasteko süiak zen hartürrik;  
Zer jakitentako etzian aiherrik ?  
Haren dohaiñetarik bat etzen auherrik.

Eskola handietan, oi zer erakasle!  
Gogo-bihotzen bethi arraheñki hazle;  
Hura entzün onduan, nol' izan ahazle?  
Aitzina ere izan hari behazale!...

Oso zen etxekia Uskal-Herriari,  
Hebenko ohidüra eta mintzajeri;  
Nahiz üsü zebilan hürrün herriz herri,  
Uskaran bethi zian amodio berri.

Hanitx familietan, fedia zen hotza,  
«Radio» horreki heltü Aita Lhande-n botza;  
Laster etzen haboro etxetan arrotza,  
Bihotzila beitzuan haren hitz zorrotza.

Eta zunbat libürü zian izkibatzen,  
Haien irakurtia zinez goxo beitzen!...  
Lüma xothilak zian gogua altxatzen,  
Eta elhe zühürrak fedia bermatzen.

Arimen salbatzeko bethi zian sükhar;  
Mündiari lagüntza nula aski ekhar  
Indiak jo zütian, phedikari azkar,  
Halaber Amerika eta Madagascar.

Artzaiñ Hunaren pare, bihotzak altxatü;  
Hari behatü nahiz, jentia oztetü;  
Bena Kalbariua uste gabe heltü,  
Khürütxia suiñian behar ükhen hartü.

Ziberotar handia izan Lhande Aita  
Hura bezalakorik beste bat ez beita...  
Beldür ni lüzaz giren egonen goaita  
Jinkoak berriz dezan holako bat haüta.

Oroz gainetik beitzen egiazko apeza  
Bigerren etxe züan Zalgizen eliza  
Kartsüki eman deigü hanitxetan meza  
Eskerrik hoberena Jaunak honar beza.

Ezpiritü argia, ontsa moldatürrik  
Tai gabe ikasteko süiak zen hartürrik  
Zer jakitentako ez züan aiherrik?  
Haren dohainetarik bat ez zen auherrik.

Eskola handietan, oi zer irakasle!  
Gogo-bihotzen beti arraheinki hazle  
Hura entzün ondoan, nol(a) izan ahazle?  
Aitzina ere izan hari behazale!

Oso zen etxekia Eüskal Herriari  
Hebenko ohidüra eta mintzajeri  
Nahiz üsü zebilan hürrün herriz herri  
Eüskaran beti züan amodio berri.

Hanitx familietan, fedea zen hotza  
«Radio» horreki(n) heltü Aita Lhande(re)n botza  
Laster ez zen haboro etxe(e)tan arrotza  
Bihotzeala beitzoan haren hitz zorrotza.

Eta zonbat libürü züan izki(ri)batzen  
Haien irakurtea zinez goxo beitzen  
Lüma sotilak züan gogoa altxatzen  
Eta ele zühürrak fedea bermatzen.

Arimen salbatzeko beti züan sükar  
Mündüari lagüntza nola aski ekar?  
Indiak jo zütüan, pe(re)dikari azkar  
Halaber Amerika eta Madagaskar.

Artzain Honaren pare, bihotzak altxatü  
Hari behatü nahiz, jentea oztetü  
Bena Kalbarioa uste gabe heltü  
Kürütxea soinean behar üken hartü.

Hogei-ta-hiru urthez, ixiltarzünian,  
Minak oro egari fede handienian;  
Bere saila jarraiki, ariz othoitzian,  
Jaungoikuak phausia eman azkenian.

Hogeita hiru (i) urtez, isiltarzünean  
Minak oro egari fede handienean  
Bere saila jarraiki, ariz otoitzean  
Jaungoikoak pausua eman azkenean.

Ene adixkidiak, ganua düt eskaz  
Gehiago mintzatzeko gure Lhande Aitaz.  
Ziberoko jentia, orhit zite lüzaz  
Bazterrik gabe maite ükhen zütianaz.

Ene adiskideak, ganoa düt eskaz  
Gehiago mintzatzeko gure Lhande Aitaz  
Ziberoko jentea, orit zite lüzaz  
Bazterrik gabe maite üken zütüanaz.

Zalgizen 1977ko uztailaren hamarrean, igandez, Euskaltzaindiak Aita Lhande zenari egin zion omenaldiaren kariara «ondu» zituen Johaño Eppherrek. Jakinez zein atxikia zegoen Zuberoako euskalkiaren berezitasun eta ñabardurei, haren idazkera bere hartan utzi dut, Gure Herria aldizkarian agertu zen bezala (1976ko 5.ean): orduko xiberotar grafia ofiziala hori zen, Guillaume Eppherre eta Lafon euskaltzainek adelatua, eta geroztik ere Xiberoko elizak atxiki du, gure fonetikaren arabera baita. Haatik bere lanaren kopia bat oraiko grafian egokiturik gehitu diot eretzear.

## Thomas Uthurry (1920-1997)

Apeza hau ere, Atharratze Otsoatxeko seme (Maidalenalako bidean), irakaslea, gehienik Baionako Saint Louis ikastetxean. Predikari eijerra, luma sotala zuen, baina gizon apala zen, Attuli eta Johaño Eppherre bezalaxe... Hona haren artikulua bat, edo parte handiena bederen, Gazte hilabetekarian agertua 1957ko urtarrilan, eta grafia zaharretik berrira ekartzen dut.

### Zeri bürüz gira, Xiberoan?

Lehenik Xiberoko demografiaren berri ematen du, honen beherapena erakutsiz. Ehun urtez, 1854tik 1954ra, Atharratzeko kantonamendua jaitsi da 10.186 jendetarik 5.782ra, kasik erdia galduz; Maulekoa 13.405etik 12.300ra, guti galduz; biak juntatuz 23.591tik 17.982ra. Ez dira hor kontatzen eskiulatarrak eta Donapaleu aldeko xiberotarrak. Dena dela beherapena zalutzen ari da Basabürü guzian eta Pettarreko herri txikietan. Idazleak zazpi ohar egiten ditu zenbakien inguruan, baina ez gara xehetasun horietan sartuko. Interesgarriagoa zait horren ikuspegi orokorren eta galde zorrotzen agertzea.

### «Zer ikusten dügün, egün oroz...

- Etxalte hon bat, Maule kantüan; seme gehienak maite dü laborantxa... Bena bere aitareki [sic] ez da akort: aita leheneko modala lanean nahi ari; semeak aldiz, lur-laneko manera berriak ikusirik eta ikasirik, etxalte beste gi-

sa batetara joanerazi nahi: bena aitaren aitzinean isilik egon behar. Semea, ar-negatürrik, atelerian sartü da. Egün batez, bere aitaren etxaltea arrahartü gei dü. Bena, arte hortan? Eta nork dü ogena?

- Beste etxe batetan: aita eta ama xaharra(*k*), beren semeareki. Beste haurri-deak joanik eta plazatürrik. Semearen gazte lagünak atelerian; arratse(*a*)n, goizik lanetik libratürrik; igantetzaz, sakolak sosez beterik, denak motoz bide horik gainti... Laborari gazteak aldiz, astea oro, argitzetik ülüneala lanean igaran ondoan, sos güti bere musan igante egünaren bere lagünakilan gozatzeko. Besteak bezainbeste izan nahi delakoz, bere etxeko xaharrak ützirik, atelerian sartü da. Etxalte eijer bat gibel ari... Nork dü ogena?

- Etxalte handi hanitxetan, primüa edo prima hogeita hamar urte(*e*)tan gaintitzen... edo gaintitürrik. Eta ezin ezkontüan! Neskatilak ez nahi laborari etxealat: lan sobera, lan tzarrak eta torpeak. Laborarisa esklabo dela üdüritzen zaie: kabale(*e*)n eta lürraren eta gizonen esklabo. Barne(*a*)n lanean, kanpoan lanean... Nork dü ogena?

- Beste etxe batetan aldiz seme alabak egün oroz Maulen lanean; semea moto eder batekin, alaba «scooter» harro baten gainean; igante oroz kilometrak egiten, zineman, edo bestaliar, edo sonüzale. Etxekoen etxaltea aldiz beti bardin triste eta bardin gibel; ama xaharra eskerniatürrik, süiaren ezin piztüz, kafearen berotzeko «bütägaz»ñi baten faltan. Lehen beno haboro irabazten eta sukalte beti bardin beltz! Nork dü ogena?

- Hogeita bost urtetako motiko gazte bat: orai artino beti etxondoan lanean ari izan da. Bena bere biharko izatea nola behar dü segürtatü? Etxe(*a*)n haurride gehien bat ezkontürrik. Bera etxalte hon batetan etxeko jaun sartü ahal zatekean, prima bat ediren balü... Bena düda gabe ez kausitü! Pariserat joan da. Eta zonbat gazte, hura bezala, joaiten dira herritik hürrün, esküak hütsik, ofizio bat ere ez jakin! Nork dü ogena?

### Zer egiten ahal da?

- Hasteko, Xiberutarrak oro algar gana bil gitean; zaharrak eta gazteak, ützirik saihetsealat politikak eta beste... gure haurren geroaren arrünküra (*arrenküra*) dügün ber bihotzean. Dantza, kantü xahar, amets ederrak ez dira aski. Begiak bazkatzen ahal dütügü maskaradaz, pastorelez, kanpo zabalez eta bortü miragarritz: zer irabazia, sabel hütsak begiak flakutzen eta zerratzen badütü! Xiberoa «bazter güzietako xokorik eijerrena»? Gaüzak hola joanez, xiberutarrak non dirateke ehün urteren bürüan? Parisen behar bada. Zer xiberutar süerte, Xiberoa hütsik balinbadate?

- Oroek batean, behar dügü klarki ikusi zertan giren, norat büruz ari giren. Badatekeanez «xoko eijer hontan» bizitzerik bihar. Laborantxak heben, hebenko lür eta mendietan, nola behar düan joanarazi miseriaren ohiltzeko! Zer lantegi, zer ateteria, zer irabazpide berri behar den pentsatü, gazteen heben begiratzeko!

- Gazteak, haurrak, züer beha dira, züen haidürü : aita eta ama familiaz-koak, herriko mera eta bürüzagiak, errejentak eta apezak. Bakoitxak züen xokoan norbait zidienak, zerbait ahal düzüenak, badüzüe eginbidea –eginbide handienetarik–: züen ondokoer bizitze ahal bezain hon baten prestatzea eta segürtatzea. Bena deüs ere honik ez dügü bürütüko, estalgiaren bakoitxak bere aldialat tiratzez. Ordü deno, har dezagün saila serioski, ützerik bazterrealat gure espantüak!

- Badira gazteak, laborarietan, zerbait iseiätü nahian! Bena ez dira behatürik, ez dira lagüntürik. Sindikatetan, ahapetik behar düe mintzatü; zerbait montatü nahi düenean, sosa falta düe (hala nola CETA baten plantatzeko). Beren bidean, gibelerazle franko, lagüntzale güti. Aipatü behar dügü haatik zer eginik izan den: Zalgizeko elgean, lürren arrapartitzea. Altzürükün ere berlan ederra kausitü düe zonbaitek.

Bena zonbat holako eta beste gisatako lan ez dira gibel baratzen egiteko? Hainbeste bide gaixto eta xenda tzar laborari etxeetarar hüllantzeko! Hala denak behar dü erran: bide honak egitzüe lehenik, egün oroztako bideak, gure laborarier. Gero badükezüe züzena Orhin gainti bide handiaren egiteko herriz kanpotiar aizinanten. . .

- Mendi eder eta zabalak badütü Xiberoak. Bazkagia haütü egiteko ekeia bortü goran. Nork lagüntüko dütü artzainak? Eta nork argitüko? Eta nork algar gana bildüko? Nork honkailüstatüko olalte eder hurak? Nola olak berak arra-eraikiko, arraberritüko? Nork Basabürüko gazna paregabeak behar bezala tratatüko eta merexi düen prezioan merkatüetan baliatüko? Üdüritzen zaikü (*zai-gü*) gure hontarzünik segürrena, gure egiazko aberastarzüna, ardi eta kabale(*e*)tan dügüla. Bena behar güntüke gure egiteko manerak kanbiatüxe. . .

- Laborantxaren lagün, behar dügü beste ofizio txipi zerbait pentsatü herrian berean. Espartiña egingiak badütügü, bai: bena sobera bezala erraiteko maneran. . . Mauleko atelerietan, lana johadaka da: 6 edo 8 hilabetez ezin hel-tüa (zoin urtez, orano ez beti), 4 edo 5 hilabetez lanik ezin ediren!

Bada orano beste hanitx joaiten ez den gaüza! Ez dütü denak aipatzen ahal. . . Bena beti gogoan behar dügü ohart etxeki:

- *lehenik*, Xiberoa gibel ari dela.

- *bigerrenik*, ez düala gizon batek berak Xiberoa arratxütik ezarten ahal: oroek bat eginez, eta zerbait eginez dügüla Xiberoa arrapiztüren. . .

### **Korpitza bezain flakü eta eri, gogo. . .**

Hala jokatzez, bada Xiberoan bizitze; eta behar bada, gure lürrak orai be-no bizizale haboro hazten ahal dü, eta hobeki hazten. Lürrak beti ontsa baliatzen dütü bürüz egin lanak eta eman indarrak.

Bena aski datekea korpitzaren salbatzea, Xiberoaren salbatzeko? Zer egin dügü gure gazte(*e*)n bihotzaz? Hona bi kasü:

- Laborariek ez dūe gehiago mitil edo mixkandirik herexatzen ahal: esken-türik ere 18.000 libera hilabetean, nausiak bere gain hartzen dütüalarik alo-jüa, xuritzea eta bizia!

- Ola batetan, artzain bat ez dūe bilakatü (*bilatu, ediren*) ahal izan, areta, emaiten zeien 1.000 libera egüneko, eta anhoa (*mendiko janaria*)!

Zerek dütü gastatü edo airatü beste(*e*)tarat gure gazteak? Zertako ez da haboro nahiantik, mixkandi (*sebi*) edo artzain sartzeko? Ofizioa gaitzegi? Txarregi? Zertako dira nahiago sartü ateleria batetan: seküla ofiziorik ikasi ez dūen gazte(*e*)k zer lan egiten dūe barne h(*ai*)etan? Eskülan xehe edo torpe zer-bait, segürki ez beitü hainbat bihotza altxatzen, haboroziz eta gogoaz bazka-tzen edo argitzen!

Ikusiz zertan giren, bihotza erdiratürrik eta halako lotsa batek hartürrik deizüet oihü egiten. Egün beltz da Xiberoa, eta hotz! Algar gana bil gitean! Algarrekin [sic] lanean ari gitean, zer-bait pentsa eta egin. Agian biharko egüna argixeago ikusiren dūe biharko Xiberutarrek.

MAIDALENATIK OIHÜ»

Frantzesez ere luma hona zuen Thomas Uthurry apezak: Emmanuel Inchauspere bizi-az eta obraz *liburuxka bat agertü zuen 1950ean «Le Courrier» inprimategian, 9 Jacques-Laffitte karrikan, Baionan: Un grand Souletin, le chanoine Emmanuel Inchauspé, 1815-1902.*

## Junes Casenave-Harigile (1924)

Urdatx/Santa Grazin sortua, apeztu zen Betharramen, San Mixel Gari-koitzen ordenan. 33 urtez irakasten ari izan da letra klasikoetan (latin-fran-tsés-grekoz). Urte andana batez Palestinan egona da. Donapaleun Etchecopar kolegioko zuzendaria 17 urtez (1964-1981). Irakasleen moldakuntza irau-nkorraz kargatua 10 urtez, pedagogian aholkulari ber denboran. 1981etik parrokiatako apez Basabürüko Ibar Esküinean, Altzaiko apezetxean bizi da.

Euskaltzain urgazle 1982tik, ohorezko euskaltzain 2000tik, harrigarriko langilea dugu euskararen eta euskal literaturako sail gehixenetan. «Trajeria» delako pastoralari egin dion ekarpena bereziki azpamarratu behar da, maila gora bat eman beitio bere zorroztasun eta zehaztasunaz: historiaren errespetua lehentze; eüs kara aratz, aberats eta jakintsu bat; neurtitzetan silaben kopuru finkoa (8/8) eta ohiko asonantziaren orde z egiazko errima, ahal oroz aberatsa; literaturako balio kultoak... Toribio Alzaga saria, antzerkiko goren, bi aldiz irabazi du: 1982an (Pette Basabürü) eta 1992an (Agota).

**Trajeria/pastoralak:**

- 1 – Santa Grazi, 1976, Urdatx/Santa Grazi herriak, herrian
- 2 – Ibañeta, 1978, Garindainen, Auritzen
- 3 – Pette Basabürü, 1982, Pagolak
- 4 – Zumalakarregi, 1989, Altzai-Lakarrik
- 5 – Santa Kruz, 1992, Urdatx/Santa Grazik
- 6 – San Mixel Garikoitz, 1994, Donaixtik (Nafarroa Beherean)
- 7 – Agota, 1999, Altzai-Lakarrik
- 8 – Jesüs, 2006, Maulen, Saint François (d'Assise) ikastetxeko ikasleek
- 9 – Santa Engrazi, 2006, Urdatx/Santa Grazik
- 10 – Eñaut Elizagarai, 2000, Gamere-Zihigak.

Gainean frantzesez «Jaun Martin Pueyredon, Pastorale de Lanne en Barétous», 1997, Landa (Biarnon) Itzulpena libretean biarnes/okzitanieraz eta gaztelaniaz .

**Olerkiak:** Oihanealat (1984) eta beste... Literatura sariak irabazi ditu olerkian eta ipuinean.

**Ipuinak:** Maiatz adizkarian, 1989 – Altzaiko Herensügea – Sineste zahar eta ez hain zahar...

**Saioak:** Amikuze – Ziberoako antzertia.

**Historiazko idazlanak:** -Orhiako Naba , 1978 (778ko güdükaren historia garaiko idazkien arabera).

-Zumalakarregi , gudalburua (biografia)

-Simun Zetegiet (hagiografia).

**Itzulpenak:** Egün oroetako irakurgetiak (Bibliatik) – Jesüsen Berrihona (Testamentu Berria).

**Artikuluak,** gai ezberdinez, kazeta eta aldizkari andana batean.

**Hiztegiak:** dictionnaire français-basque, dictionnaire basque-français (gehi aditzaren egitura).

**Gramatika** lanak: bereziki «Xiberoan eüskaraz» liburua, Sü Azia, 2001.

**«Hartz pasüa**

«Ez dü aspaldi, gure bortü oihanetan, bazebilan hartz ontsaxko. Bedatsetik larrazkeneala, nonahi hanko bidexkak barat gentzakean. Orai hanitx apürtürük dira. Gizona üsnatzen düen bezain sarri, ixil ixila baztertzen dira eta beren bidea egiten düe.

Animaleko ihizea da hartz. Gibeledko zankoak lüzeago beütütü aitzinekoak beno, gibela deaz gorago da eta üdüri dü horrek indar berezi bat emaiten deiola, bai ebiltzen delarik mütürra lüzatürük, bai xütitzen delarik. Hortakoz ere ehikiago petigora igaiten da behera eraisten beno. Gaztaina kolore biloz jantsirik dago eta, oihanean ülün beita, ez da betik errex haren ikustea. Hala hala iratzetan, larrazkenean gorritzen ari direlarik. Omen, sü(i)aren beldür da.

Beraz artzainek eta egürkariak surdakei bat sakolan goititzen düe, ordü dateanean pizteko. Behin beno haborotan entzün dü, zauritürrik delarik, gaitz gorritan jarten dela eta deüsek ez dezakeala eden; lotzen da ordüan hamabost zentimetrako zühaintze zanko bati, izei, leher edo bago, eta adarxka balde iharrausten dü. Hobe han gainti ez izatea!

Oihanaren barne(a)n, güne bustietan eta botxe baten aldepean, agertüko zaitzü haren atzak; gibelesko zankoenak, biribil, hoge bat zentimetraxko bat erdiz erdi; aitzinekoenak, her(t)sixeago, bena lüzeago, azüzkülüek egin ziloak lürrean sartürrik.

Azüzkülü horietarik bateki dütü erhaiten; lasterkarazten dütü, lepoala jauz eta, itze bateki bezala, adarren artean bürü garkoitz gibelean tzixtatzen.

Bere negüko lozorrotik iratzarri ordüko, oihanetik elkitzen da. Bedatse elürra hurtzen ari denaren erditan, gaitzeko zankaztak egiten dütüe haren ürratsek.

Hazten da ahabe, arraga, maxüxa, zühaintze axalki eta ezti basa jatez. Belar püntta sortü beno lehen, ezküer kari da.

Agitzen zaio noizean behin betaldi baten biltzea. Bere eiharen minaren iganarazteko aragi ondoan doa, eta ardiak dütü, bortüan, ehikienik atzamaiten.

Arren maxela batetan edo ere oihanaren barnean, ediren dezakegü ardi larrü zonbait: bospasei, hamar bat, ez bada haboro. Ardi ontsaxko hilik bade-larik, hori izan daiteke hümeen lanegina; beren amaren ondotik, txostakatze-ko bezala erhaiten dütüe. Azüzkülüaz xüxen lahardekatürrik dirade, eta gero eijerkitto biribilkatürrik. Erditan joaltea, prefosta zapartatürrik, txintxak herotsik egin ez dezan: hartzaren lehen lana, ez beitü herotsa maite.

Horra zer gaizkiak egiten dütüen hartzek artoler. Hartakoz, artzainek us-te düe behar dütüela horietarik beren hontarzünak begiratü. Gaixtagin bat baltiz ogen egilea, hedexuriak zale lütüke gibeletik eta behar lüke ordaritü.

Hartzak ezin beitira holaxetorik bahit eta, ihork ez ditzan erho, beniareki zaintürrik beitira, nola bühürt ditake artzainak? Beren arma hartü eta, xüxen den bezala, bortxak hortaratürrik ixilka tirokatzen dütüe.

Beste ihize balde, hartzak ber bidea beti jarraitzen dü. Ihizlariak herexak ontsa ezagützen dütüe, eta badakie non igaraiten den, norat dabilan, zoin bazterretan düan bere egongia eta logia. Holatan, badoa hartza Erronkariko, Santa Graziko, Larraineko eta Otsagiko bortüak gainti. Lekü bereziak badütü han hor, goikerritan, eta «Hartz pasüa»k deitzen dütüe. Horietarik bat Larrainen.

Har ezazü Bürkegiko arrolatik goiti, harat Orrirat (*Orhirat*) büüz. Heltüko zira(i)e Txistupeala eta han goraxeago berehala Hartz pasüa joko düzüe. Hüilantzeareki, halere, üngürüak artareki ikert itzazüe, zer agit ere. Uste gabetarik, ihizea han izan leiteke, bere pasüalat bere azken jauziaren egiteko. Eta ordüan!...

Güne hori ontsa ikertürük züan Larraineko ihizlari batek, Ahetseko etxeke semeak. Hau franko gizon azkarra zen, ordü hetan bazirenak bezala! eta ihizlari haütüa. Izan zedin erbi, basahüntz, orkatz, orein ala basoilar, ürzo, trida, bilagarro, bazakian hoi en berri. Bat begistatzen züaneko, ez zitakeon itzur: xüen tirokatzen züan, eta han berean zagon txinkortürük.

Hartza ere ihiztekatzen züan. Bena besteentako bezala, horrentako ez züan ihizorik hartzen. Zoin nahi txakürrek, haren hexera üsнатzen düan bezain sarri, beharriak bai büztana aidean, harritürük eta ixil ixila, lasterra hartzen dü eta, ikare barrastaz, xüen xüena etxerat biltzen da. Bestalde, hartza hartza beita eta Ahetse Ahetse beitzen, honek ez züan ordüan armarik ere hartzen. Doi doia axkolta bat. Jentea harritürük bei(*t*)zagon haren ausartzeaz, hau erraiten zeien:

Holako ihizea ez dezakeat hürrüntik erho, hareki бүрүз бүрү borrokatü behar diat.

Horra zerentako egürükitzen züan bere pasüan.

Pasü tzarra, alabedere! Han zen gain gainean, pikatabürü bat üdüri. Nor nahi laztüko zen hantik sogitean, hain beitzen itsusü eta lüze, basa, behera бүрүз: hiru ehün kanaren altexea! Zonbat petxü ez da han agitü! Bortükariék maite düe goilürretan eбилtea. Bena begireizüe sasu orotan lanoari, hain beita tink, zeren egin dezakezüen zale ürrats oker bat; ebiari eta elürrari ere, zeren uste gabetarik lerra zintekoa(*i*)en. Hola nola haizü izan den ontsaxko, larrütü den baxan eta arrabaski. Noren axola lüke han hartzak? Beraz güne hura züan Ahetsek haütatü haren erhaiteko.

- Nik zanko eta begi honak ükeitez, hor nüzü nahi hartzareki borrokatü, zion.

Ezi Ahets, han, ez zen beldür. Pasü erdi erditan jarten zen, xütik, haidürü. Zoinen handi eta eder zen, ekiak, jeikitzean edo sartzean, bortü tini gainean, haren itzala lüzatzen züanean esküin edo exker ! Zoinen handi eta eder, arrastiri hastean, bere makilari bermatürük, üdüri züalarik zelüko edo lürreko hütsünetarik jelkitzen zela, bortüan ez beittake berez zelüko eta lürreko bazterrak, haboroziz ez itsasoan zelüko eta huretakoak. Hor, arren, Ahets nausi zen, nausia.

Eskü esküinaz axkolta bat tinkatzen züan; ahüntz larrüz troxatürük züan exkerra. Hartza jiten zenean, bidea moztürük beitzüan, gibleko zankoetan eraikitzen zen, leitak zorrotz ageri, aztaparrak lüzatürük ürratzeko. Aide gaitza züan, egiaz! Gaixo Ahets! zonbat nahi gizon tieso izanik ere, hartzaren ereztean opatü txar bat üdüri züan.

Bena gizona бүhүрри denean!... Han ziren biak berbera, бүрүз бүрү, алгари so».

*J.L.-D.ren obarra: bukaeraren jakiteko, ikus Junes Casenave-Harigileren Ipuinak, Izpegi argitaletxean, 1997.*



**Ibañeta (1978)**

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?  
 Oihü (e)ta intziri handi heltzen Iruñetik;  
 Karlesek (di)tü harresiak jauzarazi errotik  
 Ibañeta, Ibañeta, hire lepoa gaintik!

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?  
 Haur, gizonak, emazteak, galtzen baserrietarik  
 Etxeetan egon direnak gaizki erabilirik:  
 Ibañeta, Ibañeta, hire lepoa gaintik!

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?  
 Frankoen armadak oso üztak (di)tü eramanik;  
 Kabale (e)ta hontarzünak ez dütüa hartürik?  
 Ibañeta, Ibañeta, hire lepoa gaintik!

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?  
 Eüskal Herriaren arrunt zen jabetü nahirik  
 Hiltzez gure izatea, betiko zapatürik.  
 Ibañeta, Ibañeta, hire lepoa gaintik!

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?  
 Eüskaldünen odola zen ordin (ordüan) sütan jarririk,  
 Karles mendian zaflatü, ihes joan zedin hantik  
 Ibañeta, Ibañeta, hire lepoa gaintik!

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?  
 Eüskaldüna da goratü, etsaia (i) apaltürik,  
 Aripen handia beitü heben harek eginik.  
 Ibañeta, Ibañeta, hire lepoa gaintik!

**Txomin Peillen (1932)**

Txomin (Dominique) Peillen Karrikaburu Parisen sortu zen aita-ama xiberotarretarik. Etxean frantsesez ari zitzaizkion (haatik beren artean euskaraz); beraz euskara bere kaxa ikasi behar izan zuen. Ezkondua, ez du haurrik. Aljeriako gerlan parte hartu zuen Ouarsenis mendi aldean, erizain lanetan. Baionan bizi da emaztearekin, baina Urdatx/Santa Grazin Ibarbürüa etxea badute: han egonaldiak egiten dituzte.

**Lan eta karguak:**

- Parise aldean hogeita bost urtez lizeo (instituto) batzuetan biologia irakasle, ber denboran euskararen irakasle Pariseko Lycée Lavoisier delakoan.

Hamabost urtez euskal irakasle eta katedratiko Baionako fakultatean, euskal filologian .

Euskal lizentziaren sortzaileetan (1985-1988).

Euskaltzain urgazle 1967an, euskaltzain oso 1988an Piarres Larzabal zezaren ondotik, Arturo Campionek 1918an estrenaturiko aulkian.

**Artikuluak:**

Aldizkarietan 191 ikerlan artikulua : Argia, Bulletin du Musée Basque, Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra, Elhuyar, Euskera, Fontes Linguae Vasconum, Galeusca, Gernika (hegoameriketakoa), Gure Herria, Hegats, Igela, Jakin .

Kazetaritzan artikulua asko, Euskaldunon Egunkaria, Le Journal du Pays Basque, Berriak, Biga, Elgar, Elkarrekin, Gara, Berria, Le Miroir de la Soule, Time, Zubiak aldizkarietan.

Literatura lan sakabanatuak : Euzko-Gogoa, Egan, Gernika, Igela, Maia-tzen.

**Ikerketa liburuak:**

29 izkiriatu, 20 argitaratu : bat gaztelaniaz, lau frantsesez, 13 euskaraz.

- 1- Jon Miranderen idazlan hautatuak, Mensajero, 1976.
- 2- Egiategiren lehen liburua, Euskaltzaindia, 1983.
- 3- Chiveroua eta Marceline (elebi.), ASJU, 1983.
- 4- Animismua Zuberoan , A.E.B., 1984.
- 5- Allande Elixagaraien ixtorioak, A.E.B., 1985.
- 6- Paristar euskaldun bat, A.E.B., 1987.
- 7- Zuberoako itzalargiak, Elkar, 1988.
- 8- Les mythologies pyrénéennes , Unibertsitatea, 1988.
- 9- Bizidunak haurren eta helduen heziketan, Ortzadar, 1995.
- 10- Parlons l'euskara, L'Harmattan, 1995.
- 11- Zuberoako herri sendakuntza, Barandiaran F., 1996.
- 12- Conception du monde et culture basque, L'Harmattan, 1998.
- 13- Agur Zuberoa, Urretxu, 1998.
- 14- Ehiza eta zepoka Basabürüan, Barandiaran Fundazioa, 2002.
- 15- Oihenart hautatua, Hiria, 2002.
- 16- Euskaldunen ingurugiroa (Espazioa eta denbora), Dakit, 2002.
- 17- L'immigration des Basques aux Amériques (Aktak), Utrisque Vasconiae, 2003.
- 18- Euskaldun etorkinak Ameriketean, Utrisque Vasconiae, 2003.

- 19- Bosquejos vasco-uruguayos, Dakit, 2004.  
 20- Gizarte baloreak Euskal Herrian, Utriusque Vasconiae, 2005.

**Literatura liburuak** (eüskaraz 21 idatzi, 17 argitaratu):

- 1- Gauaz ibiltzen dena, Itxaropena, 1967 (Tx. Agirre saria, 1964)
- 2- Itzal Gorria I, Itxaropena, 1972 (Tx. Agirre saria, 1966)
- 3- Gatu beltza, Gero, 1973
- 4- Haur ipuinak, 1. alea, Hordago, 1977
- 5- Haur ipuinak, 2.alea, Hordago 1977
- 6- Haur ipuinak, 3. alea, Hordago, 1977
- 7- Igela, Hordago, 1963-1977
- 8- Emazte goxoa, Hordago, 1982 (Beasaingo eleberri labor saria)
- 9- Aldjezairia askatuta, Hordago, 1982
- 10- Aintza txerriari, Elkar, 1986
- 11- Kristina Bolsward , BBK, 1991 (Tx. Agirre saria, 1989)
- 12- Itzal gorria II (biridazketa), Hiria, 2000
- 13- Alarguntsa beltza, Hiria, 2001
- 14- Ale gorriak, Hiria, 2001
- 15- Ale berdeak, Dakit, 2002
- 16- Mende joanaz (bere olerkien bilduma), Maiatz, 2001
- 17- Abd El Kader olerkia, Labayru, 2006 (ützülpinak arabieraz, frantsesez eta gaztelaniaz).

**«Aldjezairia askatuta**

«Rumien urteetako mila bederatzi ehun hirurogeian, urtarrilaren lehenan, nik, Moktar Ben Khelifa agurgarriaren gandik, albiriste eta berri zehatzik jakin dut... Baztergabeko bakean eta boztarioan jar dezala Allah handiak atso maitagarria... gure aberriak pozaren atsegin horren bidetan sar dedila... Rumiek gure katiba-ren aurka ekintza gogorra egin behar dutela jakinik, Khoatmiara sartu naiz eta «Seien taldea» bildu... Hiru ordutan, harki baten ganik jakin dugu Khoatmiako aitzindaria Bel Abes-eraino jaitsi dela, korreoaren bide erditara. Kanporatu gara eta hirueterditan, behean, Rumiak heltzen ikusi: bi dodge, jeepa bat.

Hemendik ordu erdi, bidearen gora, frantsesak itzuliko dira. Inguruko sasi eta xarra tartean gizonak jarri ditut. Ez dut katiba osoa bildu ahal izan: hogeita hamar gizonetan, erdiak muzeblin laguntzaileak txispaz harmatuak dira, mudjahidin, gudariak automatikuekin, FM eta PM ekin. Huna nola jarri garen —eskema hontan ikusten den bezala— Si Aliko lepora igotzean, azken aldan: (hemen marrazki bat 90. orrialdean).

Bi dodgetan zeuden harma automatikuak. Lehenean rumi gudaria (*ala gidaria?*) hil dugu, bigarrenekoan gure herritar gidaria ihesi joan da. Lehen beri-

bilean, bihurtu diren hiru harki traidoreak ta sarjentua, egoitzi ditugu; bigarrenean, sarjentuak beranduxe gaitu, ihardoki digu ta nekez hil dugu. Halere zapeta eta praka-txaketa jauntzien kentzeko astia izan dugu... doidoia izan... Iparraldeari buruz ihesiari eman dugularik, frantses soldadoak berebiletan azaldu dira. Ilunak eta gure oin zangarrek salbatu gaituzte. Urbilean gure zain zeuden beste hogeitaz lagunetara bildu gara. Gau guzian oinez ibiliz Dahrako mendia lehorretatik urrunduz gara. Argi ozkorrian Oarzenizeko oihanpetan.

Bide bazterrean, lurrean, gizon zaharra jarria dagoke. Norbait zaldiz herrietik heldurik, merkatuko bidean mintzatuko zaio... eta egin dugunaren berriarekin alaituko da Moktar zaharra.

1960.1.14 a»

### «Allande Elixigarai eüskaltzale jakintsüa (1919-2001)

«Allande Artigau Elixigarai gure kosi lehena zentü zela jakin bezain sarri, Maulerik eta Donostiatik deitü nündien, Eüskal Herri osoan, eüskara maite düen oroenganik, aski ezagün zen gizon horren bizitze eta obrak aipa eta orhitaraz netzan.

Bestordüz, beste zonbaitekin agitü bezala, eüskara hainbeste maite züan horrek frantsesez üken züan azken perediküa eta egileak erakutsi Allande nor zen etzakiala. Allande ez zen ez «silencieux et humble», etzen ez ixil ez apal. Iruski guretako, bere jakitatea ützi beiteikü.

Allande ixil? Iholaz ere. Ekhestari ederra. Lehenago ezteietara gogo honez kümitatzen zen ixtoria eijer kontatzen beitzakian. Düala hamabi urte Donostian berrehün foilatako libürü batetan «Allande Elixigarai ligiarraren ixtoria» 85 ixtoria eman zeizkün. Eüskal Herri orotan harekin hanitxek erriegin beitzüen.

Bigerren libürü batetan parte hartü züan: osagarriaz, eritarzünenez eta erredioez egin nüan libürü batetan kapitülü eder bat eman zeitan «Bortüko landjerak eta eritarzünak». Eta libürü osoa Donostiako Fundacion Barandiaran delakoak düala hirur urte agerrarazi züan.

Hirurgerren libürü baten egiteko kapitülü handi bat eman zeitan Allandek «Zephoka Basabürüan». Hor basa-ihize txipiak nola bizi, nola hümekatzen, nola hatzamaiten, erhaiten, lahardekatzen zütian kontatü zeikün. Ber denboran zoin ziren ogenegile, gaizkigile bezala erhaiten eta urtikitzen zirenak eta zoinen larrüak begiratzen saltzeko. Libürü hori eztü ikusi. Hebentik bi urte Fundacion Barandiaran Donostiakoak agerraraziko beitü, eüskaraz, Frantzia handiak ezpeitü, ez eüskaraz ez frantsesez – hortako sosik. Libürü hortan Allanden jakitatea agertüko da. Ez etzen ixilik egon, eüskaraz irakurtzen düenek ezagützen beitüe. Bere jakitatea eüskaraz begira genezan bere obra eginik joan zaikü.

Allande gizon ümila, apala? Ez, bere heinean egoiten jakin züan eta Ligin laborari gütik egin düena karrikan etxe berri ejerra eginarazi. Behar bada ofi-

zio «gorago» batetara heltuko zen eta hortako lehen ürratsak kausitü zütian, bena seme bakotxa zen eta Verdunen gasatü aitarenerrespetüz, etxalte kanpix hartan egon zen. Karrikala berantegi jaitsi zenean postan lanean erauntsi züan.

Agian bürü txüt ibili dena, bürü apala beno hobe da, eta bestalde bürüa harroegi ibili dena beno hanitxez gorago. Gizon hanitxek, espantü, esklat, ballentia eginik beren kükürükü eta lümekin ehortzirik izanen dira eta ahaterik. Allande eüskal kültüran bizirik egonen da. Oraiko eskola handidün hanitxek beno haboro jakitate orijinalik bazüan. Eüskaraz eta frantsesez irakurten züan. Badirade orano Ziberoan eskola handi gabe, «asto-larrü» edo diploma eder gabe, jakitate zabaleko jenteak bizirik. Heenganik orano hanitx ikasten düt.

Ligiko maskaradak eta Ziberoako A.E.K. berriki eta ordüz ohoratü düe, Allande, bere jakitatea oro eman gabe ützi güntiana » (Le Miroir de la Soule, N° 114, 2001/V/I9a).

### «Hiru ardoen alegoria

Erratera noazu berriki entzuna  
 Leihopean aditu hiru emaztena  
 Beltzak zion goibelki begira, laguna  
 Dut senar ardo beltza ekarri nauana  
 Mozkor mozkortzera  
 Alkoholikatzera  
 Katolikotzera  
 Nire sabelondoaz ez nahi gozoa  
 Gizonak ez du nahi afrikar ardoa.

Nirea ez dun beltza baina bai zuria  
 Haren ardoaz nuen hartzen gosaria  
 Egoskitzen bainuen haren iturria  
 Harek samintasunaz ematen saria  
 Hura ozpintzen  
 Hura hartzitzen  
 Ni protestatzen  
 Orain ez dut edaten ardo zuririk  
 Eta jagoiti nabil minez urdailetik.

Hirurgarrenak aldiz, aurpegi ilunaz  
 Senartzat hartu nuen ardogorria  
 Haren ardo gorriaz gehiegi edanaz  
 Sudurra dut tomate katedun jarria  
 Pipertu naiz  
 Upeldu naiz

Komunistetik naiz  
 Eta hark halakatu ni euskalduntsa  
 Geroztik banabila semaforo gisa...»

(*Hatsaren poesia 2007, Hata elkartea, Oxtikenea, Senpere*).

## Jean-Louis Davant (1935)

Ürrüstoi-Larrabilen sortua, herri hortan bizi emaztearekin. Bi alaba (Maddi, Xantiana), hiru *arrabaur* edo biloba (Patxi, Maider, Arantxa). Aljerian soldadu egona 27 hilabetez. Irakasle izana 35 urtez Hazparneko Laborantza Eskolan, horren sortzean parte harturik. Orain erretretan, jubilatua. Zuberoako euskaltzain osoa 1975etik, Guillaume Eppherre altzürükutar apezaren ondotik, horren aitzinetik Pierre Lhandek 1919an estrenaturiko aulkian.

Idazlanak: sei olerki libürü, sei trajeria/pastoral antzeztuak, hiru saio, eleberrri bat (Iparraren bila), bederatzí liburuxka euskaraz, artikulu asko aldizkari eta kazetetan, hiru liburu frantsesez, eta bere «Idazlan hautatuak».

### Olerki liburuak:

- 1- Makila gorria, Elkar, 1980
- 2- Denboraren aroak, Bilbo Aurrezki Kutxa, 1982 (Azkue saria 1981)
- 3- Nahi gabe, Iruñeko Aurrezki Kutxa, 1985 (Xalbador saria 1984)
- 4- Itsasoak iraultzan, Maiatz, 1986 (Aipamen berezia 1981eko Azkue Sarian)
- 5- Ihesi, Maiatz, 1990
- 6- Harri txintxolak, Elkarlanean, 2003.

### Trajeriak:

- 1- Abadia Ürrüstoi, 1990, Maulen, Xiberoko Ikastolek (1)
  - 2- Eüskaldünak Iraultzan, 1993, Gotaine-Irabarne
  - 3- Aguirre Presidenta, 1995, Arrokiagak
  - 4- Xiberoko Makia, 2001, Sohütak
  - 5- Antso Handia, 2004, Maulek
  - 6- Xiberoko Jauna, 2008, Pettarreko lau herrik, Ezpeizen.
- (1) *Durangoko Udalaren Sari berezia 1886-1996ko Euskal Jaietan*.

**Liburuxketan:** ohargarrienak «*Bidegileak*» sailean,

- Etxahun-Iruri, 2004 (35),
- eta Manex Goihenetxe, 2006 (45).

### «Hartz istoria:

Denek badakigü: Urdatx/Santa Grazirik harat, galtzen ari dira Pirinio bortüko azken hartzak. Ez dü aspaldi, hanitxez apalago heltzen ziren gisala: XIX. mentean Arbaila mendi saldoan ere bazirela üdüri lüke. 1890 altean, güti gora-behera, bat eho züen Altzürüku garaian. Ihizteka horren istoria kontatzen entzün deiot hiruzpalau aldiz osaba xahar bati. Dominika Iratçabal zen, Sarrikotagaineko Etxegohen, amaren anai gehienetarik (ama hamabi haurridetarik azkena beitzen), Altzai Üstübileko seme, 1979ko üdan zentü dena lauetan hogeita bederatzü urteetan. Haur zelarik agitü omen zen erran delako gertakizüna.

Altzürükütarrek ihizteka handi bat antolatü züen, gizon andana gaitza jüntatürik. Ez dakit horkoak berak ziren, ala herri aüzoetakorik ere bildü züen. Dena dela beren goaitagiak hartü zütüen Itheko oihanean, eta behar ziren herotsak egin hartza harrot zedin. Gizon xahar batekin bürü egin züan gisala. Tiroa partitu, ihize horri bizkar ezürra hautse (prefosta gero zen ikusi), bena hartza ez eküratü: gizonari jin zeion, debrüak hartürik! Xaharra berehala zühain baten goiti, ahal bezala. Aitzinetik begistatürik zükean, zer hel ere... Haatik arma lürrean ützi ote züan, ala berriz kargatzeko aizinarik ez üken, ez dakit. Gaüza bat segürra: hartza zühainari goiti ari zela ahal oroz, aztaparkaz eta orroaz, kaka tzirristaz ere bai... Gaixo gizona lagüner deika: hel! hel! Eta kabalaje basa hura beti goiti, emeki bazen ere lasterregi, gorotza eta orroa ber hatsean buhatzez! Beharrik aizkora ttipi bat gerrikoan bazüan gure gizon dohakabeak, eta harez aztapar mütürretan joitan züan ahal oroz, apalxeago bara ledin phürü.

Azkenean lagünak heltü zeitzon eta, prefosta, hartza kalitü züen, akabi. XIX. mente ürrentzean zen, Itheko oihanean. Han ikus zaitekean gisala, düala mente erdi bat, aztigar bat, hartz aztapar herexekin. Osaba Dominika zenak kontatü zeigün istoria hori bera, geroztik ediren dü Kadet Oxibar apezaren «Lehenago Gamera» idazlanean, haatik liferentzia batekin: haren arabera ihizlari hoberena zen hartzari büruz agitü, bortütik horra zen, apentziala ez zen xahar. Bi kontalarietarik zoin dügü xüxenean? Agian betiereko mendietan horren xuritzen ari zaizgü!

Horik hola, nonbait irakurri dü Arbaila mendi saldoko azken hartza 1950ko hamarkadan hil zela zaharrez. Gizonetarik hürrün oihan zokoetan egoiten ikasi zükean, bere honetan. Bista llabür bada ere, izigarriko beharria eta südürra dütü hartzak, eta horri ja baliatü zeion.

Beste hartz istoria bat entzünik badüt izeba xahar baten ganik. Marga(r)i-ta Bidalun zen, amaren ahizpa gehiena, erran delako Dominikaren arreba, 1975ean zentürik adin ederrean hura ere, lauetan hogeita sei urteetan uste dü. Altzai Lüküziloyalat ezkontü zen. Bena senarra hamalauko gerla handian galdürik, alargüntsa gazte baratü zen, bi semerekin. Dendarigoatik bizi izan

zen Altzain, Hazparnen, Uztaritzen. Badü bere bizian zombait jente lagüntürik. Bi semeak galdü zütüan orano gizon gazte zirelarik. Arrahaurrak badütü Uztaritzen familiatürik.

Kontatzen züan Bidalün batek hartzak nola ehaiten zutuan. Altxaiko azken etxea da Bidalünea, Ahüzkirik ez hürünegi, Zuhurreko oihanaren bazterrean. Bidalün horrek hartza ateka batetan goaitatzen züan. Han xendala jauzeten zeion gizona, hartza ordüan xütitzen eta oldartzen. Bidalünek ezkerreko besoa ardi ilez üngüratürik ahoan sartzen zeion, eta esküinaz ganibet handia besapetik bihotzari bürüz sartzen.

Eskimo delako Inuitek ere hartza hola ehaiten düe (elür kolorekoa haatik, gurea beno handiagoa): Paul-Emile Victor jakintsüna ontsattoz geroztik entzün üken düet eta ikusi telebistatik ihiztekako tenika horren kontatzen.

Eta zioan hartza exkerret dela: ihizlaria beso exkerraren petik sartzen balin bazaio, hartzak gizonari ez deio gisala min handirik egiten ahal.

Inuitik bazenez ere ez zakikean Bidalünek, haboroziz eta izeba Marga(r)itak. Halere gizon horrek bederatzü hartz eho zütüan omen. Hamargerrinarekin, oso nekez erauntsi züan. Horrek besoen arteala bildü beitzüan, biak turrupillaxka joan ziren maxela baten behera. Azkekenekoz gizonak hartza goitü züan, bihotza ganibetaz edirenez. Bena berehala ohean sartürik, zortzi egünetan zentü omen zen Bidalün: lotseriaz ote, ala hartz aztaparren pozuaz? Ez dakit noiz xüxen agitü zen: balinba hemeretzügerren menteko lehen partean... Apentziala zertaz ari zen bazakikean izeba Marga(r)ita zenak, senarraren aita Bidalüneko seme beitzen, ezkontzaz Lüküziloalat jinik, gero izeba jin izan zen bezala. (*Maiatz* aldizkaria, 16, 1988ko iraila).

Azken urte hauetan, honen üdüriko istoria bat irakurri düet Junes Casenave-Harigileren lümatik, bena larraintar bat da haren hartz ehailea, eta hartzari aizkoraz bürüan emaiten deio. Ez dü aisa izan behar kabalaje horri bürüaren apalaraztea, non ez den egotxi ondoan, kalitzeko. Inuitena hobe zait. Bena nork daki? Hartz ehaile bat beno haboro bazatekean Eüskal Herriko bortüan, eta balinba gure arbasoek tresna mota bat beno gehiago egari zükeien haren goitzeko. Azken arma, pozua izan da gisala gure denboran, ekialdeko müga gora hortan. Bortüko azken hartzak Biarño alde hortan bizi dira, haatik ibilaldi handiak egin ditiroie.

## Ene Herria

Ene Herria, miresten zütüt haur denborako begiez  
 Andere handi zira beztitü dentela fizko hegiez  
 Zaia zolala heltzen nitzazü doi-doia nizan pettarra  
 Ha(a)tik eskütik etxeki naizü, eta zütan dit indarra.



Azkorri oroz leihoan zütüt, oi Otsogorri Handia  
 Pixtan behera ikusten deizüt erria edo nigarra  
 Eta ibarra junpatzen beitu zure kantore zilarrak  
 Ama hoberik asma daitea, ene Xibero maitea?

Ene leihotik ageri düzü beste mendirik halere,  
 Ortzanzurieta, Beltxü, Iparla, Urtsuia eta Baigura  
 Ene Herria, ez otoi bekaitz, Herria düit hura ere.

Oi sorterrria, zure leküa bester utzi ez dit gura  
 Ama bat bera, eta zü zütüt, Xibero ama haütüa  
 Eüskal Herria berriz güzia maite düdan emaztea.

(*Abadia Ürrüstoi, Maulen, 1990, eta Xiberoko Jauna, 2008, Ezpeizen*).

### Askatasuna, Libertatea

Libertateak ez dü korpitzik, aingürüa bezala da  
 Beg(i) inozentek, bihotz garbiek baizik ezin ikusia  
 Ha(a)tik hanitxek, maitarzün ütsüz, hartan dügü sinetsia  
 Arren zügünki kanta dezagün jente libroen balada.

Askatarzüna jori denean, ahaterik egoiten da  
 Aire kolorez oro betea, gordatzen bazter ützia  
 Joaiten delarik, hatsa galdürük ezdeüsten zaigü bizia  
 Ezin bestean gure fedea ükatzen dü bere düda.

Libertateak ez dü hegalik, gure hoinez badabila  
 Batean gora, bestean apal, Iparragirre bezala  
 Gur(e) historiako bidean üsü etsaia beitu haidürü.

Askatarzüna galdü denean, hartü behar da makila  
 Haren bideala bila heltzeko ez egon ekürü  
 Arrajeik eta berriz aitzina, gure hoinez joan dadila.

(*Xiberoko Makia, Sobüta, 2001*).

### Türk andereak

Berriki arte, pastoralala gizonen emaiten züen osoki, edo bekanago ande-  
 reek berek: azkenik Ximena 1979an Atharratzen. 1976an Santa Grazin, ber-  
 izenekoa trajerian, emazte zonbaitek parte hartü züen «kür» delako kantarien  
 saldoan. Idazlea Junes Casenave zen, errejenta Marcelin Heguiaphal. 1980an  
 Urdiñarben, Iparragirre pastoralean, andereak erdiz-erdi sartü ziren emazte

«roletan», poetaren ama eta esposa irüdikatu bereziki. Idazlea Etxahun-Iruri (1979an zentürik), errejenta Battitta Urruty.

1990ean, Abadia Ürrüstoi trajeria, ikastolako ama hanitx bagünian saldoan, eta haietako «rola» güti. Lüxi Etchecopar Camus «Ximenak» galtatü zeitan «türk andere» kargüan agertzen ahal zirenez. Battitta Urrutyrekin hitzartürik, baietz ihardetsi neion. Hola tradizione berri bat hasi günian hiruek algarrekin.

Türk andereen lana zer den, eder eta sü pizle agertzeaz gain: erraiteko hon ez diren egia karatsen oihüstatzea, entzün beharrak beitira. Berriki arte, satanen eginbidea zen. Bena satanak dantzan ikusi nahiago düttü, ahalaz isilik, bien egitea gaitz beita, haien entzütea ere bai. Eta badakigü elestan andereak trebeago düttügüla... ezpiritü bezala.

(Le Journal du Pays Basque / Euskal Herriko Kazeta, 2008/VII/22)

## Oraiko pastoral idazleak

Lehen pastoral antzeztuaren ordenan:

- 1- Junes **Casenave-Harigile**: 1976, *Santa Grazi*, herri hortan.  
*Orotara hamar trajeria antzeztuak euskaraz eta bat frantzesez.*
- 2- Allande **Aguergaray**, «**Bordaxar**»: 1985, *A. d'Oihenart*, Muskildin.  
*Beste pastoral bat 1996an: Sabino Arana Goiri, Garindainen.*
- 3- Jean-Michel **Bedaxagar**: 1998, *Agosti Xabo*, Urdiñarben.
- 4- Jean-Louis **Davant**: 1990, *Abadia Ürrüstoi*, Maulen (Xiberoko ikastolek).  
*Orotara sei pastoral antzeztuak.*
- 5- Pierre Paul **Berçaits (Berzaitz)**: 1991, *Harizpe*, Muskildin.  
*Orotara bost pastoral antzeztuak.*
- 6- Roger **Idiart**: 1991, *Xalbador*, Larrainen.  
*2001ean beste pastoral bat: Etxahun-Iruri, honen herrian.*
- 7- Patrick **Queheille**, «**Kanpo**»: 1997, *Herriko semeak*, Barkoxen.
- 8- Niko **Etchart (Etxart)**: 2002, *Urruti jauregiko Peirot*, Altzürükün.
- 9- Dominika **Recalt**: 2006, *Oiherkoren Trajeria*, herri ezberdinetako xiberotar batzuek emana Arbaila mendi saldoko Hegillorren, zirko natural batean, uztailaren zortziko gauan, argizagita xurian: trajeria librokori berrikusirik. Gainera badira hiru idazle, oraino antzeztu ez diren trajeriak idatzi dituztenak:
- 10- Jean-Pierre **Behocaray**: *Etxahun Barkoxe khantore egilia (Pierre Heguiphalen 1985eko frantzes idazkitik) - Jesüs Nazareth-ekoa*, 2004.
- 11- Jean **Bordachar (Bordaxar)**: *Monzon*, 2001, Arrokiagan ematekoa 2012an.
- 12- Maite **Berrogain**, ezkontzaz **Ithurbide**: *Catalina de Erauso*, 2008.

Munduko bi gerlen artean aipatu beharra dago Pierre **Apheceix**, Barkoxe Salahankakoa. Lehen gerlan handizki zauritua, Frantziako kanpaina kontatu zuen «Guillaume II» trajerian, eta hau Barkoxeko gerlari ohiek herrian anzteztu zuten 1929an. Historia orokorretik jardun zuen omen, berak bizi izan zuen historia berezia baztertuz. Euskal sentimendua puntu bakar batean agertzen du: hiltzera doan gerlari euskaldunak sorlekuari azken agurra hunkigarriki kantatzen diolarik.

Pastoralaren aipamena ez nuke horretan utzi nahi, pastoraletako bertsetaz bi hitz erran gabe. Bertset horrek ez ditu lau neurtitz, jende gehienek uste duten bezala, baina bi, nahiz usuenik lau lerrotan agertzen den, neutitz bakoitza erditik zatituz: orduan ere bi errima ditu gutiz gehienetan.

Pastoralari arrakasta handitzen ari zaio eta hedatzen publikoa. Publiko berrian bi joera ezberdinak, eta kontrajarriak ere agertzen dira: alde batetik historia ezagutu nahi duen gazteria eskolatua, bestetik entzun-ikuskizun polit batera datorrena, antza denez gainerako xederikan gabe. Zein ote gailenduko zaigu? Guduka ezkutu horrek pastoralaren geroa baldintzatzen du nire aburuz.

Etorkizuna zinez arriskutan ezartzen du, nire ustetan, idazlearen testuaz axolik ez duenak. Beti laburtzera bultzatu nahi gaitu, beti berrikuntza gehiago eskatzen digu. Holakoak ez daki zer den egiazki pastoral, eta ikasi behar du: erran diezaiozun argi eta garbi!

Pastoral ez da kantaldi bat, ez eta dantzaldi bat. Antzerkia da, teatroa da. Heroi baten edo talde baten istorio txikia kontatu behar du, ahalik eta ederkienik, historia handiari lotua. Istorio hori ezin da kontatu testu onik gabe. Marrazki bizidunetan ere, gertakarien argitzeko, erranaldiak agertzen dira. Testua gehiegi murrizten bada, istorioaren haria gal dezake publikoak, eta laister aspertu daiteke. Ongi jarraitzeko, azalpenak eman behar zaizkio, zubiak eraiki jelkaldien artean, haria ez dezan galdu. Testu laburregi batekin ezin da. Idazleak pastoral gogoko ez duenari ez dio amore eman behar, bere askatasuna zaindu behar du, gogoan duena idatziz maite duen bezala, oinarrizko egia bat errespetuz halere: testua enzuteko idatzi, ez irakurtzeko. Antzerkian ez dago atzera itzultzerik, dena erran arau entzun behar da eta ulertu, konprenitu, entlegatu.

## Allande (Arnaud) Agueraray (1943)

Muskildiko seme dugu, Bordaxarrekoa, fraidea, irakaslea lehenik Lurden, gero Donibane Lohizunen. Ziburun bizi da. Olerki bakartiak agertzen zituen artetarik, eta hona non 1985ean Etxahun-Iruri eta Junes Casenave erraldoien

ondotik, lehen pastoral idazle berri agertzen zaigun «A. d'Oihenart» ederraz, arrakasta handia bilduz bere sorterrian. 1996an «Sabino Arana Goiri» emanen digu, ederki hau ere, Garindainen.

Pastoralaren historia hurbilaz lan bat baino haboro idatzi du frantsesez. Artetik Barétous biarnes ibarrekoaren berri emaiten digu franko xeheki. Marluski osasunak ez du laguntzen idazle sotil, aratz eta jeinutsu hori: bulta honetan ez zen ageri. Baina ez zegokeen lo: hara non bat-batean lan eder bat aterra digun 2008ko uztaian, *Cent ans de pastorales en Soule et dans les Pyrénées, 1901-2000*, Ziburuko *Jakintza* kultura elkartearen laguntzarekin.

Haren lumaren berri zuzen baten emateko, hona zer dion Oihenartez, pastoraleko libretaren bukaeran, xiberotar grafia zaharrean (horri atxikia baitago, errespetatzen diot).

#### PHASTUALA

##### Xehetarzün zunbait hobeki ezagützekotan

(1) *Süjeta*: Egün, aiphatürrik date A. d'Oihenart, jakitate handikua, gizon entzüna, zuiñen pazentziak, korajiak, gogo eta bihotzaren zabalak, üztiak es-tonatzen beikütü orano, haiñ beitzen abantzian ordüko.

Lege-gizon zen Bordeleko khortian eta Pauekuan ere bai. Popülia, jente xehia süstengatü zütian trebetarzüneki, thai-gabe, begi huneki.

Egiazko gizon bat zen, bethi ikherka, ardüra kurri. Huna zer erraiten zian hartaz P. Lafitte zenak (nahiz gihaurk hitz bakant zunbait ezartez, hantxe hortxe): «Allande Oihenart etzen Zindik (eta lege-gizon) ahin bat. Bethi süstengatü zütian azkarki, borthizki, herrikuak eta borrokatü gogorki züzen-gaberen kuntre agitzen bazien herriaren gobernian. Ahalak oro lüzaz egin zütian Protestanten bestiak bezalakotü beharrez. Bürü egin zian de Treville ür-güllütsiari eta beste haren kholkoko gizoneri. Bere herritarrak lagüntü ükhen zütian beitzien Biarnes zunbait eta ere Basa-Nabartar zunbait laket zirenak haien ehelegatzen. Egia erranez, arthaldiak ere ebasten betzeitzen.

Gure phastualak, hürrüntik dütü ikhuserazten A. d'Oihenart zenaren do-haiñak, bai eta ere berheziki haren obrak. Zeren ere beitzen jakintsün, aita familiako, obra egile. Hürrün ikhusten zian. Guretako jarraikgarri.

Arra-har ditzagün P. Lafitten hitzak: «d'Oihenartek maite zian ere üskara. Hanitx alkhar izkiribatzen zian Allande eta haren adixkidiek, berheziki ordüko üskaltzale baziren, Sylvain Pouvreau bezala. Hareki, üskal gramatikaz eta üskal hitzez aiphüz ari zen. Bresetak ere huntzen zütian üskaraz zeren eta nahi beitzian, haren xediaren arabera, probatü, üskaraz, beste zunbait mintzajetan bezala —eman dezagün frantsesa, italianua, espaiñula— ahal ziela egiten breset xüxenak, phiko agitzen direnak.

Phastual batetan ezpeita gizon edo emazte baten bizitzia eta obrak oro hedatzen ahal, denbora eskaz delakoz, eztügü aski ikhusi zuiñ aita familiakua

izan zen A. d'Oihenart. Hiru seme ükhen zütian : gehiena, Gabriel. eskolatü-eta Bordelen, etxen, aitaren kargia hartü zian. Piarres bigerrena, apheztü zen eta erretor izentatürük izan Behauzen, Basa-Nabarrian. Aita ezpeitzen hartaz botz, bi hitz erran zeitzoan jakinerazteko Jinko-gizon behar ziala oroentako izan, batzarre egile güzier, denak süstatüz eta nigarrak txukatüz. Jakesek egin zian Jesuita hun bat. Agererazteko baimena xüberotarrez egin zaion: «Egia katolikuak» Gazteluzar Aitak muldatü zütianian.

Antoine III de Gramontek, 1660-an, haitatü zian A. d'Oihenart xehetar-zün eta nahaskeria zunbaiten xüxentzeko, aharra beitzen Hego-Nabarran eta Basa-Nabarrian, herri zunbaitetan.

Haitatürük izan zen ere, 1665-ian, aphez aldia bateki, dihariak ezpeitziren behar den bezala phartekatürük. Pelegrien Ordiñarbeko etxia Orreagako aphez-zer khent-eta, ezarerazi zian Baionako Aphezküpiaren menpian.

Badakigü ordeña A. d'Oihenartek egin ziala 1667-an, aphirilaren 8-an, Donaphaleün. Desprimütü phürü zian Piarres, bere semia eta Behauzeko erretora: haren bizitzeko manera ezpeitzian ontsa ikhusten. Bena halerik ere, zer-bait ützi zeion.

### *Nurat büriüz A. d'Oihenart so zen?*

d'Oihenarten ordietan, Züberuak bazütian lege xaharrak, izkiribüz ezari-rik izan zirenak 1520-an. Lege horiek sosegü hanitx ützen zien popüliari. Eta popüliaren baimenik gabe, bestek deüsere egiten ahal: ez aitun-semek, ez aphezek. Popülia biltzen zen Irabarneko oihanian: hori deitzen zen «Zilbie-ta». d'Oihenartek hürrüntik ikhusten zian jiten lege horik, erreposki, ttipi-türük izanen zirela, et(a) azkekenekoz ezeztatürük, popüliak sosegia galdürük. «Lege» edo «üsantxak» edo «kostüma xaharrak» d'Oihenartek aiphatzen dütialarik, ikhustera emaiten dü, harentako, behar ziala popüliak heien arabera bizi sosegü edo tregua ükheiteko. Barnatik eta xüxen ikhuten ziala d'Oihe-nartek! Eta mesfida den bezala, XVIII-en mentian agitü zen.

### *(3) Gaixo Matalaz!*

Üskal Herrian badakigü nula gerthatü zen gerla Xiberuan. Lehenik, de Trevillek erregeren funtsak, Xiberuan, erosi zütian, gero popüliak phakatzeko-tan. Gero Toulougeon, Agarramuntesak, legarrak, hiru aldiz haboro, emen-datü zütian. Phentsa nula ziren miseria eta nekezia gorrian heben gainti! Ezin-bestian, Matalaz, 7000 xiberotarreki altxatü zen emanik zaflaldi bat Calvo(r)en soldaduer. Ordian, Calvo delakuak, gaitzitürük, ekharerazi zütian 400 zaldidün eta ehün beno haboro gizon. Xüberotarrek galdü zien Sohütan gü-düka. Matalaz ezkapü zen bena badakigü nun eta nula atzamanik izan zen, bertan kundenatürük. Büria muztü zeioen eta barrarekin, errota baten gaiñen khorpitza xeheki. Haren korpitza, de Maytie Aphezküpiaren manüz, ehortzi-

rik izan zen Berhütan, elizako althare aitzinian. Haren büria, ezpata baten phüntan ezaririk izan zen. Bena ez lüzaz: Khiristiek har-eta, ehortzi zien. Ro-quehort lagünak kasik ber zorthia ükhen zian; besti(a)k despeditürük izan ziren orozbat, galeretarat.

(4) *A. d'Oihenart etxe-gizon*

Bidaxünen, Agarramuntesentako, kargü hori konfidantzazko kargia. «A. d'Oihenartek zütian oro junerazten. Bi Agarramuntesentako izan zen zerbütxari: Antoine II eta Antoine III-entako. Ber denboran, soinu hartü zian librietaz. Eta nun zer agitia nausiarentako, izkiribüz ezarten zian». (J. Robert).

(5) *Zer da phastuala?*

Xiberoko antzerki xahar eta beti berri hau zer den erraiten deigü Allandek, eta bere ikasgeia aholkü hon batez ürrentzen: «Phastual egünian, libreta eros eta ütüz ezazü sakolan edo beste nunbait eta, gogo bihotz güziez so egiezü atür horier. Entzün itzazü, ekhi-sarian, kürrak zeliala aidatzen. Amira itzatzü arropak, Türken eta Khiristien ürhatsak, güdükak, Satanak kasik txoriak bezala aidatzen beitirade...».

Agertü düdan biografiaren aitzinetik, Oihenarten bibliografia eta idazlaren zerrenda bat emaiten dü Allandek: «A. d'Oihenarten izkiribiak», eta segidan «A. d'Oihenarten obrez izkiribatürük izan dena».

Hori güzia beraz «A. d'Oihenart» pastoraleko testuaren eta bi erdaretako ützülpenen ondotik. Trajeria hau Muskildin antzeztü zen 1985eko üdan, eta bere herritarren artean erauntsi züan idazleak, Conget apezaren leküan, hiltzera zoan Matalazen parkazale bezain kontsolazale, hori beitzen Maytie Olorueko xiberotar apezküpiaren ordaria eta beso esküina «Züberoa Herrian», kargüa Belapeyreri ützi arte.

**Sabino Arana Goiri pastoral:**

**Azken khantoria**

277

Herri huntan gitian sar alegrantzian,  
Egün zabaltü beita gure aitzinian,  
Euskadi maitiaren uhure handian,  
Lili bat aphaintürük güziek batian.

278

Bizkaiko probintzia da paregabia,  
Tresnadün behatzen dü larguaren deia,  
Aspalditik famatia horko popülia,  
So egin geruari, Bizkaiko Jentia.

279

Agur eta uhure Hego Eüskaldüner,  
 Besta bat egin dügü zier dener esker,  
 Zieki Ipharrian hartü dügü plazer,  
 Egon gitian bethi Eüskaldün (e)ta müger.

280

Battit(a) errejentari eskerrak gogotik,  
 Zumat phena hartürük phastoralaren gatik,  
 Xiberuan eztira segür ahazerik  
 Azken hau har ezazü bihotzan erditik.

281

Triate gorenian hor bihotzer phara,  
 Gorri, xuri (e)ta berde ikhurriña ejerra,  
 Güzier mezüzale gainetik behera,  
 Etxek Eüskal Herria bakian (e)ta gora.

Hitzak: Allande Bordaxar / Ahaidea: Pierre Paul Berzaitz

## Jean-Michel Bedaxagar (1953)

Urdiñarbeko burdin-arotza, kantari bezala ezagutua eta maitatua da Euskal Herri osoan. Kantore zaharrear eta folklorean egiazko aditu bat da. Aho-mihiz bertsoan saiatu zen gaztetan, baina lehiakiderik ez zuen Xiberoan pilotaren itzultzeko. Kantore «ontzen» ari da noiztenka, eta bat famatua badu, «Nafarroa» delako jota: «*Agosti Xabo*» pastoralean agertu zuen, honen idazlea izanez, bai eta «*süjeta*», Urdiñarben herritarrek eman zutelarik 1988an.

### Nafarroa

#### (8. jelkaldian)

Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa!  
 Arbasoen arkaitza,  
 Lür emankor hezkaitza,  
 Bedatseko ekaitza,  
 Ekiaren emaitza.

Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa!  
 Gaztelien auhena,  
 Santxoren hasperena,  
 Gazten itxaropena,  
 Zazpietan lehena!

Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa!

**Jelkhaldi 13**

*Jelki Xabo eta Beltzuntze bizkontea, Lespez Baionakoarekin, Bordahandi inprimürra, Cadillon litografa.*

Iparragirrek Xahori kantatüak Baionan:  
Ikusi det Frantzia baita Italia (lau bertsoak).

*BELTZUNTZEKO BIZKONTEA:*

Baiona arthizarrian,  
hau da hau gerthakaria:  
Azkenian badükegü  
eüskaldün agerkaria!

*XAHO:*

Goiko goresmenetarat  
heleraz enezazüla:  
Jauna, bermü gabe lan hau  
lizate oso ahüla!

*BORDAHANDI*

Aphür bat ekharri dügü  
Gure lan jakitatia,  
Apüñatik altxatzeko  
Xahoren jakitatia.

*CADILLON :*

Ikusteko lizateke  
Agostiren gar süharra;  
Taldian sor arazi dü  
izigarriko oldarra!

*LESPEZ :*

Baionatarra izatez,  
Xaho zinez botzik nüzü:  
Zure obren goititzeko  
Lespezenia hor düzü!

*XAHO :*

Ariel izan dadila  
hebenko berrikaria,  
Geruari zabaltürük  
eüskaldünen lokharria!

*Jelki hiru motbiko zainhart: eskentzen die Ariel popüliari (Arielen leben zenbakia).  
Oro erretira.*



*Taldeko abaide bat:*

Behin hartürrik amorostako phastoral maithagarria,  
Bost hilabetez eraiki dügü egünko ikhusgarria.  
Ziek jarririk, gü taulen gainen, popülü agurgarria,  
Betha dadila heben, oithian, zure jakin egarria.

Dügün batian egün goretsi atharraztar handiena,  
Hari eskentzez ziberutarren omenaldi ederrena,  
Bena lehenik nahi günian, hau da aiphagarriena,  
Ülhünpetarik argitaratü Xahoren orhitzapena.

Zahar (e)ta gazte, gizon emazte, adixkidantza azkarra  
Dantzari sothil eta khantari, graziarekin indarra;  
Jünta ditzagün, oi gure botzak, orai danik har oldarra,  
Bi mila urthez bizi dadien Ziberuko jei zaharra.

### **Jelkhaldi 27**

*Jelki Xabo eta Edurne: Edurne jarten da. Xabok kantatzen dü neskatiler eta emazter bü-  
rüizko kantorea:*

Hur dohatsien photeriak,  
Gure lamiñen ageriak,  
Aro txarren atheriak,  
Agur, herriko anderiak!

Gerezitziak lilitan,  
Erreka berde urdinak,  
Zohart ihitza dirdiran,  
Bortüko izar arhinak.

Üdako egün ahazkorrak,  
Ülhün ñabartze ahalkorrak,  
Gaiazko amets emankorrak,  
Ürzo bidajant iheskorrak.

Gerezitziak lilitan,  
Erreka berde urdinak,  
Argizagia distiran,  
Eta gizonen bardinak.

*Biak erretira.*

## Pierre-Paul Berzaitz (1952)

Muskildiko seme hau Pauen bizi da bulta honetan, eta alde hartan lan egiten du banko batean. Gazterik kantan hasi zen «Guk» talde mitikoan, eta kantari sonatua dugu. Idazlea da gainera: bost pastoral baditu plazaratuak, eta beste bost antzerki berri, kantatuz eman direnak. Kantore «ontzen» ere trebe da, musika barne. Eta abantaila handia, berak eman ditzake, hain ederki...

### TRAJERIA/PASTORALAK

- 1- Harizpe, 1991, Muskildik.
- 2- Atharratze Jauregian, 1997, Atharratzek.
- 3- Madalena de Jaureguiberry, 2000, Eskiulak.
- 4- Ramuntxo, 2003, Idauze-Mendik.
- 5- Bereterretx, 2005, Ligi-Athereik.

### ANTZERKI BERRIAN

- 1- Oihenart Ikusgarria, 1992, lehenik Maulen
- 2- Elkanoren Semeak, 1995, Pauen
- 3- Euskal Spiritu, 1999, Berrogaine-Larüntzen
- 4- Zamaltzain, 2003, Maulen
- 5- Orreaga, 2008, Baionan.

BIDEGILEAK sailean: *Madeleine de Jaureguiberry*, 2000, n° 19.

Orokorki Berçaits artista handia da, gizon-orkestra: denetarik egiten du, eta ongi egiten. Gisa horrez Etxahun Irurikoaren ondokoa dugu ene ustez: itxuraz eta maneraz ez, segurki, denborak ere zinez aldatu baitira, baina bai Xiberoan eta beste probintzietan betetzen duen lekuaz, eta lehenik gizon-orkestra izateaz.

### Harizpe pastoralean:

#### Baratze bat

Hau da egün ederra  
Mila txoriek kanta  
Tziauri ene (*i*) erregiña  
Besoak zuri dititzüt para.

Gaü beltz (*e*)ta sakonetik  
Elkitzen nük hoztürik  
Bihotza hain tristerik  
Hitaz üsü berantetsitürük.

Karrosa bat hor dügü  
Kanpoan gure haidürü  
Ez gal haboro denbora  
Hiskor beitago amodioa.

Maitarzün berriari  
 Ilargiak dü argi  
 Emanen deikü aski  
 Gük elgar maita dezagün beti.

*Arrapika*

Baratze bat nahi deizüt egin  
 Amets segetüenekilan  
 Liliak egün jauntsi ederrenetan  
 Mila kolorez dantzan bihotzetan.

**Amodiaren pena**

**(Baratze bat diskotik)**

Amodioaren pena, oi pena handia  
 Nork ez dü behin üken bizian berea  
 Ez da mündü hontan amodio irusik  
 Urte(e)n higadür az sofritzen ez düanik.

Bakartasüna gero jauregi bezala  
 Etxe hütsean soil da amoros tristea  
 Amentsak joan dira beren gisa bidajez  
 Hil gintaizke ordüan hainen gogo honez.

Denbora da epaile omen hala diote  
 Amodio xangrinek maskatzen gütüe  
 Astüratzen gira, ben(a) ez dügü ahazten  
 Bihozminek lüzaz beitüe irauten.

Agian egün batean mündüko bideetan  
 Agitüko gütüzü biak ber leküan  
 Hitz hütsez dereizüt erranen nola zira  
 Et(a) ez behatüko zure ihardespena.

*(Hitzak eta müsika: Pier Paul Berzaitz)*

## Roger Idiart (1931)

Azkaindar apez hau, Hazparneko Laborantza Eskolan frantsesez irakasle izan ondoan, Zalgizeko erretor egon da luzaz. Luma ona du lapurteraz, eta gure euskalkian ere ikasi du arras ongi. Horretan «ondu» du kantore andana bat, bai elizako, bai kanpoko. Ebanjelioen laburpen bat agertu du koblatan «Berri Ona» delako liburu txiki batean. Kazetetan ere ari da, gehienik lapurteraz. Gero Zuraiden egon da, lapurtar herri andana bateko erretor.

Bi trajeria zor dizkiogu: bata «*Xalbador*», 1991an Larraineko herriak han emana; bestea «*Etxabun-Iruri*», 2001ean Iruri eta Zalgizekoek Irurin antzeztürik. Biek gaitzeko jende zionea bildu zuten.

Xiberotar grafia zaharrari atxikia baitago, Allande Aguergaray/Bordaxar bezalaxe, berak erabili duen idazkeran uzten dut.

**Xalbador pastorala:**

**Azken pheredikia**

246

Urepeleko Lür huna  
Koblakari emailia;  
Egün aiphatü dügüna,  
Bekhan sortzen den lilia.

247

Xalbadorren bihotzetik  
Hegaltatü da bizia  
Nula gal gure gogotik  
Ützi dereikün mezia?

248

Oi ! Gure bertsolaritza,  
Izar Üskaldünen hitza!  
Lüzaz hola giti(a)n mintza:  
Gabia lizate beltza!

249

Ez da pelotakaria  
Txapeldün heltürik sortzen;  
Ber gisan koblakaria  
Nekez baizik ez trebatzen.

250

Koblakan ezta seküla  
Miraküüllürik egiten:  
Jokü orotan bezala  
Ari denak dü ikhasten.

251

Khorpitzaren janharria  
Edireiten da txerkhatüz,  
Arimaren hazkürria  
Goraxagoñi alhatüz.

252

Xiberuko alhagietan  
Jiten zaikü bazka hunik,  
Aldiz, oraiko gazte(e)tan  
Nur koblakan ari denik?

253

A(r)auz gure Basabürrian  
 Harrotüren da jentia,  
 Süthondoko hautsen pian  
 Bizi beita sü-Azia!

254

«Üskara da bizi nahi»  
 Hortaz badügü erraile...  
 Guretako izan bedi

XALBADOR ARGI EMAILE!

**Etxahun Iruri *pastorala*****Etxahun Iruri****(*azken kantorea*)**

Txülüla joile, pilotari,  
 Jauzi emaile, koblakari  
 Artetan ere laborari,  
 Üsü ametsetan ari,  
 Horra nur izan ziren, Etxahun Iruri:  
 Gano handiko poeta eta zuiñen maithagarri!

*Arrapika*

Etxahun Iruri,  
 Xiberuko lilia,  
 Maidalenako maxelatik  
 Hegaltatü txori khantaria,  
 Zük düzü arraphiztü  
 Jei zaharren leinhürria,  
 Ezinago maithatürik Üskal Herria. (berriz)

Üskaldün hanitx beno lehen  
 Üskaltzale agertü zinen.  
 Zure denboran ari beitzen  
 Xiberuko jeia galtzen,  
 Ordian zinen hasi bazterren harrotzen:  
 Bekhan dizügü ikhusi, txori bat hain gora heltzen.

*Hitzak:* Roger Idiart.*Abaidea:* Jean Etxart.

## Patrick Queheille (1965)

Barkoxtar hau bere herriko «Kanpo» etxean bizi da familiarekin. Sohüta-ko ikastolan aita-amen lehendakaria da orain. Kobla idazle trebea dugu: bereziki Etxahun-Iruri lehiaketa irabazi zuen 1999an. Pastoral idazle gazte agertu zen 1998an bere Barkoxen, «*Herriko Semeak*» trajeriarekin. 2002an hor emana-razi zuen molde berriko antzerki bat, «*Lau Büriü*». Bigarren pastoral bat idatzi berri du, Alexis Etchecopar «*Attuli*» barkoxtar kantoregile zenaz, eta Barkoxen emango diote 2010ean.

**Herriko Semeak pastorala:****Azken perediküa**

229

Esker mila deizüegü / so(ë)gile maitagarriak  
Ekarri beiteizkützüe / egün züen süstengüak.

230

Paseiatü zütüegü / Barkoxeko (b)istorian  
Gizon famatüen txerka / beren bizi ürratsetan.

231

Mardo bertso hontzalea / Etxahun koblakaria  
Uthurburu emaila / hiruek maite herria.

232

Horien oritzapenetan / maita dezagün herria  
Eta harekin batean / Eüskal Herri aberria.

233

Hontarzün ützi deiküe / zonbat kantore betiko!  
Floreana aldiz ihesi / ametsetan sekülako!

234

Bena gure arbasoen / aberastarzün handia  
Ez lizatea deiküen / erakatsi mintzajea.

235

Gük ere ordü deno / jünta ditzagün indarrak  
Damüz izan ez gitean / hizkuntzaren ehorzleak.

236

Eüskal üsantxen geroa / zohardi date ordüan  
Ützi deiküena lantatzez / gure haurren bihotzetan.

237

Hortan ützen zütüegü / pastoral adiskideak  
Hon har etzatzüe otoi / barkoxtarren goraintziak.

(237 hortan ez dira sartzen kantoreetako bertsetak)

**Xibero bat, bi Etxahun**

1

Egün botzik ausartzen, lotürrik lümari  
Idazteko bidean, hitzez niz egarri  
Eman deiküen geia dügü hunkigarri  
Xiberoa bat beraz, eta Etxahun bi.

2

Zazpietarik zira ttipiena gaixoa  
Bihotzeko maite(e)na, sorlekü goxoa  
Poeta betsülari, ütürri beroa  
Bi Etxahunen ama, Agur Xiberoa.

3

Ama bat baizik (e)ta bi seme koblakari  
Ber izena ekarten, algarren üdüri  
Biak ber ofizioz ziren laborari  
Bena ez ber herriko, Barkoxe, Iruri.

4

Igaran mentekoa, Etxahun Barkoxe  
Haren kantoreetaz beti gira gose  
Bere bizi tristea nahi züan hautse  
Oro galdü zütüan, etxalte (e)ta etxe.

5

Dohain handia züan kantore hontzeko  
Hiz zorrotzak egarten, mingar erratzeko  
Obra ederra ützi deikü ohartzeko  
Oritzapen azkarra Barkoxtarrentako.

6

Mente hontako dügü Etxahun Iruri  
Mündüan famatürrik beitzen koblakari  
Xiberoa zabaltüz Eüskal Herriari  
Hainbeste zor deiogü, esker mila zuri.

7

Pastoral oihanean, zü zira haritxa  
Ozenki beiteiozü eman zure hatsa  
Eüskaldün historiak ülün petik altxa  
Süjeten laüdatzeko so(e)gile(e)n ametsa.

8

Ondokoer hedatü deiküe sügarra  
Eüskararen gozoa, hontarzün bakarra  
Haien ohoretan sor dadin indarra  
Hebentik ohiltzeko betikoz erdara.

9

Xiberoko zelüan, poeten izarrak  
 Haietarik biga, bi Etxahunenak  
 Sekülakoz argitzen dütüe bazterrak  
 Kantarien gogoak, zilarrez direnak.

«Etxahun saria 99

## Niko Etxart (1953)

Parisen sortua aita-ama altzürükütarretarik, Zuberoan plantatu zen gazterik, horiek eta Jean anaia bezala. Euskal rockaren sortzailea izan zen 1970 urteetan. Ofizioz musikaria da bulta honetan, hitzak eta musika idazten ditu, baita publikoan abesten, dela taldean tresnekin, dela botz hutsez (a cappella) hirukotean, bere aita Dominika Etchart Larraki (Altzürükü Larrakiko semea) eta Robert Larrandaburu koinatua lagun. Dominika aspaldidanik kantore «ontzen» ari da, eta Jean seme gazteagoa ere bide horretan jarraikitzaile du, nahiz testu idazle baino gehiago, ahaire moldatzaile den eta «Altzükütarrak» taldean kantari. Gainera Nikok Altzürükün 2002an emaniko *Ürrüti Jauregiko Peirot Pastoral*a idatzi. Hona trajeria horretako kantore bat, «*Ama mintzoa*», eta antzerkiko *Azken perediküa*.

### «Ama mintzoa»

#### Hitzak eta Musika: Niko ETXART

Altzürükütarrak dü elestan  
 Begiratüren mihi püntan  
 Ama mintzoa, oi! ama mintzoa.  
 Egün oroztako bizitzean  
 Baliagarri da orotan  
 Ama mintzoa, oi! ama mintzoa.  
 Xiberotarrek alkarrekin  
 Lagünt dezagün ber ürratsean  
 Ama mintzoa, oi! ama mintzoa.

Hona jadanik urte sobera  
 Gük errespetürük gabe  
 Zokoratürük etxeki zütügü  
 Etxeetan ohartü gabe  
 Hona jadanik urte sobera



Ahalkeak irabazten  
 Gük altxa berriz bürüa gora  
 Zütan beitüğü sinesten!  
 (Ama mintzoa, mintzoa...)

Gure izate, nortarzüna  
 Ünibertsala, güziena  
 Ama mintzoa, oi! ama mintzoa.  
 Gaur azkenean ülünetik  
 Gük salbatüren bai hitzetik.

Ama mintzoa, oi! ama mintzoa.  
 Altzürükütarrak dü elestan  
 Begiratüren mihi püntan  
 Ama mintzoa, oi! ama mintzoa.

### Azken perediküa

162

Pastoralaren majiak / etxeki gütü bildürük  
 Eta plazer egin deikü / hainbeste jente ikusirik.

163

Herriko seme baten / historia düğü kantatü  
 Fama handiko gizona / herriak dü uhuratü.

164

Gizon güziek bezala / bere bizi ürratsetan  
 Peiretek egin haütüak / denal ez ziren (b)on izan.

165

Bere garaian halere / galdü düğü gisa batez  
 Gütian autonomia / frantsesen logikan sartzez.

166

Bena hala da historia / zori(h)onez aldakorra  
 (e)Ta gure eskü baratzen / gü ez gitean izorra.

167

Xiberoak betidanik / lanagatik borrokatzen  
 Gaintitüz traba güziak / itxaropentsü agertzen.

168

Altzürükütarrak segür(r)ik / eüskara dü ama hizkuntza  
 Izpiritüz ere zabala / behar delarik bortitza.

169

Trajeria hau bürütürük / harro da altzürükütarra  
 Aspaldidanik ez beitzüan / jorratü «Arte» zaharra.

170

Xiberoan azken urte(*e*)tan / pastoralak dira nasai  
Urtekal bat eta aski / ez gitean egin etsai.

171

Hortan üzten zütüegü / ahalaz eta gustüan  
Largatzen ahalko zide / herriko ostatüetan.

(171 zenbakian ez dira kontatürik kantüetako bertsetak)

### Maite zaitut maitea

Ahaire hau nik asmatü nizün goiz batez kitarrarekin  
Amodiozko gei bat jarri nizün, eskentzen deizüt klarki  
Sonü hontan, sonü hontan, hitzez erran nola maite zütüdan. (bis)

Ez nüke nahi hitza baliatü lehenekoek bezala  
Amodiozko kantore zaharrak dü berritzeko beharra  
Ürzo xuri, edo lili, izar maite, zerbait berri nahi nüke  
Hitzak praube, ez düst uste, nola nahi amodioz niz egarri.

Amodioz gose eta egarri, berriz aipatzen deizü  
Sendimentüz bihotzak badaki, nola erranen deizüt  
Ahotik hots, bihotz gogoz, ahotik hots, ahoko hitza da hotz. (bis)

Zuri hontü ahaire hontan ez dit ez azkenean hitz berririk atzaman  
Hitza sortzen da bihotzean izanik ere bero hozten da ahozkatzean.

Ene ürzo lüma gris gaixoa, ene izar maitea  
Ene ba(*ra*)tzeko bihotz eztia, bai zü ene maitea  
Erraiten deizüt, orai ordü da, erraiten deizüt  
Maite zütüt maitea.

## Dominika Recalt (1959)

Altzabehetiko seme hau, Jean-Pierra Recalt pastoral errejent ezagunaren anaia dugu. Euskara sotil, aberatsa du, eta euskal irratietarik entzuten dugu zein trebeki derabilen berriemaile lanetan. *Oiberkoren trajerian* erakusten du gainera luma ona duela.

**Entrada**

Agur bero bat züer lehenik  
Giraden güzien ganik  
Esperantxa dügü ontsa jarririk zidela  
Nahiz ez mardo izan jargia.

Jei hontan aipagei dükegü  
Betiko biziaren dantza  
Eta hari lotüak diren  
Erabakien balantza.

Badira prest direnak  
Zerbaitxko izateko  
Saltzera beren arima  
Halakoa dügü Oiherko.

Eskeinirik zaion bizia  
Berari ez zaio aski  
Ohore eta fama  
Güstüko beitütü naski.

Traiditüko dütü bereak  
Amets handiusetan ebiliz  
Ustezko lagün berriak  
Ariko zaitzolarik erriz.

Istoria honen irakurketa  
Bakoitxak egin dezala  
Gük eskeiniko deizüegü  
Idatzirik izan den bezala.

Gure nahikeria da  
Ixtant bat zite(*i*)en liberti  
Antsi(*a*) hau gogoan  
Jelkaldiak bite parti!

**Bigerren jelkaldia***Jelki alhaiztarrak.*

Errege zaharra

1

Biziak eman zeitadan  
 Mündü honen gozamina  
 Bürüala arte zait joan  
 Heriotzari бүрүз noa.  
 Errege zaharra *bertsoz*

2

Herri honen artzaingoa  
 Izan da ene gomendian  
 Zorteak emanik manüa  
 Heriotzari бүрүз noa.

1

Oiherko izan hadi  
 Zühür eta argi  
 Errespetü emanaz  
 Merexi düanari  
 Egar nahiküntea  
 Bazter jeloskeria  
 Jarraik hire bidea  
 Bürüa beti gora.

II

Urteak joan dira  
 Mentez eramanak  
 Atzo baziratekenak  
 Gaur baiko iraganak.  
 Nahiz ahürraren gainka  
 Badoatzan egünak  
 Abil, bizitik haziz  
 Oraitik dagünak.

III

Larri balinbadira  
 Ekiaren beroak  
 Ütsalarazten badütü  
 Mahatsen molkoak,  
 Belhi begiko haritzak  
 Zoin berde ostoak  
 Lanharteko oihanean  
 Beltz izei ondoak...

## IV

Lehenak galtzen düti  
 Ostoak larrazkenean  
 Besteak etxekitzen düti  
 Bereartan negü betean.  
 Hihaurk beharko dütiük  
 Hautü berrak egin  
 Bizi hizano eman  
 Edo hil altxorrek.

## V

Ene lagün fidelak,  
 Eni zite<sup>(i)</sup>e hüilant.  
 Bürüko azken oharrak  
 Nahiz ez diren sabant,  
 Izan ditean züenak,  
 Nintzate bai nahiant,  
 Amestüz biharamenak,  
 Irus eta galant.

## VI

Ahültü zait bularra  
 Flakü hasperena  
 Ondoan goaita hor düti  
 Ene azken orena.  
 Lür hazle izatea  
 Kargürük ederrena:  
 Arraro izan dakiola  
 Nizan ahamena ...

2009ko pastorala, *Belbagileen trajeria*, Dominika Recalt horren lumatik antzetzuko dute Aloze-Ziboze-Onizegaineko herritarrek.

## Jean-Pierre Behocaray (1940)

Sohütarra, Hoki auzunean Bizkai etxaldeko jabea, laborari ohia, orain Sohütako (Sorhoetako) hirigunean erretiratu, koblakaren maitalea izan da beti. Ahoz saiatu izan da, baina lehiakiderik gabe gelditu. Haatik idatziz trebe dela erakusten du, bereziki lehiaketetan eta 2001ean *Xiberoko Makia* pastoraleko azken kantorean, horren hitz hunkigarriei musika ekarri baitzuen beste herritar batek, Ezpeletako seme den Jean-Louis Recondo kamioilariak.

**Libertatearen itxüra**  
**(Azken kantorea, sohütarrena)**

246

Gaztelai pünta lanageri, goizean bellotzen ekiari  
 Aize hegoak kantatzen bakeari, haren airea hunkigarri  
 Txoriak mezü bat ekarri, herriko plazan zela berri  
 Karrika, Aranbeltze (e)ta Hoki, Jüntatürük oro algarreki!

247 – *Arrapika*:

Jakin dügü berria, salba dela herria  
 Hürüntik ageri da haurren erria  
 Gazte(e)tan kantaria, orotan batzarria  
 Holaxe maite dügü Euskal Herria.

248

Aide sanoak oihanetik ezarten dütü horko jenti(a)k  
 Gure kültüra ederrari lotürük, kantore (e)ta dantza jauzi(a)k  
 Pastoralalde batetik, üsantxa zaharrak bestetik  
 Opari gisa eskentürük, hola da Sohüta ospatürük.

249

Ez dezagün ütüz eihartzera zaharrek lantatü arbola  
 Mintzajea beita kültüraren zola, gure haurrentzat ikastola  
 Lüzaz etxeki dezagüla zainetan euskaldün odola  
 Gure kantü eta kirolak, aitzina beti Sohüta hola!

250

Hau günüan denbora goxoa, jei honen antolatzekoa  
 Lehena mente hatsarre hontakoa, egonen beita betikoa  
 Orai jinik da mementoa züetarik bereiztekoa  
 Züentzat gure amodioa, agur eta gora Xiberoa.

*Arrapika: 247.a bi aldiz, eta 2.ean azken 2 neurtitzak honela:*

Agertzen kolorea, berde xuri gorria  
 Holaxe maite dügü Eüskal Herria.

Gainera Behocarayk bi pastoral idatzi ditu: *Etxabun Barkoxe kbantore egilia* (1985) eta *Jesüs Nazareth-ekoa* (2004). Lehena ützülpentzen-egokitze lana dü, Marcelin pastoral errejent zenaren seme den Pierre Heguiaphal irakasle ohiak frantsesez idatzi baitzuen lehenik. Topeten egiazko historian oinarritzen da, Jean Haritschelharrek eginiko ikerketen ondorioz, Bordazarrerena horien aitzinetikoa delarik, aho-mihizko istorioetan eta Lhande-Larrasqueten liburuan erroterik. Baina neke da Irurikoaren aurka joaitea eta barkoxtarrek sohütarrena ez zuten onartu, konprenigarri den bezala: 1986an ohikoa antzeztu zuten. Bigarren antzerkiarekin ere ez zen «xantzatiü» Behocaray: Junes Casenave lehen-du zitzaion bere urratsetan eta honi *Jesüs* trajeria 2006ko udaberrian jokatu

zioten Maulen Saint François ikastetxeko ikasle gazteek. Haatik sohütarraren kopia bat badago Billbon, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan.

### Jesüs Nazareth-ekoa

#### 27. jelkaldia

##### *Pilatoren kondenazionea*

Pilato eta bere Anderea, Kaife, Jesüs eta Barrabas estekirik, lau soldado.

##### *Pilato*

Badü hogeita hamar urte / heben gobernadore nizala!

Eta ez niz egündano / traholatü orai bezala!

Gizon hau ekarri deitade / nik kondenatzekotan,

Eta ez deiot nihon ere / ogen buxi bat atzaman!

Bazkoren ohoretan / libra dezagün kontzientzia!

Gomendatzen dereizüet / Jesüsen libratzea!

##### *Kaife*

Entzün ezazü kanpo hortan / popülúa nahas-mahas!

Harek nahi likezü / libra dezazün Barrabas!

##### *Pilato*

Barrabas oker bat da / gaixki hanitx eginik!

Jesüsek aldiz ez dü / ihori egin ogenik!

##### *Emaztea*

Otoizten zütüt maitea / ez sar bürüa lürpean!

Gizon hori onest beita, / ütazü libro bakean!

Barda orano egin dit / amets bat penagarria!

Jüsto horri pentsa eta / sofrimen izigarria!

##### *Pilato*

Behar dügü azkenekoz / izate hori xüxentü!

Jesüs ala Barrabas / zoin behar da libratü?

*Popülüak gibeletik:* «Barrabas! Barrabas!»

Azken gaüza partitzeko / hitzart dezagün akortean

Jesüs deitzen den horri / zer behar deiogün egin?

*Popülük gibeletik:* «Kürütxean! kürütxean!»

Honek isuri odolaz / ez niz kargü izanen!

Jüsto honen geroaz / esküak beütüt xahatzen!

*Pilatok lağınt Barrabas soldadoeki.*

Barrabas erretira zolatik (libro)

Besteak erretira

## Jean Bordaxar (1958)

Paper ofizialetako grafian Bordachar, Arrokiaga (ahoskeran Arrokiaga) Hanikibordako seme da. Orain Maulen dago familiarekin. Gainera aita sortzez mauletarra du. Jean kantugile joria dugu hitzez eta musikaz, berak kantatzen dituelarik bederazka edo taldean, beste idazle zenbaitenak ere tartean, bereziki Itxaro Borda eta J.L. Davantenak. Monzon pastorala idatzi du 2001ean, eta laster antzetzuko diote, agian Larrainen 2011an.

**Eüskararen jakiteak deüs ez ekarten ?**

1

Ihardetsi nahi dü, ez niz dohakabe  
Elebidün girela, eta etxe(a)n jabe  
Ekintza güzietan ez gira herabe  
Nortarzüna gogoan, ahalketü gabe.

2

Jakitatea bada müdüan hedatü  
Mintzaje honekila zait eneganatü  
Alta bigabostetan badüe zapatü  
Bardin gizartea dü ederki moldatü.

3

Altxatü behar dügü orai egoera  
Eüskararen ildoa beitoa behera  
Gei honen aipatzeak, ene arabera  
Ama mintzoari dü emanen eskerra.

4

Mintzaje baten hatsak, nork daki zertako  
Bihotzetik buhatzen axoldüentako  
Arbasoek emanik hitza denentako  
Begira dezagün hau bihar haurrentako.

5

Norbait horrek hor badü zerbait goresgarri  
Ikusi nahi nüke gaü eskolan sarri  
Eüskararak aurkitürük bere altxagarri  
Haurrak ere ondotik ikastolan ari.



*Urdiñarbeko Musikaren Egüñean 1. Saria 2003eko primakan.  
Lebiaketa hori bost aldiz egin da 2001ean hasirik, eta urte hortan ere Bordaxarrek irabazi züan.*

*2002an eta 2004an 2. izan zen, Michel Etxecoparren ondotik.*

**Telesforo Monzon Trajeria :**

**Azken perediküa**

Eskerrik hanitx oroer  
egün beitzen miragarri  
Omenaldi baten hatsa  
züekin zoin altxagarri.

Gizon handi batekilan  
egin dügü bidajea  
Bere denbora güzian  
üken beitu sinestea.

Kantore eta antzerki  
itzaleko borrokari  
Historiaren ardürak  
merexi dü oritgarri.

Eüskaldüñen altxatzeko  
zütüan gano güziak  
Haren lanaren segidan  
zabal detzagün begiak.

Eüskaldünek üken düe  
müga bat üsü erdian  
Eta noiz ahal dateke  
ibilten ber baratzean.

Eüskararen jarraikigoa  
behar da gogoan hartü  
Arbaso irakaspena  
gure üngürüan sartü.

Orit gitean halaber  
Europa egiten dela  
Eta eüskaldünak ere  
presoetan badirela.

Demokrazia dateke  
 agian gure salbamena  
 Eta gazteriarentzat  
 esperantxa hoberena.

Gur(e) Eüskal Herri maitea  
 laüdatü züan Monzonek  
 Ahalaz egin dezagün  
 geroari indar denek.

Hortan üzten zütüegü  
 guri soegile güziak  
 Parka gure hüts txipiak  
 berriz ere goraintziak.

## Maite Berrogain (1952), ezkontzaz Ithurbide

Sortzez Urdiñarbekoa, Baionan idazkari lanetan dihardu euskal kulturako erakunde batean. *Katalina Erausoz* antzerki bat idatzi berri du, *Catalina de Erauso*, agian pastoralala/trajeria izango dena, egiazko tragedia baita, eta trajeriaren egituran idatzia. Azkenean emakume bat idazle jalgiko zaigu plazara gure antzerki zahar eta beti berrian! Zinez poztekoa zait. Oholtzara igaitea merezitirik, «türk» eder eta larderiatsuen gradoa irabazirik, hona non andereak pastoral baten ama izateko zorian dauden lehentze Maite horri esker. Zorionak, eta Katalina Erausoren bidetik jo aitzina, haatik ezpata aldagelan utzirik!

### Catalina de Erauso (antzerkia)

#### Lehen perediküa

1

Agur jente güziak  
 haur, gazte, adineko  
 Denak pastoralzaleak  
 jei hau düzüe gogoko.

2

Egünko gei harrigarriak  
 hürün eramanen gütü  
 Hamasei, hamazapigarren  
 mentean beitzen agitü.

3

Historia da egiazkoa  
süjetak idatzitakoa  
Mündüan ezagüna  
deitzen da Katalina.

4

Itsas kapitaina da  
aita Miguel de Erauso  
Ama Maria Galarraga  
aberats bat Donostiako.

5

Mariñel haurrak ziren  
itsasoa züen ama  
Bizi hobego egitera  
joaiten ziren Indietara.

6

Mente ülünak ziren  
Frantzian eta Espainian  
Beti algarri zanpaka  
eüskaldünak zepoan bien artean.

7

Eüskal Herrian ere  
denbora hetan denetan gosete  
Eritarzün handiek joa  
legena eta izurrite.

8

Familia sosdünetan  
neskak ezarten ziren  
Ttipitik komentüetan  
Katalinari hala agitü zen.

9

Itsas deia (adarra) entzün züan  
ihesari eman züan bizia  
*Humantesa izaiteko jayo ninzan +*  
*Bainan bide gaitzetan galdu ninzan + (gaitzetan, nintzan)*

10

Goatzan denak algarreki  
Katalinaren ürratsetik  
Horren bizia beita tragedia  
jarraik dezagün bere bidetik.

+ *Katalinak idatziak.*

## Zuberoako antzerki berri kantatua

Pastoraleko lege zorrotz, hertsu eta estuak bazter utzirik, nahiz horren elementu zombait erabil dezakeen, antzerti kantatu berri bat agertu zaigu Zuberoan, bereziki Pier-Paul Berzaitz ezagunari esker. 1992an hasi zen *Oihenart* piezarekin (Allande Aguegarayren pastoralarekin ez nahastu). Geroztik eman ditu *Elkano(r)en Semeak* (1995-96), *Euskal Spiritu* (1999), *Zamal(t)zain* (2003), eta *Orreaga* (2008).

Erregelen aldetiko askatasunari esker, kasik nahi duena egin dezake hor idazleak, eta Berzaitz artista handia denez, arrakasta ederra du antzerti berri horretan ere, haatik pastoralak baino jende gutiago bilduz Zuberoan: publiko gaztea du nagusiki, eta gure ibarrean gehiengoa hirugarren adineko jendeak du. Baina Orreaga Baionako zezen plazan bospasei milako entzun-ikuslegoara hurbildu da 2008ko uztailearen 26 arratsean.

Patrik Queheillek ere gisa bereko pieza moderno bat sortu eta emanarazi du Barkoxe bere herrian 2002ko udan bi aldiz arrakasta ederrarekin, mila bat jende bilduz aldikal : Lau Buru.

Batzuetan bederen, libret moduko liburuxka bat badago antzerti berri horretan: trajeriak baino askoz ere testu gutiago duela agerian uzten du. Zubereraz gain, euskara batua eta nafar-lapurtera derabilzki.

## Zuberoako antzerti dionisiarra

Nietzscheren sailkapen orokorraren arabera, Zuberoak bi antzerti mota nagusi baditu: batetik apoliniarra, ohiko trajeria/pastorala eta teatro berri kantatua uztarturik, bestetik dionisiarra, komedia modukoa, bere sail ezberdinekin: tzintzarrotsak, maskarada, astolasterrak.

### Maskarada

Maskarada dugu momentuan bizi den bakarra. Pastoralak adin guzietako aktoreak oholtzan biltzen baititu bere herrian udako bi emanalditan, maskarada ordea gazteen afera da, eta herriz herri badabila Zuberoa guzitik, printzipioz ihautirian, baina gaur negu minetik udaberrian barna, lehenagoko garizuma denbora hura lasaiki gaingituz. Aldian aldiko publikoa nahiko mugatua du (bizpahiru ehun batekoa?), baina ibiliaren bortxaz, orokorki franko zabal biltzen du.

Igande bakoitzean bi zati dauzka: goizean «barrikada haustea» dantzarien eskura, arratsaldean emankizun osoa, antzeppen luzea. Antzerki osoa da hau ere, baina burleskoa eta nire gustuko trajeria baino arruntagoa. «Zuberoako mas-

*karadak ibauterietako jaiak dira, bertan dantza, soinua, mozorroa, kantua, sermoia, koplak eta bestelako ezaugarri estetiko-kreatiboak batzen direlarik». (1)*

Euskararen presentzia ez da pastoralean bezain masiboa, ez eta ber mailakoa. Eguneroko zuberera mintzatua da. Kantaturiko bertsoetan agertzen da gehienik. Zortziko txikian idatziak dira maizenik. Aldikal berriak edo bertutuak, egokituak dira. Herriko gazte batzuek idazten dituzte, edo laguntzaile bati eskatzen. Baina gero eta gutiago dira bertsoen ongi kantatzeko ere euskaraz aski trebe direnak. Haatik gazte berriak badatozkie eskolan euskaraz ikasten duen gutiengotik.

Azpimarratzekoak dira «*bobameen erregeak*» arratsaldeko antzezpenaren erdi-tsutan egin ohi duen prediku edo sermoi umoretsua, baita *kauter* (berzkin) gehienak eta *Pitxu* mutilak botatzen dituzten ahapaldiak. Ez dute gatz eta piper eskasik. *Xorrotxen* bertsoetan ere agertzen dira perlak. Hori guzia maskaradak baimentzen duen askatasunari zor zaio.

Maskaradan libretik ez du publikoak. Nagusiki euskalduna da hau, nahiz dantza ugarien eta beltzeriaren tximinokerien ikustera datozen frantzimant (frankofono) zenbait ere. Libretik ezak euskararen presentzia iraunkorra mugatzen du, pastoralean ez bezala. Haatik bertso bilduma bat berriki agertu da disko batean, hitzen liburuxka batekin. (2)

Honek hamazazpi *xorrotx* kantu agertzen ditu, hainbat maskaradatan emanak 1992tik 2006ra. Horietarik hameka idazle sonatuek «onduak» dira: bost Etxahun-Irurik idatziak, Etchecopar-Attulik bi, Berzaitzek beste bi, Junes Casenavek eta Roger Idiartek bana edo bedera. Bi kantu herrikoi, *Ene izar maitea*, 1999an Idauze-Mendin, eta *Zazpi urte badizü ene kariñoa*, 2005ean Altzürükün. Beste lauak gazteek berek edo horien eskariz herritar batek eginak dira: 1992an Eskiulan, 1998an Altzai-Lakarrin, 2002an Gamere-Zihigan, eta 2006an Urdiñarben.

### **Bihotzez eüskaldün**

*1992: Emazteen maskarada Eskiulan*

Bedatsean txoriek goizik kantatzen

Üdan lili ederrek begi bazkatzen

Bai inganatzen

Larrazkenean aldiz onddoak sortzen

Ürzoak igaraiten

Negüan bortü goran elürra loditzen

Eta pean hegoak, ostoak egoixten.

Denbora nolana hika jina gatik

Herrian maskaradak aurten moda berri

Neskatilekin

Zonbat etxekirik giren moda zaharreko  
 Jeieri  
 Eskiulakoak gira bihotzez eüskaldün  
 Hona ez ote deia nonbait Xiberoan.

Alkarrekin igaranez geroz egüna  
 Eta honartü heben egin deiküzüen  
 Batzarria  
 Gük ere nahi dügüla egin ahala  
 Parka apürra  
 Kümitatzen zütüegü gurekin kantatzera  
 Kantore zahar berri edo trai lai lai.

*Xorrotxak: Maritxu Castillon, Babe Lerdou, Sylvie Orgambide.*

### **Gora Ibar Esküina !**

*1998: Maskarada Altzai Lakarrin*

Orhiko txoriak dü bihotzean Orhi  
 Heben lotürrik dena hebenko osoki,  
 Korpitzez ez bada, gogoan dü argi  
 Hegalek eramana, hegalek ützüli.

Eskentü deizüegü aurten maskarada  
 Agertzea beütügü maite plazetara,  
 Üsantxa zaharrean hartürrik indarra  
 Erabili dizügü lerdenki mihia.

Guri agrada zaigü gora kantatzea  
 Gure indarra dela eüskal mintzajea,  
 Zazpi Eüskal Herriak bere lürralde  
 Eüskadiko herri bat Altzaiko herria.

Auherra ez badügü mihipeko zaina  
 Hala hala dizügü bizirik korpitza,  
 Eüskaldünak girela düdarik ez beita  
 Hilik ere gintake frisatez gü altxa.

Mintza dezagün beti eüskara maitea  
 Eüskaldünen artean lege eztieta,  
 Hizkuntza (e)ta herria bereiz ez doatzila  
 Beharrik balin bada berriz arrapika.

*Lehen bertseta berriz emanik:*  
Eüskadiko lili bat, gora Ibar esküina!

*Xorrotxak : André Récalc, Jacques Sarraillet.*  
*Hitzak: Jean-Do Iriart – Abairea: Robert Larrandaburu*

### **Libertate nahia**

*Maskarada Gamere-Zibigan*  
Aste osoa lanaren itzalean  
Aspertürük libertate nahian  
Gogoa dago ezin edenean  
Joan nahi alegrantzian.

Bizi berri baten ametsetan  
Lanik gabeko egünaldietan  
Libertitzeko ordü haietan  
Gozatzeko bat batetan.

Kantore hau hontü günüan  
Eskeintzeko züen honetan  
Aide berri honen minean  
Hunkitzeko oi bihotzetan  
Xorrotxaren lan güzietan  
Hedatzeko bai denetan.

Karriketan kantari (e)ta dantzariak  
Antrexatekin iratzarri bazterrak  
Besteak aldiz goratikan botzak  
Ametsez bilatzen güziak.

Igantetan berotzen bihotzak  
Harrotzen ere ordüan gazteak  
Zonbait dirade hainen eijerrak  
Haütatzeko beti penak.

*Xorrotxak: Beñat Claverie, Nicolas Urruty.*  
*Hitzak eta abairea: Jean-Louis Aranburu, Altzai Bidabekoa.*

**Lagünt dezagün bihotzez***2006: Maskarada Urdiñarben*

Urte berriarekin jin zaigü ihautea

(e)Ta ihauteriarekin heltü maskarada

Ohora dezagün denek ohidüra xaharra

Izanik gorri ala beltz, hau gure hontarzüna.

Xorrotzek deizüe nahi heben züer kantatü

Plazerez beikira denak plaza hontan sartü

(e)T(a) egünko jeiaren bidez hau alageratü

Hau dügü egün gogoan behar dügü aitortü.

Üzten ahal ote deia holako bat galtzera

(e)Ta besoak kürütxatürrik sogiten hiltzera

Lagünt dezagün bihotzez txütik egoitera

Eta orenen gainetik eüskararen salbatzera.

*Xorrotxak: Johaïne Bedaxagar, Jean-Michel Arrayet.**Hitzak eta abairea: Dominika Aguergaray, Olbaso.**1 – Kepa Fernandez de Larrinoa, Zuberoako maskaradak izeneko berri antzerkiaren abozko literaturaz, Euskera (Separata).**2 – Xorrotxak, Xiberoko maskaradak, Xiberoko Botza irratia.***Tzintzarrotsak**

Nafar-lapurteraz galarrotsak, Zuberoako Pettarrean tzintzarroskak deitzen ditugu. Berriz ezkontzera doan gizon edo emakume alargun bati egiten dizkio herriko mutil talde batek, ezkongaiak ez badio diru puska bat eman nahi otordu baten egiteko doia. Tzintzarri, atabal, turuta, adar edo zarata egin dezakeen edozein tresnaz, halako serenata ozen eta barrokoa jotzen zaio etxetik hurbil, haatik ihiziko zizpa baten uzkerretik at.

Artetik ahapaldiak botatzen zaizkio, zenbait aldiz bertsoak ere. Holakok ak agertzen dizkigu Txomin Peillenek Tolosako Jardunaldien berri ematen duen Euskeran eta horren Separatan (92 eta 93 orrialdeetan). Ikus daitekeen bezala, literatura gizena eta mugatua da tzintzarrotsetako hori.

*Türüt eta türütots**gaur eginen dügü tzintzarrots**Peïrot honek erran beiteikü**egin dezagün gaiü oroz.**Tzintzarrotsak oraiko**astolasterrak geroko,**Peïrotinak zer egin?**Tzintzarrotsen lotsaz, tüpiñala kakegin.*



*Peirotina zirintü  
Piko berde jan beitiü ;  
Peirot horrek bebar dü  
Ürrin bonik senditü.*

*(Allande Artigau Elixagarai ligiarrak Ligin emanik)*

Tzintzarrotsen entzutea gertatu zait haurtzaroan, munduko bigarren gerla ondoan, uste dut 1946 urtean zela. Sarrikotapeko andere alargun bat Larriko gizon batekin ezkontzera zoan. Bidesaria gazteei ez omen zien ordaindu nahi. Nahiko luzaz arratsero musika barrokoa gozaten genuen guk ere kilometro pare batera. Ez dakit ahapaldirik edo bertsorik bota zutenetz, ez eta zein alderdik azkenean amore eman zuen. Dena dela egun argiz bukatu zen, igande eguerdi eguzkitsu batean, halako «baroud d'honneur» labur batez. Kontzertua Ürrüstoiko meza nagusitik itzultzean entzun genuen anai gehienak eta biok, Gaztelütxaga mendiko xendratik, oso hurbilera.

### Astolasterrak

Literatura gehiago daukate astolasterrek. Egituraz pastoralen antzekoak dira, eta lehenago horien barnean ematen zituzten. Baina laburragoak dira eta aktore gutiagorekin antzeztu daitezke. Ihautirian ematen ziren, errepikatu gabe, maiz auzibide baitziren. Orain arte aurkitu diren testuez Txomin Peillenek hau diosku :

*«Zuberoako astolaster gebienak Patri Urkizuk argitaratu Zuberoako irri teatroa liburuan daude». Asko koblakariak idatziak omen ziren. Idazle ezagunen, beraz berantiarren artean Peillenek aipu ditu Jakes Oihenart, Sorhoetako Heguiaphaltarren pastoral errejenten leinua, bereziki Marcelin euskaltzain urgazlea eta horren aita, Santa Graziko Hardoi oihanzaina eta Barkoxeko Topet-Etxahun ere: baina horren paper gehixenak erre zituen familiak.*

Franko aspaldian ez da gehiago astolasterrik antzezten Zuberoan. «Gerla ondoan 1950. urteetan zintzarrots egitea ützi bazen, astolasterrak lehenagotik, jüstiziak eta bede xuriek debetazten zutielako galdü ziren. Pastoral zabarretan ezpazen Euskal Herriko egunorozko bizitzea aipatzen, astolasterretan bai eta frantsesez ere idatzirik edireiten ez diren lehenagoko berriak heetan jakiten abal düitügu». (1)

Oraiko idazleak zein ditugun: Junes Casenave eta Txomin Peillen santagraztarrak! Aita Junesek badü bat idatzirik, *Frantziako Irailtza* deitua, eta Peillenek beste bat, *Ihizlor eta Ekolor*, ihiztarien eta ekologisten arteko eztabaidez, aharrez eta liskarrez. Biak agertzekoak dira, eta oraindik eman gabe daude. Hona Peillenenaren zati bat, lehen perediküa.

**Lehen peredikia**

Egün hon deiziela / Xiberoko arnegatenak;  
ziek beno arnegatagoen / ikustera jin zidenak.

Ihautiriz jin zaizkü / debrüak hartü saldoak  
erakutsiko deitziegü / ihizlari eta ekologoak.

Gibelesko kabanatik / jaitsiko zaizkü ürzokariak,  
bai eta horko karbepetik / basurdekari ehelegatiak.

Heen begistatzera jinic / Berde bihotz gorriak  
igorriko dütütie / bisitatzera elhorriak.

Horra bero herrokan / ürzokari Okertiro  
bai eta basurdekaria / Ambrosi Ezkertiro.

Mauleko Kartuxak / badüke bere egitekoa  
kartuxa honik saltzen ote / deienez laster jakitekoa.

Begles hiritik Mamera / Berdeen president beharra  
ezta lotsa izanen / piztürük ere aharra.

Pariserik erranen deikü / üzkü berde andreak  
zoin behar deizkün salbatü / Gorriak ala berdeak.

Labrit Lalondek bere txanpaz / ihizia ohiltüko  
eta asto baten gainetik / erri karkazaz ariko.

Ihizerik ezta zerratzen / nun ezten Akabaillosa  
Xilomaiteko ostatüan / date apaidü küriosa.

Ikusiko dütützie / ihize ta kabaleak  
bakotxa mintzatüko da / ahatze gabe berdeak.

Orai entzün etzatzie / ihakinaren tiroak  
ezpeitütü ehoko ez / ihizlari, ez ekoloak.

*1 – Txomin Peillen, Ibizlor eta Ekolor astolaster berriaren Aurkezpenean, 3.orrialdean.*



## PROSALARI BERRIAK

### Allande Socarros (1957)

Etxebartarra, Maulen bizi da. Luma trebea du, bai zubereraz, bai euskara batuan, bereziki «Herria» astekarian mendiko ibilaldiez, eta «Berria» egunkarian gai horrez eta beste askoz ere. Bi liburuxkatan agertzen da zubererazko itzulpen lanez Xiberoko Herri Elkargoaren peskizan: «*Xiberoko xendak*» eta «*Xiberoko etxegintzak*».

#### Hido eta Gaztelü

Altzürükün, Ühalteborda eta Arantzola etxalteetara edo Garraibiko gaintiala joateko ahala emaiten düan bide sardatik abiatüren gira. Garraibirat joaiten den bidea hartüren dügü lehenik, Lapixtoia etxe kantütik igaranen gira eta hortik berrehün bat metretan, exkerreko gaintian, ikusiren dügün hur bilgiala бүрүз hartüko dügü.

Hebentik aitzina, bordaz-borda joanen gira, lehenago seinalatüririk izan zen bide xahar batetarik, parte.

Lehen borda batetan, esküin eta goiti бүрүз hartüko dügü. Gero, bigerren borda batetarik igaranen gira, bordalteko sorakiaren gainti, zeren eta, güne hortan kinta zikintüririk beita. Hortik fite, bide sarda bat partüren dügü eta, бүрдüinazko kihilla bat zabaltzez –eta arrazerratzetz, prefosta– exker eta goiti ariko gira.

Hirugerren borda batetara heltüren gira eta, heben, xendak aitzina jarraitzen dü Hidoko iparreko maxelaren gainti. Xenda hau Garraibiko gaintialat eraisten hasiren zeikün günean, Hidoko hegiaren gora emeki-emeki elkiko gira. Hido gaineala aisa pür elkiko gira, esküineko gaintian, hego-sartaldeala бүрүз, hots, Napale, Garategorena, Idorroki, Etxekortea eta beste güne eder eta ezagün hanitx begi-bazka dütükegularik. Hido tinian, zurezko kürütxe arrunt bat bada eta honek oritaraziren deikü, ez hainen aspaldi, profesioneak egiten zirela gaine hontara.

Hido tinitik Hidogarateala eraisteko, orotarako hoberena da goitikoan hartü dügün hegitik berrehün bat metraz gibel arrajitea eta hor baratüren dügün xenda ejer bat hartzea. Honek goxoki lagüntüren gütü Hidogarateala. Heben, seinalatüririk den lürbidea jarraikiko dügü berrehün bat metraz eskaz, bena ütziiko dügü, esküineko gaintian, zurezko kihilla batez zerratüririk den kinta ejer baten hartzeko. Igaranen gira borotxüan eginik izan den aska baten kantüan, eta, hortik arrünt, borda aurritü baten ondoan.

Bordaltekoro sorakiaren gora esküinelako gaintialat büürüz trebeska elkiko gira eta txakoste bat igaran ondoan, Gaztelüko otatze maxelaren gora marratzez heltüren gira tiniala. Hortik, Arbailletako Zelata Püntari bisan-bisean, hegiaren behera joanen gira, Gaztelüren üngürüa egiten düan xenda seinalatüa berriz ere partü artino. Exkerreko gaintialat hartüren dügü, aska elibaten kantüan igaranen, eta ürrüttx zerrailü elibaten artean, leheneko etxalte batetara heltüren gira. Okerrean ez baniz, hor ageri den etxe aurritüa Parot familiaren sorterrokoa da.

Okolüaren bazterrean, borda bat bada eta hontan exkerrealat eta behera hartüren dügü, xenda seinalatüari jarraikitzez. Bago eta ürrüttxen artean, behera ariko gira, borda barreatü baten saihtesean lehenik eta ontsa kontserbirik den beste baten kantütik igaranen girelarik. Bi kihilla bisan-bisean ikusiren dütügün günean, haatik, kasü egin beharko da, xenda seinalatüa ütziaren beütügü. Honi jarraikiko bagina, Barnexbordala joanen ginateteke, hots, Altzürüküko karrikatik aski hürrün.

Beherakoan, esküinekoan dügün kihillatik soroan sartüren gira eta lürbide bati jarraikiren deiogü.

Kontütan etxek Ühaltebordako funtsetan girela eta ez datekeala belar saila zapatü behar edo kabaleak lotsarazi. Bordaxko ejer baten kantütik igaran ondoan, bide garailastatü batek Ühaltebordala eramanen gütü. Etxe gibeletik igaran ondoan, Arantzolalako bide sardala heltüren gira eta xüxen jarraikitzez arrunt heltüko gira Garraibirako bide partigiala.

### **Urtsuia, Urkoitik**

Hoinez ebilten hasiko gira, Urkoiko arrabotüaren eta elizaren artean kausitzen den botüra jargiatik.

Tinta hoili bateki seinalatüririk den ebillideari jarraikiko gitzaio, eбилte honen parte handiengan. Arrabotüan, esküin hartüren dügü eta berehala exker. Arrunt heltüren gira bide sarda batera, hor bada laübürü bat edo eüskal kürüttxe bat düan bide sarda bat, xüxen joanen gira, etxe baten aitzinean igaraitez. Hortik aitzina, erreka ttipiñi eta ejer baten saihtsetik joanen gira petigora. Arren, Haizabia etxaltearen aldepean den bide sardan, hur bilgia baten ondoan, esküin hartüren dügü.

Errekaren bazterretik goiti joaiten den xenda ezinago ejer hori baxa zola batetarik kurritzen da lehenik, huraren biltzeko eraikidürak partüren dütügularik üsü-üsüa. Zühainen artetik elki ondoan, otatzeen gora badoa xenda eta azkenik mehaka eder batetarik Iramalda eta Urtsuia arteko lepoala heltzen da (01:30). Hor, bide kürüttxeta bat bada eta exkerrealat hartüren dügü. Borda baten kantüan igaraitez eta lür bide zabal baten gora joaitez, artegi baten ondotik igaranen gira. Artegi hortarik hiru ehün bat metraren büürüan, haatik, bide seinalatütik elkiren gira, alabrau baten kantütik kurritzen den xenda ttipiñi batetarik otatzearen gora elkitzeko. Lepo ttipi batetara heltüren gira be-

rehala eta hor hegiaren gora elkiko gira, xenda bat badükegularik beti. Azkenik, Hazparneko Zelai kartieletik gora horra den, bai eta Urkoirat arra-erai-terko hartüren dügün ebilbide seinalatüa partüren dügü eta honek Urtsuia tiniala eramanen gütü (678 m), abiatzetik bi oren eta erdiren bürtüko.

Gaine hontarik izigarriko bista zabala eta ederra bada. Lapurdi eta Landetako itsas-bazterretik Biarno eta Bigorrako bortü goretara artino emaiten dü bistak, artean direnak oro ageri direlarik, prefosta.

Noizbait erretiratü behar beita halere, telebista errepikagailü eta beste gisako haga elibati büruz eraitsiko gira. Horietara heltü ondoan, exkerrealat hartüren dügü lür bide batetan artexkot bat, egoitez halere bixkar batetan, xenda seinalatütik amiñi bat baztertürik eraiki den atanda harri bati so. Etxe gisa berritürik izan den artegi batetara jaitsiko gira eta heben kasü behar date egin, esküineala hartzeko xenda seinalatüan, zeren eta, exker hartzen badügü, goitikoan igaran dügün bide kürützetako lepoala arrajinen beikira.

Artegitik landa esküin hartü ondoan, berehala exkerreala joanen gira, bide harriztatü bat üztez, otatze eta iraztorren behera joaiten den xendatik jarraitzeko. Etxe berri elibatetara heltüko girelarik, kasü behar date egin, hor seinalatzea ez beita hainen argi. Bi etxeren artean, exkerreala hartü behar da, bide gudronatü batetarik Gillomurenborda izeneko laborari etxeala jaitsi, eta hor berriz esküineala behera sartzen den xenda ejer bat hartü. Etxe aurritü batetan, exkerrealat jarraitzen dü tinta hoilietako xenda seinalatüak.

Haizabia etxalteala heltzean bide gudronatüa partüren dügü eta berrogei bat metra apalxeagoñi, hur bilgia ondoan, goitikoan hartü dügün erreka bazterreko xendaren partigiala arrajinen gira. Hortik aitzina, kilometraxkot bat badükegü goitikoan jarraiki bidetik arragibel jiteko, Urkoiko arrabotü eta eliza ondoala.

### **Gaztelaia eta Ahargo ttipia**

Hoinez ebilten hasiko gira Aranbeltzekok Katapunt (Capdepont) bordal-tean (306 m). Harat joaiteko, Hokiko baselizatik eta hortik 600 metratan den zübütik landa, esküin hartü behar da Aranbeltz kartieleko bidea. Lau kilometra egin ondoan, üngürada elibatetarik landa eta altapa gaine batetan, bordalte batetara heltüren gira, batan “Capdepont” markatürik delarik.

Bide harriztatü batetan, esküineala eta goiti hartüren dügü. Hogei bat minütaren bürüan, oihanetik elkiko gira eta soraki elibat badiren lepo batetara heltüko gira. Esküineko gaintian ageri den txakoste bat hartüko dügü eta lehen sorakiaren bazterrean etxetürik izan den borda batetara joanen gira. Hontarik aitzina, beste soraki bat traukatüren dügü, esküineko gaintian, oihan bazterrean, ürzokagiako habeak badütügularik. Soraki bazterrean, txakoste bat edirenen dügü eta Gaztelaiko otatzearen gora elkiko gira. Gaztelü honek hiru lürresi badütü eta lehen eta bigerrenaren arteko arroila ontsa barna da orano ere.

Gaztelaia tiniala heltü baiko (479 m – 01:00), izigarriko bista zabala gozatüren dügü, Bigorrako Pic du Miditik Urtsuia artino ageri delarik. Bigerren eta hirugerren lürresien arteko arroilan, haritx eder bat eta bago eder bat bada. Arra-eratsiko gira hegiz-hegi, sartaldeala бүрүз, arren. Alanbrez zerratürük den soraki batetara heltürük, behera ariko gira beti, alanbrauari esküineko gaintitik jarraikitzez. Borda batetara heltüren gira – han bada Citroën kamioneta zahar bat – eta hortara horra den lürbidea hartüren dügü, exkerreko gaintialat, arren. Soraki bazterreala heltürük, alanbraua jarraikiren dügü beti, exkerrealat hartzez.

Soraki bazterreala heltürük, alanbraua goiti arra-elkitzen delarik, xüxen joanen gira, lürbide batetan. Aski fite partüren dügü Gaztelaia tinitik eraisten den xenda seinalatüa. Hau hartüren dügü hiruzpalau ehün metraz, bena pankarta hoili batetara heltürük, üziren dügü, esküinealat joateko.

Ehün metra eskaz egin ondoan, lürbide hau üziko dügü eta otatzearen gora abiatzen den behi xenda bat hartüko dügü. Lepo ttipi batetara heltürük, oihantto batetan exkerrealat eta goraxeagoñi elkiko gira. Alanbrau bati jarraikitzez, oihanttotik elkiko gira eta otatzearen gora xüxen joanen, telefona habeak dütüan hegi batetara artino.

Bi haberen artean igaran ondoan, hegi horren exkerreko gaintian, oihanaren bazterrean edirenen dügün kihillatik, soraki batetan sartüren gira. Soraki honen bazterrean, borda aurritü bat bada, eta honen saihetsean, bi alanbre beharko dira igaran, lehena txakoste batetarik eta bigerrena petik igaraitez... Hor berean partüren dügün kintatik eta honen ondotik otatze maxelaren gora elkitzen den xendatik Ahargo ttipiaren tiniala heltüren gira (559 m – 02:00). Gaine hontarik ere ezinagoko bista zabala eta amiragarria bada, Gaztelaiaren parekoa, Biarnoko ordokietara haboroxe emaiten düalarik orano. Ahargo ttipiaren tinia markatzen düan zühain ondo pezatik hüilan, oiha bazterrean, Labaronnie izeneko andere zentü baten hautsak edeiten dütüan ontzixka bat bada, bago ondo bati etxekara ezarririk, tolazko aterbüxkot baten kantüxkan.

Ahargo ttipitik eraisteko, Barkoxeko Ahargo handiari bisan-bisean, otatzearen behera joan behar da, esküineko gaintian diren botxü bakant elibaten sai hetsetik igaraitez. Seko eraitsi beharko da, xendarik batere gabe, 150 metrako gorabehera egitez, otatze bide bat partü artino (398 m – 02:20).

Hontan exkerrealat hartüko dügü, Xanti etxe berritüaren 30 metra alde gaintetik igaranen gira, hontara doan bide garailastatüa partüko dügü eta behera jarraikitzez bizpahiru ehün bat metraren бүрүан Capdepont bordalteala heltüko gira (306 m - 02:30).

### Eltzarruze

Donamartiriko Kolorotze aüzüineko botüra antologia edo garaje baten kantütik hoinez ebilten hasiko gira, autoentako bide ttipi batetan (120 m). Hatsarrez, tinta hoili bateki seinalatürük dükegü ebilbidea.

Kilometraxkot baten bürüan, ebillbide seinalatüan bi haütü badütükegü. Gure partetik xüen jarraiki dügü, Erberoa erreKaren alde gainetik, mendi maxela baten zolatik kurritzen den xendatik.

Üngürada motz batetan, xenda seinalatüa esküineko gaintialat eta goiti abiatzen den günean, ütziRen dütügü seinala hoiliak eta xüen jarraikiko elge bide batetan Iturburukoborda etxalteala artino (164 m). Han autoentako bide pezaxkot bat partüren dügü, bi sardatan berritan esküin hartüko Uhaldegaraia etxalte kantütik igaraitez, hur biltegi batetara eramaiten düan bidean. Heben, xendaz jarraikiko dügü sortalde edo ekialdealat Herauzeko lepoala igaiteko gisan (334 m).

Lepo hontan, Atxapuruko hegiaren gora joko dügü ipar-sartaldealala bürüz kurritzez. Lehen tini batetara iganen gira 409 metratan. Bisán-bisean dügün beste gaine harrizü batetara joaiteko, amiñi bat eraitsi beharko dügü eta berriz petigora joan 395 metrataraz heltzeko. Hor, esküineko gaintialat, 328 metratan den lepo batetara eraitsiko gira, han xenda seinalatüa partüren dügü, bena hor ütziKo ere, aldegainen, 421 metra gora den Eltzarruzeko bixkarraren goreneala heltzeko. Hortik aitzina, hegia jarraikiko dügü berrehün bat metraz, 403 metratan den hegi gaine bazterrealala artino.

Heben, haatik, orotarako hoberena da, aldepean, Eltzarruzeko sartaldealako maxela pean, mehakaren gorenean, ikusiren dügün lepoala eraistea, hortik beita xahüena. Lepo hartan kasü egin behar date, exkerreko gaintialat hartü behar beitateke, berriz ere hoiliz seinalatürük den iraztorra bide batetan eta ez mehakaren behera sartzen den xenda batetan, nahiz eta hau ere seinalatürük den.

Hartüren dügün iraztorra bidea ordoki plain da hatsarrez eta gero otatze, harixtoi eta gaztanaztoien behera badoa. Azkenean, goitikoan hartü dügün bide gudronatüa partüren dügü eta esküinealat hartzez arrunt heltüren gira partigiala.

## Jean-Baptiste Coyos (1952)

Mauletarra, euskaldun berria, linguistikán doktore, eskoletako irakaslea, Mugerren bizi da orain familiarekin. Lau urtez 64 departamenduko hizkuntza politika kudeatu du Kontseilu Orokorraren zerbitzuko, eta gero irakas-kuntzara itzuli zaigu. Euskaltzain urgazle dugu 2006tik.

Euskaratzaz idazlan asko jaulki du, baita lau liburu:

-Le parler basque des Arbailles – Une approche de l'ergativité: L'Harmattan, 1999.

-Langues et cultures régionales de France – Etat des lieux, enseignement, politiques: L'Harmattan, 2000.



-Politique linguistique – Langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne : Elkar, 2004.

-Xiberotarra – Zuberera: le dialecte basque souletin : Elkar 2007.

Azken hau bi hizkuntzetan idatzi du, hots euskaraz eta frantsesez; euskarazkoa batean zubereraz, bereziki xiberotar literaturaz ari den zatian, bestean batuan. Hona horren hasiera (35-39 ostoaldeetan) eta VI. ataleko poxi bat (116).

## II.2 Xiberotar literatūra: lehen testüetarik XVII. menteala – (...) Sarrera - *Introduction*

Heben eginen dügüna ibilte llabür eta ezosoa date (29). Xiberoko Erdi Aroko testüak gaskoinez direla ezagüna da, biarnesa mintzaje administratiboa zelarik (Censier gothique de Soule XIV. mente ürrentzean, Coutume de (*la*) Soule 1520). Ezagützen dütügün eüskal testü zaharrenak ahozkoak dira. Ber(*e*)terretxen kantore famatüa 1445. urte üngürükoa lizateke, ata ahozko tradizioneari esker jin zaigü ; ber gisan *Abetzeko anderia* 1430. urte üngürüan, etab. (ikus Peillen, 1988: 20-35). Eüskarazko lehen libürü ezagütüa, Beñat Detcheperaren *Linguae vasconum primitiae* 1545ekoa bada, xiberotarrezko lehena ondoko mentekoa da, XVII.ekoa.

Xiberoan elizagizonak izan ziren bereziki menteetan zehar euskaraz idatzi züenak, bena heltübada beste eüskal esküaldeetan beno gütiago: Bertrand Zalgiz (epaile eta politikaria), Allande Oihenart (abokatü eta politikaria), Jean Espil (errejenta, 30), Beñat Mardo (zintzarri-egile, koblakaria), Jusef Egiategi (errejenta, 31), Pierre Topet-Etxahun (koblakari, artzaina), Agosti Xaho (idazle, kazetari, politikaria), Jean-Baptiste Arxu (errejent eta ikuskarria), Jean-Baptiste Constantin (errejenta), eta., laikoak ziren.

Xiberotarrak lau literatūra eüskalkki izkiribatüen artean bere leküa bazüan, besteak lapurtera, gipuzkera eta bizkaiera beitziren. Peillenek izkiribatzen dü: «Herri hau Euskal Herriko txikiena izanikan ere, behartsuena ere, hamazazpigarren mendean idazki asko eman ditu gure hizkuntzan –XVIII. mendeko antzerti gehiena zubereraz baita– eta bestalde idazle herrikoï eta eskolatu parrasta eman duelako» (192 b: 248). 1789ko iraültza beno lehen, J.M. Torrealdai xiberotarrezko 14 libürü, 58 edizione eta 6 original kontatü zütüan (32).

Libürü hoietan xiberotar «pür», hütsaren atzamaitea ez da batere aisa. Peillenek kontatzen dü nola «zuberotar zaharren artean «euskara» batu baten egitekoa azaldu den [...]. Tartas honek bere zubererari lapurdiera (e)ta benafarrera nahasi zuen, Egiategik Larramendiren hiztegia erabili, Oihenartek ez zuen –atsotitzez kanpo– eta olerki bat izan ezik zubereraz idatzi, Arxuk ere XIX. mendean benafarrera ta zuberera nahasiz koine» bat sortu nahi izan zuen gisa, eskolarako » (Peillen, 1992 b: 248).

(29) Lehen xiberotar testüak hobeki ezagütü nahi dütüanok Txomin Peillen *Zuberoako itzal-argiak (Eiskarazko jakilegoak) Lehen aldia: XV, XVI, XVII. mente zabarrak* (1988) irakur dezan. Joxemiel Bidadorrek, «Zuberoako bedatse lo-reduna» artikülüan, xiberotar idazle edo euskaltzale andana bat, besteak bezain ez ezagütüak, aitzinealazten dütü, XVIII. mentetik XX. menteala (<http://zubitegia.armiarma.com.aipa/bid/0083.htm> edo *Euskaldunon Egunkaria* 1999/03/19, 03/26, 04/02).

(30) 1721, Mendiko herrian errejent, *Lapurdum* IX, 2004, Baiona, Iker: 318. orr.

(31) 1785, Zuberoan errejent, *Lehen liburria edo...*, 10. orr.

(32) 1976, Jakin, 178 zenb. Joseba Intxaustik aipatürük *Euskara Euskaldunon hizkuntza* libürüan, 1990, Eusko Jaurlaritzza, 101. orr.

#### VI.4 Erlijioa / Errelijionea – *La religion*

Eüskararak lekü gero eta ttipigoa dü Xiberoako elizan, errelijioneak lekü gütiago düan bezala. Lehen ez zen batere hola. Aipa dezagün Belapeyre erretora 1696an: «Hartakoz züberoako Jüje espiritüal bezala ordenatzen dügü Herri hontako erretor, edo Bikari orori, Jesü-Kristen doktrina (*e*)üskaraz erakats eta entelega erazi diezen bere(*n*) Parropiakoer, gütienea igante oroz, Meza-ko gihaurek aspaldian (*e*)üskaraz, egin deizüegün pronoarean ondoan», *Catechima* laburra eta...: 48. Errelijionea ordüan zen goiko giza-alorra non eüskara (eta latia) ohizko mintzajea zen. Ikusi dügü ere XVI. mentetik XVIII. mentera zer eragin züen errelijioneak eta elizagizonek Xiberoko (eta Eüskal Herri osoko) literatüran. Hala, manera batez, errelijioneak eüskarari alde ofiziala emaiten zeion, eüskara espiritüko gaüzentako mintzajea zelarik ordüan.

Orai eüskara abantxü desagertürük da ondoko hau honartzen balin badügü: «Euskararen presentzia kantuetara mugatzen denean, aldiz, meza hori ez da euskaldun edo elebiduntzat hartzen» (129). Frantsesealat lerratzeke arrazuetarik bat zen jenteeke oroek eüskara ez züela entelegatzen: «Hots, euskara, denek ezagutzen ez dutenez, hizkuntza banatzailea da; aldiz, frantsesa, denena izaki, bateratzailea» (130).

Ohartaraz dezagün, Xiberoan, 16 urtetik landako biztanleeterik % 56,1ak elebidünak direla, adinekoetan haboroxea ere (2001eko inkesta), eüskara mintzatü gabe entelegatzen düenak kontakü gabe 11,9 %).

Hortan agertzen zaigü berriz gütieneko mintzajeentako traba handia: mintzaje nausia beno ahülago izanik, hura da zatizaleztat hartürük dena, eta ez nausitzen dena. Daigün atalean, lerratze hori üküarazteko, erakutsiko dügü nola mintzaje politika pübliko bat beharrezkoa den. Bestelan oraiko bizi-bal-dintzetan azkarrenak, gure kasüan frantsesak, beti irabaziko dü).

(129) «Ipar Euskal Herriko eliza eta euskara» artikulua, Egunkaria, 2002/03/03. Ohart gitean, halerik ere, Junes Casenave apezak mezak euskaraz emaiten dütüala (üdüri dü bera dela) eta, düala güti ere, laiko elibat kati-xima euskaraz emaiten arrahasi direla (J.-L. Davanten oharra)».

## Jacques Sarraillet (1959)

Lakarrarra, Lakarrin bizi da familiarekin. Irakaslea, euskararako ikuskari-tza karguduna Bordeleko Erretor-etzan. Xiberoko beste euskaltzain urgazlea dugu 2006etik. Lan argitaratuak: «*Basabürüan*», Jean de Jaureguiberry sendagi-learen frantsesezko liburuaren zubererazko itzulpena, Maiatz, 1996; - «*Zabo*» saiakeraren lehen zatia, Maiatz, 2003.

Bukatzen eta burutzen ari: - *Lakarri herriko monografia bat XVIII./XIX. mendeen artekoa (1731-1831)*, sortze, hiltze eta ezkontza agirietan oinarritua; -baita *Xiberotar besta kantoreen bilduma bat*.

**BASABÜRÜAN**

**Jean de Jaureguiberry bedezia**

**Jakes Sarrailletek ützüirik**

**Maiatz**

**AITZIN HITZA**

1989an Jean de Jauregiberri bedeziaren libürüka hau lehentze irakurri nüalarik, ontsa orhit niz pentsatü nüan gaüzaz. «Zer pena libürü hau ez beita euskaraz idatzirik izan!» Ez dakit zertako idazleak berak ez züan egin ordüan (segür niz aitzitik egin düdan beno hobeki eginen züala) bestalde beste gaüza ederrik idatzi beitü arbasoen mintzaje zaharrea. Bena hori ez da orai mentü-raz inportanteena. Zal(b)e jin zeitan arren lan hortan hasteko gogo. Gogo bai, bena ez nintzatekean orano arras prestik, zeren beste bost urte egürüki behar üken beitzüan ene xede hunek, hobeki zohitzeko...

Azkenik, hanitx aldiz hartü eta ützi ondoan, ontsa gogozkatürük, lanean hasi nintzan. Uste düüt arrazoi nagusiak bi direla: Lehenik ohartürük mente ürrentze huntan xiberotarrez ez dela kasik haboro idazten eta gure mintzaje-aren irakurteko paradak oso güti direla, nahi üken düüt Euskararen etxe handi hortan mürrü txipi bat baizik ez den gure Xiberoko euskalkia azkartü. Aitor-tü behar beitügü azken urte hauetan porrokitzen eta indargabetzen ari dela, eta nahi badügü etxea txütik egon dadin, mürrüak oro begiratü behar dütügü. Ontsa begiratü, erran nahi beita xiloak bete, erdiroak sendotü eta azkenik, bena azkenik bera, ontsa prebokatü. (Artetik erraiteko atzamaiten düüt gure gizarte hunek soberaxko prebokatzen düala eta ez dela aski axolatzen egarzo-

la azkar denez jakiteaz. Ez da estonatu beharko gero etxea gainerat erorten bazaikü. Bena hau beste eztabada bat da...).

Beraz, oroen honetan, uste düt gure euskara baitezpada begiratu eta hedatu behar dügüla eta horretaz gainean, gure belaunaldiak badüala hanitx egiteko hortan. Hogeigerren mente ürrentze huntan, xahü dira idazten (eta irakurtzen prefosta!) ez diren, irratian entzuten ez diren eta telebistan baliatzen ez diren hizkuntzak. Lan hau eskentzen düt arren, euskararen alde güdükatzen düen oroer eta partikulazki ikastoletako, eskola güzietako eta Xiberoko gazte oroer.

Bestalde, irakurle maitea, libürü hunen irakurtzeko lana (eta plazera ere arauz!) hartzen badüzü, ikusiko düzü zer balios den giharen hobeki ezagützeko. Nik phürü hala atzaman dit, zeren ezinago ontsa erakusten beiteikü nola bizi ginen düala orano denbora güti. Ez dakit nork erran züan aitzinealat joaiteko nuntik horra giren jakin behar dügüla, bena horrekin osoki akort nüzü prefosta, eta pentsatzen dit Jean de Jauregiberrik ez zükeala besterik gogoan, obra xüme hunen idaztean. Bazakizün segurki edo üsnatzen zizün haurtzaroan ezagütü mündü zaharra desagertzerat kondnaturik zela (aintzinamentüak eta kanbiatzeak direla kausa) eta denbora horien orhitzapenak nahi zitizün nunbait üzi. Erranak hegaltatzen, idatziak iraüten. Egün, arras galdürük diren ohidürak eta jokabideak, sineste eta bizitzeko molde hanitx erakusten diküzü eta ez badütügü arrapiztü nahi ere, hon düzü beti jakitea nuntik horra giren eta zer giren euskaldünak, «Axaita»ren eta «Orreaga»ko güdarien askazikoak, txütik eta libre bizi nahi dügünak.

Lakarri, 1995/02/12».

## Jüje Etchebarne (1936)

Gamere Karrikaberriko seme hau Parisen egon zen Metroko trein gidari. Ofizio polit hori utzirik Xiberoan bizitzeko eta honen alde lan egiteko, hemen langile plantatu zen, lehenik zurgintzan, gero garaje batean, eta Gaü Eskoletan irakasle. Etxeko euskara zilarra Baionako Fakultatean emendatuz, Xiberoko luma onenarik dela erakutsi du Nine Goihenetxe liginagar anderearen frantsesezko liburu bat zuberera txukunean egokituz (Maiatz aldizkarian, 2004).

### Eguzki Amandrea Aitzin-solasa

*Nine Goihenetxek eleberritto bonen ützültzeko konfi(d)antxa egin deit. Ez nüke ibolaz ere (nabi) dolüt dakion. Ninek, bere tesi nausian agertü düan sentsibilitate handia heben ere erakusten dü. Zertako ützülpn honi lotü nitzaio? Orain artino ützülpn güti egin dü et a bes-*

*talde ez düt hortako gano berezirik. Nine, lan hau esküaratü düdalarik, leben ostoetarik jakin-mina sortü zait, ene büriüa biru(e)tan hogeï urte leben ikusten nüan. Ene Basabiürüko herrian «Petti»ren üdürükoak ezagütü düütü, Harizgogor bezalako zonbait ere. Nihaurk, hebenko beste hanitxek bezala, gure mintzjea zinez mespretxatzen züen Errepublikako frantximent jakitus handi han edo hor ezagütü dut. Ninek beraz 14-18ko gerla denboraren altexeko jentartea, hebenko obidiürak xebeki agertzen düütü. Nik segürrik ama zena, aita zena, amama zena eta axaita gerlan kolpatüaren izenean erremestiätzen baüt. Berek eta beren denborakoek, obidiüra azkarrak bazitiñen eta balinba kanpoko sapienten mintzaje nausia gaizki erabilten ziñen, eta heben-tik ikusten ditiñat jasan behar iken dütüen ümiliatze eta mespretxüak. Beraz jente hauen oroen izenean berriz eskerrik hanitx, Nine.*

*Jüje Etxebarne*

Mari, eüskal mitologiako ezagün handienetarik da. Beste maideen büriü da. Emazte bat da. Izen bat beno haboro badü:

Maia, Amaia, Andere Mari, Dama.

Eder, aberats eta ahaltsü,

Marik, potere hanitx badü eta goretsirik da.

Iñazi, biga gorri, aker, aize,

Montüra xuri bilakatzen ahal da

Argizagia eta Ekia alaba dütü.

«Oi Eguzki Amandrea!»

Gipuzkoarrek dioien bezala.

Lehenago eüskaldünek, hilak Ama Lürren besoetan xüxenka etzaten zütüen eta haien berotzeko, Ekibegüko leinürüen biltzeko harri biribilak erai-  
kitzen zütüen. Harri biribil horiek seinale misterioitsüak badütüe eta erdiko  
hütsünetik indar kosmikoa jelkitzen da

Izarren kantore

Argizagiaren bailakü

Ekiaren ürrin goxo

Dantza

## I. KAPITÜLÜA

Azaro azkena...Gäuerti. Atharratzeko bidean, hegoa, haur bat karamarlo batekin bezala, Petti Karrikirirekin txostakan ari zen atorratik gibel tiratüz, karkaza handi batekin pirripita peiatüz, batean esküin bestean ezker arrolala igorritz: «Jinkoa! Perdiu! Mekauen! Bibos! Alajinkoa! Debrü aize astapitoa!» zen Pettiren arrapostüa aize basaren farfarrari, eta nekeki giduak xüxenelatzen zütüan. Ordüan Hegoa sordei trüfan ari zeion...

Zortzi egün hartan bere hats harro zainilgarriarekin Iparraldea berotzen züan. Hoilitzen ari ziren ostoez kanpo, eta zelü igikor batetako argi kanbiako-

rrak emaiten züan holako ülündüra handi hura baizik, üdüri zükean üztaila betean ginela. Egünaz, aidea ikara zen, bortüak dantzan ari ziren, bahümetak eraiki errauts xeheak igikatzen ziren ekitoltzean. Lantareen ürre gorria Erretzü eta Ahargoko maxeletan garretan zen. Hegoa jeikitzen delarik bazterrak herotsez betatzen dira. Harritzeko odeiak, erdi kamelü erdi belauntzi, txori ezdeüs, hurez doatza zelü urdin gorrailekan. Eta zonbait aldiz abentü betean, bürüilan girela üdüri lüke. Izarrak ere atzamanik dira, zelü ezinago epelean begi klixkan zoin hobe ari dira. Eta halako balin bada aments eginararazle nausi horren nahia, jenteak Egüberriz trikota arinetan gäüerdiko mezialat joaiten dira. Bena Hegoa, bürüts handi eta oro isidüra, zinez bihozgogor ere izan leite. Gano handiz badaki bürüko min eta ertzoz builta sakatzen, eta beti «blau» hor üzten zütü negü arrunten xoiltarzün hotz eta ebizü ülünean».

## Kantore hontzaleak

*Lehenik aipatuko ditut denak berek egiten dituztenak : bitzak musika, eta kantatzea ere.*

\*I

- Alexis ETCHECOPAR «Attuli» gorago podioian agertu dena Ligetx eta Bordazarrerekin.

-Niko ETCHART ere, euskal rokaren sortzailea, bestalde aipatua dut, pastoral bat ere idatzi baitu.

- Gisa berean Jean-Michel BEDEXAGAR, kantore polit zenbaiten aita.

-Halaber Pierre-Paul BERZAITZ bere aldia aipatu dut.

-Roger IDIART ber gisan

-Pierre ROUSSEU «Latxikana» (1941) Eskiulakoak kantore liburuxka bat agertu zuen, hitzen eretzean musika notak izkiribatuz: «*Hogei urthe khantüz*», 1992, Mauleko de Arcé inprimategian.

-Pello SERBIELLE mauletarra, Battitta Serbielle pilotari zenaren seme gazteena, Euskal Herrian guti agertzen da, baina Frantzia behere horretan euskal kantorearen fama hedatzen du artista lan aratz eta sakonari esker.

-Jean BORDAXAR, kantore «ontzaile» joria da, eta besteenak ere kantatzen dituen (Berzaitzek bezala), pastoral idazlea gainera (*Monzon*).

-Beñat SARASOLA, sortzez Urruñakoa, orai mauletarra, lapurteraz bezain trebe zubereraz (Roger Idiart bezalaxe). «*Guk*» talde sonatuan kantatu du luzaz, hori desagertu arte, Joanes Borda, P.P. Berzaitz, Beñat Davant, Eneko Labéguerie eta Panpi Lacarrieurekin.

-Itxaro BORDA, amikuztarra, denbora batez Maulen bizi izan da eta Sohütako ikastolan lehendakari egon. -Idazle joria delarik euskara batuaz olerkian eta eleberrian, zubereraz ere poema eta kantu andana idatzi du.

- Mixel ETXEKOPAR umoretsua, usno handiko artista.
- Jean-Louis ARANBURU, Altzai Bidabekoa, hitz eta ahaire eijerren jabea.
- Robert LARRANDABURU «Pipas» bortukaria, Parisen sorturik Atharratzen bizi dena, Niko Etxarten koinatu homonimoaren lehengusua.
- «AMAREN ALABAK» neskatala kantari taldea : besteren kantoreak egartez gain, berenak «ontzen» dituzte.
- «AINERAK», beste neskatala kantari taldea.
- Lucien LARRAUS Ligi-Athereikoa, Bereterretx pastoraleko «süjeta» 2005ean.

*Abazten ditudanek otoi barka : datorren aldiko dirate.*

\*2

- Junes CASENAVEK trajerietan kantore testu aratzik sartzen du, nahiz kopuru mugatuan.

-J.L. DAVANTEK kantore testuak jori trajerietan, eta kantari batzuentzat «onduak» ere (haietan Bordaxar eta Berzaitz).

#### KANTORE ZONBAIT

*Denenak ezin ditut hemen agertu leku eskasez, eta etsenplu zenbaitetara mugatuko naiz.*

#### Koblakari

(P.P. Berzaitzen «*Baratze bat*» diskotik)

Zilar ezpata üdüri ohanean goizanko ekia  
Bardin gure artean sartzen poeten begia  
Bihotzean egiten dizü ezin elkizko zauria  
Irustarzün ütürria.

#### Arrapika:

Koblakari, koblakari, denek zure bihotzean nahi  
Koblakari, koblakari, zütaz gütüzü egarri.

Ama deitzen den bezala korpitza hozten senditzean  
Zure berotarzüneala jin nüzü bizitzean  
Bizientako amodioaz zük bihotza gaintitzean  
Sü hartzen deikü güzia.

Orhi bera düzü hiru erregeen aitzinean  
Lotsa gabe txütik zira Frantzia (e)ta Espainian  
Zure lana hegaltatürrik betikoz zelü lürrean  
Eüskal Herri güzian.

Bizi denboran beitzüan aterbea etxe batetan  
 Hilik ere poeta bizi dabil(a) hanitxetan  
 Heriotza lotsagarriak kentzen badü izaitza  
 Ez dateke zure kasüa.

*Hitzak:* Beñat **Sarasola (1942)** / *Müsika:* *Pier Paul Berzaitz.*

### **Amodioa (1973)**

1

Izar batek eni bihotza deit argitü)  
 Maite bati orai behar nüala kausitü) bis  
 Zer sendimentüa, zer gaüza ezta  
 Lagün bati amodioaren aitortzea  
 Ikaragarria, espantagarria  
 Biziko bidearen algarreki hartzea. (bis)

#### *Arrapika*

Amodioa, amodioa  
 Barna da segür nitan zük ezarri erroa. (bis)

2

Ene maitea zer date gure bizia  
 Irus dateke ala dolorez betea  
 Inganagarri da, kontsolagarri da  
 Bata besteari betiko süstengatzea  
 Amiragarri da, bai xarmagarri da  
 Küña barnetik haur batek egin batzarria.

3

Eztei goizetan biek zer alegrantzia  
 Alde orotarik gure beita ohorea  
 Bai zuri jaun mera, bai jaun erretora  
 Esposatürrik jin girade senar-emazte  
 Plazerik hoberena, pekürrik gogorrena  
 Batetik gozatze, bestetik aldiz egarte.

Pierre **Rousseu (1941)**, *Eskiula Latxikanakoa (Hogei urte kantüz liburuko 41. orrialdean)*

### **Aski balitz**

*(Baratze bat diskotik)*

Negü gaitzeko elürrak  
 Bortüak dütü beztitzen  
 Minetan ürratü lürrak  
 Balaka batez beztitzen.



Ixiltarzünak dezala  
Maita elürrak bezala.

Zertako dira lau ele  
Eta milaka zühür hitz  
Aditz baten latzaz ere  
Maitatzea aski balitz.

Itsas handiko galerna  
Harrian beti da (h)urtzen  
Ikusten da bedi erna  
Ülüna argi bihurtzen.

Isiltarzünak dezala  
Maita oldeak bezala.

Zertako dira lau ele...

Hitzak dakar dolorea  
Sineste baten saltzea  
Batek hartzen ohorea  
Eta besteak galtzea.

Ixiltarzünak dezala  
Maita apalak bezala.

Zertako dira lau ele...

*Hitzak: Itxaro Borda (1959) / Musika: Pier Paul Berzaitz*

### **Jitez aldatü bazka?**

Ibar бүрүкө maxela berde papatxa ekibegia  
Hazgia sano sotil hontan da ohatzen Pettarmendia  
Etxalte ttipi, etxondo ezti, agian isilegia  
Peko aideak ekarri deio gütün batez lazkeria  
Irakurri eta nausiari zaio gorritü begia.

Ka Kabal Kabalka Kabalkada  
Pettarmendi zolako balada  
Laborarien gibelakada  
Basaberea nausia jada  
Nolako kabale kentea da  
Gure gobernatzeko orai da

Eraikan bizirik barrikada  
Ka Kabal Kabalka Kabalkada.

OGMetan datza geroa dio paperak segürra  
Sano saintüa Monsanto dela berra bena berri lürra  
Jitez aldatüko deiküela gure Lurrama zühürra  
Ama lürretik Aita dirura semeak haziz beldürra  
Espiritüaren izenean dener igorritz gezürra.

Ka Kabal Kabalka Kabalkada

Maiana haigü ardi horier tzintzarrien elkitzera  
Bortüka aurtin egin dezagün gainbehera  
Soja hau gü ja gure arreser joan gitean jan(ar)aztera  
Eta jeltite jiten bazaie Coca nasai emaitera  
Mündü xüxen bat «Okerti» gagnaz azkorri batez sortzera.

Ni menpean nizano ezin da bakea  
Gogoaren sabaia ez düket betea  
Haien zori(b)on lege hau ote daitea  
Zorrez aberats eta tai gabe eskea  
Ni bardin pobre bena bizian askea.

Ka Kabal Kabalka.

### Michel Etchecopar (1963)

*Urdiñarbeko Müsika Egünean 1. Saria 2007an. 2002an eta 2004an ere irabazi zuen. 2003an 2. izan zen Jean Bordaxarren ondotik. Egin diren bost lehiaketetan nagusi agertu dira biak aldizka, Bordaxarrek bi aldiz irabazi baitu eta beste bi aldiz 2. lekua hartu. Xedea zen abo-mihizko bertsolaritzaren piztea Xiberoan. Zenbait gizon gazte bat-bateko joko horretan saiatzen dira, bereziki Etchecopar.*

*Adin batean neke da trebatzea, goizik basi behar da. Geroa ikastolako baurretan dago. Sobütakora irakasle bat etortzen zaie astero. Ikasle gazteño zenbait eijerki basiak dira.*

## Burutzeko

Zubereraz ekoizpen jori eta nasaia dugu trajerian eta kantorean, hots betiko sailetan ; hein batekoa ipuinean eta istorio laburretan, baina xuhurra kazetaritzan eta hats luzeko prosan: eleberririk ez, saiakera guti. Gainera «Herria» astekariko berri emaile iraunkorrik ez dugu edireten Zuberoan. Egia da oso guti garela euskaraz irakurtzen dugun xiberotarrak.

Prosazko liburuetan, salbuespenak dira **Jakes Sarrailleten «Basabürüa»** eta **Jüsef Etchebarneren «Eguzki Amandrea»**, gorago aipatu ditudanak.

Bestalde bertsoalaritza ere lo dugu mementoko. Horren pizteko saio zenbait egin dugu bertso paper lehiaketa batzuei esker. Luma onik agertu da horietan, hala nola **Patrick Queheille** batena. Haatik aho-mihizkora igaratea zinez zail eta neke da 30 urtetan, oso gazterik hasi behar da, eta lehiakideak aurkitu. **J.M. Bedaxagar** zenbait aldiz saiatu zen, baina bisean-bisekorik ez eduki. Orain **Mixel Etchecopar** ausartzen da, haatik honek ere ez du hainbat aurkaririk Zuberoan. Geroa haurren artean dago : horretara prestatzen dituzte Sohütako ikastolan, zenbait eijerki hasiak dira, eta baliteke hortik berpitz dadin Mardok eta Ligetxek ohoratu zuten uhina, Etxahun-Iruri ahantzi gabe.

Azken izen bat, Txomin Peillenen artikulu batean irakurri duguna gorago: «**Allande Elixigarai** eüskaltzale jakintsüa, 1919-2001» (Le Miroir de la Soule, n° 1114, v9/V/2001). Sinadüraz ARTIGAU, Ligiko laborari bat zen, istorio kontatzaile trebea, ezteietara horretarako maiz gomitatua, eta hiru liburugaietan parte hartu zuen Txominekin: «Allande Elixigarai ligiarraren ixtoriak» (Donostia, 1989), «Bortüko landjerak eta eritarzünak» (Donostia, Barandiaran Fundazioa, 1998), eta hirugerren kapitulu baten gaia, «Zephoka Basabürüan».

Hemendik aitzina geroaren iragartzen hasi behar nuke, baina historiazale umoretsu batek zioen bezala, iraganaren iragartzeak aski lan ematen digu. Bego beraz hor.

Azken hitza pastoral errejentari, taula zuzendariari. Idazlearekin eskuz-esku lan eginez, elgarri hobekuntzak proposatuz, mirariak egin ditzake.

Istorio mehe batetik zerbait eijer, politik adelatzen du (pastoral txarrrik ez dut behinere ikusi), idazki on batetik pieza eder bat ateratzen, testu bikain batetik antzerki handi bat agertzen.

XX. mendeko bigarren partean, andana baten artetik gailendu dira lehenik Marcelin Heguiaphal Sohütakoa (1910-1996), pastoral errejent leinu luze bateko azkena, euskaltzain urgazlea, eta Garindaineko Battitta Urruty (1919-2004). Geroztik ezagunenak ditugu Jean Pierre Recalt Alzabebetikoa (Altzai) eta Jean-Fabien Lechardoy Barkoxe Mardoenekoa.

## HIZTEGI LABURRA

### A

Abantzü, abantxü: ia, kasik

Abil gibel: habil gibelera, habil atzera

Abio: abiatzea, hastea, hasiera

Abis: abisua, aburua, iritzia

Adelatü: prestatu, txukundu

Adelüa: txukuna

Afera: arazoa

Afruntü: iraina

Agitü: gertatu

Añari: 1. aharia (osoa), ahartzartza, marroa. 2. zikiroa

Aharrak: kalapita, liskarra

Ahotx: Erronkari aldean, iparraldekoa, bereziki zuberotara

Ahotz: labore alearen (bihiaren) inguruko azala

Ahürreta(ra): eskuaren betea

Aigü: haugi, ator

Aihari: afaria

Aitzi: aurka, kontra (ikus: aitzitik)

Aitzina: aurrera

Aizina: astia, beta

Akodiñak: etxeko lan xeheak

Aldikal: aldi oroz

Aleta, areta: alta, hala ere

Alhatü: bazkatu, larratu

Alor: landa, lur landua

Aments: gutienez, bederen

Amiñi bat: apur bat, pixka bat

Amoina: limosna

Andoila: txistor gogor mota bat

Anhoa: bideko edo mendiko janaria

Apairü: otordua

Apezküpi: apezpiku, gotzain

Aran: 1. ibarra. 2. oihartzuna

Aranatü: oihartzuna itzuli

Arauz: araiz, agian

Ardietsi: erdietsi, lortu  
Ardüra: maiz, usu  
Arrabit: biolina, xirribika  
Arradail: urteko bigarren belar uzta  
Arragret (fr. regret): damu, dolu  
Arraheinki: artoski  
Arramahanka: arrantzu txikian bi makilen arteko sarea  
Arranjatü: antolatu, arrimatu  
Arrastan: haatik  
Arrastiri: arratsaldea  
Arres: ardia  
Arrenküra: arrangura, kezka  
Arropa: jauntzia  
Arte: tartea, bitartea  
Aska : orgia, tripa jokoia, mahaiko parranda  
Askazi: ahaidea  
Ataki: atakatu, eraso  
Atxeter: medikua, sendagilea  
Auer: alfer  
Aujame: mamua, zomorroa  
Ausarki: ugari  
Axuri: arkumea, bildots gazteñoa  
Azkar: indartsu  
Aztal: orpoa

## B

Bait, baiko: orduko, bezain laster  
Bakantzak: oporrak  
Bakoitx: bakoitza, bakarra, banakoa  
Balde: antzeko, bezalako  
Baratü: gelditü  
Baratxuri: berakatzatza  
Barber: medikua, sendagilea, bereziki kirurgikoa  
Barrükü: abeltegi estalia  
Basa: basokoa, oihanekoa  
Basatü: sumindu, onetik atera; kantuan musika txukunetik at abestu  
Batzarri: harrera (ona usaian)  
Baxa: amildegia, erroitza, labarra, pendoitza  
Bedezi, medezi: medikua, mezinera, sendagilea  
Beha: adi (egon), entzun beharrez

- Bekantü: bakandu, gutxitu  
 Belar: kopeta, borontea  
 Belhar: bedarra, belarra  
 Belhagile: belarrez artatzailea, sorgina  
 Beli: erne  
 Berakatuxe: eztituxe  
 Berjite: izaera, jite  
 Bertzata(ra): pertzatarra, gadaretara  
 Bigerren: bigarren  
 Bilaxka: borroka  
 Bilu: ilea  
 Blu (fr. bleu, gazt. azul): urdin  
 Bohor: 1. behorra. 2. zaldia  
 Boilatü (gast. hollar): oinkatu, zapaldu (ehuleak bezala)  
 Borogatü: entzun  
 Boronte: kopeta  
 Borta (fr. porte): atea  
 Botxe: potxea, harkaitza, arroka  
 Botz: 1. ahotsa. 2. botua. 3. poza  
 Botzik: pozik  
 Bozka: bozketa, hauteskundera (haatik ez botua)  
 Boztario: bozkarioa, poza  
 Broketa: upeleko txotxa, zotza  
 Buhatu: ufatu, haizea bota  
 Buhots: urdearen mintzo berezi bat, «buh» eginez  
 Builta: bulta (1. aldarte. 2. denbora-bitarte) –bulka, bultzada– bortuan artaldearen meneko eremua : artzainak goizean hara bultzatzen du, itzulia (vuelta?) egin diezaion arratseko.  
 Büilür: bilur, begizta moduko lokarria  
 Bürau: birau, juramendu, sakre  
 Bürühata: buruaz emaniko kolpea, talka  
 Bürü ments: buru eskasa, ahula  
 Bürüz piko: buruz behera  
 Burrustan: pilaka, ugari  
 Butz: haize kolpe, putz  
 Buxeriatü: harakinaren lehen lana egin  
 Buxi bat: poxi bat, pixka bat  
 Büzta: buztina –Erronkarieraz *buztuna*– zuberera zaharrean *büztüna* izan behar zuen: gaurko *Büztanobia* (büzta hobia) etxeak, Alozen eta Lakarrin, *Büz-tünobia(k)* ziren Erdi Aroan (Censier Gothique de Soule, I377).

## D

Daigün: datorren, heldu den  
Dailu: tailua, sega  
Debetü: debeku(a)  
Den mendrenik: den gutxienik  
Diharü: dirua, sosa  
Doi: justu  
Doi-doia: ozta-ozta  
Duela: itsasontzi eta upa ohola (taula)  
Düründa: ortzantza, trumoia

## E

Ebatsi: lapurto, ostu  
Ebi: euria  
Egite: eitea  
Egongia: egoitza  
Egürüki: goaitatu, itxaron  
Eho (dü): hil (du)  
Ehelegagarri: jasanezina  
Eijer: polita  
Eine: akitu, nekatu, unatu  
Eküratü: gelditu  
Ekürü: geldirik  
Ele: hitza  
Elestan: hizketan  
Elge: lur landua, bereziki ibar hondokoa, ürrüperakoa  
Eli bat: Talde bat (sing.)  
Elibat: zenbait  
Engoitik: dagoeneko, honezkero, hemendik goiti  
Engoxatü: alditxartu, mututu, trenputxartu, konortea galdu  
Entelegatü: konprenitu, ulertu  
Entelegü: adimena  
Entreinak: 1. hezur juntadurak. 2. Hesteak  
Eradan: edanarazi  
Eraitsi: jaitsarazi  
Eratxeki: atxikarazi, lotu  
Eretzean: bisean bis  
Ehi: behatza  
Erkaitz: barrexka, irrixka  
Errabero: esne jetzi berria

Erraki: errekoa (bereziki haragia)  
 Erremestiatü: eskertu  
 Erreüs: ezin egonez, kezkatu  
 Erri: irria, barrea  
 Eskail: egur puska  
 Eskerniatü: 1. nekatu. 2. eskarniatu, adarra jo, burlatu, trufatu, ihakina  
 egin  
 Eskernio: eskarnioa. 1. nekea. 2. Burla, trufa, iseka, ihakina, imintzioa  
 Esprabi: 1. probatu. 2. nekatu  
 Esprabü: 1. proba. 2. eragin bortitza  
 Etxano: etxeñoa, bereziki mendian, etxearen eta artzain etxolaren artekoa  
 Etxeki: atxiki, eutsi  
 Ez etxit: ez arras, ez osoki  
 Ezkur: pago ezkurra, pagatxa

## F

Feida: feria, azoka  
 Furtxeta: sardexka  
 Fres: gastua, diru xahuketa

## G

Gahatü: atxiki, eutsi  
 Gaihaje: harrera beroa  
 Gaintitü: irentsi  
 Gaitzitü (zaio): gaizki hartu (du)  
 Gaitzürü: gaitzerua (bolumen neurri bat, dekalitrotik hurbil)  
 Garratxa: gorroste txikia  
 Gaiztü: sumindu, haserre gorrian jarri, onetik atera  
 Gatülü: katilua, goporra  
 Gaxur: gazura, gazta egin ondoren gelditu den esne mehea  
 Gatzatü: likido bat solido bilakatu, koagulatu (eta ez gazitu)  
 Gazitü: gatzez ondu  
 Gaztanbera: esne gatzatua, gazta bera, biguna, mardo  
 Geinatü: 1. bazkatu. 2. zaindu. 3. aurreztu.  
 Geinü: 1. janaria. 2. arta. 3. aurrezkoa  
 Giñatü (fr. guigner): 1. zeharka begiratu, begistatu. 2. desiratu, gutiziatu  
 Golare: koilarea, zalia, gahea  
 Gresilla (fr. gril): parrila, matxarroa  
 Gültzürün: giltzurruna



## H

Habia: kabia, kafira

Haboro: gehiago

Hai: hau (etsaiak hi jo hai/hau)

Haidürü: itxaroten, goaitan, beha (egon)

Haizü: zilegi

Halda: falda, gonaren (zaiaren) hegala

Hantü: hanpatu, haizez bete

Hasperen: hats beherapena, intziri arnasa

Hatsalbo: hantsantua, arnastuka

Hatü: janari eta hornidura sorta

Hatüka: andregaiaren altzari, oihal eta beste hornigaien etxe aldaira

Hatüa hont: joan, alde egin, lekua huts!

Haxe: zama

Haxero: haxekaria, zamaketaria

Heben: hemen

Hegatz: teilatua

Hel: help!

Heltü: arribatu (Iruñeko ferietan, Otxalde), iritxi

Heltüra: sokorria, sorospena

Herexa: arrastoa, aztarna, hatza

Herots: hotsa, arrabitsa, azantza, zarata

Herresta (n, z): narrastuz

Herroka: lerroa, ilara

Hon: on

Hoin (huñ): oin

Honki jin: ongi etorri

Honkoi: onkoia, ahozeria, mokofina, sïbarita

Horra niz: banator, etortzen naiz

Hüllan: hurran, hurren, hurbil, gertu

Hunki: hunkitu, ukitu

Hur: ura

Hurrua: zurruta

## I

Idoki: kendu

Igitü: higitu, mugitu

Ihakin: imintzioa, norbaiten imitazioa, maiz eskarnioz, isekaz

Ihardetsi: erantzun

Iharrausi: inarrosi, astindu

Ihor: inor, nihor  
 Ilazaldi: astinaldia, iharrausaldia, inarrosaldia  
 Ilazi: kardatu  
 Indan: emaidan (Ama indazüt atorra, mentüraz sekulakoa)  
 (Partitze triste hontan, indazüt esküa)  
 Iñar (bat): pixka, poxia, gutia, txorta, ttantta  
 Iñazi: tximista  
 Inkatz: ikatza  
 Intertan: anartean, bitartean  
 Irurzuri: irurziria, düründa, ortzantza, trumoia  
 Irus: uros, dohatsu, zoriontsu  
 Iseiatü: entseatu, saiatu  
 Itziki: hurrupa, zurrutada  
 Ixarratü: xafarratu, garbitu  
 Izari: neurria

J  
 Jaidüra: joera, bereziki arimako eta gorputzekoa  
 Jauki: atakatu, eraso  
 Jaulki: adierazi, kontatu  
 Jauziz: jauzika, saltoka  
 Jauzkagia: jauzkako lekua, saltokako tokia  
 Jeitsi: jetzi, esnea herrapeik atera eskuz edo makinaz  
 Jelki: elki, jalgi, atera, irten  
 Jelostü: 1. mesfidatu. 2. bekaiztu (berria)  
 Jesan: mailegatu  
 Jin: etorri  
 Jite: jaidura, joera  
 Joalte: joarea dakarren lepokoa  
 Jüjatü: epaitu  
 Jüje: epailea

K  
 Kabale: kabala, azienda, animalia  
 Kailes: erronkarikoen izengoitia  
 Kaldü: ukaldi, kolpe  
 Kalostra: klaustroa  
 Kanbera: logela  
 Kanbiatü: aldatu  
 Kanbio: aldaketa

Kantü: alboa, aldea  
 Kario: garesti  
 Karkabillots: karkaila, karkaza, algara  
 Karmañola: parranda (iraultzaile jakobinoen «dansons la Carmagnole»  
 kantutik  
 Kartiel: eskualdea (gehienetan txikia)  
 Kausitü: 1. aurkitu, ediren. 2. erdietsi, asmatu, lortu  
 Kesero: gaztagilea  
 Kexü: haserre  
 Kihilla, kehella: kereta, xehela, langa  
 Komünianka: jaunartzeko jaia  
 Konbersa(zione): solasa, solasaldia  
 Kondera: arrosarioa  
 Kordamüsa: kornamusa, etengabeko solasa, hitz jariora, letania  
 Kordokatü: kolokatu, koloka jarri  
 Korpitz: gorputza  
 Korrea: 1. uhala. 2. laboreen aletzeko, bihikatzeko idaurra  
 Kosi: kusia, lehengusua  
 Kostüma: usaia, ohitura  
 Kotalüxe: gonaluzea  
 Kotera: txorta, ttantta  
 Koxü: pitina, apurra  
 Kraka, traka: traza, tankera, itxura, bereziki ibileran  
 Kuhat: kolpea, ukaldia  
 Kümitü: gonbitea  
 Koxelü (iz.): aho peka esana, belarrira errana  
 Kozü: kutsua

## L

Lahardekatü, lahardeki: larrutu  
 Laüdorío: goresmena  
 Landa: lekora, ondoren, ondotik, ostean, ostera  
 Lantzer, lantzar, lantzurda: langarra, euri xeheñoa  
 Largatü: lasaitu  
 Larrazken: udazkena  
 Lerdo (egüna): ostegun gizona (ihautiriko azkena)  
 Letera: letra, gutuna  
 Liro: lezake  
 Lloba: (illoba), iloba (osaba edo izebarena)  
 Loseria: eiherako losegia, errotako parte bat

Lotsa: beldurra  
 Lünetak: betaurrekoak, begi lagunak  
 Lurtadüra: lurroldea, luizia, lur-jausia  
 Lurtatü: lur zati on batek alde egin, lerratu, labaindu

## M

Mala: lohitokia  
 Manatü: agindu  
 Mardo: bigun  
 Medezi, bedezi: medikua, sendagilea  
 Ments: eskas, faltan  
 Mengoa: desirkundea, gogoa, deia  
 Mera: alkatea, auzapeza  
 Mestüra: arto opila  
 Mihise: izara, maindirea  
 Minat, bina: pitarra, ardo meheñoa, mahats zapatua (graspa, lapa) latsa-  
 tuz egina  
 Miusat: arto opila edo taloa esnean zopatua  
 Mürrü: horma, pareta  
 Musa: moltsa, poltsa, diru-zorroa  
 Naba: ibar edo haran ezti eta zabala (adibidez Arbaila mendi multzoan  
*Ibar Naba*)  
 Ñapür: litxarra, bereziki bazka debekatuan sartzea maite duena  
 Ñika: begi kliska, elgar aditzeko keinua

## O

Ogendant, ogendün: hobenduna, erruduna  
 Ohartü: konturatu – Maiz eta usu, *oritüren* ordez erabiltzen da zubereraz.  
 Oker: makurra, bihurria  
 Oldar: eraso  
 Oliat: olio eta baratxuri (berakatz) salda  
 Ondatz: funtsa, fundamentua  
 Ontsa: ongi  
 Orda(r)ia: 1. ordaina. 2. ordezkoa, ordezkarria  
 Ordünko: orduko  
 Ordunkoz: ordukotz  
 Oren: ordua  
 Oren bakoitx altean: ordu bata irian  
 Oritü (*obitü, orbitü*): oroitu  
 Osagarri: osasuna

Ots(ez): buhots, eztülots, huxtülots, kantalots, karkailots, karkabillots, nigarrots, üzkerrots(ez)...

Ozen (izond.): indartsua, klarra, argia (bereziki hotsa, baina zaporea eta abar ere)

Ozke: hozka, koska

## P

Pakatü: pagatu, ordaindu

Palet: adar zabala

Pantzoila: urdaileko sakela nagusia

Parete: pareta, horma

Partü: topo egin

Paseiü: paseoa, ibilaldia

Pasü: hesi bateko pasarte

Pastetx: taloa

Pausü: atsedena, deskantsua

Pegar: lurrezko suila

Peala (pi(a)la: pera, azpira

Pertola: bertola, arrain zepoa

Pettar: eskualde bateko beheera, hango biztanlea ere, bereziki Zuberoan

Pihu (izond.): deüs gabe

Pilardit: gezurtia

Pilda: arropa, beztimenta, jantzia, maiz piltzarra, zarpaila

Pitzaldi: pizte aldia, haserrealdia

Pozoatü: pozoindu

Prefosta: alabaina, bistan dena, jakina, noski

Pürü (phü): bederen

Putza saldü: salatu

## S

Sabai: belhartegia

Sabant: jakintsu(n)a

Sakola: sakela

Saldo: taldea, maiz handia

Sanka: behien arrama luzea

Sarri: geroxeago, aurki

Sasu: sasoia. 1. urtaroa. 2. eguraldia : egün bortüko sasu dizü.

Sento: indartsu, kementsu, guziz sasoian

Sinetsi: 1. sinetsi. 2. obeditu

Sobatü: orea edo larrua landu

Sordei(s): are okerrago, makurrago  
 So: 1. iz. «begirada». 2. adlag. «begira»  
 Soro: belardia, pentzea

## T

Tahaila: mahai oihala  
 Tai gabe: gelditu gabe, atertu gabe, etengabe  
 Taula: ohola  
 Teiü (theiü): zikin  
 Tenore: ordua  
 Terresta: ik. herresta  
 Terrixot: lurrontzia, katilua  
 Tipiña: tupina, eltzea  
 Topet: flaskoa (frasco, fiole)  
 Tototü, ttottotü: jarri, eseri  
 Tramada: ilara, lerroa (belar tramada sabaian)  
 Trantxa: udaiazpi zerra  
 Trenkasega: trontzazerra  
 Trenpatü: busti, zopatu  
 Trenpü: sasoi  
 Tripot: odolkia, odolestea  
 Trahola: lan xehea, artegagarria  
 Tintta: ttantta, txorta  
 Txanka: zangoa, makulua  
 Txasko: ezustekoa, atzipena  
 Txerkatü: xerkatu, bilatu  
 Txeste: dastatu  
 Txilimista (Pettarrean): tximista  
 Txinkor: urdaia (usaian zuria)  
 Txo: ixo  
 Txorta: tanta  
 Txortola: itatxura, itogina, ttantta  
 Txükadera: xükadera, eskuzapia, toaila  
 Txükü: xuko, siku, idor, lehor  
 Tzüntzürra: zintzurra

## U

Ühülgü: durunda, ortzantza, trumoia  
 Ükaraia: eskumuturra  
 Uin(h)u: tipula

Unka: unga, bolumen izari bat (hektolitro erdia, lau gaitzeru).

Üinürri: xinaurria

Ürrats: pausoa

Ürrentü: amaitu, bukatu, burutu, finitu

Ürrin: usaina

Ürrüpera: errepira, erribera, ibai ertzeko lur laua

Urtuki: jaurtiki, bota

Üstio: ustiatu utzi (zietata(ra) üstio jan dü)

Üsütü: joritu, maiztu, ugaritu

Üzkü: ipurdia

## X

Xahako: zahatoa

Xahatü: garbitu

Xahü: garbi

Xai (fr. *chai*, ahoskatu *xε*): sotoa, upategia

Xanfart: parranda, bereziki mahaikoa

Xede: norbaiten helburua, jomuga

Xehela (Pettarrean): kehella, kihilla, kereta

Xikitatü: zikitatu, zikiratu

Xirikota: gazura, gazta egin berriari darion ura

Xokota: zokoñoa

Xotena: (negar-) zotina

## Z

Zainart: kementsua

Zain-hil: motela

Zahi: ale (bihi) azal zehatua

Zal(h)e: zalu, arin

Zanko sagar: zangarra

Zanko zola: oinazpia

Zare: saskia, otarrea

Zeditü: amore eman

Zehe: esku zabalduaren neurriko luzera

Zelü: zerua, ortzia

Zenbera: gazuretik eginiko gazta mehea

Zerra (biarn. *serre*, gazt. *sierra*): 1. mendixka, muinoa, bereziki bizkar luzea. 2. herri bateko basabazterra: *Mitikile Zerra*, frantsesez «*quartier Lasserre*» gaizki deitua; izatekotan *la Serre* behar luke.

Zerrailü: hesia, bereziki landare bizizkoa.

Zerratü: hetsi, itxi  
Zieta: azieta, platera  
Zihain: esne-gaina, krema  
Zipa: hipa, negar-zotina  
Ziunta: ziztu bizia  
Zoinü: kezka, arta, arreta eskatzen duen lantxo andana.  
Zola: hondoa, behealdea, oinarria  
Zotükatü, zotüki: ernatu  
Zotükü: mugitzeko ahalmena, ernetasuna  
Züzülü: zizeilua, zurezko aulki luze bizkarduna.





# ERANSKINA

Txomin PEILLEN

Egiategiren filosofo huskaldunaren ekheia  
(bigarren liburukia)

Zuberoako literaturaren antologia labur honen idaztea bukatua nuen, Txomin Peillen euskaltzain lagunak ahalbidetu didalarik Jüsef Egiategiren bigarren liburugaiko eta horren argigarri Txominek adalatu dituen oharretako zati hautatuen hemen agertzea. Nire lana ez denez, iduritu zait onena zela eranskin bezala gehitzea. Peillenen aurkibidea eta hitzaurrea lagun, hona XVIII. mendeko filosofo euskaldun hark zer dioen gerlaz, bakeaz eta erlijioaz, Txominek paraturiko liburua luza gabe osorik argitaratzen ikusteko esperantzan.



## AURKIBIDEA

Hitzaurrea (Eskuidazki berria, grafia, hizkuntza asmo nagusiak, idazleaz zertxobait gehiago)	7
Ametsetzaz	19
Eskerhaurretzaz edo bastartez	23
Biziaren laburgoaz	25
Akadoi azkenaz	27
Damorriaz	29
Bizitziaz	31
Bekhaizgoaz	33
Adiskidegoaz	35
Izkontziaz	39
Begithartiaz	45
Amorioaz	47
Zahartarzunaz	49
Nihaurengoaz	53
Egiaz	59
Denboraz	63
Sorgin eta belhagiletzaz	65
Soldado edo gudarietzaz	69
Aberastarzunaz	79
Jakindiaz	83
Dihariaz edo diruaz	89
Patuaz	97
Igermenaz	103
Errükiaz edo piedadiaz	105
Emaztetzaz	109
Zorihonaz	117
Gerlaz	121
Handitarzunaz	127
Zorthiaren bürüzairietzaz	135
Laidorietzaz	137
Jendiaz	143
Auherkeriaz	145
Ozartiaz	149
Herriaz	151

Bakiaz	155
Eskelegoaz	157
Paganoetzaz	163
Iripediaz	167
Pheredikiaz	171
Aphezetzaz	175
Printzietzaz	183
Ordainetzaz	193
Erreljioniaz	195
Aberastarzünaz	211

## Hitzaurrea

(Hauek dira Egiategiren lehen esku idazkian agertu ez ziren kapituluak Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan, liburu-zain ezjakin batek kantu bilduma batean sartu zituenak).

### Bigarren idazki baten kondaira hitsa

Josef Egiategiren liburua 1055. zenbakiarekin Pariseko Bibliothèque Nationale delakoan aurkitu nuenean konturatu nintzen nonbait ehun eta hogeibat orrialde eskas zituela. Galdutzat eman nituen. Handik hamar bat urte Patri Urkizu bertso bilketa baten egiten zebilelarik, 1056. esku idazkian alegia «*Recueil de chants guipuzcoan*» edo gipuzkoar kantu bilduma baten barrenean aurkitu zituen nik idoro ez nituen ehun eta zenbait orrialdeak.

Esku idazki horrek lehenaren alderantziz baditu bere abantailak eta bere akatsak. Abantaila da Egiategik ez duela bere hiztegiaren Larramenditzeko asti osoa izan eta, erabilera deitoragarria gogoan sartu baino lehen, bere jatorrizko hizkuntza zer zitekeen hor ikus genezake. Gainera «zuzenketen» azpian irakur liteke lehen idatzaldia. Abantaila eta alde ona ere da, agian, gaiek lehen liburuan baino hobeki berotu eta goi hatsa eman diotelako gure idazleari.

Akatsak, ordea, esku idazkiaren itxurari lotuak dira, ezen esku idazki hau lehenaren alderantziz ez delako garbitan ipini eta zirriborroa delako. Orrialde batzuek, orduak eta orduak eskatu dizkidate irakurtzeko, horregatik eta modan dagoen arren, idazki horren fotokopia Euskaltzaindian dago.

Esan dut manuskrito horrek ekartzen dizkigula Josef Egiategiri buruz xehetasun asko; kapitulu oso bat Belatar aitonen semeen goraipamena delarik eta lehen liburuan aitonen seme bati zuzentzen delarik gure gizonak etxe horrekin zituen harremanak salatzen dizkigute. Badakigu Joan Felipe Belakoa Poloniako erregearen alde gerla egitera joan zela euskaldunekin eta hain zuzen Egiategik kontatzen digu nola gerla ikusi duen, nola soldado egon den Polonian eta Alemanian Berlin-en ibili den (*ik. Gerlaz, Soldado gudarietzaz* eta *Bakiaz* kapituluak).

Egiategi filosofo eta soldadu bai, eta horregatik gerraren moral eta material kalteen aurka idazten badu, antibelizista bada, ez da soldadutzaren etsai, bakoitzak armada bere lurraren zaintzeko edukitzen badu, behintzat. Beraz Egiategi J. F. Belakoaren kanpoko gerletan ibili da. Han, nonbait, zauritua izan zitekeen zeren handik itzulita Belak «Royal Cantabres» Erregimentua antolatzen duelarik gure filosofoa ez da zerrendetan agertzen, agian, ordukoz elbarritua edo zelako idazlea

Berak lehen liburuan dio parrokiako maisu «parropiako errejenta» izan dela eta elebidun den hirugarren liburuan idazten du «kolejioko errejent» izan dela. Egia da Frantses iraultza baino lehen eta haren lehen urteetan Maulen Belatar baten diruekin kolegio bat sortu zela eta hor bi «maître d'humanités» hartu zituztela. Haietarik izango zen Egiategi, baina bien izenen ondotik gabiltza oraindik. Argi dago bestalde eskuen artean eduki zituela Egiategik Jakes Belak XVII. mendean frantsesez idatzi «*Tablettes*» delakoak.

Bestalde badakigu E. Lambertek erranik Belako zaldunak Larramendi Baionan bisitatu zuela eta elkarrekin hitz egiteko latina erabili zutela, halaber Larramendiren hiztegia Sorhuetako Belatarren jauregian zegoela. Jauregi hori beti zutik dago eta hor alboan dauden ikastolako ikasle irakasleek jakin dezatela Egiategiren eta Belaren itzalean daudela.

Ahaleginak egin arren oraindik ez dugu bataio agiririk ez hil agiririk ediren Belatarren goraipamenean ordea ikusten da Egiategik aitortzen duela Jean de Bela hil dela beraz liburua 1796-1797.ean berriz ukitu zuela, nahiz azalean lehen liburukian 1785. agertu Koldo Mitxelenaekin sumatu genuen bezala liburu hau ez zen Frankfurten argitaratu.

Horrez kanpo kapitulu nagusien artean badaude erlijioari buruzkoak: hor ere bere eskarmentuak gogoan ederki idazten du ; kontraesan osoan lehen kapituluetan agertzen diren teologoek aurkako eta lehenbiziko protestanteen aurkako lerroekin, liburuki honetan edozein federen aldeko tolerantzia argudiatzen du. (ik. *Apezetzaz*, *Errelijioneaz*, *Paganoetzaz*, *Pheredikiaz* kapituluak). Egia da garaiko ideietan dagoela. Nahiz kontserbadorea izan Mogel baten antzean, nahi ala ez, garaiko «argien mendearen» kutsua daukate biek.

(...)

Lehen liburukitik ez dago arte handirik, erreformista bat ikusiko dugu, diruaren eta aurre kapitalismoaren etsaia, lehenagoko denborez topiko batekin datorrena, hots bere gazte garaia oraindik XVII. mendeko austeritatean bizi zenaren garbaitan.

Halaz ere, hirur kapituluek gizonaren pentsamendu berrizalea agertzen digute, bere eskarmentuen bidez nolakotu zen. Bere bizitzaz dio soldadu egon dela Polonian eta Prusian ibiliz eta handik ekarri duela gerlarenaganako ezinikusia. **Gerlaz** kapituluan armadek jende xeheetan egiten dituen sekulako kalteak gaitzesten ditu. Gero **Gudarietzaz** kapituluan armadaren beharra, haren eginbidea, eta haren mugak aztertzen dituen.

**Errelijioneaz** kapituluan azpimarratzeko da nola erlijio aniztasunaren alde dagoen, nola erlijio gerlak kondenatzen dituen, eta nola eskatzen duen protestanteentzat tratatu hoberik izan dadin. Egia da airean zeudela ideia horiek, baina bestalde eskuen artean zituela Egiategik Jakes Belako protestantearen frantsezko «*Tablettes*» delakoak, beste liburu batean imitatuko dituenak.

Ohargarria da ere musulmanen ohituren goraipamena, hala nola Turkoena nahiz aitortzen duen garaiko Kristauen etsai handienak direla.

**Aipamenak** Hamazazpigarren mendeko euskal idazle gehienen alde-rantziz gutitan ditu bere aipamenak jatorrizko hizkuntzan ematen eta lehen liburuan ikusi genuenez, apur bat Axularen gisa, formula aberasten du, aldaxetan eta bere irakurleen heinera egokitzen. Gai batzuekin hala nola aberatsak edo dirudunak, gerla, gudariak, adibide asko ematen du, frantses liburu batetik hartuak ezen, behin, frantsesez abiatzen baitu esaldia, ezabatzen du eta ondotik euskaraz ematen. Pentsatzen dut ere hamazazpigarren mendeko Belaren «Tablettes» delakoak irakurri zituela; pazientzia higiturik irakurketan erkaketa hori ez dut egin baina biak irakurri ditudalakoan, oroitzen naiz zati batzuk antzekoak direla.

Halere egitasmoa ikusten denean ez da liburu hori itzulpena, ezen izenburuak euskaraz alfabetoaren zerrendan badaude, frantsesera itzultzen badi-tut gisa batez edo besteez ez dut inolako ez alfabeto orden ez eta ideia orden zehatzik ikusten bigarren liburuki honetan.

(Lehen liburukian baziren lehen bederatzigarren kapituluak, giza eskarmentuen eta heziketaren gaiak, urrengo hamarretan familiaren barneko egin-bideez, ondoko beste laueta bizi az eta heriotzaz, gero berriz bost kapitulu, maitasun eta gorrotoez ).

Saiatu naiz Antzinateko jendeen eta lekuen izenak zehazten baina bospa-sei badira XIX eta XX. mendeko entziklopedietan aurkitu ez ditudanak.

/297/**Gerlaz** (1)

Gerla da Jinkoak egorri dian mikalta latzena (2). Bethi izan ta izanen dena pholborarren sorlakiak diratekieno (3); khandio handia dü jarri gudetan; nozpait harma thipilak (4) eskian gudariak ziradian bata berziari hüüllantzen (5) eta han bihoztoiari erramia (6) zagoan. Orai kanon ta ezkopeta'khaldiz ürrhünetik dirade harmadak gudadzen, hala gütiago jende da hiltzen ta bitoria merkiago dena erosten tiesoago bere lekhian dago.

Izan da dierri (7) batzu gerlan baizik etzirenak laket, hetarik Alemanak ta *Thrassak* hartakoz *Euripidak* deitzen dü *Thrassia*, Marsen herri. Dierri bada gudariak harmak dütieno bethi garbi ta xahü, bena nontik jinen zereien gerla ez bethi beha (8) ta dremenden astakürrian (9) atabalaz edo tronpetaz ari direno gerlak bereki(n) dütian lokar(r)iak eztakie, herri osoki errer eztie dolürrik, jendia oihanetan ihesi dütie ikhusten ta haurrak gosez hilik. Hiritarrak ohi-türrik, biñatze erretzaz (10), etxalte galkerredaz (11) eztie axolik ; heek dirade gerlaren frütiak; alabadere gerla da sü bat behin phiztü denian ta lekhü bat erre berziala laister doana ta/298/ nekez hiltzen dena.



- (1) gerlaz: gudaz, gerraz
- (2) mikalta (Lar.) latzena: plaga latzena
- (3) sorlakiak diratekieno: egileak izango direno
- (4) harma thipilak: arma bilusiak
- (5) hüillantzen: hurbiltzen
- (6) erramia: aintzaren erramua
- (7) dierri (Lar.): nazio
- (8) bethi beha: beti zelatan
- (9) demendren astaküriaz: den gutttien aitzakiaz
- (10) biñatze erretzaz: mahasti erretaz
- (11) etxalten galkerredaz: baserrien suntsitzeaz

Negiarri üdüri Ekhia (1) gureganik abiatzen deno, odeiez dü zelia beltzen [sic] airia izotzez loditzen, lürra kharroaz herkhutzen (2), ostoak zühainetarik erorten (3) ta lürra bere edertarzünaz da pikarraitürik (4), orozbat (5) ari da gerla haren eretzian (6) zian aberastarzünetik herexarik ezterioe üzten (7) ta harez basa eremia (8) dü egiten, bere langiletzaz bagetürik d(üt)ialakoz hobenak erho (9) Milion bat gizon khosta zen Cöesaren fama ; zer fama errabiatia! (10) zonbat urthez halako galtzepena küperatü ezten! (11), hiriak hutsik, legiak hilik, errelijonia mengoan (12), khaparrek elgeak estaltzen (13) ta dolamen beltzik baizik orotarik ez entzüten.

Gaistokeriak dialakoz gerla behartü, bere legiak dütü. Halarik ihor baztert eztaitekina heetarik ezipalız, hala photeria lükianak gerla egin liro (14) bere nahiala ta guda lizateke mündian bidezaleak bezala oihenetan [sic] ohoiñen artian, hartakoz ezta gerla lealik, printzen artian dena baizik. Heek ere bere arrazoak (15) behar dütie ta harmak hartü beno lehen ogenak (16) izanik ere, batari arpezkiroz, manifesto deitzen direnetzaz, nahiz mündia bere althe jarri, die bere(n) züzenak edertzen ahalena kanoan ezkiribüz dagoelarik *ultima ratio regum* hartan *erregeren(tzat) azken arrazoa* dagoela.

- (1) egiari üdüri Ekhia: neguari irudi eguzkia
- (2) kharroaz herkatzen: hormaz lehertzen, zartatzen
- (3) zühainetarik erorten: zuhaitzetatik erortzen
- (4) pikarraitürik: biluzgorririk
- (5) orozbat: berdin
- (6) gerla haren erertzian: gerra hura dela ta, gerla harengan

- (7) herexarik ez tereio üzten: aztarnarik eztio uzten
- (8) basa eremia: basamortua
- (9) hobenak erho: hoberenak hil
- (10) errabiatia: amorratua
- (11) küperatü ezten: bireskuratu ez den
- (12) mengoan: beharrune handian, behar ta nahian
- (13) khaparrek elgeak estaltzen: sasiak zelai soroak estaltzen
- (14) egin liro: egin lezake
- (15) arrazoak: arrazoiak
- (16) ogenak: erruak

Bakiaz akhi diren (1) printzek gerlaren astaküriak (2) franko dütie: berrehün urthez hiri batez gozatzen delakoz, aizoa(3) ordian arrapatü zeienak edo aizoa sobera handitürrik itzal egiten dianak edo adiskideak eskerniatze (4) badü printze bakaltarri (5) batek. Zonbat aldiz errelijionearen gatik dialarik harek bakia pheredikatzen edo ardüra jeloskeriaz aizoa (6) delakoz sobera aberatsten.

Bada dierri denboratik denborala gerlaz beharra dienik frantzes da heetarik lehena./299/Aspaldian da errana hamar urthekal odol gaistoaren idokitzeko (7) ezpada guda eraziten dela hirotzen, (8) gerla dü maite, non nahi den harat doa frantzes laister, hartakoz ere nozpaitekoak zioan *nullum bellum sine gallo*.

gerlarik ez frantzes bagerik etzela, net (9) egia dena, ez berze batek beno herioaz eztian axolik, bena bai gauza berriak maite dütiakoz.

Lan lüzia da frantzesaren ozartezaren ta ezegokiaren heztia (10). haren bulzadaz baliatzia ekinarte (11) handia ezi khea bezala auher (12) dagoenian badoa, hartakoz da errana *güdaren batsarrian* (13) *gizon beno haboro* (14) *dela ta azkentzian emazte beno gütiago* .

- (1) akhi diren: nekatuak diren
- (2) astaküriak: aitzakiak
- (3) aizoak: auzoak
- (4) eskerniatzen: zirikatuz aspertzen
- (5) bakaltarri: despota
- (6) jelokeriaz aizoa: susmo txarrez auzoa
- (7) idokitzeko: kentzeko

- (8) hirotzen: usteltzen
- (9) net: osoki
- (10) ozartezaren ta ezegokiaren heztia: pazentziagabekoaren eta egonezinaren hezi egitea
- (11) ekinarte: erasoarte
- (12) auher: alfer
- (13) hatsarrian: hasieran
- (14) haboro: gehiago

Ez lotsaren (1)gatik bena haren bizitarzünak obra lüziak dütielakoz hügüin (2) ta bertan ezlotsarengatik beita minkaizten (3) Beraren ozartitzak dü etsaiaren komeiak (4) beno akhitzten erran dianak hobeki akopilatzian (5) ezi ez gordotzian (6) ta Espaiñola gordotzian akopilatzian beno, bi dierriak zütian ezagützen.

Hantik broba [sic] balore hotza beroa beno (7) gerlan tiesoagoa dela. *Cincus Sulpicius* prokonsulak frantzesen [sic] (8) kontra ari zenian zioan etziala etsaiaren bere ezokidaz hurtzen (9) zianareki(n) deusere bentüratüren, zialakoz denbora faltsiak frantzes bulzada *furorem gallicum* deitzen ziana, hiltzen.

Bena zoin nahi dierrian zonbat nahi gudari den diharü falda denian flaküki doatza obrak, diharria delakoz gerlaren zaiña ta ezi kidari zühürak zioan gerlan hirur gauza behar ziradiala, ürnrhe zilhar ta kopre, hiruetarik diru egiten dena ta haren mengoa (10) denian gauza güzien mengoan dabila jarraikiz, hartakoz *Augusta* enberadore zühürrenak Senatari zian gogatü bakian gerlan bezala sekülakoz harmaden bertraondiarena (11) egin ladin, thesoro bat osorik egonen zena, ezi den (12) gudaria nahi bezain bihoztoi behar guziak ezpa-dütü kobart/300/ dateke jarri, bihoztoiago ere gertzen deusere falda eztianian ; ta kidarriak zütianian zaitirantzen (13).

- (1) lotsa: beldurra, izua
- (2) hügüin: higuin, gorroto
- (3) minkaizten mikazten: mingosten
- (4) komeiak: komediak
- (5) akopilatzian (Lar.): ofentsiban
- (6) gordotzian (Lar.): defentsiban
- (7) beno: baño
- (8) frantzesen: («galoen», behar luke)

- (9) ez(eg)okidaz hurtzen: ezinegonaz hurtu egiten
- (10) mengoa: gura
- (11) bertraundiarena: betiraundearena, jaraikitasunarena
- (12) ezi den: ezen izan dadin
- (13) zütianian zaitirantzen: zituztenian zaintzen

Lazedemoniek etsaiak zütienian jokotria zonbaitez (1) garhaitü Mars Jinkoari zezen bat zien oberta (2) emaiten. Gudarien indarraz aldiz oillar bat baizik etzien eskentzen (3) hantik zielarik erakusten garaipen ederrenak ziradiala odol güitik ixuri zütianak, halakoxe, Coesaren errana.

*Bakia nabi badiük* (dio adagioak) *gerla adela ezak* (4).

Gerla aidürü dagoenari ardüra falda dereio egiten zeren eta hartara zabilara asustomaren (5) esperantza galdürrik, beitago geldirik ta printzen artian fede güitik edo batere ezpeita algarreki(n) adiskide etsaigeiak bezala dirade bizi; hartakoz gudariak ahalik haboroenak ta aitzinetik diharü behar zereiena, ezi zerbaiti falda küpera eztaite *Non licet in bello pecare*.

Coesar izan da khidari ta güdari mündüko handiena, berak zütian soldadoak ekireiten (6) bakian gerlan bezala. Kasü güzietan zer egingei zian (7) etzian bakhoitzik, noiz baraitz (8), noiz laister, noiz aitzina, noiz gibelerat, noiz lantzaz, noiz ezpataz, noiz algarreki(n) noiz berhez gudatü behar zien, batere etzen etzakianik. bera ere beharrean zen güdari ta khidari gerla handirik egin bazian ta lloria (9) hanitz bildü erran daite (10) etziala bere bizian soldadorik manhatü (11) berak beno lan ariman, megopian (12) ta khorpizian gehiago ükhen zianik.

- (1) jokotria zonbaitez: maltzurkeria batzuz
- (2) oberta: oberenda, oferta, doneskaina
- (4) gerla adela ezak: gerra presta ezak
- (5) asustomaren(Lar.): izualdiaren ?
- (6) ekireiten: itxuratzen
- (7) egingei zian: egin gogo, egin gura zuen
- (8) baraitz: geldiro, emeki, bareki
- (9) lloria: aintza
- (10) erran daite: esan daiteke
- (11) manhatü: agindu  
megopian: izpirituan

### Bakiaz

Justiziaren edo Akadoiaren etsai odolgiroenak dirade bakiarenak. Ezta alabadere zori honik mündian bakiaren pare denik. Haren begithardia haiñ eder da nola ekhia (1), haren izairiaren hatsa Arabiako intzensak beno mai-thagarriago. Gerlaren ezko sua (2) denian hiltzen, suminak chorzten, zelütik odeiak akhazatürük egün ederrak dereizkü eskentzen.

Bakia galtho dianari ez artzüka (3); emailiaren eskütan haiñ eder da nola hartzalirenetan ta sekülan ez ederrago baizik zori honak dereikünian, erre egiten delakoz hanitzez bitoria beno hobe delakoz Jinkoaren eskütan berzia aldiz gizonarenetan. Fortuna aizia bezala da ützültzen alde orotarot eztu egongia tiesorik, egün zombaiten adiskide izanik ezartzen da arrazo bagerik, gizon zaharra/324/ Arren hari ez fida, bakia eztelakoz ez eta kharioegi haren eros lirainari (4) ezi joan bada behin nekez da atzamaiten. Gerletan garrak hiriak ta elizak dütü erratzen, lürrak deseigoan ta galkiroan jarten bere odolian bera ithorik, lürrak khapar (5) ta elhorri baizik ez emaiten, jendia bakiari marraz hel dadin, nahiz sorhoen berderazitean elgiak erein berrian, jendia etxetarat deithzera, han aita, ama haurrak, miskandiak oro bakian, batzü berziak ürğaisten (6) dütieno, die Paradüsiren üdürigoa (7). Bai bakia da Jinkoaren lloria la leku dagoan herri güzietan han berdüdiaren herria.

- (1) ekhia: eguzkia
- (2) ezko süia: argizai sua
- (3) artzüka (Lar.): uka
- (4) lirainari: lezakeanari
- (5) khapar: sasi
- (6) ürğaisten: laguntze
- (7) üdürigoa: irudia

Bakiak dü(tü) gauza güziak beren lekhütan jarten, legiak azkartzen, hoiñak nekatzen. Bakia ezten etxian dago han infernia. Eztaite(ke) bakerik bizi, algarri eskiak ezteno emanik, faltsü ere bihotza, hitzemanen berme ezpada. Bakiak dütü etxaltiak xüxentzen, mendiak dien bezala ordokiak hontzen.

Gerlarik ikhusi eztianak, bakiaren balioa eztaki. Filosofoek dereikie erraiten bakia ezte la gauzetan ekidran (1) ederra baizik, dena gogomenen erakida (2)ta borhondadia gizonetan. alabadere bethi bakian bar(a)tzia debeigarri lizate(ke) (3) Aharra arhin batek arrapizten dü batzütan adiskidegoa. Algarrekin bizi behardünetan ber gauza ta amorioa ezpadie bakian lüzez irein ezpeitaite (4). zeren eta güziek haren bozkarioz errekeitü beharrian, hartan

laket eztenak bere phartez gütiago axol dialarik agertüren, astakürria hel betai-te (5) hantik. O! Etxandian jendia eztenian ber gogotik nola laiteke parropian, herrian, erresuman.

Jaun bat bazen hiri batian jende güzien tirano kharrikan zelarik igaraiten emazte zahar bat bathü zian (6) belhariko zereioanak erran (7) (6)Jinko honak dereizüla Jaun maitia bizitze lüzia osagarrian(8). Hüillantü (9) zen emaztiari ta galtho egin zertakoz zian Jinkoa harentako othoitzen [sic] zakialarik parropianter (10) min ahala ari zela. Emaztiak, bai Jauna hori zakit, zure aitaso Jauna ezagütü dit aitoreseemeetan ezpeitzen gizon hobenena, haren semia zen zure aita zena gaistoago zena, beldürrez zure jaun semia zü beno gaitzago gert' dakigün bizitze lüze bat dereizüt opatzen (11). Han, bakerik aspaldian ez izanik, ageri hirur parropiako Jaunen phartetik ezeta laurgettetik esparantza handirik.

- (1) ekidran (Lar.): orden, arau
- (2) erakida (Lar.): adostasun, akomeatze, ontsa jite
- (3) debeiagarri lizate: aspergarri lizateke
- (4) ezpeitaite: ez baidaiteske
- (5) hel betai-te: heldu baitaiteske
- (6) bathü zian: topatu zuen
- (7) belhariko zereioanak erran: belauniko zionak esan
- (8) osagarrian: osasunean
- (9) hüillantü: hurbildu
- (10) parropianter: parrokiako bizizalei
- (11) opatzen: agiantzatzen, desiratzen

Gerlak dütü erresumak khanbiatzen, errepublikak desegiten erreligionia iharrausten, haurrari ünhudia erhaiten (1), aitari semia ehorts eraziten. Bakiak baizik desodera (2)harrigarri hek aitzinta (3)edo heltü diradianian medika eztiro (4). Jinkoaren manhietan (5) dago bakiaren zori hona, heetarik gibeltzen giradino, bakia da ürrehüntzen.

Nahi die etsaiak guhaur bezala deitzagün maitha ta ahalena dütügü eskerniatzen ta kaltarraiten (6) ta gure elhetzaz (7) edo obretzaz egünkäl etsai berri dügü egiten. Bakia zen enia, niano, haustü (8) düdan bezain sarri berzere-na dago ta heen borhondadia hartara ezpada, küpera eztirot (9).

Gaitz handi baten gibeltü nahiz bakiaz niz gabetü, bena gogo ez emanez gaitzurre (10) handiagöala, non doala, hartara niz erori Jinkoak ta Izariak de-

reikie bakia gomendatzen, delakoz egiazko zori hona; bena hitz faltsiez ez eros artzakian (11), ez ahatz (12) hirur suerte direla.

1.a Hitz emaitian eztenian etxeki nahia (13), desleialtarzüna dena.

2.a Hitz emanaz garbaia, astokeria dena.

3.a Hitz etxeki ezina ganbero ta ohointsüen beltzakia dena.

- (1) ün hüdiak erhaiten: iñudeak hiltzen
- (2) desodera: desorden
- (3) aitzinta: aurrera(tu)
- (4) ez tiro: ez dezake
- (5) manhietan: aginduetan
- (6) eskerniatzen eta kaltarraiten
- (7) elhestaz: hitzetaz
- (8) haustü: hauts egin
- (9) küpera ez tiro: ez dezaket
- (10) gaitzurre (Lar.): arrisku
- (11) artzakian (Lar.): baldintzan
- (12) ahatz: ahaztu
- (13) etxeki nahia: atxiki nahia, eutsi nahia

### Errelijioniaz

Errelijionia da konzentziaren gurazcongarrri (1) ihorek (2) hartan züzenik ez tiana, ezetare talazkida (3) ahal lirokiana. Bortxaz edo amorioz hel ahal daite animal basaena, bena errelijione okherraren xüxentzia da Jinkoaren obra; haren manhüz Israelitek nozpait gudatu bazien Kananen odolgiroak, geroztik ihori holako photererik ez tü eman ta printze batzuek beren gain halako lankeian sarthü, züzenik bagerik, gauza sagratü ta santian gaitz güziak zereie-la gerthaldi berri dago brobatürrik (4) ezi Karles V. enberadoriak Alemaniako gogarpetariak (5) zütiano kaltarraiten (6) Henrike II Frantziako erregia sokhorri zien othoitü, ta harek Alemaniari liberdadia küperatü (7).

Arrazo berian Lois XIII Gustaf Adolf Sued(i)ako erregiari jündadürrik biek gogarpetien (8) etsaia zien garhaitü : halako obrak ez tirade Jinkoarenak baizik. Etzian Enberadoriak zelüko manhürrik gudukatzeke Alemanak, arren heen bakirea etsaiari frantsesak ta suedoak zütian jarri. Luis XIV. [sic] zütialakoz errelijionian bere iripediak eskerniatü, gerla tristetan zen sarthü, milion bat gizon Frantziatik desterratü (9) ta deus honik obratü, lana etzelakoz Jinkoari agrada.

- (1) gurazkongarri (Lar.): ondarezko, patrimoniozko
- (2) ihore: iñork
- (3) talazkida (Lar.): gogo emate
- (4) brobatürrik: probaturik
- (5) Alemaniako gogarpetariak:
- (6) kaltarraiten (Lar.): erasotzen, atakatzen
- (7) küperatü: eskuratu
- (8) gogarpetien (Lar.): prudentziaz beteen
- (9) desterratü: Luis XIV. bortxatu zituen herbestera ihesegitera

Eztait (1) arrazoan daudenez hotxki bizi behar giradiala gure erreligionian eztireneki, ezi güziak girade Adamen seme ta aurhide, erreligionen banaitiak askazigoa desegin eztiro (2), uste badüt nere erreligionia anglesarena beno hobe dela, haren gogoan /354/ khinperra dago (3). Enian (4) ezta legerik harena dezadan guda, berian da hain gizon pherestü nola ni enian, ni enian beno anglesa berian lealago.

Jinkoak eztianez nahi dierri güziek nork bere gisala lezen zerbütza, bere legen arauiala nork daki? Ta sinhestian amorioan ta garbaian (5) dagoela erreligionia igabürra nork eztaki. Arren khiristia hobenena da, eginbide hartan xüxenenik dabilana ta gogoan badüt ni nizala bidetik herratürrik nabilana.

Jenderik ezta aiten erreligionia etzereienik hobenena, hartakoz berri bataren aipamenak ohiltzen eztiana (6). Gauza zaharretan dügü fedía haiñ tinko non sinhets ezpeikiniro gure aitasoak ibili direla bide okherrian; hartako Indianoak zioan nahiago zela bere aitekila (7) infernian, eziez khiristien lagün pharadüsiaren esparantzan. Halako da gizonaren gogomena ustian zaharrago delakoz bere erreligionia den hartakoz hobiago, hala ere nekez goga daite jendía errelijione berriala, bagerik badago (8).

Errelijione egiazkoak berzer eztü mesperetxürrik ekharten, bena bai heek errespetü eskentzen. Errege David bethi bizi izan zen *Hiram Tyr*-eko (9) erregiaren adiskide, Salomon orozbat Jerusalemeko tenpliaren eragiteko, *Seleucos* (10) Asiako erregiak hanko sakrifizioen gastiak bere khostüz ziradian egiten.

- (1) Eztait: eztakit
- (2) eztiro: ez dezaket
- (3) khinperra dago: alderantzia dago
- (4) enian: ene errelijionean ,nire erlijioan



- (5) garbaian: damuan
- (6) ohiltzen eztiana: atera eragiten ez duena
- (7) aitekila: asabekin
- (8) bagerik badago: (azpian ezabatua «batere ezpadü»)
- (9) *Hiram Tyreko*: -969 Tyroko errege, nahiz paganoa izan, Salomon tenploaren eraikitzen lagundu eta Tyroko salerospena garatu.
- (10) *Seleucos*: (-325,-280) Mazedoniar erregeak ez zuen Alexandroren inperio osoaren eskuratzea ardietsi.

Berze errege hanitzek ere oberta (1) izigarriak zütien tenplo hari igorraiten, alabedere pagano ziradian güziak. *Gregoire XIIIk* sokhorri eman zian *Friso* er Espaiñako erregeren kontra, etziradialarik Aita Santiari menpe. Egün oroz dügü printziak errelijione banaitietan bizi direnak algarri sokhorri emaiten.

*Constança Julian* apostata, *Heraclius* (2) *Constantin IV* ta *V.* gerrena menpean, khiristia franko zütien menpe lealenak. *Theodoric*, *Alaric* ta berze *Wandalen* erregeiak orozbat batzuek ziradialarik pagano berziak arrien [sic]/355/errelijione egiazkoaren etsai odolkiroenak ziradian (3).

Errelijioniaren astakürrian (4) zonbat gerla, hari arrotz ziradianak ta kapa haren pian zonbat latzeria ta herio mündian. Zonbat eliza errerik ta zonbat iripedi eskeletürrik. Ezta errelijionerik gerla manhatzen dianik ; güziek bakia die pheredikatzen, phüntü hartan diradialarik bizitzia, zeren errelijionia heen aharren arrazorik eztauke (5).

Nor berian dagoeno, berziak berian beza ütз bizitzera, faltsü heen iretziak (6) izanik ere, hobetzeko Jinkoak printzer eztü eman photeria, bena bai manhia beren hitzaren tieso begiratzia ta beren artian dütien balorakider (7) leal izaitia; hau lizate(ke) egiazki heen errelijionia ta dierrienarena, ihoren esker-niatzia ezi nor bera da bere konzentziaren nausi ta Jinkoa berbera haren akadoi bakoitza. Jinkoak zian, Kain seiñalatü zianian eskümükatü (8) bathüren zütienak erho e'lezen (9) gosez ere hil e'ladin, lür franko eman lantzeko ta hiri ekidatzeko (10) hala nahi zian.

- (1) oberta: eskaintza, ofrenda, oberenda
- (2) *Heraclius*: (575-641) Enperadorea persiarrak garaitu baina leku sainduak galdu
- (3) odolgiroenak: (inbaditzaile guziak ziren odolgiro erlijioa gore behera)
- (4) astakürrian: estakuruan, aitzakian
- (5) heen aharren arrazorik eztauke: heen eztabaideen arrazoinik eztauke

- (6) iretziak: aburuak, opinioneak
- (7) balorakider: balorekidei
- (8) eskümükatü: eskomulgatu
- (9) bathüren zütienak erho e'lezen: topatuko zutenek hil e'lezaten
- (10) hiri ekidatzeko: hiri sortzeko

Jinkoak errelijione banaitiaren gatik, bizian ezetare honetan photererik etziala emaiten inhuri da ageri. hartakoz ere *Abrahamek Abimaleki* balleraki (1) zien egin algarreki *Izakek* ta ber *Abimelek* [sic] Jinkoaren izenian ere zin egin gudarik etziekiela sekulan ta Galaad mendia zedarri (2) zatekiela . Jakobek ta Labanek ekideitzatü (3) zien.

Israelitak bakian bethi berze dierrickila (4) izan ziradian salbü Kananeaneki-la Jinkoak zütialakoz eskümükatü, bena orai eskümükü halakorik iripedier ezte-lakoz sistatzen apostoliak dio «*eskümükatü ,etsai bezala bar eztezagün, gaitzik egin eztezagün, bena bai bonki abalena karidadearen doiala egin bedi*» hau erakhusten dereikünak.

/356/ Dezan norik berak jarraik zeliak (5) eman dereion bürübidia ezi hau da gizonaren eginbidian adra xüxenena (6) ta halako da Apostoliren irakastaldia. Kanon 'khaldiz pharadüsiko borthak (7) eztirade phorrokatzen ezetare heetan jendia bortxaz sar eraziten.

Dezagün arren Jüdioa, Calvinista, Lüttheriana ützen beren sinhestetan katholicak bezain khiristiak dirade bi azkenak; halako Jinkoak nahi ezpalütü, hitz bakhotx nahi bezala lütüke. Jüdioak ta Türkak (8) beren errelijionen gozomen osoan dütü ützen ta ez khiristiarer Israelitek bezain Kananeanen ertzian aritez (9) ez halako manhürik heen kontra egin.

- (1) Abimelek(hebreoz errege seme) Abrahamen anderea bahitu zuen, ustez eta haren alaba zen. (balleraki = hitzarmen)
- (2) zedarri: mugarri
- (3) ekideiztatu: egiaztatu
- (4) berze dierrickila: beste nazionekin
- (5) zeliak: zeruak
- (6) adra xüxenena: arau zuzenena
- (7) pharadüsiko borthak: paradisiko ateak
- (8) Türkak: musulmanak
- (9) Kananeanen ertzian aritez: kananeandarrekin jokatu.

Jinko honaren obra da heregen aldondatzia (1) ta heen salbazionia errekeitatzia (2), kharistienena gerthaldi honez heer bidia xahatzia (3) berzela hel daite Sigismont enberadoreari heltü zereioana, kharisti hüillan güziak (4) Bohemien kontra harmatüririk akhasatü beitzien erresumatik ta haren primü bakhoitza Ladislas bizi llabüragozkitü.

Orozbat gerthü zen Karles V. enberadoreari Alemaniako hereger lüzez gerla eginik, bakia heen nahiala egitera behartü zen (5) bere semia Enberadore ezintü müstürüts (6) ta dolamenez abartüririk, konbentü batetan sarthü hiltzera (7).

Felipe II. haren semiak aitaren herexak (8) nahian jarraiki, herri belgikak zütian phartean galdü, ta berziaren begiramena Austriako askazier eman behartü. Gure Frantzian obra halakoetara Karles IX ta Henrike III nahian atrebitü zonbat ta zonbat zorigaitzetan etzien bizia akabi Mareskal *Montlucek* (9) bere pharte haiñbeste Calbinista [sic] ta heen ministro ürkaerazirik zer pro(be)txü dü errelijioniari küperatü (10), batere Valoisen, Austriasen Kaste-laren ezetare Luisarenetik ezetare *Montlucen* etik üzten bakhoitza ez egon. /357/ Egiptako erregek liberdade osoa iripediari zien üzten; batzuk zezena, berzek horak (11), berzek krokodila zien gurtatzen (12). Zonbaitek die erran halako sofrimentian ta jenden berhez üztian hobekien garhaiteko zela arrazoa.

- (1) heregen aldondatzia: heresen konbertitzea
- (2) errekeitatzia: arduratzea
- (3) xahatzia: garbitzea
- (4) kharisti hüillan güziak: kristau ia guziak
- (5) zen: (azpian «beitzen» ezabatua)
- (6) müstürüts: ahoa bete haginekin
- (7) hiltzera: (azpian «beitzen» ezabatua)
- (8) herexak: aztarnak
- (9) Montluc: (Blaise de Lasseran de Monluc) (1502-1575 Oso zatarra protestanteen ihizean. Ez zen Euskal herrian sortu.
- (10) küperatü: eskuratu
- (11) horak: zakurrak
- (12) gurtatzen: adoratzen

Beharrak dü(tü) bethi errelijioniak bardintü *Josue* Jinkoaren iripediaren ize-nian *Gabaonekila* (1) jüntatü zen ziradialarik pagano ta heer Amorheanen kontra (2) sokhorri eman. *Azak* ere Judeako erregiak Jinkoari leal zenak, errege

*Benadabekis* zerbitzatü zerion pagano zelarik. Orozbat *Achasek* Judeako erregiak asirianak syrianen kontra zütian deithü. *Menahemek* ere Israeliten erregia pakto, *Pul*Asirianen erregiareki, zian egin, diharü ere eman. *Makabeakere* Errumenekin ballerakin etziroena egin? Dezagün arren aithor beharrak errelijione banaite-nak dütiäla izkontzen ta gaistoari eskia bethi eman izan dela sordeitzaren kontra (3), berriz ere sordeitzari sokhorri gaistoa gert'eztadin handiegi.

Printzen tratietan errelijionia dago bethi berhez; heen politikak haren ez-tianian beharrik. Gizonaren lehen ballerakina da Jinkoareki bapteiandeiolakoz hitzeman zereiola leal izanen. Kalbinistek, Lutheranuek, Griegoek ber alaraz-dean (4) baptheiaz dirade sartzen, hartara direlakoz güziak khiristian, dirade anaie; bederak dü bere jaiera(5)bena heen banaitiak ogenik khiristi izenari egin eztiro (6), zeren eta sagramendiaren mugidalda (7) gizonaren photeriak ainbeste ezpeitiro (8), ezetare jaiera batek berziaren khinper (9) züzen habo-rorik haren honkian (10) edo gaitzian erraiteko eziez (11) egiten diradian orenetan (12).

- (1) Josue ta Gabaon: beren artean egin hitzarmenetik Saulek Kanaan herria garaitu
- (2) Amorhenak: Mesopotamian II milenioan Akkaden buru. Amur-rhabi erregea izan ospetsuena haren lege taulak gorde direlako.
- (3) sordeitzaren kontra: txarragoaren kontra
- (4) alarazdean: ausartzian, erabakitasunean
- (5) jaiera: joera
- (6) eztiro: ez dezake
- (7) mugidalda: eragina
- (8) ezpeitiro: ezpaidezake
- (9) berziaren khinper: bestaren alderantziz
- (10) habororik haren honkia: gehiago haren ongian
- (11) ezi ez: ezen ez eta.
- (12) orenetan: orduetan

Jesus Kristen izena da khiristianenak, haren sektariet zombait aldiz iha-rrausi diena (1), bena aize'khalidier (2) bethi xütik egon da. Printzek ere zombait aldiz beren onkarriak borraska heetan nahasi zütielakoz, gerla errelijio-nekoak dirade sorthü beren artian, nahiz nork bere sekta edo fabori ziana balia erazi; bena beren abantailentzat baizik eztiradiano ari iripediak ere sin-hestian errelijioniaren gatik ziradiala gudatzen hartakoz gerla suerte hau da

bethi gaitzena izanik ühaitz odolak (3) ixurearazi, dierriak eskeletü ta erreljioniak irapaizi, irapaizi beno haboro (4) galdü.

Ordian galtzera zabilalako ta erresuma errelijione gabe zelako leziren bazterrian, entzüten ziradian jende zühürren heiagorak (5) Jinkoaren erresuma mantenitü behar zela ta errelijionia segürtatü dialako, batak berzia betiraunden (6) delako ere iripediaren eretzian, dena arima khorpitzian .

Erreljioniak eztütü maite jende ephelak, bero nahi dütü bere adiskidiak, nahi beita arrena garra bihotzian dienak, ezi ephelletik hotziala haiñ mehe da banaitia non erran ahal belaita (7) diradiala ber gauza. Bihotz beroek baizik beha eztaude noiz datekian bakiaren ta akadoiaren (8) besarka erreljionia alageratzen diana ta izigarri Jinkoari laket dena.

Ebanjelioa pheredikatü etzeno mila errelijione faltsük estaltzen zien lürra; Erumanek zienaren gatik Espaiñian, Frantzian ezetare berze lekhetan gerlarik eztü egin izanik ere heekilan banaite handirik, bena nonbait nausitzen ziradiankal (9) hanko Jinkoak Errumarat iripedi (10) /359/ lealtarzünaren berme zütien eramaiten ta han berenekilan izkontzen (11).

- (1) iharrausi : inarrosi, astindu dutena
- (2) aize'khaldir : haize ukaldiei
- (3) ühaitz odolak : basaibai odolak
- (4) irapaizi beno haboro : irabazi baino gehiago
- (5) heiagorak : garrasiak
- (6) betiraunden : eternitatean
- (7) belaita : bailizateke
- (8) akadoiaren(Lar.) : justiziaren
- (9) ziradiankal : ziren bakoitzean
- (10) iripedi (10) : populuen (alegia garaitu herrien)
- (11) izkontzen : ezkontzen

Bena errelijione khristiana agertü bezain sarri faltsü güziak batetan hari etsaitürrik, alde orotarik kaltarraiez ta onkarrariez (1) baizik harez mintzo etzen./359/ Mundian sortzen zen meskabü güzietzaz ziradian khristianak gaizkertiak (2) bizitzen ziradialarik angüriak bezala. Orai aldiz Jüdioak J. K. en jinkotzia ükhatzen deien Erroman berian daude bake osoan. Diano inkisizioniak Trinidadia Jinko bakoitzian gurtatzen ta pürgatorioa ükhatze n, dialako apesak Bazkoz gomatzan (3) diala erreraziten.

Berze elhe halakoetarik dio hau heregek(4) noizpaizko kaltarraitürrik erraiten ondokoek Catholikak papistak dütie deitzen ta berentzat katoliko

izena begirutzen, dioelarik süz garbitü diela errelijionia papistek, jarraiki dü-tien dongetarik (5) ta bere usadio gaistoetarik, bena aipatzen ez tie heen bertarazale (6) famatü Luther ta Calvin heen apostoliak ezetare erraiten ehüntze (7) zointan errelijionia ezarri dien ohiko gisala beztidürük, otsez (8) ordian zen bezala diela jarri, ezi (9) bi apostolü heetarik lehena fraile zen Alemanian, berzia kalonje Frantzian beren irakasdetan (10) izan ziradian griña handietan betzigoetara aharran (11) Espiritu santiak etzütian arren goiargitü, ezetare Jinkoak bidaldeatü (12) ofizio hartako. Nontik arren heen photeria bertar-rant ahal lezen ehün Kontzilioek amabost [sic] ehün urtheetan errelijionia-ren ohore egin zütienak.

- (1) kaltarraiez eta onkarrariez (Lar.): erasoz eta merezimenduz
- (2) gaizkertiak: gaitzez leporatuak
- (3) gomatzen (Lar.): trufatzen, burlatzen
- (4) herege: herese
- (5) dongetarik (Lar.): deabruetarik
- (6) bertarazale: hara ekarle
- (7) ehuntze: mende
- (8) otsez: alegia
- (9) ezi: zeren
- (10) irakasdetan: irakasketetan
- (11) betzigoetara aharran: irainetaraino eztabadan
- (12) bidaldeatu: gidatu

Biz (1) heen errana ezkiribu Santian eztiradiala gure jaunaren legian, bena Elizari gaitzik ezpadie egin, deusere Jinkoaren zerbützian eztenian ego-biarrrik (2) honki die egin ta errigarri (3) bizitzü halakoek nork bere eliza berria nahi ükhen dien obratü ta bi ükhündari heen lanthari (4) Ezta alaba-dere heen fideldarik sinheste tiesoan ezta goenik bere eliza *S. Petri*renena egiazki dela.

/360/ Josefek Jüdioen kondairan, 13. berezitan dereikü erraiten Errumenen Jüdioen kontra gerlaren hatsarrian (5) bi errelijione ziradiala *Cæsareako* hirian, hantik zena Jüdioen galtzepen güzia gerthü. Errelijione banaitetarik lege ta oitüra berri diradialakoz sortzen hantik dira aphezen ta ministrien artian aharrak (6) heen pherediketarik iripedien higuinak ta heetarik gerla odolgarriak.

Prusiako erresuman bada errelijione güzietarik ta heen artian ez aharra bakhoitzik; senthagailla (7) halako lizatekeia printziaren legeen indarretik gerthü bakiak diala han ere egongia? Ez ja arauki haiñbeste dierri banaitetan herrian, ezi arrotz heetan Kalbinista frantsesek saldoa dienak handi ta dierri haren izairitzü bakalda (8) nork eztü ezagützen alabadere Alemanak ta Prusianak bezain mantso daude bakian, hirur Johane Lili bethi (9) bihotzian dütükiela hilartio (10) dioelarik.

- (1) biz: bedi
- (2) egobiarrik (Lar.): pazientziarik
- (3) errigarri: parregarri
- (4) bi ükhündari heen lanthari: bi ukapen .heen landatzaile
- (5) hatsarrian: hasieran
- (6) aharrak: erriertak, liskarrak
- (7) senthagailla: mirari, mirakuilu
- (8) izairitzü bakalda: naturazko taldea  
Frantses saldo horrek eraiki zuen Berlin XVIII. mende hasieran. Haien ondoko asko han bizi da, oraindik.
- (9) Hirur Johane Lili: Frantziako erregeren armak edo flordelisak.  
Hortaz Egiategik erran dezake Oihenarteren gisa «han izanik horra naiz», zeren idazki guzietan sakabanturik dago, gure idazlea Berlinen eta Polonian egon zela soldado.
- (10) bihotzian dütükiela hilartio : bihotzean izango dituztela hilarte.

Khirstia khirstiari, frantzes frantzesari lothürrik, alanoa alanoari bezala (1) zer da hantik heltü, erresumako erikindia (2) herri arrotzetara jestegitürrik (3) erresuma herenaz zelarik flakatürrik ta herenaz haren etsaiak indartürrik (4). Zorigaitz hainbesteren kausa nontik? Erregetzü Valoisco kasta *Karles IX* ta *Henrike III* haur mentsez (5) akabatzerazabiltzalarik, *Guizek* [sic] (6) odol hartarik ama bat ükhen zielakoz Frantzian erregetzia bürian zen lanthatü, bena *Henrike IV*. Nafarrako erregia erresumako primiak zereielakoz threnoaren bidia thapatzen Kalbinista gaitza zelakoz, zioelarik «khoria printze hartara erorten bazen kalbinista zatekiala erresuma oro».

Bertan zütian katholiko güziak lotsatü, batian Aita Santia ta Espaiñako erregia ere Guizakoek (7) nekatüko zütüela kalbinistak ziratekenian büruzagitü (8) harmetara bi althetara ziradian/ 36I/ nor laisterrago lehiatü ordian batak berzia frantzes ziradiala, güziak khirstian, güziak adiskide edo askazi

(9) batetan etsaitürük ta odol egarritürük otsoen ta artzainhoren (10) pare eraunsi ziradian (11). Aphezek alde batetik, ministreak besteetik [sic] arotz bohaderaren (12) ofizioa zieno zinez egiten. Espaiñako erregiak arotz katalaner inkatz beharrazereien zuskitzen (14) ta Erromari harri ezpata zorrotzgeiak hil eraziten.

- (1) lothürük, alanoa alanoari: alano zakurra zakurrari loturik (?!)
- (2) erresumako erikindia: erresumako elitea
- (3) herri arrotzetara jestegitürük: atzerrira iheseginik
- (4) herenaz haren etsaiak indartürük (Luis XIV begi kritikoz dakusa)
- (5) haur mentsez: haur gabez
- (6) Guize: Guise-ko dukea, Lorrenako printzea, halatan ere kanpotar printzea zen German Inperiokoa, ez frantsesa
- (7) Guizakoek: Guisearen inguruan antolatu zen «liga catholica» Euskal Herrian Urtubiko anderea zelarik Espainako erregearentzat protestanteen zelatari eta salatari: hortarako euskaraz XVI mendean hogeit bat gutun idatzi zituenak
- (8) ziratekenian bürüzagitü: izango zirenean buruzagi
- (9) askazi: ahaide, senide
- (10) artzain hora: artzain zakur handi, txuria, otsoen etsaia
- (11) eraunsi ziradian: ari izan ziren, jardun zuten
- (12) arotz bohaderaren: errementari hauspoaren
- (14) inkatz beharra zuskitzen: ikatz beharra hornitzen

Aroztegi (1) heetarik jalki diradian galgiroak zorigaitzak, sakrilegioak, nork erran ahal litiro (2)? Heetarik Frantzia galdia zelarik Jinkoaren esküpetan dagoela ezte (3) düdarik ezen heek zien arren Henrike IV. tronian jarri. Heek ere kalbinistak faboritü dütiara, nork diro ükha (4). Errelijionian daude gogomen banaiteak bakhoizkatü ahal litironak eztzereitzola hala desagrada ageri da, bai etare obra hartara atrebitü diradianak dügü ikhusten, ikhusten ere sekta heen etsaietarik, heen ondokoetarik ere ezti(a)la baratü halere ta sektak daudela xütik.

Gerthaldi lotsagarri heen landan, nola sar daite(ke) gizonaren hünian (5) Lois XIV bere konfessoreaz enganatürük Nanteseko Edita errebokatzera atrebitü zen ta Jesuiten amorioaren gatik bere photerian galtzera herena; zilegi etzaikü Jinkoaren akadoietan so egitia, bena zirelako Jesuitak lür güziaz hügüntürük (6) dirade orai Judioak bezala lür güzian herratürük? (7).



Kalbinistak dirade düdabagerik katolikuen etsai narrikatienak, izan dira heek Engleterrán Judioak Espaiñian izan diradianak. Zeren? Zeren eta Jinkoak toleratzen diano gurtatzen dütianak tolerariak güik ezpeitütügü nahi ta ez-tügülarik aldondatzen (8), gure etsaiak beitütü emendatzen ta hantik gerla haboroenak.

Errelijioneari arrotz osoki diradianak arrapizten (9)gerla haiñ odolgiro dena non errelijioniak deno, zereitzon ohiltzen. O! errelijioniaren zaiñak dau-delarik kharidadian, harek dereiküno manhatzen konzientziak eskernia eztezagün bena medio güziez gogomen banaitiala bakiala jinerazitez ezi gizonaren nazaroa da idiarena, «non etare zemaia latzago, han bur'khaldiak zinezago».

- (1) aroztegi: errementeria
- (2) erran ahal litiro esan ahal letzazke
- (3) ezte: ez da izango
- (4) nork diro ükha: nork dezake uka
- (5) gizonaren hünian: gizonaren burmuinean
- (6) hügüntürik: gorrotaturik
- (7) herratürik: sakabanaturik
- (8) aldondatzen: konbertitzen, fedez aldatzen
- (9) arra pitzen: berriz pitzen

Lutherienek ezetare Kalbinistek Jinko honaren graziaz khiristian diradiala dioe. Jesus Kristen dagoela lealen bakia, hartan die esparantza artekaririk nahi ezte apostolu Elizari tinko daudela ta haren leger leal dirade ustian heen pheredikariak Lutherez ez etare Calvinez hitzik ezte aipatzen errelijioniaren berrizale heen salbatzeko ta berentzat zahartzat beraien primagoaren gatik liburuetan, salbü Ezkiribü Santian mintzo die, diradian Bibliaz; bena ministriak bethi ari diren pheredikietan katoliken kontra bihotzak behazaler khozützen (1) Aita Santia ezti(e)larik berze apezküpiak beno gehiago Elizan, Jinko bezala diela gurtatzen ta her ohoria dielarik santier egiten egiazko idolatrak diradiala. Halako irainez dütie heresiak beren ustekidetan gogortzen ta haborotik haboroala (2) katolikoetarik ürrhüntzen. dena profeziaren otsandia (3) dioanak denbora azkenetan errelijione banaitak berhezirik, batzü berziak erhiaz dütiela eseitüko (4).

Errelijione gabetik erresuma lerden ezta(g)oke, harek dü jendia bilzen ta bizi beharrerat lürrak lantzen ; Alemania nozpait herri oihan ta landa baizik

etziana, jende gütik ta basa zen Strabonen ta Cautaren erraniala, orai da Europako herri ederrena, halakatü dizalako errelijione khristianak. Pagano zenian Engleterra ehünetan gütiago zütian hiriak ta jendia arauiala, ber auke-  
ra egin daiteke erresuma güzietan, habororik diot Luther ta Calvinen sektak  
diabetari katholikak/ 363/ beno diradiala hanitzez gauza ageria dago (5).  
Engleseker berek die aithortzen errelijione berria herrian sarthü geroztik heen  
iripidea heren handi batez emendatürük dagoela (6) Errelijionia bethi  
printzetan iritauraren (7) kapa izan da. Harez zien pheredikariak nafartarrak  
menaldestü (8) Johana Erregiña kontra. orozbat Parisienak Henrike IV  
etsaitü.

- (1) behazaler khozützen: entzuleak kutsatzen
- (2) haborotik haboroala: gehiagotik gehiagora
- (3) otsandia: ospea
- (4) erhiaz dütiela eseitüko: atzaz dituzte... (?)
- (5) Ipar herrietako protestanteen ekonomia garapen ederraren  
azterketa ez da oraingoa.
- (6) herenez emendatürük: herenaz gehiturik
- (7) iritauraren: iraupenaren ala hiritar izaitearen?
- (8) menaldestü (Lar.): jazartu, asaldatu

Mahomet dagokariak (1) bere errelijione faltsiaz harmetzaz beno baliatüz  
(2), zen bere kenkida (3) izigarrietan . Lehenik bere alkoranareki (4) Arabian  
emazpitürük (5) Sirianak ta dierri güziak Hellespone drano (6) amorioz edo  
bortxaz zütian garhaitü ta haren ondokoak Libia ta herri güziak Hongriala  
drano, Grezia ere bere ügarte güziakila batetan menpetü.

Austriako printzek nahian ere Alemania güzia garhaitü, gerla Lutheraner  
ta Kalbinister handirik zian egin, esparantzan heek zütükienian menpetü,  
Frantziak bürüzagitü, llabürzki Europako enberadore ziratekiala; hartakoz ere  
Frantziako errege Alemaner jüntatürük, Austriako handinaia aphalthü [sic]  
(7) behar ükhen zian (8) ta geroztik bere zedarrien barnian baratü (9) Sin-  
hets arren eztezagün errelijioniaren gatik printzeak bethi diradiala gudatzen  
ta Jinko honak eztakiala zertakoz diradian ari, ta haren baimenareki baizik  
obra e'lirokiela (10) honkirik ezetare gaitzik.

- (1) dagokariak (Lar.): iruzurtiak
- (2) harmetzaz beno baliatüz: Espainiaren konkistan badirudi erraz egin zutela musulmanek Bisigodoez aseak baitziren penintsulako jende xeheak edo «iripedia»
- (3) kenkida (Lar.): conquista
- (4) Alkoranareki: Koranarekin
- (5) emazpitürik (Lar.): menpeturik
- (6) Hellespone drano: Hellesponteraino
- (7) aphalthü: beheratu
- (8) behar ükhen zian: behar izan zuen
- (9) zedarien barnean baratü: mugarrien barrenean paratu.
- (10) e'lirokiela: ez lezaketela